

Nikolas Zendoia

Sasi guztien gaiñetik

Argitalpena: Pello Esnal

Auspoa Liburutegia

308

ZENDOIA, Nikolas

Sasi guztien gaiñetik / Nikolas Zendoia ; argitalpena, Pello Esnal. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2008.

312 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 308)

Aurkibidea

LG SS 173-2008. - ISBN 978-84-7907-584-2

I. Esnal, Pello. II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-43"20"

821.361-1"20"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Azalaren argazkilariak: José Usoz eta Ramón Serras

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-584-2

Legezko Gordailua: S.S. 173/08

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Nikolas Zendoia

Sasi guztien gaiñetik

Argitalpena: Pello Esnal



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2008

Aurkezpena

Liburu hau bezalakoek ez dute behar berez eranskin handirik, ez aurretik eta ez atzetik. Gehienez ere, ohar pare bat. Irakurleak bai baitaki egoki irakurtzen eta altxorrek berez aurkitzen eta gozaten, inoren alferrikako laguntzarik gabe.

Hala ere, aurkezpen hau egitea erabaki dut. Izan ere, zenbat aldiz ez ote diogu esan Antonio Zavalari, mesedez, azaltzeko nola egiten duen lan, nola bideratzen dituen idazleen lanak... Kontua ez dela bakarrik liburuak plazaratzea; hori bezain garrantzizkoa dela liburuen barruko historia, besteok ere antzeko lanetan treba gaitzen. Horregatik, besteri hori eskatu ondoren, hona ni hemen orain beste horrenbeste egitera behartua.

Nikolas Zendoia

Aian, Laurgaingo parkean, egin genuen topo elkarrekin, 1985ean uste dut. Larunbata zen, eta parke hartara joanak ginen arratsalde pasa, nor geure aldetik, Nikolas seme txikienarekin eta ni seme-alaba txikiekin. Ez zen, ez, lehen aldia elkar ikusten genuela. Nola izango zen, ba? Etxe berean bizi izanak ginen-eta Zarautzen, uda pare batean, hiruzpalau urte lehenago. Etxe berean bizi, bai; baina, hala ere, inoiz elkarrekin hitz egin ez; patxada pixka batekin, behintzat. “Adio”, “zer moduz?”, “giro ona” eta horrelakoak, bai, noski. Baina hortik aurrera, apenas.

Laurgainen, berriz, derrigorrean hasi behar elkarrekin hizketan, biok bakarrik ginen-eta, hiru umeez aparte. Eta haiek jolasean zebiltzala, biok hizketan hasi. Eta hasi orduko, oraindik ez dakit nola, hor lotu ditut elkarrekin, bat-batean, argazki zahar bateko aurpegi gaztea eta aurrean neukan gizonezkoaren aurpegi distiratsu hura.

–Zu ez zara, ba, Nikolas Zendoia bertsolaria izango?

–Bertsolaria edo... izana, behintzat.

Geroztik, zenbat solasaldi eta berriketa, zenbat hizketa gozo eta lagunarte atsegin!

Eta zenbat bertso-saio, bai Zarautzen, Nikolasen beraren aroztegian; bai Aian, Laurgaingo basozain-etxean, Joxe Mari Lertxundik eta emazte Maria zenak eskainitako babes gozotan! Izango da bazterretan makina bat bertsozale, izango denez, bertso gutxiago entzun eta gozatua. Ia-ia bat-bateko bertsolari izatera ere iritsi nintzen. Lehendik, parte hartua nuen, 1980an, Xenpelar bertsolari-txapelketan. Baina igualako eskarmentua oraingoa. Hala aurkeztu nintzen, 1988an, Aiako eta auzo-herriko bertsolarien txapelketara. Bertso onenaren saria ere eman zidaten, ez pentsa. Joxe Mari Aranalde zen, besteak beste, epaimahaiko.

Auspoa

Orduantxe deitu zidaten Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordera. Orduz geroztik, aukera paregabea izan dut Antonio Zavalaren lana barrutik ezagutzeko, Zavala batzorde horren partaide baita eta orduan buru ere bai. Lehendik gertu samarretik ezagutzen nuen Auspoa liburu saila; orduan 195. zenbakian izango zen. Geroztik, hileroko bileren harian eta bileraz kanpoko harremanen eskutik, aukera ezin hobea izan dut Antonioren egitasmo handia barrutik taupaka sumatzeko eta kanpotik emaitza dariola ikusteko

eta mirestekoko, urratsez urrats, liburuz liburu. Hain da bikaina Zavalaren lana.

Guztira, 350 liburu baino gehiago ditu argitaratuak tolosarrak: gehienak, *Auspoa* sail txikian –hirurehun baino gehiago; Nikolas Zendoiaren hau da 308.a–; hogeita bi, *Auspoa* sail handian; eta hogeita zortzi *Narrativa Popular* gaztelaniazkoan.

Gaztelaniazko lan horiek aparte utzita, *Auspoa* sail bikoi-tzean argitaratua kontuan hartuz eta gauzak soilduz, Antonio Zavalak bi obra handi ondu dituela esan dezakegu: lehena, bertsolaritzari emana; bigarrena, herri-prosa ardatz duena.

Bertsolaritzaren arloan, bertsopaperek bereganatu dute batik bat Zavalaren arreta. Horiek bilduz, aztertuz eta plazaratuz ondu du lehen obra handia, ikerketa-lan zehatz eta zorrotza burutuz. Izan ere, bertsopaperak gure eskuetan jartzeko –gehienak egileka, besteak gaika– beren testuinguruan kokatu dizkigu bai egileak eta bai gaiak, argibide egoki bezain ugariak eskainiz. Ikerketa-lan horren ondorio dira, besteak beste, lehengo ehun bertsolari eta bertso-jartzaile baino gehiagoren biografiak, batzuk soilak eta beste batzuk landu-landuak. Erraz esaten da gero!

Hain zuzen, bertsolari eta bertso-jartzaile horien datuak bilduz egin zuen topo Zavalak herriko jende xehe bezain jakintsu askorekin. Eta ez du etsi harik eta horietako batzuk beren istorioak eta kontakizunak idazten jarri arte. Guztira, oker ez banabil, hogeita hamabi euskal idazle dira. Eta horien idatziek –68 lan dira, 73 liburukitan bilduak– osatzen dute Antonio Zavalaren bigarren obra handia.

Lehenengo obra miresgarria izanik, ez da eskasagoa bigarren hau. Hala, bigarren obra honen zailtasunaz ohartzeko, kontuan izan behar da lehendik ez zegoela horretan ezer egina: ez zegoela eredurik, ez zegoela biderik. Beraz, hutsetik hasi behar izan zuen Zavalak. Hain hutsetik hasi ere!

Lehenik eta behin, idazten jarri behar zuen idazlegai; honek apenas idatzi baitu ezer lehendik. Idazten jarri, non eta euskaraz irakurtzeko ohiturarik gabeko gizartean, zertaz eta jendeak estimatzen ez omen zuen zerbaitez... Eta, gainera, argitaratzeko prestatu idazlana: txukundu, zuzendu, puntuazioa (egoki) jarri, garbira pasa... Eta, azkenik, “sekretario-lan” horiek egin ondoren –horrela deitzen die Zavalak berak–, plazaratu.

Zailtasunak zailtasun, eskuetan dugu tolosarraren lan bikaina. Azken batean, testu-genero berria ondu du: idatzizko molde bihurtu du –horixe da hitz batean testu-generoa: moldea– gauzak ahoz azaltzeko eta kontatzeko erabili ohi den molde.

Izan ere, Antonio Zavala zerbait bada, bide-urratzaile da. Bestek zabaldutako bidean ibiltzeak ez dio kilikarik egiten. Ez du ezerk gehiago tentatzen bide berriak urratu eta zabaltzeak baino. Eta horretan maisu izan da, eta da. Lehenik, garai bateko bertsopaperak biltzen, haien inguruko ikerketak egiten eta argitaratzen. Ondoren, herri-idazleak sortzen eta plazaratzen. Eta, maisu izanik, urratuak eta zabalduak utzi dizkigu bideak, baldin eta horietan barrena ibiltzen segitu nahi badugu.

Ni, behintzat, saiatu naiz pixka bat bigarren egiteko horretan; hain zuzen, Nikolas Zendoia bidelagun dudala. Izan ere...

Asko gozatua naiz lagunartean, besteak beste, Nikolas Zendoia, Joxe Mari Lertxundi, Luis Otamendi, Martin Rezabal “Olaso”, Markos Manterola, Joan Peñagarikano “Artzain”, Manuel Lertxundi “Olaberria” eta Luis Arrillaga zenarekin, horien bertsoak eta pasadizoak entzuten. Baina bertsoek adina gozatzen ninduten kontaketek. Zenbat aldiz ez ote nintzen Antonio Zavalaz gogoratzen. “Zeinen kontalari onak diren! Hauek idazten jarriko bagenitu!”.

Eta orduan ere Antonio Zavalari ikasi nion zer egin. Izan ere, 1991n argitaratu zuen berak Joxe Mari Lertxundiren *Iga-*

roari begira liburua, prosaz idatzia (Auspoa, 214); eta urte batzuk lehenago, 1983an, *Baso tarteko oiua*, hau bertsoz osatua (Auspoa, 167). Zergatik ez saiatu beste horrenbeste egiten Nikolas Zendoiarekin?

Lehen urratsa

Gogoan dut nola deitu zidan Nikolasek igande arratsalde batean –1992ko urria izango zen–, bertso batzuk erakutsi nahi zizkidala-eta. “Txaketa berria” izenekoak ziren (Auspoa, 254: 63-68). Orixe bertsopaper-sarira bidali nahi zituela eta ea garbira pasatzea merezi zuten. Mereziko ez zuten ba! Seinale zuten egilearen eskua: bizia eta grazia zerien, hasi eta buka. Airean idatzi genituen ordenagailuaz, eta postaz bidali Orexarra. Ez ginen haserre, urte hartako Orixe saria irabazi zutela jakin genuenean.

Geroztik, tarteka-marteka, hor erakusten zizkidan Nikolasek bere bertsoak. Eta ilusio handiz bidaltzen genituen, batzuk behintzat, bertsopaper-lehiaketetara. Eta hala, pixkana-pixkana, bertso mordoxka osatu genuen. Antonio Zavalari ere esan genion zertan ari ginen, eta hark baietz: argitaratuko zizkigula.

Eta bertsoak bildu eta liburua prestatzen hasi ginenean, hantxe ikusi nuen hurrengo urratsa egiteko aukera. Izan ere, bertso-etako zenbait gauza ulertzeko, beharrezko iruditzen zitzaidan zenbait argibide ematea. Eta halaxe azaldu nion Nikolasi: kome-ni zela bertsoen aurretik beste atal bat egitea; nahi izanez gero, bertso gutxi batzuk jar zitzala, baina batez ere prosa zati txiki batzuk idatzi beharko zituela. Gaur ez ditut horren beharrezkoak ikusten, baina aitzakiaren bat behar nuen Nikolas idazten jartzeko. Eta halako aukerarik ez nuen berriro erraz izango.

Kontua, behintzat, sinistu egin zidala. Gainera, berehala antolatu genuen liburuaren lehen atal hura, umetako eta ez horren umetako kontuak-eta bilduko zituena. Antolatu eta

egin ere bai. Egin, Nikolasek, jakina; nik, ordenagailuz idatzi. Gustura asko idatzi ere. Bertsoak onak baziren, ez ziren eska-sagoak maleziaz eginarazitako prosa zati haiek. Azkenik, hitzaurrea idatzi –hau ere Nikolasek, nola ez– eta prest genuen *Beranduko birigarroa* liburua, 1997ko Eguberritan. Hurrengo urtean atera zen, Auspoaren 254 zenbakiaz, esan bezala, bi atal dituelarik: “Oroitzapenak” eta “Bertso-sortak”.

Horrelakoetan esan ohi denez, zailena egin genuen; okerrera falta: segida ematea. Eskerrak, jokabidea erakutsiz, Antonio Zavalak lehentxeago plazaratuak zituen Joxe Mari Lertxundiren beste bi liburu: *Sorlekuaren kezka*, bertsoz (1994an; Auspoa, 220) eta *Beti festara begiak*, batez ere prosaz (1996an; Auspoa, 236).

Bigarren urratsa

Eta Nikolasek lanean jarraitu zuen. Bertsoak egin eta egin. Hura jarria eta erraztasuna! Nik, dena den, Nikolasek prosari ere heltzea nahi. Horixe nuen amets, Antonio Zavalaren bigarren obra handia gogo-akuilu.

Ez nintzen konturatzen, nonbait, horrelako lanak ez direla horren erraz egiten. Batetik, idazlegaia idazten jarri beharra dagoela. Eta, bestetik, komeni dela idazlanak plazaratzea, denak bildu eta liburu batean noiz argitaratu zain egon gabe. Eskerrak Nikolas ari zen bertsoak jartzen eta sariketetara bidaltzen, eta sariak irabazten. Baina bertso horiekin bigarren bertso-liburua noiz osatu zain egon beharko ote genuen Nikolasen prosa dastatzeko?

Ehiztaria erbia noiz atera bezala nengoen ni ere aukeraren zain jarria. Eta, azkenean, nahi orduko ez baina, 2000ko iraillean etorri zitzaigun aukera. “Garai bateko baserrietako erro-sarioa” bertsoak bidaliak zituen Nikolasek Ordiziara, Lazkao Txiki bertsopaper-sarira. Eta haiek irabazi lehen saria. Ezagu-

nak nituen bertsoak, eta haien atzean zegoen guztia ere bai. Hura zen momentua.

Hala galdetu nion Nikolasi: “zergatik ez duzu zer bait idazten, bertso hauen azalpena eginez, *El Diario Vasco* egunkarian-edo argitaratzeko?”. Baietz, egingo zuela. Hurrengo deia Felix Ibagutxi kazetariari egin nion: Nikolasek irabazi zuela Lazkao Txiki saria, igandean izango zela sari-banaketa Ordizian eta ea argitaratuko zituen bertsoak eta hauen azalpena, larunbatean-edo. Felixek, berriz, bidaltzeko badaezpada ere; eta ikusiko zuela.

Hurrengo larunbatean, irailaren 9an plazaratu zen Donostiako egunkarian “Garai bateko baserrietako errosarioa” idazlana, hamahiru zortziko txikiz eta prosazko azalpenaz osatua. Izan zen hura irakurri eta bertsoak ere bazituenik konturatu ez zen irakurlerik. Hain du bizia eta bikaina prosa! Hala ere, ni ohartu gabe, mindu egin genituen Ordiziako Argi-Berri elkarreko lagunak, Lazkao Txiki saria urtero zintzo-zintzo antolatzen dutenak, saria eman aurretik argitaratu genituelako bertsoak. Arrazoi zuten. Jakin bezate, dena den, beraiek ere badutela zerikusia Nikolas artikulugilearen lehen plazaratze hartan. Artikulu hori *Egan dijoa* liburuan dago: 87-92. orrialdeetan.

Gero, pixkana-pixkana, beren lekua hartzen joan ziren Nikolasen artikulua *El Diario Vasco*-n, harik eta 2003tik aurrera hileroko-edo bihurtu ziren arte. Orain, berriz, 2007tik hasita, hamabostean behin plazaratzen dira Nikolasen lanak. Eta urte askoan izan dadila.

Liburu hau

Liburu honetan daude bilduak, hain zuzen, *El Diario Vasco*-n 2000ko urritik 2006ra abendura bitartean argitara emandako hirurogeita bi artikulua, egunkarian ateratako ordena berean. Bakoitzari argitaratze-data ere ipini diogu amaieran.

Artikulu horien artean, beste lan bat ere sartu dugu, ordea: “Txori papar-gorri bat” izeneko bertso sorta, berez *Egan dijoa* liburuan joan behar zuena, baina ahaztuta eskuetan geratu zitzaiguna.

Artikulu gehienak lehen aldiz argitaratu bezalaxe doaz orain ere. Beste batzuei aldaketa txikiren batzuk egin dizkiegu. Izan ere, bat edo beste ez ziren egunkarian osorik atera, leku-arazoagatik. Horiek osorik doaz orain. Beste gutxi batzuk, Nikolas Zendoiak berak ukitu ditu, berriro irakurri ondoren, bertsoaren bat-edo erantsiz.

Bestalde, nik neronek ere egin ditut aldaketa apurrak; batik bat, Nikolasek inoiz era batean eta inoiz bestera darabil-tzan forma batzuk bateratze aldera. Hala ere, ez ditut denak bateratu. Besteak beste, egileak idatzi bezalaxe utzi ditut erga-tibo pluralak. Gehien-gehienetan *-ak* darabil Nikolasek (gizona-k, erriak...), baina tarteka *-ek* ere erabiltzen du (gizonek, erriek...). Esan gabe doa, jakina, egilearen beraren oniritzia dutela aldaketa horiek guztiak.

Tartean, argazkiak doaz. Nikolasek berak aukeratuak dira, liburuaren aringarri eta argigarri.

Altxorra

Batzuetan ez gara ohartzen. Baina, gurean, bateratsu ego-kitu zaigu lantzea euskara batua eta euskara zientifikoa. Bes-tela esanda, bateratsu egiten ari gara hiztegi orokorrak eta zientifikoak. Eta bateratsu ari gara jorratzen eguneroko prosa eta prosa zientifikoa. Eta, behin baino gehiagotan, eguneroko prosara eman dugu prosa zientifikoaren baldintza eta ezauga-rrietako bat: unibokotasuna; alegia, hitz bakoitzak esanahi bakarra izan beharra eta esaldi bakoitza beti berdin ulertu beharra... Eta ahaztu egin zaigu, besteak beste, hizkuntzarekin jolas egitea.

Testuinguru horretan, esanahi beteak hartzen du behin batean ezezagun batek Nikolas Zendoari esana: “euskal idazleen artean, zeu zara hizkuntzarekin jolas egiten duzun bakarra”.

Bakarra izan ala ez, bide egokia darama esaldiak. Esan nahi du jolas egitea berezkoa duela hizkuntza naturalen erabilera jatorrak; eta, hain zuzen, hortxe dagoela grazia eta, hortik kanpora, erraz egiten dugula topo eta oztopo graziaz gabeko prosa zurrunarekin.

Askotan, errazegi kontrajartzen ditugu euskalkiak batetik eta euskara batua bestetik, eta errazegi nahasten ditugu hizkuntza naturalaren eta zientifikoaren erabilera-esparruak eta irizpideak... Baina ia denok aitortuko dugu, noski, zer-nolako altxorra daukagun ahozotasunean eta herri-literaturan eta euskalkietan. Eta gehixeago esatera ere ausartzen gara batzuek: horiek ditugula euskara idatziaren eta literatura ororen eta euskara batuaren oinarri, eta arreta handiagoa eskaini beharko liekeela euskararen hizkuntz politikak.

Gauzak bere onetik atera gabe, esanguratsuak zaizkigu, adibidez, Gadamer filosofoak bere maisu izandako Heidegger-i buruz idatzitako hitzok (*Los caminos de Heidegger*: 239. or.; Herder, Bartzelona, 2002):

Todos usamos siempre involuntariamente palabras conceptuales que proceden de la metafísica y que siguen viviendo en el pensamiento sin que lo tengamos en cuenta. Heidegger consiguió desplegar una descomunal capacidad lingüística para conseguir que el lenguaje vuelva a hablar para la filosofía. De esta forma se despiertan muchas cosas, ya que es una herencia grande la que espera ser recibida. Para la lengua alemana son sobre todo la mística cristiana del Maestro Eckhart, la Biblia de Lutero y la fuerza expresiva de nuestros dialectos los que quedan fuera del alcance del lenguaje académico y del habla culta.

Gutako batzuek ere euskalkietan jarriak ditugu begi-bihotzak. Hor dugu altxorra; ez euskara zurrinak eta ez ikuspegi zientifiko hutsak eskaintzen digutena. Eta altxor horren distirara batzuk hementxe ditugu, ezin distiratsuago, Nikolas Zendoiairen liburu honetan.

Altxorrak alderdi asko ditu; eta ez da apalena, noski, Nikolasek darabilen hizkeraren beraren grazia, ahozko hizkeraren isla gardena. Altxorrak, gainera, harri bitxi ugari ere baditu. Orain, hala ere, horietako hiru besterik ez ditut aipatuko. Hortxe daude hirurak “Aiek bai eztaiak” artikuluan.

Ezkontza eta *ezteiak*. Askotan gauza bat eta bera izendatzen dutelakoan gaude; bi hitzak sinonimoak direlakoan, alegia. Ibon Sarasolak, bere *Euskal Hiztegian*, egoki bereizten ditu biak: elizkizuna edo zeremonia da *ezkontza*; *ezteiak*, berriz, ospakizuna, oturuntza edo jaia dira. Bereizketa ilustratzeko, nekez aurkituko dugu Nikolasen artikulua hori baino egokiagorik.

Dia kanpora. Nikolasek umetan entzundakoa du eta horrela idatzi zuen artikuluan: “eta ezkonberriak, iru-lau egunerako dia kanpora [joaten ziran], trena-edo artuta”. Baina ez zekin esaten zer esan nahi duen zehatz-mehatz. Antonio Zavalak eskaini zigun lehen argia. Jatorriz, erdarazko *día de campo* izango dela, seguruenik. Patziku Perurenari zor diogu horren baieztapena. Berak ere jasoa baitu “*dia de kanpo*-tik etorri” bere *Leitzako Errege Erreginak* liburu bikainean (466. or.). Ez al da gauza harrigarria!

Mari xor: Maitxo? Hirugarren harri-bitxi honek urrunago eraman gaitzake, nahiz eta hemen kontuak labainagoak diren. Baina merezi du arriskatzea. Izan ere, aitona ilobari esandako hitzak irakurrita –“Maitxo, ez adi estutu. Nik egingo diñat oea gaztain-egurrarekin, eta amonak egingo omen

din ardi-illezko koltxoi biguna” –, Nikolasi berari galdetu nion zer zen “Maitxo” hori. Honela erantzun zidan: berez, Maria dela; hobeto esanda, horren txikigarria: Mariatxo edo Maritxo (Maitxo); eta lehengo aitonek horrela deitzen zieten la baserriko neska guztiei, erosotasunez-edo.

Horrela gelditu zen kontua, harik eta beste pasarte hau irakurri nuen arte Gadamer-en *Hablando con Heidegger* liburuan (377-378):

El nombre de pila incluso conserva en nuestro mundo social algo de la intimidación y dignidad de la persona. El hecho de que, en tiempos pasados, en las casas de la alta burguesía era habitual llamar a las criadas sucesivas siempre “María” porque era más cómodo a los señores, para la sensibilidad de hoy puede parecer ya una vulneración de la dignidad de la persona.

Ez ote daude, arestian Leitza eta Aia bezala, orain hemen elkarrekin lotuta Alemania eta Euskal Herria? Aurrekoa harri-garria bada, zer ez ote da hau?

Baina jarrai dezagun Maitxo izena bera aztertzen: Maria, Mariatxo, Maritxo, Maitxo... Katearen hurrengo begia ez ote Mari-xor? “Mari-xor” hori, Jose Arratibel beneditarrari zor diogun ipuin baten izenburua da: Mari Errauskineren euskal bertsioetako bat (*Kontu zaarrak*: 115-125; La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1980). Ipuin horretan, Maria izena du alaba gazteenak, eta une batean beste bi ahizpak eta neska-meia “Mari-xor” deitzen hasten zaizkio; izan ere, “ez entzuna egiten zuan eta zerbait gorra ote zan edo”. Baina horrexegatik ote? Argibide hori ez ote da gerora erantsitako argibidieren bat, izen txikigarri horren esanahia atzematen ez eta asmatua?

Ez adiorik

Gehixeago ere luza gaitezke. Baina, hasieran esan dudanez, Nikolasen liburu hau bezalakoek ez dute berez eranskin handirik behar. Argibide batzuk ematearren jardun dut honaino, norbaitentzat baliagarri izan daitezkeelakoan.

Azkeneko hitzak, berriz, Nikolasentzat berarentzat dira. Eskerrik asko, adiskide, altxor bikain hau ere eskaini diguzulako. Eta jarrai idazten orain arte bezala. Nikolas, solas eta jolas.

Zarautzen, 2007ko uztailaren 22an
PELLO ESNAL

Gaztaiñak biltzen

Kaixo, lagunok. Norbaitek esango du: “Nikolas orain ere kontu zaarrekin zetorrek”. Bai. Baiña ez dakienarentzako, kontu zaarra berria da. Or zegok, ba, koxka.

Garai batean, gaztain-biltzeko ibillerak nola bizitzen genituen pixka bat azaltzera natorkizue. Askotan itz egin da “gaztaiña erre jana degu” eta “danboliñean erreak, tarran-tarran” eta “gero a zer aize-tiroak” eta betiko kontu oiek. Nik uste det orrek guztiak itzaurre bat merezi duela.

Gure mutikotako garaian, onela oi zan gaztain-biltzea.

Gaztaindiak zeuden orduan nunai. Baiña gaztaindi zaarrak. Ondozko aundiak, geienak. Nola bildu ain aundiak izanik? Nola eraitsi lakatzak? Begira: orretarako, zardaiak bear izaten ziran.

Zardaia egur mee luzea zan. Bat, luzea: zortzi bat metrokoa. Bestea, motzagoa. Bat, goialdekoak eraisteko. Eta bestea, bealdekoak. Baiña zardaia dalako ori ez zan edozein moduzkoa, e? Urte bat leenagotik billatzen zan mendian. Kostata, gaiñera. Ea nun ainbeste luzekoa! Gaiñera, azala kendu, txuri-txuri egin eta mandioko sapaiari lotu; zuzen egon zedin, eta arintzeko, gogortzeko.

Urrengo urteko gaztain-garaia iristen zanean, aitaren osabak, Martxiel zaarrak, an jeitsiko zuen mandiotik zardai txuri luzea etxe-atarira. Tente jarri eta arri-losa bati kanka-kanka joaraziko zion, eta gure aitari eman:

–Ederki iartu dek. A zer otsa jotzen duen!

Giro ederra zaindu, eta goizean aita joango zan aurrena gaztaiñak botatzera, bere bi zardaiak artuta. Bere arropaz gai-

ñera, jertse lodi bat buruan biltzeko, lakatzek zulatu ez zezaten. Ondoren, iru edo lau mutiko aitonarekin. Atzena, osaba zaarra, idi parearekin, gurdi-kurtola aundiari erantsita. Kurto-la deitzen genion gurdi itxiari. Beste batzuek esaten zioten gurkaja; kajadun gurdia zan, alegia.

Baiña, ori bai: bakoitza bere saskia eta matxardearekin joaten giñan gaztaiñak biltzera. Saskia bete aala, gurdira ustü. Aitak eraitsi aala, guk jaso.

Norbaitek ez badaki matxardea zer dan... Gaztaiñak lurretik saskira jasotzeko egurrezko tresna bat. Saatsa-edo gaztaiña-zepatik makil lodi antzekoa moztu eta ari azal-lakaiña kendu, metro erdi-edo luzekoa, okertu bi puntak elkar jo arte –autsi gabe, jakiña–, puntan lotu, okertutako bueltan artolokotx lodi samarra sartu bere artan, forma artu zezan. Ori udaran egin bear zan, egur berdearekin. Gero, iartutakoan, muturra askatu, eta egiña. Garai bateko illea mozteko eskuko makina bezela erabiltzen zan eskuan: ireki eta itxi, lakatza artu eta lakatza utzi.

Giro leorrean jaso bear izaten zan gaztaiña. Bestela, gero pillan zegoela, lizundu egiten zan, ondu bearrean. Argatik aukeratu oi zan ego-aize giroa.

Gaztain-arbola aundi aiek zein dotoreak jartzen ziran eltzen ziran garaian! Jarri bestaldeko maldatik begira, eta lakatzak ori-ori; orriak ere antzeko, bete-beteak; pago-uso urdiñak alboetako ariztietan, paparoak ezkurrez bapo beteta gaztaintian jolasean... Gaur baiño eskopeta gutxiago zan orduan. Begira jarrita begiak gozaten ziran.

Orrela, goizean asi eta eguerdirako gurdikada bat bete oi zan. Ura eramango zuen Martxiel zaarrak kontu aundiz, bidean lakatzik galdu gabe. Egun artan, berak egingo zituen ukui-lluko lanak. Eta arratsaldean, bigarren gurdikadaren billa. Guk, ordurako, bilduta edukitzen genuen pilla.

Bazkaria, astoan eramaten zigun emakumeren batek. Alajainkoa, an ez zan izaten baba txarrik! “Au ez det nai” eta “ori ez zait gustatzen” eta orrelakorik ere ez. Dena ona eta dena gozoa. Bai orixe! Txakur txikia ere, belarriak tente-tente zituela zai, ogi koxkor bat edo urdai zati bat nork luzatuko ote zion.

Arratsaldeko gurdikada azkarrago osatzen genuen, etxera garaiz etortzearren. Etxera bidean, denok kantari. Orduan ere, Martxiel zaarra atzean uzten genuen, bere idi eta gurdi.

A! Eta leen esatea aaztu egin zait. Gaztaiñek beren izenak zeuzkaten. Onena eta aurrena eltzen zana, iartza. Arbola bera ere sendoa oi zan. Bestea, kelemetza. Ura ere gaztaiña ona zan, pixka bat gorrixegoa. Eta bestea, gaztaiña makatza, txertatu gabea. Aiek gutxi genituen eta beranduago eltzen ziran. Baiña gutxi ematen zuten, eta txerriarentzat edo ganaduren bat gizentzeko-edo bildu oi ziran.

Mandioan ere, pilla bat iartzarekin egiten zan. Eta beste pilla, kelemetzarekin. Naastu gabe, alegia.

Andik aurrera, “kaixo, motel”. Goizean aletu eta gauean jan.

Garai batean naiko
gaztainsi bikaiña.
Aiek eman ziguten
amaika gaztaiña.
Biltzen ere egiten
zan, bai, aalegiña.
Gaur egun dendatikan
erosten da, baiña.

El Diario Vasco: 2000.10.31

Artzaiantzat negu ona

Bai. Artzaiantzat negu ona da daramaguna. Eta aiantzat ona bada, guretzat ere ez da txarra izango.

Aurtengo negua egoaldeko aizearekin daramagu geiena. Aukeran, arroegia ibili zaigu, baiña epeletik beintzat. Badirudi negua ere aldatzen ari zaigula. Sasoi bateko izotz eta jela-kandela aiek orain ez ditu egiten, eta bearrik ere ez daukagu.

Ez dakit aldaketa au zerk ekarri duen. Izan ere, orain erdi fraile diranak asi dira eguraldiari antzematen, eta ez det uste neguari negua egiten uzten diotenik, eta udarari udara. Baiña laga ditzadan berriketak eta ni Joan arira.

Artzaiantzat ezin eta ohea da onelako negua. Edozein lekutan, larrea; larre ona, gaiñera: egunetik egunera punta berritua. Lurra edo zelaiak legor eta ondo bizi daudelarik, ardiek ondo mozten dituzte barrutiak eta ez dute alperrik galzten larrerik. Eguraldi euritsuekin, barrutia lokatz biurtzen dute. Alde ederra dago artzaiantzat.

Ala ere, keجاتu egingo dira. Ala ere, lantuak kontatuko dituzte. Iñoiz ez dizute aitortuko: “Bai; ongi gabiltza aspaldian eta...”, “negu ona daramagu”, eta orrelakorik. Bai, zera! Alderantziz. Egin ezazu proba zelai bazterrean ardi-zai makillaren gaiñean kokotsa jarri eta txistutan ari dan artzaiarekin. “Kaixo, gizon” eta asi izketan. Pasa ezazu ordu erdi bat berarekin. Oso ondo itz egingo dizu, errespetu aundiz. Laster antzemango diozu, ordea, zenbat eta galdera geiago egin, orduan eta erantzun okerragoak emango dizkizula. Eta negarra joko dizu, errukia emateko moduan. Denak berdiñak dira, gaiñera.

Ardia bera ere ez da tontoa izaten, e? Ikusten dutenean artzaia norbaitekin dagoela luzaroan, joan bear ez duten leku-

ra disimulu ederrean joango dira. Eta orduan, jakiña, makilla altxa eta oiuri nori egingo dio?

–Zakurra, zertan ago?

Baiña negurik onena izanda ere, artzaien arazoak negualdean izan oi dira: arkume-jaiotzak, esne-biltzeak, auzoetako larre-barrutiak eskuratu, gazta-egiteak... Goizean, eguna baiño iru bat ordu leenago altxa bearra izaten dute, gero artaldea larreetara ateratzeko, egunaren ondorengo orduak atzea azkurratuz pasako badituzte ere.

Udaldean, ez det uste orrelako lanik izaten dutenik. Bein goiko mendietara igotzen diranean, mendietako erregeak dirala esango nuke. Artzaia eta bere astoa udaran mehoratu egiten dira, zakurrak gose-muturrarekin edukiko badituzte ere. Denentzako feria onik ez.

Artaldeari neguan begiratu edo udaran begiratu, ezberdintasun aundia aurkitzen diot nik. Udaran, mendi zabaletan dabiltzanean, oso banaka daudela iruditzen da. Neguan, alderantziz: barruti txikiagoetan ikusten dira, eta dirudi elkarren enbarazuan dabiltzala. Baiña ez dira aserretzen. Beste aldaketa bat ere bada neguan: arkume txiki pilla bat dabil tartean. Gaiñera, ille aundiagoz daude ardiak neguan.

Giro onean begira egoteko, irudi zoragarria da zelai bateko artaldea: batzuk, lepoko zintzarriekin txilin-txilin joaz; arkume txikienak, meeka, beren amaren billa, titian saio bat egiteko; koxkortutakoak, berriz, saltola, gora, beerra, zearka; pare bat txakur illetsu, bat alde batean eta bestea bestean, ipurdiaren gaiñean jarrita, burua goian tente eta ernai dutela... Ori bai dala berdeguneko argazki obetu eziñekoa.

Askotan esan izan det umeak edo gaztetxoak maizago eraman bear genituzkeela orrela dabillen artaldea erakustera. Oitura on asko ikasi daiteke an, ondo begiratu ezkerero.

Orain, artzai ikasteko eskola-eta ba omen dira Arantzazu alde ortan. Nere tokaio dan Nikolas aundiak-eta omen dute. Barka dezaidatela, baiña erdi fraile oiek zer jakingo dute artzai-kontuetan, iñori erakusteko? Artzai ikasteko, artzantzan ibili bear da; artzantzan, tokaio!

Artzai izatea eta fraile izatea antzeko jotzen ditut nik. Artzaiak, leenengo, ardia maitea izan bear du; gero, lan ura gustatu; eta, gero, aguantatzen duen edo ez. Ba, frailearena, berdiña. Leenengo, Jainkoa maitatu; gero, elizbarrutiko lanak gustatu; eta, gero, aguantatzen duen edo ez.

Auek txantxa batzuk izan dira. Barka. Nik asko estimatzen ditut Nikolas aundia eta ingurukoak. Baiña au bai, e? Bertso-saio bat egiteko desafiatzen det. Agur, tokaio.

Artaldea or dabil
zelaian larrean,
txingor-erauntsi gabe
pake ederrean;
artzaia atsegiñez,
pozik bazterrean...
Alare, izango da
denan bearrean.

Arkume, gazta, mami,
ea zer ez duten,
aukera aundiz nola
eskeintzen diguten.
Eskerrak negu ona
gertatu dan aurten.
Au dena ta geiago
merezi zenuten.

Negu izeneko au
amaitzen da laiste
eta ez dadukazu
zertan egon triste.
Agur, besarkada bat,
ene artzai maite,
udaberria dator
eta poztu zaite.

El Diario Vasco: 2001.02.03

Fedezko ibillerak

Emen naiz, ba, berriz ere trapu zaarrak astindu asmoz-edo, berriketalditxo bat egitera.

Aste Santua pasa berri degun ontan, ni ere jardun naiz azterketa batzuk egiten, batez ere guri erakutsi ziguten fedea-edo zalako ari buruan bira batzuk ematen, naiz eta elizara joan ez, baina Saloura edo Benidorra ere joan gabe.

Leenago, iganderen bat elizara joan gabe norbaitek laga-tzen bazuen, ia barkaeziñezko pekatua zan. Illean bein jau-nartzea, derrigorrezkoa. Urtean beingo pazkoakoa, ori zan ber-riz ortik onerakoa, txartel eta guztizkoa.

Eta, jakiña, dotriñako galderaren bat-edo egin oi zuen apaizak. Bi edo iru gazte joan oi giñan eta...

–Benga, Nikolas. Nun zegok Jainkoa?

–Leku guztietan.

–I, Joxe Mari. Iltzeko nola egon bear dik kristauak?

–Jainkoaren grazian.

–I, Joxe. Zeruan sartzeko nola il bear dik?

–Esku garbiekin, jauna.

–Ondo zegok.

Bein, bazan olaxe gurekin batera joana mutilxaar bat; eta azkeneko galdera, berari:

–Antonio, ik ba al dakik iltzeko nola egon bear duen kris-tauak?

–Bizirik.

Makalagatik alde egin bear izan genuen apaiz luzearen aurretik, txartelarekin edo txartelik gabe.

Urrengo batean, berriz, joan eta:

–Zertara zatozte?

–Txartel billa, pazkoakoa egiteko.

–Ondo zegok. Etxekoei ere esan etortzeko. Aurten ere jendea berandu zebillek.

Pazko egunerako, auzotar denak pazkoakoa eginda egon bear izaten genuen.

Beste betebear bat ere izaten genuen gazteak. Alegia, San Luisen kongregazioa-edo bazan: aitortu eta jaunartu, oizkoa baiño arropa obexeagoekin eta lepotik beera zintzilika zinta medailladuna. Oraindik gogoan det mutil koskorroi amak nola plantxatzen zizkigun zinta txuri-urdira aiek. Ez dakit Errealekoak ziran-edo. Ederki ematen zuen zinta plantxatuak erdoitutako medaillarekin!

Eta neskak, berriz, beste izen batekin joaten ziran. *Hijas de María* edo orrelako zerbait zan. Ura beste konpainiaren bat izango zan, noski. Aurpegia eta burua manteliña deitzen zitzaion trapu beltz sareko batekin estalita, sekula katillurik puskatu ez balute bezela.

Eta ori ez da dena. *Hijas de María* dalako orrek erromerietarako ere bazuen eragiña mutil itsusi samarrak giñanon-tzako. Bai, ba! Orduantxe lortu zan baimena dantza lotuan egiteko eta abar. Arte bitarte, beti dantza-saltuan. Neska pare dantza elduan zebillela mutillak dantza eskatzera joaten giñanean, ez bagiñan euren gustokoak, aitzaki polita asmatzen zuten, ezetz esan beharrean:

–*Hijas de María* gera eta mutillekin ez degu dantza egiten.

–Bai. Eta gu *Hijos de San José* gaitun. Aditu al den? Txoro arraioak!

Kalabaza emanda
giñuzen bialtzen:
ez zutela egin nai
mutillekin baltsen.
Bazekiñagu gero
erosten ta saltzen!
Kosta bear zaizue
obeak billatzen.

Ni ez naiz kejatzen oitura aiek gatik. Baiña bai ondoren esango ditudan auek gatik. Nola ez, ba?

Gu bizi giñan baserritik elizara –au da, Izetatik Urdaneta-
ra– bi kilometro juxtu ziran. Orain ere ala egongo dira. Or-
duan ez zegoen, ordea, automobil-biderik. Eta automobillik
zanik ere ez genekien; Erregetan amak ekartzen zituen aiek
izan ezik. Tipi-tapa, oiñez joan eta oiñez etorri, giro ona bazan
eta txarra bazan. Igandeetan, bi meza izaten ziran beti: goize-
ko 8etan, eta 10etan meza nagusia. Gazte jendea goiz-mezara
joaten giñan.

Neguan zer ibillera! Goizeko seiretan joko zuen txirriña
esnagaillu lapiko antzeko ark. Jo bakarrik ez. Taaarra!, maai
gain guztia pasako zuen; eta gero, danba!, lurrera. Eta artean
ere, segi zibotaren antzera. Bearko esnatu bizirik zegoena.
Artu bakoitzak balde bana, eta ukuillura aitari laguntzera.
Bei pare bana jetzi, amak berotutako kafesnari zurrut egin,
arropa garbiak jantzi eta elizara bisutsetan. Zakuak edo gana-
du-mantak artu burutik eta, ala ere, blai eginda iritsi. Ordu
erdiko bidea.

Elizan ez zegoen berogaillurik. Otza galanta! Apaiza bai
bapo-bapo, lepo ederrarekin, leor-leor. Eta gu lurruna boteaz,
eztulka. Orduan, meza luzea izaten zan, gaiñera. Irteterako,
eliza berotzen genuen, alajainkoa!

Etxera abiatzerako, kopa erdika bana ardo goxo edan Serorategin, eta neska eta mutil naasian etxera. Eskerrak bidean arratsalderako tratuak iñoiz egiten genituen neskekin. Zer-baitetarako balio izan zigun.

Nik egundoko pena daukat ibillera aiek egiña. Naiko loa egin gabe, igandetan beenik, meza zala eta ez zala. A! Eta leenago nioena: jaunartze-eguna bazan, zapatak eskuan artuta bidean. Zimiterioan aldatu eta barrura. Zapata txarolezkoak eta galtzetan beera ura! Illunpean luzitzen genuen, aal zan modura. Orduan ez zan ordu-aldaketarik. Goizeko illunpetan egiten genituen maniobra aiek denak.

Gaur, pasadizo auek seme-alabei kontatzen lotsatu egin bear. Ez dizute entzungo. Edo entzuten badute, alako aurpegi irribarrezko bat jarriko dizute. Eta beatza belarri goiko aldera jasoaz, galdetuko dizute:

–Zer? Burutik ez zeundetean ondo-edo?

Elizara bidean
uda eta negu,
gaztearo guztia
pasata gaude gu.
Zerurik baldin bada,
erreguz erregu
bapo irabazia
edukiko degu.

Aste Santua ere gaur baiño serioago artzen zan. Asteazken Santu ere bazan orduan. Gaztetxook joaten giñan elizara. Joan bearko! Zintzo, gaiñera. Arratsaldez izaten zan elizkizun txiki bat. *Tinieblas* edo olako izena zuen. Ori erderaz izango da, noski. Dana dala, gustoko elizkizuna genuen ura. Bakoitzak tresna bana bagenuen eskuetan. Jakiña, etxean egindako tres-

nak: aitonak edo aitak-edo. Batzuek matraka, edo karraka, nai dezuen bezela; besteok mazona; besteak ezpata gisako egur bat. Etxe bakoitzean zer arotz zegoen, alako tresna azaltzen zan. Disimulu ederrean abildadeak bistaratzen ziran.

Etsaiari burua zapaltzeko omen ziran aiek. Orain baiño errezagoa edukiko zuen orduan. Elizkizun erdian-edo apaizak agintzen zigunean, an asten giñan denak batera, matrakadunek matrakari eragiten, tarrrrra!; besteak mazoekin aulkiei danbaka. Ura tirripi-tarrapa, elizako aulki guztiei azpitik pipi-autsa zeriela! Armiarma txikiren bat irteten bazan, ari ere, zanba!, ankarekin. An ez zan iñor salbatzen.

Alako batean, apaizak besoa jasoko zuen, eta denak isildu.

–Geratu zaitezte, mutillak, aulkiak txikitu baiño leen!

Ostegun eta Ostiral Santuz, jendea errira jeisten zan sermoietera eta prozesioara arratsaldez, etxeko arropa onenekin. Elkarrengatik maiseaketa ere bai: “alakov traje berria egin dik” eta “alako señoarak gona pligatua erosi omen din”, eta dena olakoa.

Iñungo sermoilaririk onenak egun aietan ikusten ziran. Kulpitoetara igota, aiek zaratak, tarteka ukabilekin kulpittoa joaz.

Gero, prozesioa, kantatu, errezatu, txikito batzuk artu... Bai, ba! Tabernak zabalik egoten ziran-eta. Santuekin zijoaztenak mantxo-mantxo, eta jendea aspertu ere bai. Eta, jakiña, parean zegoen tabernara, zaszt! Eta leen aurrean zijoaztenak, gero atzeko filan. Orrela izaten zan kalejira ura.

Urteko mozkorrik aundienak egun aietan arrapatzen ziran. Baiña egun berean barkatuak geratzen zitzaizkien, egun aiek barkamenezkoak ziralako.

Zer pekatu txikiak, e? Orain, berriz, oporretara. Kaixo, motel!

Aste Santuko elizkizunak
bazuen naiko meritu.
Errezatu ta kantatu gabe
ezin zan iñor gelditu.
Kanpaiak blin-blan, blin-blan asita,
prozesioa abitu,
santu aundiak kalean zear
ia-ia ezin kabitu,
aizea bazan autsak kendu ta
euria bazan garbitu.

El Diario Vasco: 2001.05.06

Neska-laguntzea eta txakil-ardoa

Aupa, lagunok! Txakil-ardoa zeri deitzen diodan jende askok ez du jakingo. Mutil-ardoa, bai.

Gu gazteak giñan garaian, auzoetako jaiak ziranean, mutil-ardoa deitzen zitzaion ardo-barrika bati. Ori izaten zan jaien bezperan ekartzen zana idi pareta eta gurdiarekin. Jartzen zan erromeria egiten zan mandio-bazter batean, eta ardo artatik naikoa ematen zitzaien urrunetik erromerira zetozenei, naiz eta auzo berekoak ez izan. Jakiña, urrengo, beste auzoetan jaiak zituztenean, guretzat ere berdin izaten zan ardoa utsean; batez beste, kitoan.

Orri deitzen zitzaion mutil-ardoa. Dantzan egiten ez zutenak bazter artatik ez ziran mugitu ere egiten. *Galletas María* jan raka-raka eta sarri ireki kanilla. Aurrenetik tragoxka eta gero tragoak. Ori marka izaten zan, e! Geroz ta gutxiago bear eta geroz ta trago aundiagoak egin! Atxur ederrrik arrapatzen zan. Bai arraioa! Azkenerako, bakarren bat izaten zan zezena toreatzera balijoa bezela neska tartera irteten zana, txapela ez galtzarren esku bat buruan jarri eta beste eskua nun zuen ez zekiela. Egitzako erromeria orduan asten zan.

Baiña txakil-ardoa zer da, ba? Egon, egon pixka bat. Aurreraxeago da ori esateko garaia. Leenengo, neska-laguntzera joan bear degu.

Erromeria, illundu eta bereala amaitzen zan. Eta orduan neskei etxera lagundu oi zitzaien. Aal zuena aal zuenarengana joan oi giñan. Dantza-garaian norbaitek tratua egin bazuen, ño! Naiko suerte. Neskak ere baziran gero ziran bezelakoak!

Arratsalde osoa batzuekin dantzan ibili, eta illunabarrean etxera beste batekin.

Leen esan dedan bazterrean egondako aiek izaten ziran lotsa gutxien zutenak, pixka bat illundutakoan. Aien zala-partak! Aien azkar mugitu bearra! Aien lokatz-astintzea! Orduan ez genuen automobil-biderik eta automobillik. Giro txarra bazan, lokatza. Eta ona bazan, autsa. Batzuek aruntza eta besteak onuntza, baiña denok nai genuena zan neska-laguntza.

Erromeri ondoren,
illunabarretan,
bakoitza saiatzen zan
bere larreetan.
Bai giro ona bazan,
baita ere txarretan,
zipriztiña ugari
galtza-barreinetan.

Sakabanatzen giñan
nik ez dakit nora:
batzuek beera ta
beste batzuk gora,
zortetik gabekoak
karta mus-jokora,
naiko edan gabeak
barrika ondora.

Baiña txakil-ardoa noiz? Laster-laster. Ari gera irabazten.

Neska-laguntzea ere era askotakoa izaten zan: batzuetan, gustora samar etorri buelta eginda; besteetan, “joan ez banintz, obe”.

Izan ere, orduan neska izuak oi ziran; asko, beintzat. Edo itxura ori egiten zuten. Beste batzuk, ba, or nunbait: pixka bat gerritik eltzen uzten zutenak; baiña joan-etorria egin ezker, kontatzeko moduan. Eta ez zan gutxi. Ez genuen, ez, pekatu aundirik egiten. Ezer ez egiña pekatu. Orixe.

Batzuekin erreza zegoen, ba, pekatu egiten! Onako au ere gertatzen bait zan: neska pare bat abiatu pixka bat ezkutuka etxera, berrogei mutil irten atzetik aien ondoren, iru edo laugarren zijoanak neskari, da!, kolpea, eta neska jiratu eta aurrenekoari, dale!, masaillekoa.

Ni joanda nago neska-laguntzera, ordubete pasako bidean oso gutxi itz egiñez elkarri. Bakarrik ez joatearren onartu nin-duen ondoan. Eta espaldatik eldu, eta segi. Tuntun ark ez nin-duen gogokoa izango, eta aguanta ezak ura! Esku-argi edo linterna-argiaren pila dena gastatu, bai! Gero amari esan bear berria ekartzeko.

–Atzo ere noraiño joanda ibili ote zerate? Ez dezue merezi txatxu arrene oiek!

Betiko kontua.

Bazan beste neska polit bat, baiña alu samarra etxera laguntzeko. Pixka bat lagatzen zuen lepotik elduta joaten; baiña etxe ondora iritsitakoan, betikoa egin oi zuen: taka!, eskua kendu arazi espaldatik eta metro bat ingurura jarri besoak tolestatuta. Esan kontua eta esan kontua, txoliña bezela. Zuaitz aundi baten ondoan egon oi giñan. Ala, kristoren otza zan batean: “gaur ez didan adarrik joko”. Betiko zirkua egin zuen eta, “a, bai?”, neu jarri zuaitzaren babesean eta bera aize otzetan. Ni ere, esan eta esan kontuak. Azkenerako oztu zan koitadua. Errespetu ederrean etorri zala ondora! Bai, ba: erakutsi egin bear iru eta bi zenbat diran!

Dana dala, taldeko lagun zintzo bezela elkar tratatu oi genuen. Eta, gaiñera, zenbaiti kontuz asi igurtzitxoren bat-edo

egiten! “Ospa!”, eta kateko txakurra askatutakoak ere baziran gero! Konfesatzera joanda, ori ez zioten apaizari esango. Baiña zein zan suertoso, txakurraren aurrean korrika-saio ederra egin bear.

Esan dezadan, bada, zer dan txakil-ardoa.

Neska ederrari edo dotore bati laguntzen zionak, berriro tabernara lagunetara etorritakoan, txakil-ardoa atera bear izaten zuen. Derrigorra ez zan; baiña lagunak ematen zuten tabarra ez jasotzearren, pakeagatik, atera egin bear denei baxoerdi bana ardo. Gaiñera, adarra jotzearren, mostradorean zai egongo ziran, e!, sei edo zazpi lotsa gutxirekin.

Bagenekien neska eder batekin joandakoa tabernara arro azaltzen zala. Orduan aprobetxa. Ogitartekoa ere jan oi genuen ezer edan gabe, gero txakil-ardoa edatearren. Pezta bat aurreratu! Txarra uan, ba!

Bazituen, ordea, beste arazo batzuk ere txakil-ardoak. Zera: txakilla mugitu gabe txakil-ardoa ateratzen! Dediooo: nor bere burua engaiñatzea! Bestea, amak emandako bost durokotik sei edo zazpi pezetako erronda ordaintzea. Pufa! Orixe baiño geiago maite bearra zegoen dirua.

Eta ori ez da okerrena. Txakurraren iesi joan zan ari ere tokatu egiten zitzaion txakil-ardoa ateratzea.

Adio!

El Diario Vasco: 2001.07.01

Jo degu sagarra

Jo degu, bai, sagarra. Leengo erara: eskuz.

Aiako Aialdeburu baserrian izan nintzan eginkizun batera joanda, leengo irailaren 29an, larunbatez. Oso familia ezaguna det angoa. Iruntxiberritarrak bizi dira orain baserri ortan. Jende ona.

An ari ziran, mandio bazterrean, antziñako matxaka zaarra oliotzen eta goxatzen, bi bolante aundi aietan gizon bana jarri eta samurrago eragin zezaioten.

Aitonak ala esan zidan:

–Urtean bein bakarrik ibiltzen degu eta nagü samarra dago. Txistu batzuk ere jotzen ditu. Eta oliorik bota ezean, zaila egoten da eragiten.

Bai. Ni ere probatu nintzan. Eta neretzat, oliotuta ere, naiko zaila bazegoen. Txistu-ots ori berezia izaten da: fiii eta fiii. Baiña azkenerako aldegin zioten txistu-otsak. Bai guri ere bizkarreko otzak.

Txandaka jardun giñan eragiten bikoteak. Auzotarrak ere bazeuden laguntzera joanak. Eskerrak aiei.

Lontxo osaba zaarrak beteko zituela otarrak. Eta, ark bete aala ustutzen baziran, laster joko zirala ango sagarrak. Egin giñuzen parre edarrak!

Batzuek otarra bete, besteak matxakara bota, eta besteak binaka eragin. Orrela txikitutako sagarra, patsa deitzen zaiona, tolarera erortzen da. Eta jakiña: ura zabaldu eta berdin-berdin laga bear izaten da tolarean. Beste lagun pare bat orretan!

Aitona Antonio ere sasoiko dago oraindik bere irurogeita amaika urterekin. Eta umorez ere ondo. Amona Pantxika ere antxe, ba, laguntzen. Eta gutxien egin zuena ez zan bera.

Ala esan zion aitonak, lanak puxka bat aurreratu ziranean:

–Tira. Sukalde aldera joan bearko dezu amaiketako jar-tzera. Auek ez ziran etorriko guri laguntzera bakarrik.

Umore-puntuz eta dotore esana.

Baiña amona segitu-segituan ez zan joan, e? Gustora zebillen nunbait saltsan. Bereala etorri zan berriz ere botilla ardo ederrarekin. Ura bai amona!

Tragoxka bana eginda pixka bat berritu giñan. Eta atsedean artu.

Laguntzera joandako auzotarrak ziran geien egin zutenak. Joxe Antonio Zatainek ere a zer izerdi-patsa atera zuena. Bai eragin ere. Esan ere egin nion:

–Errusian pasa dituken urteetan ez uen orrenbeste izerdi botako.

Nun asten zait bertsotan, alajaiña!

Egia dek bai izan
naizela Rusian.
Eta an egondu nauk
denbora luzian,
aal nuena egiñez,
aal nuen guzian.
An ere ez dek jaten
lan egin ezian.

Errusiara joan baiño leen ere, bertsolaria zan Zatain. Eta pozten naiz sen ori galdu ez duelako. Ori bakarrik ez. An urte batzuk pasa, ango emakume batekin ezkondu, eta orain emen

bizi dira. Emazteari euskeraz erakusten ari da. Eta nola mol-datzen dalako, gaiñera, euskeraz emaztea! Oiek dituk pulamentuak, oiek!

Alako batean, amaitu genuen gure sagar-jotzea. Osaba Lontxok:

–Beno. Goazen sukaldera denok, onezkero zerbait pronto egongo da-ta.

Bi aldiz esan bearrik ez zegoen, ez. An joan giñan bata bestearen atzetik. Zerbait baiño geiago zegoen an. Amabietan egindako amaiketakoarekin amaitu genuen gure sagar-jotzea. Gaiñera, San Martiñetan ilko duten txerriaren txorixoak jatera konbidatuak geratu giñan.

Matxaka zaarra zegon
ganbaran jaso,
antziñakoa baiña
oraindik osoa.
Ari eragitea
naiko nekosoa,
baiña baietz atera
sagardo gozoa.

Sagar-jotze au egitan egin degu, matxaka zaarra an dago-elako. Ez det esan nai beste munduko gauzarik egin genuenik. Baizik adierazi leen-leen orrela zala sagar-jotzea. Baita gurean ere: Izetan.

Geroago asi giñan, motor zaarren bat inguratuta, polea borobil bat egin egurrezkoa eta jarri motorretik korrea biurri bat, bli-bla, bli-bla, bli-bla, batzuetan atera, besteetan eten. Askotan, eskuz azkarrago jo zitekeen motorrez baiño.

Gure txiki-denboran, bi baserriren artean genuen tolarea, bere motor, matxaka eta ardatz. Ibiltzen giñan naiko lardats.

Motor zaar ura martxan jartzeko, aldeko aitak iru bat egun pasatzen zituen udazkenean. Gogoan det nolakoa zan:



Aiako Aialdeburu baserriko aitona-amonak sagar jotzen.

Argazkia: Joxe Mari Albeniz.

egurrezko armazoa; polea burnizko aundi bat, arrankatzen zanean polearen kargak lagundu zezaion; eta kaldera eun litro ur baiño geiago kabitzen zituena, ur asko bear bait zuen ez berotzeko.

Kaldera artan, ura saltoka ibiltzen zan motorraren dardareekin, kazo batean ura irakiten dagoenean bezela. Ez zan gutxiagotarako!

Urrengo egunean, patsa bildu ardatz ingurura eta kargatu egurrez; asi ardatzaren anilloari eragiten, burnizko palanka

luze bat jarrita. Asieratik erraz. Baiña, estutzen zijoan bezela, zailtzen joaten zan.

Orduan ere, auzo-laguntzaz egiten ziran lan aiek. Dozena-erdi bat gizon palankari elduta, iaup eta iaup!

–Benga, mutillak, denak batera. Jooo, aup! Jooo, aup!

Kaka irten bearrean, baiña urte guztirako sagardo ederra orrela egiten zan. Eta ez da gutxi.

Antziñako ekintzak
dauzkagu goguan.
Zerbait ulertzen degu
sagardo-munduan.
Naiz ta aurrerapenik
ez izan orduan,
orain bezain gozoa
egiten genduan.

El Diario Vasco: 2001.10.25

Garai bateko arto-ereite eta arto-zuritzeak

Leen, bai, egiten zan arto-zuritze jatorra. Orain, ez dakit artoa nun ereiten dan ere. Gure inguru auetan, beintzat, aspal-di laga zitzaion lan orri.

Arto-zuritzearekin amaituko badet ere gaurko idazlan au, azaldu ditzadan argi eta garbi gure baserrietan nola egin oi genituen artoaren lanak.

San Isidroetan, bete-betea izan oi giñan artoak ereiten. Apirillaren erdialdera asiko giñan lur-gorriketan, gure soro aldapatsu aietan. Eta jarrai, aalik eta ongien arrotu eta gozatu arte gure arto-lurrak. Neguan simaurrez betetako ukuilluak ederki asko ustutzen ziran. Eta zabaldu eta naastu ere bai lur gorrituetan, perfume-usai ederrarekin, alajainkoa eta bi.

Baiña, ori bai, musika eta guzti; gurdi-txistuak, alegia. Jakiña: simaurrak zuen zamarekin gurdi-ardatza berotzen zanean, soiñu dotorea jotzen zuen. Idi pareak zer martxa zera-man, alako konpasa musikak. Bide-estrategian zenbat drangu, ainbeste nota, dringi-dranga. Gaiñera, gurdi bakoitzak soiñu ezberdiña zuen. Ori, ardatzaren egurraren arabera oi zan. Norbaitek parre egingo du; baiña zenbait gurdiren txistua, dotoretan dotorea ere bazan. Oraindik geiago esango det: inguruetako baserrietako amar-dozena bat gurdi txistua joaz zijoazenean, eta kukua zuaitz tartetik kukuka, ura entzutekoa zan gero! Musika-mota ari solfeoa jarriko zion abillik oraindik ez da jaio.

Orrela burutu oi zan arto-ereitea. Ez pentsa orduan traktorerik zanik ere. Orduko tramankuluak ziran goldea, area, naa-

rra, alper-arria, karramarroa, txerrena, laukoa; eta tiraka, idi
parea. Eta bei parea ere bai. Batzuetan, atoian ere jarri bearra
izaten zan bei parea: idiei tiraka alegia beiak, zerbait astuna
edo goraka eramán bear bazan. Orri deitzen zitzaion atoia.

Garai aietan baserrietan
naiko ekintza garratzak.
Sarri ibili izandu giñan
usaidun eta narratsak.
Egun luzeak zuen nekea
ezin arindu arratsak.
Diodan eran bizi genitun
gure lurreko labrantzak.
Amaitu ziran gurdi-txistuak,
baita ere gurdi-ardatzak.

Illabetera-edo, artajorra asten zan. Aurrena ereindako
soroa jorratu aurrena, jarraian denak jorratu arte. Iru-lau bat
lagun, bakoitza aitzur banarekin, tarra-tarra, egunez egun.
Leenengo jorra axala izaten zan: aitzurra pasa bakarrik. Eta
bigarren jorra, lurrez artoa betetzea, aizeak okertu ez zezan.

Esaera zan San Pedrotarako belea estaltzeko ainbesteko
arto-soroa eduki bear zala. Abuztuaren aurrenaldian, loretan
ziran gure arto-soroak, dotore asko. Tartean, erremolatxa ere
jarria izaten genuen. Lorea klaka-klaka autsi eta erremolatxa-
ostoeekin naastuta ganadu-janari bikaiña lortzen zan. Babar-
runa ere artoarekin batera egiten zan. Arto-pauso bakoitzak
bazuen bere babarrun-aiena.

San Migeletan, arto-orriak biltzen izan oi giñan. Bi eskue-
kin goitik beera rasta-rasta kentzen genizkion orriak. Eskuka-
da egindakoan, bi orri zimelekin lotu eta atzeko arto-kirtene-
an rast sartu eta laga. Eta segi lan bera egiten. Zortzi bat egu-

nera, iartutakoan jaso, gurdia kargatu eta etxera. Ganaduaren-tzat, jakiña. Orduan, ganaduak ez ziran mendian mantentzen. Etxean, ukuillua bete ganadu –txaal, bei, idi, asto, txerri, ardi eta oillo–, artoak denentzako emaitza zuen. Aberatsa benetan.

Leenago berde zan arto-sorosa buru bistan eta kolorez alda-tua geratzen zan, bere babarrun-mardak zintzilik zituela. Orduan bai azkar eltzen zirala babarrunak! Urriko ego-aizeetan, otarrak eta zakuak artu eta babarrun-biltzea, uso urdiñak nola pasatzen ziran ikusiz. Gaur baiño beeragotik joaten ziran orduan; eskope-ta gutxi bait-zan garai artan. Orain, berriz, eiztaria besterik ez dago udazkenean, etorriko ez diran usoen zai. Bereala jarriko ziran arto-buruak beera begira, beren txortenetan. San Martiñe-tarako, artoak etxera idiz eta gurdiz. Eta bazterretako kalabaza ori aiek ere bai, txekorrenzako eta txerrientzako.

Arto, babarrun ta dena
sartu etxean barrena.
Txantxangorrien etorrera ta
usoak urrena.
Ego-aize epelena.
Uraxe zan udazkena,
urte osoak izan oi zuen
garai politena.

Mandioan, arto pilla galanta egiten zan. Baiña aiek zuritu egin bear ziran; artaburua zorrotik kendu, alegia. Ari deitzen zitzaion arto-zuritzea.

Auzolanean egin oi zan askotan arto-zuritzea, San Martin inguruan; ordurako, txerri motza ere kurrinkak egiña izaten zan-eta. Artoak zuritutakoan, solomo eta lukainka edo odol-ki... denetik ukitzeko arriskua zegoen, eta pozik joan oi giñan etxe batetik bestera.

Zortzi-amar lagun eseri oi ziran arto pillaren bueltan. Bakoitzak bere silla eramaten zuen etxetik etxera. Etxeko aita geratu oi zan ganadu-gobernuan. Beste denak, arto-zuritzera mandiora. Ama, sukaldean afari goxoa denentzako prestatzen.

Alako batean, amona an etorriko zan errosarioa errezatze-
ra. Bitartean, armoni alaia egoten zan arto-zuritzailleen arte-
an: ipuia eta abarra. Erdialdean jartzen zan eta eraso: “Guru-
tze santuaren seiñaleagatik...”. Eta denak txapelak erantzi eta
bekokiko gurutzeak egiten. Mir-mir-mir eta mar-mar-mar,
ziran eta ez ziran santuen izenak denak esan, eta artean ere
segi egiten zuen. Gu mutikoak lo artzen genuen orduan. Eta
koskatik atzera geratzen giñan zorroz tapatuta. Gero, nun ote
giñan eta zera: alako batean, an azalduko giñan bat alde bate-
an eta bestea bestean, ao-zabalka. Eskerrak, ordurako amona
isilduta zegoen. Nai baiño leen ez zan izaten afaritarako deia.

Antziñako oiturak
gutziz ondraduak:
ekintzaz neurtzen ziran
auzoen graduak,
eskeiñiaz besoak
edo ganaduak...
Tratu jatorrak baiña
aspaldi galduak.

El Diario Vasco: 2001.11.25

Laiariak

Gure soro-lurretan, garia ereiten zan latz, garai batean, abenduaren aurrealdean asita.

Lur geienak goldez jiratzen ziran; idi pare tajuzkoak ere nunai bait zeuden gure baserrietan, orduan. Baiña zenbait aldapatan ez zegoen golde eta idi parerik ibiltzerik. Beraz, leku aiek laitu egiten ziran; laiaz lurra jiratu, alegia. An asten zitzaizkigun komeriak!

Laiarien lana zearkakoa da: lurra zearretara jiratu; ez, goitik beera. Ala balitz, erraza izango zan. Baiña lurrak soro-barrena kargatzen zuenean, badakigu zer egin bear izaten zan: iru-lau urtez bein, soro-barreneko lurrak soro-goenera jaso idiz eta gurdiz, edo aal zan bezala. Bestela, soro pintoa izaten zan gero; alegia, barren aldean kolore oneko landare berde sendoa, eta goen aldera orixka eta aula. Ari deitzen genion soro pintoa. Eta ori ez zuten onartzen gure baserrietako nagusiek.

Laiariak auzoetatik-edo ekartzen ziran. Auzolana zan ori ere. Baiña ez auzolan arrunta; pixka bat berezia. Luzean edo motzean, gizon edo mutil berdintsuak komeni izaten ziran, zoia osatzeko. Lau zoi edo sei zoi izan oi ziran. Aldapa aundia bazan, lauко zoiarentzat egiten zan ebakia. Eta aldapa gutxiago bazan, berriz, seiko zoiarentzat.

Aundi-txikian aldea bazegoen, osotasun gutxiago izateko arriskua zegoen. Eta aldea berdintsua bazan, beti ere kolpe berdiñagoa. Eta ortan, alde aundia zegoen lanerako.

Berriz ere pixka bat atzera egingo det. Baserrietako nagusiek feria egunean egiten zituzten laiarien abisuak: alako egunetan, eta alako eta alako eta alako. Jakiña, nagusiek elkarre-

kin itz egiten zuten ferriakoan: zein mutil edo zein gizon bidali. Izendatutako egunean, zintzo demonio etorriko ziran goizean, illun zegoen arte, euririk ez bazan beintzat, euren lai pareta bizkarrean zutela.

Dan-dan-dan, atariko atea. Eta:

–Eup.

Etxekoandreak irekiko zien.

–Egun on.

–Baita zuei ere. Pasa, pasa barrura, eta eseri maaian, kafe beroa eta pattarra artzera, gizonak oraindik ukuilluko lanak egiten ari dira-ta.

–Estimatuko dizugu, etxekoandre; kristoren izotza dago-ta.

Orduan, orain baiño izotz eta otz geiago egiten zuen, izan ere.

Ordu erdi-edo, kontu kontari an egongo ziran jator asko. Aurpegiak gorritu ere bai. Eta pixka bat umoreko jarri, beintzat. Anisa edan oi zuten. Eta ez kopa bana, e? Bina eta iruna ere bai, ezpainañak bapo miazkatuz. Erretzaille ziranak patrikatik petaka atera, eta elkarri galdera:

–I, Pedro. Papera ba al dek?

Moldatzen ziran, bai, baten tabakoarekin eta bestearen paperarekin.

Ala, egunak argitzera-edo egindakoa, an joango giñan denok sorora. Idi pareta ere bai, kurtola artuta. Kurtolak esan nai du gurdi-ola; olazko gurdia, kajaduna, alegia. Etxerantzean, erremolatxa ekartzeko. Eta aruntzean, nabarra eramateko.

Nabarra zer dan? Leenago nioena, lur-zoia ebakitzeko tresna bat: bere pertika; atzean, azpiko aldera, burni ezpata bat; eta gora tenteka, egurra, goian kabilla bat, zearka eskuekin eltzeko eta sakatzeko. Idiei erantsi kurtereanean, eta:

–Aida!

Orduan, lurrean bere ebakia egiten zuen, soroaren aldenik alde. Baiña ez pentsa ura idien aurrean mutiko bat jarri eta egiten zala, e? Ez orixe! Oso zuzen egin bearreko lana zan ura. Askotan, laiariren bat arduratzen zan idiak artzeko: anisik gutxien edandakoa, jakiña. Bestela, zoiaren goiko aldea biurria azaltzen zan alde batetik bestera.

Olaxe izaten zan goizeko asiera: amarrak aldera arte saioa. Orduan etorriko zan sorora gosaria. Gosaldu eta berriz astera-ko, enkargu bakarra izaten zan laiarien aldetik:

–Zaatoa ondo beteta gera dedilla.

Bai, ba. Zoia jiratuz alde batetik bestera eltzen ziranean, zaatoak an egon bearra zeukan. Tragoxka pare bana jo eta lagako zuten urrengo zoiaren mukan. Eta berriz ere, bestaldera. Laiak, batzuek sorbalda gaiñean eramane oi zituzten: sorbalda banatan bana, alegia. Besteek, berriz, arrastaka, esku banatan bana. Zergatik eramaten zituzten ala? Erreza da ulertzea. Eskuetan tenteka makilla gisa artu ezker, puntak lurrean sartzen ziralako. Eta ori alde baterakoan egitea naikoa zan. Bai, arraioa!

Atzeraka egiten da laitane. Jarri zuzen elkarren parean, beetik goraka. Eta denak batera:

–Aup! –gora laiak.

Batera, beera ere.

Eta sast sartutakoan, denak batera koloka arazi. Batera atzeratu laiak, eta zoia ebakia geratzen zan. Orduan, laiak zoi azpira, zoi osoa jiratzeko. Blasta, aurreko aldera... Eta bestea, eta bestea. Alde batetik bestera eta egun osoan.

Berrogei bat zentimetro zabaleko lur-zatia artu oi zuten, eta barrura ogeita pare bat zentimetro, eta luzean bi metro inguru; seikoa bazan, beintzat; eta laukoa bazan, metro eta erdi inguru. Lur-zati oiek ziran zoiak.

Lan gogorra, baiña elkar animatzen zuten. Dena kolpe baterakoa.

–Ea, mutillak, aup!

Eta berriz ere, denok batera:

–Aup! Zaatoo gertu diagu-ta. Gurea dek eta animo!

–Beste sei, eta tragoa.

–Benga, mutillak, beste bi.

–Bat.

–Bapo, zegok.

–Ño! Luzea uan.

Eta olaxe zan laiarien jarduera.

Laiari dotoreak ere asko ziran begira egotea merezi zutenak. Gustora ere jardun oi ziran. Elkar ondo artzen duen sei zoia, lur ondraduan aup! eta aup! ari diran garaian, argazki bikaiña da. Batez ere, laiak goian dituztenean. Esaera zan laiari onak gerrikoa tripa parean zikindua eduki bear duela, gora jasotzerakoan lai-muturrei gerrikoa jo araziz.

Eguerdiari, bazkaldu eta patxadaz berriro ere soroo. Arratsaldea motza izaten zan. Laitutako lurra ondoren aitzurtu eta aretzeko ere beste lau bat lagun bear izaten ziran. Eta bei anka-mee pare bat, gari-azia naasteko. Orrelaxe izaten zan soro-aldapetako gari-ereitea laiarekin.

Illuntzean, garaiz sukalderatuko zituzten laiariak, eta nekatutako gizonei atsedean eman. Gazta eta txorizo-muturrik ez zan faltako. Garrafoika ardo ere egun ortarako an izaten zan. Eta armoni gozoo, gari-soroo ereinda. Eguneko nekea aaztuzten zitzaian bai batzuei, muturra gorritu eta txapela biurrika jartzen zutenean. Arrazoi zuten umoretsu jartzea. Zer kristo! Lana bakarrik al da, ba?

Olakoetan ateratzen dira, berriz, isilik gordeta zeuden kontu xelege guztiak ere. Gaur *El Diario Vasco* irakurrita baiño kontu geiago jakiten zan laiarien afarian.

Gero, etxera abiatzerakoan izaten ziran teatro txiki batzuk. Normala. Gaua oso illuna baldin bazan, bakoitzari lasto-zuzi bana ematen zitzaion biderako, su emanda eskuan artu eta batera eta bestera eragiñez joan zitezen. Urrutikoa bazan, bi edo iru zuzi. Abiatzeko alperrez zeudenei, etxe-atarian kontu kontari zeudela, zuzia erre oi zitzaien. Beste batzuk laiak aaztuta joaten ziran. Besteren batek okerreko bidea artuko zuen, berriz.

Orduan ere, baziran, bai, artistak!

Bizitzako garaiak
aazteko ordeztu,
emen daramazkigu
biotzean gordez.
Lurrak jiratzen ziran
genituen moldez:
aldapak laiarekin
ta ordektak goldez.

Laiari azkar kentzen
genion erdoia.
“Noiz joko ote degu
soroaren goia?”.
Plasta jiratzeko
azkenengo zoia,
gizonari joaten
zitzaion sasoa.

El Diario Vasco: 2001.12.27

Atsoen bisitak

Ba al dakizue zer zan atsoen bisita?

Ni baserritarra izanik, nere mutiko-garaian sarri ikusi nituen atsoen bisitak. Nola ez, ba? Gu ere gutxienez zortzi ume bagiñan-eta; auzoan, beste ainbeste.

Ba, etxe batean aurra jaiotzen zanean, andik zortzi edo amar egunera, auzoetako atsoen bisita izaten zan aur jaio berriaren etxera. Ea gure etxera ere zenbat aldiz etorriko ziran!

Arratsaldez etorri oi ziran. Eguna aurrez jarrita izaten zuten, ordurako. Eta ez zitzaien, ez, aazten. Ez orixe! Banan-banan an azalduko ziran atari aldera, eta elkarren zai egon ere bai. Askotan, urrutienekoak aurrena etorriko ziran, eta gertukoak azkena. Orretan, marmarra dexentea eduki oi zuten.

–Orain ere ez zetorren, ba, Maria.

Besteak:

–Ez, neska. Beti bere zai egon bear.

–Bai. Gaur ere aitzakia franko ekarriko din.

Orrela jarduten ziran etxe-atarian, beren otar kirtendunak besoetan zituztela. Kateko zakurrak ez zieten kasorik egiten.

Alako batean, an inguratuko ziran ate ondora. Eta denak bateratsu esango zuten:

–Ai Maria.

Eta jakina:

–Aurrera.

Antxe, denak batera barrura, elkarri leku eman eziñik, beren otarrekin elkarren mantalak arraskatuz.

–Jesus, neska! Ik ere leenago ez unan orrenbeste presa.

Baiña ori, bai, e? Denak mantal urdiñekin, atzean lazoa dotore asko eginda. Eta, mantal-lazoa ez ezik, mototsa ere txukun asko jaso, orkillaz ondo josita. Aizea izan arren, ez zitzaian aiei illerik naasten. Burua, ez dakit.

Mantal berriak bisita aietan estreñatu oi zituzten. Lekutako señorak jartzen ziran, ba, aiek! Abarka eta galtzerdi zuriekin eta mantal berriekin, mototsa goian zutela, edozein oillarrek joko zitxean, ba, kukurruku! Bai, to!

Orrela, beintzat, beren erregaliak an eskeiñiko zituzten, maaian esertzerako. Eta artzen zituen etxeko amak erantzun jakiñak izaten zituen:

–Jesus, Maria eta Jose! Baiña, baiña zenbat gauza! Zer zabiltzate, baiña! Eskerrik asko denoi. Ez zeukazuen orrela ibili bearrik.

–Tira, tira! Artu itzazu isilik, ori gauza gutxi da-ta.

Ni seguru nago artzailleak bere isillean esango zuela: “Txolin oiek ez dezue ezer asko ekarri!”.

Zer ekarriko zuten, ba? Txokolate ontzako batzuk, edo dozena arrautza, eta azukre zorroren bat, eta gaztatxoren bat ere bai. Beste poteko esne gozo bat izaten zan, alegia *leche condensada* edo; alakoren bat ere norbaitek bai. Orrelako gauzak. Alegia, otar galantak eta gauza gutxi.

Noiz edo noiz, bakarren bat deskuidatzen zan, bai, oillo iarren bat eramaten. Baiña ori gutxitan, e? Iru aurretatik batean-edo.

Beintzat, enbusteri saio ura egindakoa, eseriko ziran maaian. Ordurako, etxeko amak maai gaiñean prest izaten zituen baso luzeak eta txarro kristalezko dotorea, urez beteta. Eta beste ontzi apain batean, azukre gisako gozoki txuri aundi batzuk, baso uretan sartu aala urtzen ziran aietakoak; *esponjak*-edo deitzen zitzaian. Ango xupatu bearra!

Kazuelka txokolate egiña ere antxe ba, su gaiñean pil-pilka. Ura, ondoren, gailleta luxeekin, borobillekin edota ogi xigortuarekin. Bereala irteten zitzaizkien kolore gorriak masailletara. Orduan izaten zituzten komeriak, izketarako elkarr txanda artzen. Gertatzen zitzaiena zera zan: denak batera izketan eta entzuten iñor ez.

Beren arteko kontuak, alegia. Batek ez dakit zenbat sufritu zuela aurra izaten. Eta besteak:

–Jakin banu, ez nindunan ezkonduko.

Eta besteak:

–Nik errez asko egin niñan, ba!

Eta segi ortan. Gero, etxera abiatzerakoan, igual galdetu-ko zioten aurra izan berriari:

–Eta zuk zer moduz izan dezu?

Ala ere, norbait izango zan esango zuena:

–Beno, etxera ere abiatu bearke diñagu illundu baiño leen, e?

–Ara bestea, berriz! Oraintxe etorri gaitun-eta.

–Lasai, ez daukazue presaka joan bearrik.

–Bai! Eta bidera sorgiñak ateratzen badira, zer?

Artu beren otarrak eta martxa. Atarian, beste pixka bat egongo ziran kontu kontari, musu gorri-gorriekin. Orduan, txakurrak zaunka egiten zieten. Orrela joan oi ziran.

Ez zait sekula aaztuko, olako bisitaldi bat izan arratsalde batean gure etxean, eta gauean amak nola esan zion aitari, sukaldean oiñetakoak aldatzen ari zala:

–Aaa! Gaur oillo iarra ekarri didate bisitariak.

Eta aitak ala erantzun zion, irriparre egiñez:

–Bai. Ori Izetatik Zarautza joango litzake egan, ondorik ikuitu gabe.

Amak, parre aundiagoa egiñez:

–Zaude isilik, gizona, iñork entzunda ere!

Bazan, ordea, beste emakume bisitari berezi bat Zarauztik Izetara joaten zana; Izeta bietara, gaiñera: Basarriren ama, Maria, Zarauztik oiñez taka-taka, besoan otarra gauzez ondo ornituta zuela. Orduan ez zan automobil-biderik. Maria andre sendoa zan. Ura etortzen zanean, aldekorra –auzora– bidaltzen giñuzen amak:

–Aizue, aldeko amari esan etortzeko, Basarriren ama etorri dala-ta.

Aiek egitazko kontuak esaten zituzten, izketaldi ardurasuak. Aurra denbora askoan, luzaro, edukitzen zuen bere magalean. Emakume aren begirada gozoa! Aren aurpegi alaia! Eta bere izketa samurra. Asko ikasi zezaiokeena zan. Ez dakit ikasi genion.

Garai batean aurrak
izateko era:
iñor gutxi joaten zan
klinika aldera,
laguntza billa etxe
batetik bestera,
noizbait etorriko zan
medikua bera.
Gu ere orrelaxe
jaioak bait gera.
Bisitariak zortzi-
-amar egunera.
Orrela izan oi zan
gutxi gorabeera.

El Diario Vasco: 2002.01.05

Garai bateko Santa Ageda eskea

Euskal Erriko alderdi geienetan izango da oitura Santa Ageda eskean ibiltzeko. Leen geiago, bearbada.

Bi erataraz ezagutu det nik oitura ori. Bat, jende-talde aundia denak batera kantatzen, brusa, txapela beltza, abarka, galzterdiak, eskuetan makilla aundi bana dutela; soiñuren bat ere bai. Talde au erri barruan edo erri inguruan ibili oi zan; edo ibili oi da, leengo asteleenean bezela.

Bigarrena, berriz, oso ezberdiña da. Amar-dozena bat laguneko taldea izaten da, jazkeraz berdiña, soiñu-jole egoki bat ere bai, bere pandero-jole xebrereren batekin. Baita dulzaineroa ere; leenago, beintzat. Orain, tresna ori jotzen dutenak gutxitzen dijoaz. Guzti orretaz gain, bertsolari bat, etxeetako jendea koplatzeko.

Txandaturaz izaten da egin bearreko lana: soiñua, taldearekin batera; ondoren, bertsolaria; doiñu berean, jakiña, dotore asko eta errespetu aundiz. Kopla, neurrian kantatzen da. Santa Eskeko kopla esan oi da. Orrekin ulertzen degu guk. Talde mota au denean ibiltzen da kantari, baserriz baserri, kalez kale, tabernaz taberna, beren makillekin.

Gure txiki-denboran, otsaillaren laua egun sakratua zan: Santa Eske eguna, alegia. Bai orixe!

Baserrietan, beintzat, gizonezkoak etxe inguruko lanak egiten arduratzen ziran egun ortan; gertu, alegia. Eta etxeo-andreak ere saiutzen ziran txukun agertzen, mantala garbia eta moñoa dotore borobilduta eta gandorra txukun asko jasota, noski, santa eskaleak zetozenarako. Zer uste dezue, ba?

Goizean, egunarekin batean asten ziran kantuan. Eta segi urrengo goizaldera arte. Gutxi gorabeera jakiten zuten bazka-

ri-garaian nun izango ziran, eta etxe artan aurrez bazkaria enkargatuta edukitzen zuten: babarrun gorriak eta tortilla, berak eskean bildutako arrautzekin egiña. Dirua eta arrautzak eman oi zitzaizkien limosna bezela. Eta afariarekin berdintsu egiten zuten. Afaldutakoan, egonaldi luzea izaten zan. Ordurako, nekatuta taldea; batez ere, bertsolaria. Baiña, alako batean, altxa eta martxa, tibiri-tibiri joaz, berriz ere kantura.

Nik bederatzi edo amar urte nituela, ezagututa nago egun batean amabi talde pasatzen. Manuel Lasarte Aiako taldearekin atera zan urtea. Orduan, Manuel mutil gazte ederra zan. Eta bere aotsa entzun egin bear zan. Leenengo aldia omen zuen. Baiña, egun artako taldeetan, ura zan bertsolaria.

Gerora, etenaldi bat egin zuen oitura orrek. Or izan zan garai bat galerazi zutena ere. Ez zuten baimenik ematen udal-texetan. Ainbeste gauza galerazten ziran, izan ere.

Berriz garaiak aldatu ziranerako, gu ere sasoiria etorriak giñan. Eta bertsoarako ofizioa ere bai. Azpeitian nintzan ordurako, eta an atera giñan leenengo aldiz, zazpi laguneko taldea. Asieran, lotsatuta. Baiña bereala uxatu genuen lotsa, betetzen asi zanean poltsa.

Ederki prestatuta irten ere. Taldeko bat, mutikoetan osaba zaarraren soiñuarekin pixka bat jarduna zala-eta, soiñu antzeko auspo xaarra artu mandioko kutxatik, garbitu aroztegi batean, autsak kendu... Olioia bota goitik, eta beetik irteten zitzaion. Aurrenetik, dena ez zan zabaltzen. Baiña bi lagunek alde banatatik eldu eta, tira eta bultza, bota olioia eta pixka bat samurtu zanean, katuak otsaillean bezelako marruak ateratzen zituen. Auspo-iltzeak ere sartu genizkion, osorik iraungo bazuen. Eta iraun zigun.

Guk ez genuen pandero-jolerik. Soiñularia; ni, bertsoan bezela; beste bat, zaku txuriarekin; beste bat, makilla aundi batekin, etxeko atea jotzeko; beste bi, eskuetan bi makil txiki-

rekin, potea jotzeko; eta zazpigarrena, poteari eusten. Nun-baitetik inguratu zuten pote-lata borobil antzeko bat, eta batek eutsi eta beste biek jo, jendea esnatzen genuen, beintzat.

Pentsatuko dezue, noski, zergatik atera giñan illuntzean. Genituen instrumentu aiekin ezin, ba, egun-argiz ibili.

Egia esan bear bada, oso ondo ibili giñan. Gau-giro ederra illargi eta guztikoa, Azpitiko Oñatz baillaran ibili giñan; talde-lagunak angoak bait ziran. Eta jende ezagunetara joan bear, ba; bestela, ez zigun iñork aterik irekiko.

Goizeko seietan, azkeneko etxean kantatzen: Keixeta baserrian. Ordurako, jeikitzen asiak ziran. Baiña atea ez zuten bereala ireki, dedio!

Taldeko batzuk loguretuak ere bazeuden; pote-jotzeari lagata, alegia. Eta poterik gabe, galduta, azkenerako gizona. Zazpitik iru azaltzen giñan ate ondoan: ni, auspoduna eta bearrekoena, poltseroa. Beste laurak, ate ondo bakoitzean, bazterrean eseri edo etzan-edo egiten ziran. Ate ondo batean jardun nintzan beintzat bertsotan, atearen kontra tente lo artu zuenari eskuarekin eutsiz, ez zedin erori.

Keixetan gosaldu, sukaldean epeldu eta goxatu giñan. Eta zortzietarako, denak lanera. Orduan bai sasoia!

Olanotarrak, Murgil, Keixeta,
Etxeberri ta Barrena,
Santa Eskerako aurkitu dedan
talderikan jatorrena.

Nundik ta nora ibili ere
bagenekien, ain zuzen.
Mendi artako birigarroak
bapo esnatu giñuzen.

Geroztik, auskalo zenbat aldiz ibiliko giñan, eta zenbat lekutan. Gaur, irurogeita bat urte baditut, eta urterik geienetan ibiliko giñan. Azkeneko urte mordoska ontan, Zestoako talde jator betekin ibili gera Olalde bertsolaria eta biok. Entzuteko oso polita da, baiña bertsolariarentzat oso gogorra.

Tokatu zaigu urte askotan
ekintza oni eustea.
Obea degu gaurtik aurrera
ondorengoei uztea.

Gazte maiteok, jarrai zazue
oitura zaar au zaintzen,
Euskal Erriko ate ondoak
soiñu ta bertsoz alaitzen.

El Diario Vasco: 2002.02.08

Labe-sua

Aspaldiko ekintza askoren artean, labe-sua ere or dago. Galdetu didate, bai:

–Zer uan, ba, labe-sua?

Saiatuko naiz txukun samar azaltzen.

Leenagoko baserri askotan, bazan etxerako ogia egiteko labea etxe-atarian. Etxeordeko edo etxolaren bat izaten zan ori. An egon oi ziran oillotegia-edo, ganadu-perratokia, eta labe aundia; eta zakurraren lekua ere bai, noski. Gaiñera, labeak bere estalpea zuen aurrean, labe-lanak egiten zituen emakumea babestua izan zedin, eta labe-sua egiteko zotz edo egur mee leorak edukitzeko.

Nolako labeak ziran? Era askotakoak. Baserriz baserri ibiltzen ziran arotzak eta argiñak baziran orduan; baserrikoak, jakiña; beren gisa lanean ondo ikasitako gizonak, edozer egiten zutenak.

Gure etxeko labe zaarra berritu zanean, nolakoa egin zuten argituko det nik. Aiako Artxiola Zaarrak egin zuen. Izena ez dakit nola zuen. Abizena, Aldai. Errezildarra izatez; Artxiola baserria Errezillen bait da. Euskadi Irratian bertso-saltsetan ibiltzen dan Nikolas Aldairen osaba. (Aupa, tokaio!) Gizon atsegiña, irripartsua, ipuin-kontalari egokia, errespetuzko izlaria, miñik eman gabe aldamenekoa zirikatzen zekiena... Mutikoren bat nai izaten zuen beti bere inguruan, erreminta eskura eman-edo, enkarguak egin arazteko eta abar.

Laguntzeko aitzakian zenbat enbarazu egin nion Jainkoak bakarrik daki. Ala ere, ez zidan, ez, purrusta aundirik egingo. Ez orixe! Nik asko maite nuen. Pakean bedi.

Nioen bezela, aurrean estalpearentzat lekua laga. Eta atzeraxeago, lau bat metro koadroko saila artu; eta, iru alderdiak ormaz itxita, aurreko aldea dena itxi gabe, larogei bat zentimetro altza. Eta an, leendabiziko planta edo solairua; nai dezun bezela deitu. Gain ura ondo leundu material bereziz; ez dakit zerekin, baiña suari eusten zion zerbaitekin. Baiña, ori bai!, ondo leundu; labe barruko beea izango bait zan ura.

Orduan, metro eta erdi inguruko borobilla egiten asiko zan argiña. Labe-ladrillu errearekin bueltan-bueltan ixten, beste larogei bat zentimetro gorakoarekin goian itxi arte. Aizezko pillota erdian ebaki eta borobil erdia geratzen dan bezelako barrua geratzen zitzaion. Bi kebide ere bai, aldamenetara. Baiña labeari, aurrean ataka ateratzen zitzaion: labearen atea, alegia.

Berriz lau aldeak ormaz eraiki borobil tontorra iritsi arte, eta lurrez edo artxintzarrez bete. Gaiña berdindu, eta goi ura izaten zan labeko trasteak edukitzeko: peakia, menda-erratza, pala borobilla eta abar, beren kirten luzeekin. Orrela izaten zan labea, gutxi gorabeera.

Baiña zerbait laga det atzean ondo argitu gabe: labe azpia. Aurreko aldea itxi gabe lagatako uraxe. Ez gero pentsa azpi artara zakarrrik botatzerik, e! Ura leku sakratua zan. An, familia aundiak egoten ziran labeko epela goxatzen: pare bat oillo loka, beren txita taldearekin... Etxe-atarian zebiltzan oillasko eta oillanda koskor denak an lo egiten bait zuten. Eta, gaiñera, katean zegoen zakurrak ondo zainduko zituen, bai arraioa!, naiz eta tarteka erbiñude madarikaturen bat etortzen zan.

Mutil koskorren lana izaten zan sua egiteko zotzak edo egur meeak gertu jartzea. Amak ederki kargatuko zuen labea egurrez eta zotzez, luzez eta motzez. Labe barrua ez zan geratuko otzez.

Ondoren, lasto izpi batzuk sartu egur artean, eta dale fuego! Dena erretakoan, labe barru guztia brasaz geratzen

zan. Gero, peakiaz dana aurreko atakara atera, menda-erratza pasa, eta prest labea, txukun asko amabost edo ogei borobil palaz sartzeko.

Baiña ogi-masa egin bearco degu.

Arratsalde erdi aldera labean sartze ezkeroz, goizean egiten zan ogi-masa. Etxeko gariz egindako iriña, asteko. Amak zakutik irin zuri leuna jartzen zuen amasean, ur beroa palankan, eta katillu batekin pixkanaka boteaz egiten zuen masa.

Baiña mutikoak sakatzen genuen masa txandaka, gaurkoa batek, urrengoa besteak. Eta orrela, senide denak pasa arte. Bakoitzak noiz sakatzen genuen ez zitzaigun aazten. Orretan ez giñan naasten. Ez bait genuen sakatu nai izaten. Jarri amasean tente, anka-utsik; ondo garbituta, ori bai!, ur berroz eta jaboiz. Sakatu aala, amak eman buelta masari, eta berriz eta berriz bost edo sei aldiz.

—Ondo zegok! Jeitsi, moteil.

Ez zegoen bi aldiz esan bearrik. Ordurako, okerren bat egitea bururatuko zitzaigun.

Masa potoloa an geratzen zan amasean, zapi zuri batekin estalia, ondo jeiki zedin. Bereala jeikitzen zan. Eta masa aunditu, eta tira-tiran jartzen zan, aurra izateko dagoen emakumearen tripa bezela.

Eta orduan, zatikatu. Eta zenbat ogi borobil egin? Ba, irteten ziranak: amabost-edo. Denak banaka maai baten gainean jarri, eta beste iru bat ordu. Artean ere, jeikitzen joaten ziran. Azkeneko puskarekin, bi edo iru opil polit egiten ziran, erroskilla-itxuran edo, suge-itxuran edo, zenbaki zortzia eta orrelakoak.

Arratsaldean, iru-lau mutiko filan. Amari labera ogiak eraman banan-banan. Amak, palarekin labean sartu aala, ederki dotoretzen zituen palan jartzean ogi-gaiñak, kutxilloarekin

dibujoak eginda. Baiña argi egoten zan ama, ea bidean iñori ogirik erortzen ote zitzaion. Ogia botatzen zuenak ez zuen izaten opillik. Opil polit aiek guretzat bait ziran. Azkena sartu eta aurrena erre. Bai, ba: brasaren ondoan jartzen ziran-eta.

Zai egoten giñan labe aurrean, amak opillak noiz aterako. Bein aiek artutakoan, martxa, salto egiñez zelaian aurrera, oillasko eta oillandak ondoren genituela, ea puskarik erortzen zitzaigun.

Akordatuta ere, zakur gizajo ark ematen zuen pena. Beti labe ingurua zaintzen; eta, labe-sua zan egunean, artu katetik eta beste bazter batean lotzen genuen, enbarazurik eman ez zezan. An egoten zan urrutitik begira, muturra luzatuta, ogi berri-usai ederraren inbiditan. Eskerrak aitonak kontuak esaten zizkion:



Maria eta Joxepa Aristi (gure izeba eta ama), Markeskoa baserrian, Aiako Urdanetan.

Argazkia: Nerea Illarramendi.

–Orain ere kendu al aute eure tokitik? Nik emango diat, bai, zeozer.

Eta orrela.

A, Jainkoa! Aiek, bai, garai sanoak!

Garai aiek gogoan
dauzkat betirako.
Eta zoko batera
ez ditut tirako.
Labe-suak egun bat
du bere jirako.
Gutziz bearrezkoa
zan baserrirako.
Ogi zuri ederra
aste guztirako.

Aurtzaroko urteak
dirade leenik.
Egizko gertaerak
dakarzkite emen nik.
Ez pentsa larre motzak
kaltetan direnik.
Gerorako eskeiñi
didate kemenik.
Ez daukat garai aiek
bizitako penik.

El Diario Vasco: 2002.03.10

Garai bateko ijitoak

Oraingo onetan, ijito-kontuak pixka bat dantzatu asmoz nator, ba.

Leen, garai batean, ijito talde ugari ikusten zan gure alderdian. Eta beste lekuetan ere izango ziran. Izan ere, diotenez, kasta ugaria da ori. Noiznai azaltzen ziran, beren asto, beor, txakur, eta ume koskor pillla bat ondoren zutela. Iñun borda utsik baldin bazan, aiek billatuko zuten.

Gure etxetik kilometro erdi batera, guk ere baguenen borda xaar polit bat, Baraingo borda izenez ezagutzen zana. Zenbat aldiz egon ote ziran antxe ere? Etortzen ziranean, bi edo iru abere sasi ertzetan lotuko zituzten, larrean egin zezaaten. Eta emakumezkoak, etxez etxe eskera, ume batzuekin. Gizonezkoak, lotara, gauean esna ibili zitezen.

Bai. Jende-klase ura azaltzen zan garaian, gu ere argi ibiltzen giñan. Amak gu mutikooi enkargu bakarra eman oi zigun:

–Gaur ez ireki oilloei leiatilla, Baraingo bordan ijitoak omen zaudek-eta. Eta atariko txakurra askatu, badaezpada ere.

Orrelako ongi etorria egiten genien.

Berez lotsa gutxikoak baziran ere, azkar bildurtzen ziran sistema bazegoen; edo guk erabiltzen genuen, beintzat. Astebete baino geiagoan bordan bazeuden, au esaten zitzaien: guardia zibillak zetoztela eta obe izango zutela alde egitea. Bi aldiz esan bearrik ez zan izaten. Norabait azkar ezkututzen ziran. Orrek esan nai du leku bat baiño geiagotatik perrak astindu zituztela ziurrenik. Gaiñera, egia zan: orduan, guardia zibil pareja noiznai zan ate ondoan; gerra ondoko urte aietan, beintzat.

Atera kontuak gure baserri jator aietan zein lasai biziko giñan, ijitoak eta guardia zibillak ate ondoan sarri-sarri ikusiz. Eta ori bakarrik ez. Igandeko mezara, utsik egin gabe. Orduko sermoia ere entzun egin bear zan, e? Eta illero, aitortu eta Jauna artu, gaiñera. Ez genekien zer giñan: onak, txarrak, ton-toak, azkarrak, mantsoak. Ai, gure Jaungoiko soberanoa! Jarrai dezadan ijitoekin.

Ala esaten zuten aiek:

–Gu ijitoak etortzen geranean, ez zaitezte ikaratu iñor. Emen ez gabiltzanean izan ardura gurekin. Emen gaudenean, bestaldetik ostuko degu. Eta bestaldean gaudenean, emendik. Baiña naiago degu, ezer ostu baiño, bear ditugun gauzak merke erosi, ara!

Zer esango diozu ain ondo itz egiten duenari? Esan, ezer ez. Sinistu, gutxiago. Eta konfiantzarik ez artu, ez zaizu damutuko-eta.

Mendian edo baserrietan aberearekin oiñez ibiltzen baziran ere, errepide edo kamioetan, karroarekin ibiltzen ziran. *Karroa* erderazko itza izango da. Baiña ala esango degu: astoa eta karroarekin. Aurrean karruaje bat eta atzerago bestea. Txanda egiteko abereak karroari lotu eta tipi-tapa, tipi-tapa. Karro azpi bakoitzean, txakur bat edo bi. Orrela pasa oi ziran.

Beste adierazgarri bitxi bat ere bai omen zuten, karro printzipalaren gaiñean eramaten zutena: latazko izarra, burni txapazkoa noski, eguzkia zanean izarra diz-diz egiñez joan zedin. Arekin adierazi nai omen zuten beren teillatua eguzkia zala, alegia; ez zutela beste etxerik.

Orain, furgonetarekin ibiltzen dira. Etxea-etxea ez, baiña karroa eta borda baiño egokiagoa. Eta azkarragoa. Ijitoak ez al dute, ba, aurrerapenik bear?

Aberatsak zirala ere entzuten genuen; ijito jefeak, beintzat. Ori sinisten det nik. Jefeak nunaitan ere aberatsagoak izango dira, noski.

Nik entzun izan det pasadizo bat aspaldikoa. Ez dakit gezurra edo egia. Ez nuke orretan sartu nai; entzuna bakarrik baita.

Azkoititik Zumarragara tartean, bada auzo txiki bat Aizpurutxo deritzana. Inguru aietan, leenago ijito asko ibiltzen omen zan. Eta ba omen zan ijito amona aundi eta jator bat: amona Martzelina. Zaarra, gaiñera, oso: ia eun urte-edo. Inguru aietatik ia ez omen zuen alde egiten. Eta ango baserrietako jendeak ondo ikusia omen zeukan. Premian zanari laguntzeko ere prest izaten omen zan. Orduan, aurrak ere etxean izaten ziran, eta orrelakoetan laguntzeko ere ura baiño aldrebesagoak ba omen ziran. Bai, bai. Seguru asko, eskarmentua artxek edukiko zuan, iñork edukitzekotan.

Inguru aietan azaltzen ziran ijito guztien madria ura omen zan. Ori ijito talde denak aitortzen omen zuten. Baiña, ura ere betikoa ez izan nunbait gajoa eta, sarri egoten zan borda zaar artan il zala zabaldu omen zan. Akabo, ba, gure amona Martzelina aundia. Jendea tristetu eta dana, Aizpurutxo eta inguruetan. Utsune bat nabaritu, nunbait.

Ala, makiña bat eratako ijito pillak nundik-andik azaldu omen ziran. Eta ondo orraztutako batzuk apaizarengana, illeta “de primera clase” egin bear zitzaiola, denen madria zalako. Izan ere, orduan, illetak primera, segunda eta tertzera kategoriakoak egiten bait ziran. Zenbait jende ospetsurentzat, primerisima ere ba omen zan.

Orrela, beintzat, urrengo egunerako elizkizuna gertutu omen du apaizak. Baiña: “Zer primera eta zer primera-ondo! Jendeak zer esan bear dik ijitoari primerako illeta egiten badiot? Gaiñera, kobratzen ere gaizki ibili bearke diat eta... Ba, eskolako mutiko mordoxka bat artuko diat nere ondoan, prozesioetan ibiltzen dituzten jantzi luzeekin. Eta ijitoak ez dituk oartuko”.

Baita egin ere pulamentuz elizkizuna. Oartu ez? Ez, zera! Bekozko illuna franko ba omen zan aldare aldera begira. Akaso, berezkoak izango zituzten, baiña tira.

Illetak goizean izaten ziran orduan. Baiña gero omen ziran kontuak: arratsaldean. Eskola ere apaizak ematen zien mutikoei. Eta iru ijito gizonezkoak, arratsaldean, eskola ematen ari zan lekura joan omen zitzaizkion illeta ordaintzera. Gizon dotoreak eta ondo jantziak. Aserre, gaiñera. Aiek ez zutela azkeneko maillako illetarik enkargatu. Ori baiño geiago merezi zuela aien madriak. Apaiza isilik, koloreak gorrituta.

–Kobratu zaiguzu nai dezuna.

Eta leengo dirua eman omen zioten: eun pezetako pape-
ra, ogei durokoa, berri-berria. Orduan, komeriak apaizak:
nun billatu bueltak? Kobratzen gaizki ibili bearke zuela?
Bai, bai!

Artu ogei duroko berri ura eskuetan eta usai egiñez an
dijoa sakristira, sotanak bristi-brausta dituela, estropezu egin
bearrean, ea bueltak emateko txanponik bazegoen sakristian.
Bai, zera: gutxi! Aren estuasuna nola kobratu zazpi pezetako
illeta!

Eskolako mutikoak bidali ditu papertxo banarekin:

–I, joan udaletxera.

–I, Maritxuren dendara.

–Eta i, tabernara.

Iru gizon dotore aiek zai, tente-tente jarrita.

Bereala, an datoz mutikoak:

–Esan digute ez daukatela orrenbeste diru.

Ijitoak, marmarrean.

Azkenean, apaiza bera tren-geltokira, bere sotana eta guz-
ti. Urolako trena jarri berria omen zan orduan. Eta Aizpuru-

txon ere bere gelditokia bazuen. Azkenik, antxe osatu larogei-
ta amairu pezeta.

Apaizaren lasaitasuna, noski, gizon dotore aiek joan zira-
nean. Eskolako mutikoak, aiek bai pozik: goiza kantari eta
arratsaldea diru billa.

Zergatik eskaiñi ote zioten alako diru aundia apaizari:
kategoriako diruz ordaintzearen madriaren illeta edota ez
zezaioten kobratu?

Pasadizo aiek kontatzea ez nuke nai iñork gaizki artzerik;
aspaldiko oiturak idaztea gogozko bait det. Asmorik apalenez.
Eskerrik asko.

El Diario Vasco: 2002.08.07

Gari-lanak

Gure alderdian, gari-lanak nola egiten genituen? Begira.

Abendu aldean ereiten ziran gari-soroak. Uztaillean, kolore oriz jantziak oi ziran, beren berde-garaia pasa ondoren, buru bixartsuak berantza kakotuta. Galartean, galeper-kantak, poxpolin eta poxpolin. Orrek adierazten zuen ebakitzeko moduan zirala gariak. Txori moko-motz edo txolarre lotsagabe aiek ziran, berriz, ortik onerakoak. Bandadak aruntz eta onuntz, nork uxatu aiek? Izugarriak jartzen genituen, gari-soro bakoitzean bi edo iru, baiña ez alperrik. Orduan ere, askorentzat egin bearra zegoen.

Dana dala, urtaro dotorea izaten zan ura. Zelaiak belar berdez, gari-soroak ori, arto sail ederrak ere ordurako loretan. Lurrak bere emaitzak berak margotzen ditu, bear dan garaian eta bear dan bezela.

Lurrean zenbat gauza
degun eraikia,
landu ta sortzen dana
da berriz jakia:
ale, fruitu ta lore
edo barazkia.
Emaitzetan jantztean
euskal lur zatia,
bat begira aspertzen
ez dan argazkia.

Orain degu alako
argazkirik eza.
Alperrik artzea da
aurkitzeko presa.
Ordenagailluz egin?
Ez dago erreza.
Norbaitek baldin badu,
ondo gorde beza.
Orman eskegitzeko
ez da aldrebesa.

Igitariak, auzo-lanean

Orduan, gari guztiak igitaiz ebakitzen genituen. Igitai bereziak zeuden artarako: mearrak, agindunak eta eskulekua atzeko koskarekin, ondo eltzeko eta irrist egin ez zezan esku-ko izerdiarekin. Bakoitzak berea ondo zaintzen zuen. Igitai ona bearrezko zan. Bestela, taldean parregarri geratzeko arriskua zegoen. Eta ori iñori ez zitzaion gustatzen.

Egun pare bat aurretik egiten zan deia auzoetara, ea lagun bat bidaliko zuten. Orrela, zazpi bat igitari asten giñan goizeko freskuran. Gari-soroak berak erakusten zuen nundik asi: buruz zein aldetara balantzatua zegoen, bestaldetik era artuta, errezago eta garbiago jarduten zan.

Illuntzerako, gari-soro dezentea ebakitzen zuten zazpi lagunek, abarka, galtzerdi, galtza urdin, gerriko beltz, txapela eta lepoko zapia. Orain, euskal jaiian eramaten dira alako jantziak. Bi eskukadarekin egiten zan garikoa: plasta-plasta, bina eskukadako garikoa. Errenkan zuzen lagatzen zan metroko tartearekin edo orrela. Txukun asko. Galbururen bat buruz bestaldera bazegoen, ura zuzenduz. Lurretik amabi zentrimetrora-edo moztu oi zan.

Emakumeren batek eramaten zuen amaiketako ona. Denok ura etortzeko deseatzten. Bertan eseri, eta zegoena jan eta edan. Edaria, emakumeak berak banatzen zuen. Au oitura bat zan. Gaiñera, emakume ura igitariak bezela jantzita joaten zan sorora saskiarekin, bere abarka, galtzerdi, mantal luzea eta buru-zapia. Eta, jakiña, ispilluan ondo begiratuta, gaiñera; badaezpada ere.

Bazkaria, etxean; ona, gaiñera. Gero, siesta egin. Batzuk oe gaiñean, besteak sapaian, besteren bat atariko intxaur azpian, itzalean zigarroa erreaz. Eta berriro sorora, kafe-txurruta egin eta bixkorrillo pixka batekin; pattarrarekin, alegia. Orrela, merienda soroan eta berriro afari ona etxean. Orduan, lasai. Kontua ere ugaltzen zan, oizkoa dan bezela.

Gutxi gorabeera orrela izaten zan igitarien eguna, etxe batetik bestera.

Praxku ta Ambroxio,
Antoniomari,
Iñaxio ta Pedro,
Martin, Joxemari,
askotan etorriak
gure igitari.
Lanean umoretsu,
kolpea ugari,
ebaki ziguten bai
makiña bat gari.

Gariak lotu eta metatu

Ebaki eta urrengo egunean, lotu eta jaso egiten zan garia. Lurretik kendu, beintzat, euri-egunen bat gertatuta ere. Metak egin, dotore askoak. Tokian-tokian, bost edo seiko meta illara. Metatxoak ere tarteka egin bearra izaten zan. Ustegabeko galer-na edo enbata sartzen bazan, euri-arriskua; jakiña. Ez bait zan

komeni gariak bein ebaki ezkerro bustitzea. Gero, pillatutakoan, zailla zan legortzea. Gariak eta lastoak leor eta iartuta egon bear zuten, gero makinan jotzeko. Au geroxeago azalduko det.

Orixegatik nioen metatxoak egiten zirala. Giro txarra sar-tzen bazan ezustean, eta meta aundiak egiteko astirik ez, orduan amaiketakoarekin aaztu eta denak presaka metatxoak aal zan tokian tentetzera. Ogei-ogeita bost gariko jartzen ziran tente, buruz elkarrena bilduta.

Baiña nola lotzen zan garikoa? Pixka bat atzera egingo det.

Asi gaitezen gari lotzen goizeko amarrak aldean, iintza eguzkiak irentsitakoan. Igitarien atalean nioen bi eskukadako garikoa illeran zuzen lagatzen zutela. Orain, lotzeko garain, ondo dator ori. Bakoitzak illara bana artu, eta kontu kontari lotuaz, beetik gora zuzen. Atzera geratzen zana, nabarmen, elkarrizketari ere ezin jarraituta. Badakizu, lagun. Ulertzen didazu, e? Ori neri gertatzen zitzaidan.

Onelaxe lotzen zan. Anka bat edo oiña, rast!, sartu azpira beeko aldetik, eskuarekin goitik beera bildu, zabal zegoena borobildu, gaiñetik zazpi edo zortzi lasto izpi artu, gaiñetik azpira artu, buelta eman gariko loturari laga gabe, estu lotze-ko, izpi oiei bi buelta il eman eta loturaren barrutik beatza pasa eta, rasta!, alde batetik bestera atera kriixtua (txibista), eta izpi aien buruxkak aal zan tenteena laga. Gero, atzetik, gu mutikoak igitaiz buruxka biltzea egiten genuen. Orduan artzen zuen izena: garikoa. Moztutako aldetik berrogei bat zentimetrora lotzen zan.

Dena lotutakoan, lepaka inguratzen ziran garikoak, metak egiteko lekura, kontu aundiz, jaulki gabe. Bestela, galtzu arte-ko gari-aleak galeperrentzat edo leen esan dedan txori lotsati aientzat izaten ziran.

Meta-egillea jakiñekoa izaten zan: etxe geienetan, etxeko nagusia. Meta bakoitzaren jiran laga bear ziran lepaka garikoak.

Meta-egilleak, leenengo, lau jarriko zituen tente, buruz elkarrena, ondoz kanporaxeago, bee zabal. Ustez naiko meta-ondoa bazala zioenean, gora asten zan, gariko ipurdiak leengo bueltaren errazkietan sartuz. Errazkia zan garikoaren lotura uraxe. Sei-zazpi buelta goraka, eta azkeneko bueltaren buruak bakarrik geratzen ziran bistan. Baiña meta-puntak zakarrez estaltzen genituen, apopilloak uxatzeko. Tontoak giñan, ba, baserritarrak! Ez zegok gaizki.

Orrela, soro-galtzuak soil geratzen ziran. Aretu zakarrak edo galtzuak bildu, bertan erre eta arbiak ereiteko lurrak prest berriz ere. Galtzu-ondoa zan ebaki eta geratzen zan zuztarra.

Bi edo iru astera, gari-metak, gurdia kargatuta, etxera sartzen ziran; giro leorrean, jakiña. Uraxe izaten zan lanik politena mutikoentzat: besteei laguntzera joan eta meta azpian azaltzen ziran xaguak txakur txikiarekin arrapatzen. Ez zan izaten meta azpirik xagu-abi gabekorik.

1962ko bertsolari-txapelketa nagusian, azken saioan, Donostiako Astoria antzokian zala uste det. Lazkao Txikiri onako lau errima auek jarri zitzaizkion, zortziko txikian bertsoa osatu zezan: gurdiya, komeriya, gariya, txoriya. Eta emen jartzeko gokia deritzat bertsoa.

Gure uztaren gaiñean
mantentzen txoriya.
Guk geuretzat gorde nai.
Au da komeriya.
Jan baiño leen kargatu
dezagun gurdiya,
etxera eramateko
soroko gariya.

Nere idazlan oni konpondu ederra eman dio bertso onek.

El Diario Vasco: 2002.09.07

Katxarreroak

Gogoratzen naiz, bai, katxarrero aiekin. Noizko kontuak diran? Nik lau urte nituenerako ezagutu nituen katxarrero bat baino geiago, eta orain irurogeitik gora dauzkat. Ortik atera kontuak. Ala ere, leengo urtekoak balira bezela gogoratzen ditut.

Zer ziran katxarreroak? Etxez etxe eta baserriz baserri eltze konpontzen ibiltzen ziran gizontxo saiatsuak eta umillak, nunbait beren familiak azten ari ziranak, aal zuten bezela, beste geiagoren antzera.

Nortzuk ziran edo nungoak? Nungoak ez dakit. Baiña gazteleraz itz egiten zutenak izaten ziran leenengo eta bigarren etorrialdian. Baiña ori bai. Irugarren aldiz zetozenean, beraietako edozeiñekin euskeraz egiteko moduan ziñan. Irakurle, ez dezu ba usteko euskaldun berriak oraingoak bakarrik dirala? Ez, adiskide, ez. Leenago ere bazan aukera ikasi nai zuenarentzat.

Nik txalotu nai nituzke bearrak eraginda ate ondoetan euskeraz ikasi zuten katxarrero aiek. Izan ere, garai artako baserriko atariak berezko ikastola txikiak ziran, maisu-aukera aundiekin. Eta ori ondo jasotzen jakin zuten eltze-konponketara zetozen gizon saiatsuak.

Nere ustez, beste bitxikeri au ere egiten zuten katxarreroak: etxe-atarietako kate-txakurrari gazteleraz ulertzen erakutsi. Polita deritzat au. Eurak euskeraz ikasi eta txakurrak erderaz. Baiña ori nola? Oso samurra da ulertzen.

Katxarreroak goiz-partean azaldu oi ziran. Gurera, beintzat, bai. Eta txakurrak bazekiten gizontxo ura lanera zetorrela eta etxeko ama edo amona pozik lagatzen zutela. Eta zaunka gutxi edo batez.

Egurrezko kaja aundi bat bizkarrean zutela agertzen ziran katxareroak. Bi ual kajari itsatsiak, besoetan sartzeko. Artu bizkarrean, eta barruan gauzak ondo ordenatuta: maillu, tenaza, txingude, pestaiña-gai, ojalata, mantal, guraize. Eta kaja gaiñean beti aterkia, giro txarra bazan, ona bazan.

Baserri geienak bazuten beren etxeordekoa edo estalpea. Txakurraren lekua ere uraxe. Eta antxe jarriko zuen etxeako andreak katxareroa lanean, sukaldean puskatuta edo maillatuta zeuzkan kazo, kazuela, esne-ontzi, zartagi eta abar konponketan. Jakiña: guraize eta kutxillo-zorrozetak ere bai.

Baiña txakurraren izena nola zan beti galdetzen zuten.

Bi edo iru ordu an jardungo zan gizona, bere lanak amaitu arte, kantari eta umoretsu, txakurra aldamenen lagun zuela, bere izkuntzan itz egiñez. Orixegatik, kate-txakurrei gazteleraz ulerarazi zieten bakarrak izango ziran katxareroak.

Orduan, aterki-konponketan ere lana izaten zan etxe bakoitzean. Puskatzen errezak izaten ziran eta konpontzen zaillak. Ori dena oso txukun egiten zuten. Eta argatik oi ziran ate ondoetan onartuak.

Eguerdirako lanak bukatzen saiatzen ziran. Eta oi u egingo zuten:

–Etxekoandre, dena listo!

Joango zan etxekoandrea, konpondutako gauzak jaso eta esango zion:

–Oraintxe nator.

Platerkada bat babarrun gorri, urdai zatia eta baso aundia bete sagardo eta ogia eramango zizkion. Zenbat estimatzen zuten jakiteko, aurpegira begiratzea aski izaten zan.

Lana egindako estalpean bertan jaten zuen pozik, txakurrari ogi puxka txikiak emanaz plateran bustita. Komeni zitzairen kate-txakurrekin ondo konpontzea.

Jandakoan, ordu erdi-edo egoten ziran sillan, begiak itxita, beren galbanatxo pasatzen. Bitartean, katxareroaren erre-minta-kaja txakurrak ondo zainduko zuen, e!, ondoan etzanda. Bai orixe!

Etxekoandreak, gero:

–Ea, ba, gizon. Zenbat pezeta eman bear dizkizut?

Orduko dirua pezeta bait zan.

Batzuetan, iru edo lau pezeta. Urrengoan, igual esango zuen:

–Gaur dirurik ez, etxekoandre. Urdai zatia ere bazan-eta.

–Zuk nai dezun bezela.

–Gauean andrearekin afaltzeko bi arrautza ematen badizkidazu...

Kontu aundiz jarriko zuen arrautza pareka kajan, erreminta tartean. Ziur nago autsi gabe eramango zituztela etxeraiño.

Kaja bizkarrera eta:

–Adios, etxekoandre. Jainkoak bedeinkatuko.



Garai bateko katxareroak.

Argazkia: egile ezezaguna.

Gerraondoko urte aietan,
nik entzun izan dedanez,
eta gaiñera neronen begiz
ere ikusi nuenez,
asko ta askok zeukaten ez nun
jan eta ez nun edan ez
ta pozik artu oi zuten zerbait
zegoenetik emanez.

Bizi bakoitzak tripa bat badu.
Au da estutzen gaituna.
Ta urte zaillak baldin badira,
ez da bizitza biguna.
Gauzak gerora aldatzen dira,
argitu ere illuna.
Baiña garaian garaikoa da
lanak ematen dituna.

Katxarreroak zailduta zeuden,
mendian ibiltzeko gai,
estrata gora, estrata beera,
kaja aundi aren artzai.
Emaztea ta aurrak ez ziran,
ez, beti egongo lasai:
egunak joan ta egunak joan,
aita noiz etorriko zai.

Uste det ondo bete zutela
beren ekintza partea,
ez bait zioten etxe denetan
zabal jarriko atea.
Naiz tripa bete zail izango zan
beti umorez joatea,
naiko bait zuten familiara
txanponak eramatea.

El Diario Vasco: 2002.09.24

Azeri-eskea

Orain eiz-garaian gaude: San Martin, San Roman... Urria pasa ondoren, uso urdin eder oiek ere paseak izango dira. Geienak beintzat. Baiña ez dinbi-danba otsik entzun gabe, alazanjoa! Makiña bat gerra izango zan tiro eta ots gutxiagorekin. Orain, oillagor billa-eta dabilza eiztariak. Zakurrak ere, arkakosoak bota eta... Baditu, baditu bere alderdiak eiz-aitzaki orrek ere.

Baiña ez det jarraituko eiz-kontuekin. Bestela, bukaezina izango nuke.

Nijoan leengo oitura zaar bat aipatzera: azeri-eskea. Baita azkonarra ere. Eta, nola ez, basakatua. Iru bitxo oiek baserri inguruetan arriskutsuak oi ziran. Oillo, txita, oillanda, oillas-ko, untxi eta abar, zein zan suertoso, an eramango zuten. Bitxo arraio malapartatu aiek ortzak erantsi ezker, ez zegoen salbaziorik. Kontatzeko bat gutxiago oillategian, edo dana dalakoan. Aiek bai eiztariak!

Nere mutiko-garaian, azeri eta olako pixtiak gutxi ziran. Gutxi izateko obeak ituan, bai, aiek! Baiña betikoa: nai baiño geiago. Orain, azeriak ugalduta omen daude. Ala diote. Izan ere, ugalduko ez dira, ba, gaur dauzkaten gordelekuekin! Leenago baso garbiak genituenak orain sasi eta maardi biurtuta daude. Orra piztiak ugaltzeko aukera. Gero zera: natura eta ekologia eta bideak eta loreak eta bazterrak txukun... Kaka zaarra! Iñoiz baino zikiñago daude-eta!

Ba, nioena. Nere mutiko-garaian, orain dala berrogeita dozena bat urte edo geiago, etxez etxe ibiltzen ziran azeri-eskean. Norbaitek pizti oietakoren bat akabatzen bazuen, jarriko zuten agai batean lau anka-muturrak agaiari lotuta, biz-

karrez beera zintzilik, tripa ustuta arinago izan zedin, belarrez edo lastoz beteta ondo josita, begiak ere zabal-zabalik zituela... Bizirik zegoela zirudien, aoa irekita, ortz zorrotzak agerian zituela. Bai. Bazekiten, bai, nola jarri ate ondoetan, jendea engaiñatzeko. Bi mutilek artzen zuten agai mutur banatatik bizkarrean, eta etxe batetik bestera txanponak biltzen.

Adierazpen dotoreak ematen zituzten. Bazirudien, orain esaten dan bezela, kursilloak-edo eginda zeudela.

–Alako menditan, alako etxetan oilloak jana, kosta zaigu arrapatzea. Gabaz zepoak jarri eta eskopetarekin zai zenbat otz pasa degun ere Jainkoak bakarrik daki. Iru illabetean genbiltzan bere atzetik, eta azkenean erori da. Baiña ez da erreza izan. Ez orixe! Eta olaxe, ba. Emen gabilitza limosnatxoaren billa. Onek ez du geiago arrapatuko-ta.

Betiko sermoi ura egiten ari ziran bitartean, inguratzen giñan ume koskor pillat bat eta antxe, azeri edo basakatu edo zalakoari begira, eta ikutu-eta, nolakoa ote zan, ba. Mutikooi ez zigun ajola ark zer egin zuen. Bera nolakoa zan ikusi eta isatsetik tira.

Bitartean, etxeko nagusi edo etxekoandreak ongi eta errespetuz entzungo zuen ate ondoko sermoia. Orrela, zerbait limosna edo diru apurren bat ematen zitzaaien. Ez, piztia akabatu zutelako bakarrik. Alako sermoia entzuteagatik ere. Eli-zan ematen zan, ba.

Bein batekoa gogoan det, eta ez zait aartzuko. Orduan ere, atariko atea jo zuten orrela zebiltzan bi mutillek. Aita atera zan, eta betiko sermoia. Orduan azkonarra zuten. Alako batean, aita sukaldera joan zan diru-txanponen batzuen billa. Eta ama arraskan ari zan garbiketean. Eta onela zioen:

–Orain ere dirua eman bear al diezu mutil kankaillu oiei? Uste det leengo urtean ere orixe bera zebilkitela bazterrak engaiñatzen.

–Jesus, emakumea! Ori da jenioa daukazuna! Gezurretan nola ibiliko dira, ba? Zaude isilik, arren.

–Isilik? Nik esango diet oiei zer egin, olako artistak baldin badira!

An dijoa gure ama ori, mantalarekin eskuak leortuz.

–Aizue! Nik ez zekiat azkonar onek okerrak nun egingo zituen. Baiña gure etxean, leengo astean zapelatzak txita koskorra eraman zian, e? Eta olako abillak bazerate, ura bota ezazue tiroz. Aiba bi kartutxo. Eta ekartzen dezuenean, jasoko dezue eskupekoa. Eta aio!

Ona jarri zan, ba, gure ama. Zapelatzak txita koskorra eraman eta zera: azkonarrari dirua eman? Bai, bereala!

Etxekoandreak sukaldean eta atarian asko agintzen dute gero!

Azkonar, basakatu
eta azeriak
bisitatzen zituzten
gure atariak.
Bizi ziran artean
aiek eiztariak!
Akabatuta gero,
txanpon-biltzailliak.

Oraindikan airean
dabil zapelatza.
Ez dago ikuitzerik
beraren egatsa,
bestela badaukagu
isunen bat latza.
Txitak aske uzteko,
au dek esperantza!

El Diario Vasco: 2002.12.11

Lakaiurre

Ni mutikoa nintzanean, bazan Lakaiurre deitzen zioten mutilzar bat. Bere izena, Joxe Mari. Abizena, ez dakit nola zuen. Uste det Tolosa aldekoa zala. Ala esaten zuten. Bere gurasoak lakari bat urreren jabe omen ziran-edo. Jendearen kontuak. Baiña artatik omen zetorkion Lakaiurre deitura.

Pixka bat motela zan buruz. Edo, obetoago esan, izketan ez zuen erreztasun geiegi. Alegia, euneko eun ez zan iristen. Eskale-itxuran ibiltzen zan jantziz, galtzarpean zakua zuela. Bere arropa edo bere arrea, zakuarekin egiten zuen garraioa, ura zaintzen ibiltzen zan larri ura.

Baina ez zan eskalea. Langille amorratua baizik. Oso giza-ki ona. Gorputz-moztaka sendoa, buruan txapela, pauso baldar samarrekoa, gaizki jantzia, nolabaiteko trapuz edo galtza zaar petatxotuak, azpiko arropa iñoiz ez zuen erabiltzen, gal-tzerdi izeneko batzuk eta abarkak, galtza-zintura biurria eta luzea, ebillan sartu eta muturra zintzilik zuela.

Morroi ibiltzen zan, baserriz baserri. Ark lan egin gabeko baserririk ez da izango ingurumari auetan.

Uste gutxien zenuen garaian, atariko ate ondoan aurkituko zenuen, bere zakua besopean zuela, isilik eta tente. Sekula ez zizun aterik joko. Ezta aupatekorik egin ere.

–Zer abil, Joxemai?

Eta:

–Mo-morroi-leku billa –bere izketa motel arekin.

Askotan bi aldiz esaten zuen gauza bera. Denak ika itzegiten zioten:

–Pasa barrura, motel. Eta zakua jaso ezak betiko lekuan. Lo egiteko orbel pilla ere an daukak.

Bazekien etxeko txokoen berri.

–Joan adi sukaldera eta etxekoandreak zerbait emango dik.

Bai azkar zakua gorde eta sukalderatu ere, bere parre txikia egiñez. Ez zekien “eskerrik asko”-eta esaten. Bere poza edo esker ona, parre isil batez adierazten zuen, bere bi sorbaldei txandaka gora egiñez. Sarri-sarri egin oi zuen ez tul txiki bat ere.



Lakaiurre, baserri askotako morroia.

Argazkia: Zarauzko Sasi baserriko amonak emana.

Oitura bezela bazuen. Bi eskuak beti zintzilika, iñoiz ez patriketan sartuta, ezta gurutzatuta ere, tente eta besoak zintzilik. Bere izaera apala orrela zan, aurpegi gorri eta begi berde aiekin.

Etxekoandreak azkar galdetuko zion:

–Joxemai, gosea ekarriko uen, ba?

–Fa-fai. (“Bai” garbi ezin zuen esan.)

–Eseri adi bazter ortan.

Eta emango zion zegoenetik, tripa betetzeko lain.

Sukalde-bazter batean jana ematen zitzaion, aulkitxo batean. Maaian egoteko pixka bat narratsa zan. Baiña ori bai: beti jana eta edana, besteen berdiña eta naikoa.

Baiña etxekoandrearen galderak oraindik ez dira bukatu.

–Arroparik falta al dek?

Jakiña: aren arropa-uniformeak etxeetan ematen zizkioten sobranteak bait ziran.

–Eta soldata, leengoa edukiko dek, ba, Joxemai?

Soldata-kontuak ere etxekoandrearekin konpondu bear, ba! Azken aldera pixka bat igo zuela uste det: egun bakoitzeko pezeta bat. Ura zan Lakaiurreren soldata.

Etxe geienetan, leenengo lana egur txikitzea izaten zuen: aste gutzirako egurra txikitu aizkoraz. Gustoko lana zuen, gaiñera. Jakiña: etxekoandrea pozik, sukalderako egurra prest. Pixka bat mantxo bazan ere, tontoa ez zan beintzat.

Izerdi-usai ederra ibiltzen zuen gizajo ark. Ura ez zan sekula garbitzen. Paparra beti zabalik.

Garai artan, ganadu-jana sortaka ekartzen zan etxera. Asko, beintzat. Eta Lakaiurreren lana ura izaten zan: lanik gogorrena. Bazuen indarra! Sorta belar galantak ibilitako gizona, ipur gaiñean artuta.

Leenago nioena: lo egiteko lekua, orbel edo garo pilla ukuilluan. Idi-manta edo ematen zitzaion. Eta arekin tapatu edo bil-bil egingo zan, eta seko lo, txerria bezela.

Txerria aitatu det. Gorroto zion txerriari. Bai, ba. Urte aietan, ukuilluan txerri koskor bat libre ibiltzen zan, ganaduak simaurrean egiten zituen aleak janaz gizendu zedin. Eta txerri arraio ark, nunbait, ondora joan eta kurrun-kurrun egiten zion,

eta bildurtu egiten zan. Berez oso bildurtia bait zan. Baiña txerriak ere, arrazoi. Ura txerriaren lo-lekua, nunbait, eta gaizki konpontzen ziran.

Umezalea zan oso. Sukaldean umeak ibiltzea gustatzen zitzaion. Eta ume txiki samarra bazegoen, bere ondora urbildu eta begira-begira egongo zan, bere parre txikia egiñez.

–Polita al dek, Joxemai?

–Fa-fai –bai, alegia.

Baiña ez zuen ikuitzen.

Igande goizetan nai izaten zuen norbaitek bizarra kentzea. Bera ez zan moldatzen. Ark ez zuen ibiltzen zakuan bizarra kentzeko tresnarik. Ispillu eta jaboia, gutxiago. Igandean mezara zijoanen bati, noizbeinka, pezeta bat eman oi zion karameluak ekartzeko. Gozozalea zan. Baiña berak gogoko zuen umeari ere emango zizkion.

–Joxemai, aspaldi izan al aiz elizan?

–Fa-fai. Aspaldi fai.

Egun gutxiko morrontza egiten zuen: amar-amabost egun. Beti, goizean prestatuko zan joateko. Aurrena, ataritik eguraldiari begiratuko zion ondo, eskua bekokian zuela. Orduan, zakua aterako zuen ate ondora, eta an jarriko zan tente, etorri zan bezelaxe.

–Ba al oa, Joxemai?

–Fai –aspertu egin zala.

Etxe denetan berdiña esaten zuen.

Zenbat egun pasa zituen ongi kontatuta edukiko zituen. Bai arraioa! Etxekoandreak, zirikatzearren edo:

–Amar egun pasa dituk, Joxemai –gutxiago, alegia.

Azkar esango zion:

–Ez. Amaika dira. Kontatu ditut-eta.

Eta gutako mutikoren batek:

–Joxemai, ik badakik, ba, *tabla de ocho*. Ea, *ocho por ocho*.

–A-arre, potxotxo!

Zenbat egun ainbeste pezeta, zakuan sartu trapu batean bilduta, zaku-muturra ongi lotu, eta martxa. Agurrik ez zuen egiten, ez zetorrenean eta ez zijoanean. Onela zan Lakaiurre.

Bere izatea zan bezela azaldu det. Ez, beeratzeagatik. Baneki nola jaso! Aio, Joxe Mari.

Morrontzan pasa uen
ik eure mundua,
nunaitan aurkituaz
nori lagundua.
Gure etxean ere
sarri egondua.
Gutxi saritua ta
ona izandua,
nere oroimenetik
ez ago galdua.

Ukuillu-mandiotan
lotatik jeikia,
sarritan orbel pilla
uen berokia.
Pekaturik gabeko
giza izakia,
liburuan jartzeko
badiat tokia
norbaitek eman didan
ire argazkia.

El Diario Vasco: 2003.01.21

Oiartzun aldean

Zenbaitek gertakizun garrantzitsuak bear idazten ditu idazteko. Nik, berriz, edozer gauza. Baiña hori bai: bere txisparekin. Orduan, zer da garrantzitsuena?

“Zer kristo ote du, ba, mozolo onek oraingoan?”. Zera...

Leengo larunbat batean joan nintzan Hendaiara, Aitor eta Ixiarri altzari bat jartzera. Eta irurak, amaitzerako. Betikoa: berandu etxera ala batere ez joan? Ba, bigarrenkoa aukeratu nuen.

Oiartzun alde ortan, jatetxe batera sartu nintzan, nun sartzten nintzan begiratu gabe.

Leenengo aurkitu nuen zerbitzariari galdetu nion:

–Bakarrik naiz. Nun jarri ninteke?

–Or dauzkazu bi maai. Oietan.

–Baiña nola jarriko naiz, bada, bi maaitan?

–Ez, ez. Aukera daukazula esan nai nizun.

–Ongi. Poste ondoan, orduan.

Orrela, ekarri zidan sekulako karta edo aukeratzeko katxarro elegante ori. “La ostra! Gaur ere merke bazkalduko diagu. Por los!”.

Beintzat, eskatu nuen iruditu zitzaidana eta or konpon.

–Eta edateko?

–Urteko ardo bat. Beltza.

Or dakarki etiketa berdez osatua. “Ba! Ondo!”.

Baiña deskuidu txiki bat eduki nuen botilla arekin; etiketa irakurtzeko eran laga bait nuen. Eta gero ere, ateraldi bakoi-

tzeko, alaxe lagatzen nuen. Ortxe, ortxe okerra; etiketa beste aldera laga bear bait da, eta norbere aldera ardoa ikusten dala. Ortara, badakizu noraiño edaten dezun. Eta nik ere banekien noraiño edan nuen. Atera kontu.

Gose-egarriak badu
jan eta edate.
Gaurko ontan aukera
eskeiñi didate.
Zerbitzari politak,
portatu zerate.
Nik gaizki neurtu badet,
neronentzat kalte.
Ardoaren izena
ere “Arabarte”.
Txurrutaka asi ta
dena edan arte.

Leenago nioena: jarri nintzan, ba, poste ondoan, nere ustez ezkutu samarrean. Aal dana. Izan ere, larunbat batean lanerako arrokekin iñork ikusita ere... Nere izatea onela da baiña...

Ezkutuan? Zakurraren biboliña! Batek gordean ibili nai duenean, uste det orduantxe geratzen dala ageriena.

Batek:

–Kaixo, motel. Alde onetatik?

Besteek, berriz:

–I. Ikusten al dezue Zendoia?

Beste batek:

–Kaixo, aspaldiko. Galduta al abil-edo?

–Galduta ez, baiña ea norbaitek aurkitzen nauen.

Ez bait da berdina galduta ibili, edo norbaitek aurkitzea nai, edota iñork ez ikustea.

Asi zan, bada, nere zerbitzari ori eskatu nuena ekartzen: bakaillaoa piperrekin.

–On egin.

–Eskerrik asko.

Geroxeago:

–Aizu. Beste ogi puska bat mesedez. Ni euskalduna naiz eta ez dakit ogi gutxirekin jaten.

–Bai, bai. Badakigu zu euskalduna zerala. Bestela, bertso-tan ez ziñan jardungo.

“Aiba dio! Onek ere bai. Gaur ez diat nere bururik ezkutatzen!”.

Geroago, bigarrena: solomilloa patata prejituekin. Orduan beste señorita bat etorri zitzaidan:

–Que te aproveche.

–Merçi.

Zer esango nion, ba?

Gaiñekoa: arroz-esnea. “Irugarren señorita zetorrek, alajaiña! Kauen sos! Au xelebrea gero!”.

Kafea eta patxaranarekin, berriz, beste bat: laugarrena. Au jantzi ezberdiñarekin.

–Aizu, aizu, neskatxa. Barkatu.

–Bai?

–Beste iru zerbitzari oiek uniformearekin zerbitu naute, eta zu jantzi ezberdiñez etorri zera. Etxekoandrea al zaitugu edo enkargatua edo orrela?

–Ai, ai! Jantzi ezberdiña zuk daukazu; botilla utsik dago-ta.

Zera. Nik zalantza batzuk neuzkan nere gisa: alegia, banan-banan denak etorri naiko zutela neregana edota bakoitzak bein etorrita geiago ez zuela etorri naiko. Agian, bigarrena.

Begira zeñen ondo
zerbitu nauzuten.
Olako bazkaririk
ez det egin aurten.
Badakit botilla bat
bakarrikan usten.
Saiatu bearco det
propiña bat uzten.
Irureun bat pezeta,
ikusten, ikusten.
Ea laurontzat berdin
banatzen dezuten.

“Beno, beno! Altza bearco diat. Emen alperrik negok”.

Barraraiño joan nintzan, disimuluan nagiak atereaz eta abar, balantzatxo aiek utsean laga asmoz. Ez dakit lortuko nuen.

Jantzi ezberdiñakiko zerbitzariari:

–Beste kafetxo bat.

–Segituan.

–Eta bi paper txuri eta arkatza, mesedez.

–Tori.

–Orain kobratu dena, kafearekin batera.

–Ez, ez. Boligrafoa propagandakoa da. Eta utsean papera.

–Orrela bada, zerorrek kontuak atera.

Pinta xelebreakiko boligrafo arekin idatzi nuen prosa au, bi paper txuri aietan zuaizpe batera joanda.

Propagandako luma,
motxa ta zuzena
eta “Famous grouse”
zan bere izena,
urrearen irudiz
txori bat zuena,
zillar-kolorekoa
gaiñontzeko dena,
kafesne-itxurako
tintaz zegoena...
Ziur izango zala
frantsesen batena.

El Diario Vasco: 2003.03.07

Aurtengo talo-jana

Bai arraioa! Aurten ere jan ditugu taloak. Besterik ez zuen merezi pasa berri degun negualdi petraltxio onek.

Badira urte batzuk Aiako Aialdeburu baserriko amona Pantxikak taloak jatera gonbidatzen nauela. Badaki, ba, aitzaki orrekin bi edo iru zaku egur eramango dizkiodala sutarako. Zenbat dakiten amona arrane auek! Orrela konpontzen gera. Eta urte askoan izan dedilla.

Sukalde epel artan, an biltzen gera dozena bat lagun, larunbat illunabarrez. Familia aundia badute ere, iru laguntxo bakarrik bizi dira: aitona-amonak eta amonaren anai bat, gazteak osaba Lontxo deitzen diotena. Baiña, olako afari gozua usaintzen danean, maai aundia bete jende, ni tartean naitzela.

Egun ori baiño illabete bat leenagotik, urteko txerria ere botata edukitzen dute. Agaika txorizoa, dotore jarria. Solomok ere, zintzilik, buruarekin jotzeko moduan. Urdaiazpikoak, urrengo astean zintzilikatu bear omen zituzten. Orra, sukaldearen goia dotore apainduta jarria. Aspaldiko sistemak dira oiek baserrian, laguntxo.

Baiña ikusten da oraindik ere bakar batzuk jarraitzen diotela sistema zaarrari. Eta jarrai dezaiotela. Gaztelaniaz *dekoradore* deitzen diegun auek bereala apainduko dute orrela sukaldearen goia! Bada eskaiola-edo dalako ori ainbestekoa. Bai, alazankoa!

Badirudi neu ere taloekin aaztu egin naitzela. Ene, ba! Izan ere, talo-jana aitzakitarako dala uste det.

Asteko, baratxuri-zopa, pil-pil-pil, poliki-poliki, denboraz egindakoa. Leenengo sakea, artatik. Ondoren, txorizoa, ederki prejituta, talo tartean bilduta, raka-raka, “ea, mutillak!”, kokotsean beera koipea geniola. Amona Pantxika, bitartean, bururik altxa gabe, tipi-tapa, tipi-tapa, egin eta egin taloak, ederrak, gaiñera, su gaiñean iru edo lau txondor balitu bezela. Ongi arrotuak, alegia.

–Zeinek falta du? Aiba.

Amabi jaten, eta bat lanean. Au zaarra da.

Etxeko sagardorik onenak ere uste det arrats orretan ateratzen dituztela: bost edo sei botilla illaran, zein baiño zein ederragoa.

Txorizoak amaitu orduko, bi fuentekada aundi, erdian arrautza prejituak, eta buelta guztia solomoz ornituta. Ezta Joan Mari Arzakek ere platera dotoreagorik, ori bera ere arrautza prejitu zalea dalarik, berak dioenez beintzat. Ez pentsa nolanaiko arrautzak ziranik, e? Etxeko oillo gorri eta pintarre aiek egindakoak. Solomoa-eta tartean artuta, ozka bat ari eta, beste ozkarako, zazt arrautzetan. Eta segi artan: jan eta kontua esan, eta sagardo-tragoa sarri-sarri.

Beatz-muturrak taloarekin berotzen ziran, baiña aitzaki arekin zupatu beatzak, aoan sartuta. Dena bale. Guk ez genuen serbilleta bearrik. *Educación de baserri*: bapo jan eta tragoa sarri.

Baiña osaba Lontxok ardoa edaten zuen. Obeto zijoakiola sagardoa baiño. Ala esan zigun, berak erderaz gutxi dakiela baiña:

–Al caballo viejo, poco verde.

Ari ez zegoen adarra jotzerik ola-ola.

Nik begi-bista ona ez daukat, baiña ardo-botillaren txartelak ala jartzen zuen: *Rioja. Crianza de 98*. “Berriz ere edukiko dik Lontxok lepo motz ederra!”.

Orrela ari giñan. Baiña aitona guk afari erdia eginda gero etorri zan. Nunbait, ukuilluko lanak amaitu nai zituen afaltzerako. Itxoin genion, baiña janez.

Ark ere jan zituen, ba, bere parteak. Bai orixe! Bere irurogeita amabi urterekin, aiek koloreak irten zitzaizkion, masailak eta sudurra zera baiño gorriago: zirkuko zapata-luze oiek baiño.

–Sano zaude, aitona.

–Ba! Ainbestean.

Amona ere gorritu zan, ba. Arena ez zan arritzekoa, sutondoan eman eta eman.

Gero, jakiñekoa: esnea taloarekin. Bakoitzari, katillukada bana esne. Leen nioena: txondorraren antza zuten taloak, zazta katillura. Bakoitzak bi gutxienez. Puuufa! Leenago koloreak baldin bagenituen, pentsa nola jarriko giñan. Batak bestearena ikusten genuen.

Azkenerrako, amona nagusi, alajaiña!

–Zeiñek nai du geiago?

Argazkia ere atera genion. Eskerrik asko.

Jaki onak jateko
beti prest gaude gu.
Berrizko ere egin
nai nuke erregu:
izotza, elur-edo
ta negua negu,
urrengo urtean ere
egin bear degu.

Lendabizi txerria
jarri gizenduta,
txorizo, solomoak
zintzilikatuta,
arrautza freskoekin
ongi prejituta...
Taloen aitzakian
jango ditugu-ta.

El Diario Vasco: 2003.02.25

Errogatibak eta gainontzekoak

Santakruzak pasa berriak ditugun onetan, izan ditut, ba, nere gogoraketak oroitzapenei begira, eta gaurkoan bakar batzuk azaldu nai dizkizuet.

Aspaldiko kontuak badira ere, ez pentsa aaztuta dauzkanik, e? Ez orixe!

Asi nadin elorrrarantzen bedeinkapenetik. Santakruzetan, edozein egunetan tokatzen zala ere, elorrrarantzak bedeinkatzeko oitura sakratua zan, errogatibak egiñez; gure alderdian, beintzat. Baiña nola?

Ara. Baserri bakoitzean, elorrrarantza sorta egiten zan, dotore askoa, saats-azalez lotuta. A ze erronbillotea! San Joanetako lore sorta bezala, zazpi edo zortzi adartxo batu, bakoitzaren beea aizkoraz zorrozuta, buru aldea aal zan dotoreena, jakiña, beren bigote eta lore, arantzarekin egiteko naikoa dotore.

Errogatibak iru egunetan egiten genituen, iru goizetan elizara etxe bakoitzetik lagun pare bat-edo, euria egin zezan Jainkoak, alegia. Joan adi bi kilometroko bidean, goizean goiz euria eskatzera, zera!, “ora pro nobis” eta “ora pro nobis”.

Elizatik lareun edo bosteun metro ingurura izaten ziran ala moduzko gurutze edo burni puska erdoitutako batzuk ezaugarri bezela, eta aietara joaten giñan. Aritz edo pago edo lizar-gerrietan egoten ziran sartuta gurutze izeneko burni zati aiek. Ondo gogoan det nun ziran ere. Bat, Agiñeta Berriko gurutzea; bestea, Pagadi Berrikoa; eta bestea, Maiagako gurutzea.

Leenengo egunean, elorrrarantzak artuta aterako giñan elizatik, aurrean gizonezkoak txapelak eskuetan genituela, atze-

an emakumezkoak, eta apaiza erdian. Bide-estratan gora edo beera, raka-raka, lokatz-zipriztiñak elkarrri boteaz. Zuaitz don-tsu artara iristean, gure arantza sortak an sartuko genituen lurtean, goitik beera zamt indarrean. Artarako zorrozten ziran. Amar dozena bat arantza sorta zuaitzpean tente, beraien jiran jende guztia errezatzen; errezatzen edo apaizari erantzuten.

Latiñezko liburu potolo bat zuen apaizak errogatibetarako. Eta andik esaten zituen urtero kontu berdiñak. Erantzunak ere berdintsuak izango ziran. Dana dala, orduan latiñez edonoren pare genekien. Eta ez da gutxi santuak ulertzeko moduan itz egitea.

Dotoreena, apaiza izaten zan. Sotanaren gaiñetik jazten zuen beste kapa kapa more aundi bat, zinta-barra ori batzuekin. Romanoen pelikuletan-eta ikusten dira, ba, buru egiten dute-netan zera: estalki dotore oiek... Orrelako zerbait. Uste det zezena toreatzeko ere balioko zuela. Burukoa, berriz, ura zan ortik onerakoa. Ez dakit zenbat punta zorrotz zituen gora begira. Ezta Pilatosek ere ain dotorerik. Gizona ere ikaragara-ria zan gure don Daniel luzea. Eta orrela jantzitakoan eta liburutik kantuan asten zanean, bazan ura bide-bazterretako sugeak ikaratzeko lain. Bai arraioa!

Onelaxe izaten zan elorrrarantzen zuaitzpeko bedeinkazioa. Jipi-jaupa jardun ondoren, apaizak arantza sortei ur-tanta batzuk pristi-prasta botako zizkien, eta berriro elizara, geure arantza eta guzti, laprastaka.

Egun ortan, ez zuen sermoirik egiten; bai bait zekien, leenengo elizkizuna luze egin ezkeru, bigarren eta irugarren egu-netan jende gutxi joango zala errogatibetara.

Elorrrarantza sortak zintzo itzuli bear izaten ziran etxera. Egin zituenak jasoko zituen leku jakiñera –aitonak, noski–, gero arto-soroan eta gari-soroan jartzeko, tximistak okerrik egin ez zezan edota ugolderik ez izateko. Egia esan, gari-soro-

an, arantza ark baiño zerbitzu ohea egiten zuen pailazo antzeko txori-izugarri batek. Txolarre moko-motz aiek errespetatu bedeinkatutako elorri-arantza? Ez zegok leku txarrean!

Aurreneko egunean, tabernara sartu gabe etxeratzen zan jendea, ez sermoi eta ez taberna. Urrengo egunean, bigarren errogatiba. Beste gurutzera, betiko jende multzoa: amabost bat emakume, ogei bat gizon, dozena bat mutil kaskar edo gaztetxo; eta, jakiña, jainko puska aundia: apaiza, alegia.

Gazteok edo mutil kaskarrak saiatzen giñan elkarren inguruan joaten gurutzebidean. Errezatzeko gogoa auzoan, eta geure arteko marmarrean joan nai, ba! Izan ere, mutikoei orrelakoetan gogoratzen ez zaienik! Alegia, oso arraro iruditzen zitzaigun gizonezkoak txapelak erantzita eta emakumezkoak manteliña deritzan buru-estalki beltz arekin burua estalita.

–I. Ori zergatik ote dek?

–Zera! Ez al dakik sarezkoak dirala? Eta beraiek dena ikusten ditek, eta berak nor diran iñork ez zekik.

–Orduan, urrengo urtean emakume-jantzian etorriko gaituk, burua estalita.

Guk naiago genuen euririk ez egitea.

Apaizaren letaniei erdi bertsotan erantzun asko ematen genien erdi aopean. Zer dan gaztea izatea, e!

–Santa Maria.

–Egizu euria.

–Sante Petre.

–Iturria bete.

Beste denak, “ora pro nobis”.

Tarteka, apaizak berak esaten zuen nola erantzun. Batzuetan, “ora pro nobis”. Eta besteetan:

–Orain santu aundien izenak esango ditut. Eta erantzun: “Te rogamos óyenos”.

Orrela saioa. Gero, berriz, orapronobisak. Guk, mutikoak, geurean jarraitzen genuen.

–Santa Agata.

–Alperra galanta.

–Santa Magdalena.

–Tuntuna alena.

–Sante Nikolae.

–Ora pro nobis.

–Sante Estefane.

–Oño! Au aundia izango dek. Oni esango zioagu: “Te robamos óyenos”.

“Te robamos”, bai! Barkatzaillerik baldin bada, barkatuko aal ditu gure uskeri aiek!

Gutxi gorabeera, orrela ziran gure euri-eskaerak iru egunetakoak.

Azkeneko egunean, sermoitxo xebreren bat entzun bear izaten zan. Iru egunetako akatsak bota, alegia.

–Alako etxetatik, iñor ez da etorri. Alakotatik, bein baka-
rrik. Gero euririk ez badu egiten, apaizaren aitzaki egingo
dute. Alako etxetakoak jaian aari-jokoa omen dute, Azpeitian
jokatzeko. Errogatibetara etortzea baiño leenagokoa izango
dute ori. Gero an jardungo dira zezen-plazan trabesean, “ama-
bost kolpe baietz” eta “ogei amarri”.

Eta:

–*Va!* –eskua luzatuta, mutilxaar batek, poste atzetik.

Denak parrez. Baita apaiza ere.

Au dena egia da. Euria egingo ez zuen, ba! Bearko egin.

Amaitu ziran errogatibak,
baita ere letaniak.
Amaitu ziran latin izkuntzaz
errezatzeko maniak.
Amaitu ziran zuaitz-gerrian
zeuden gurutze-burniak.
Eta amaitzen dijoaz baita
apaizaren armaniak.

Orduan soro denetan bazan
artoa eta garia,
babarrun gorri edo baba beltz.
Lur-emaitza ugaria.
Lan ura ere urritu zaigu,
berdin otoitz-eskaria.
Itsasoa or dagoen arte
egingo du, bai, euria!

El Diario Vasco: 2003.05.09

Agur pago motz aiei

Euskal Errian, garai batean bagenuen pago motz ederrik. *Pago motza* diot, gazteak ziran arte lurretik iru metrora-edo mozten zituztelako. Eta an, pago-burua sortzen zan, ikatza egiteko eta adarrak su-egurretarako izan zitezen. Gerosexago jarraituko degu ontaz.

Gure pagadiak zaarrak ziran oso. Ni mutikoa nintzanean, orduantxe ari ziran botatzen gizaldia eta geiago gure mendietan zutik zeramaten pago motz, sendo, enbor-leun aiek.

Amaika orbel garbi isuritako pagoak. Ganaduentzat azpigarritarako, pagopeko garo eta belar-almitzekin naastuta, ura zan ganaduak ukuilluan gozo eta bigun egoteko azpigarririk onena. Eta bien bitartean, perretxiko ederrik jaso oi genuen: gibelurdin, xixa ori, onddo, kuleto eta abar. Pagopea garbia zan oso. Goroldio berde-orixka arekin, alfonbra balitz bezela pagopea.

Baso-mutillak lanean ondo ikasiak izaten ziran orduan. Txukun asko aizkolduko zuten pago ondoa, trontzaz eta burni ziriz botatzeko. Bota eta enborraren burualdean moztu trontzaz, zuzen asko, eta laga bertan. Orrela, baso osoa bota eta moztuta lagatzen zuten.

Ondoren, inguruetakoko idi parearekin pago-gerri guztiak zerra-lekuetara eramango zituzten, eta baso-mutillak berriro ekingo zioten pago-buruetako adar mozteari. Adar-muturretarako zotz edo arbak, baserrietako atarietara idiz eta gurdiz eramateko gertutuko zituzten, gero sukaldeetako su-piztaille eta gaztaiñak erretzeko zotz-aukera izan zedin. Baita baratzetako baina-arba eta illar-arba izan zitezen ere.

Pago-adarrak bi metro luze-edo orrela moztuta lagatzen zituzten. Su-egurra zan ura berez: baserri-etxeetako su-egurra, alegia. Baita kalerako ere. Gurdikada egur dotorea franko eraman izan zan errira! Kanean ere, egurrarekin egiten zan sua sukalde geienetan. Gogoratuta ere, azterketa egiten diot nere buruari. Inoiz malkoren bat ere atera oi zait. Zergatik?

Zera. Ba al dakizue zer ederra zan, kanean aurrera idi pare dotorea ondo eskobillatuta, ardi-larru ille-zuri ederrarekin buruak jantzita, ederki kargatutako gurdi egurra eramaten, beren kopetako borla gorri-urdira aiekin? Itzaia ere, abarka, galtzerdi, gerriko beltz eta txapelarekin, bizarra ere labanaz leun asko moztuta, idi parearen aurrean, trapa-trapa kale erdian barrena, galtzada zaar aietan laprast egiteko ikararik gabe!

Kale-etxeetako emakumeak balkoietatik begira, itzaiari izketan:

–Badaramazu pago-egur ederra, gizon.

–Bai.

–Norentzako dezu oraingoan?

Alakorentzat.

–Guri ere ari zaizkigu gastatzen, eta abisatuko dizugu esnezalearekin, bear degunean.

–Ondo da. Adio.

Esnezalea aitatu du etxeoandre orrek. Bai, ba. Orduan, nola egunero esnearekin kalera jeisten ziran baserrietatik, kanean enkarguren bat bazegoen, esnezaleak eramaten zuen baserrira enkargua edo karta.

Zer uste dezue, ba, orduan karteroak joaten zirala baserrietara? Bai zera! Esnezalea, korreoa.

Zer argazki polita kanean barrena idi parearen gurdi egurrarekin. Gaur ainbat automobil ez zan ibiliko. A, Jaungoikoa!

Gogoratuta ere garai aiek!

Pago-buruarekin eta pago-adar sendoenekin, txondorra egiten zuten baso-mutillak. Aitzurrez zabaldo borobilla egin, ordekatu, eta an asiko zuten egur-pillaketa borobilla, bueltan-bueltan, pago-buruak elkarren gainean jarriaz eta tarteak egur xeeagoarekin beteaz. Orrela egur-tontor borobilla osatu-takoan, lur-zotalez dena estaliko zuten, zirrikitu txikienik laga gabe, inñundik aizerik artu ez zezan. Kerik irten gabe, ondo egosi zedin egurra, ikatz biurtzeko.

Gaiñeko zulotik beera sua botata, su arraraziko zioten txondorrari. Berriro zuloa itxi eta eltzean aragia bezela egosita, ikatz beltz biurtzen zan txondorraren egur guztia. Jakiña: ura gau eta egun zaindu bear izaten zuten baso-mutillak. Zotal tartetik kea irteten asi ezkerro, aitzurra eta pala artuta, azkar ura ixtera. Gauean, txandaka egiten zan zainketa ura. Illabete-edo bere egunak pasatakoan, txondor-tontorrak merma aundia egiten zuen. Ura zan ezaugarria ikatza egiña zegoela.

Berriro gaiñeko zotal-lurrak kendu, dena garbitu, eta ikatza zakuetan sartzen zuten. Ura zan baso-mutillen lana, nola-bait zutitutako etxolan jan eta lo egiñez: sardina zaarrak, baba, arrautzak, zaatoa ardoarekin, amar-amabost eguneko ogia... Galdetu besterik ez zegoen aiei: “zer nai dezue bazkaltzeko?”.

Orrela, basoaren jabeak berriro dei egingo zien inguruko baserritarrei, etortzeko beren idi eta gurdi, ikatza errira edo saltokira eramatera, leenago pago-gerriak zerra-lekura bezela. Orri *abaldia* deitzen zitzaion. Idiz eta gurdiz egiten zan garraioketari *abaldia* deitzen zitzaion, bai. Dozena-erdi bat idi pare, beren gurdi ikatza txistutan dutela, mendiko bide-estratetan zear, drangu galantak egiñez. Beste mendi-espaldatik, begira egoten zan jendea abaldiari: bat bestearen atzetik errenkan, idi gaztaiñoak, durangesak, beltzak, oriak..., beren adar aundiekin.

Nun dira argazki zoragarri aiek? Eskerrak, irudi aiek begiz ikusi eta buruan gordeak ditudan, tarteka begiratzeko eta gogoratzeko.

Baso-mutillak diruz ondo ordainduak izango zituen baso-nagusiak. Ostatuan afari ona ere bai, “ni berriz ere zuetara beartu nintekék” esanez. Afari aren berotasuna pasatzen zitzaienean, beste pagadiren batera an joango ziran, aizkora, trontza, burni ziri eta borra artuta.

Orrela zan gure aspaldiko pagadi aien bukaera.

Baiña pago-gerri edo enborrharen emaitza zan baliosoena. Zerratu bi edo iru neurritan eta beste bi edo iru urtean an egongo ziran kastillotuta: elkar ikutu gabe listoituta, alegia.

Makinetan lantzeko egurrik onena pago motza da: erre-minta gutxien kamusten duena. Erronka jotzea ez dago ondo, baiña altzariak egiteko neure eskuetan ere zenbat pago motz tabloi pasa ote da? Zenbat aldiz, aspertu eziñik zerran, uraxe ebakitzen eta lantzen! Leun-leun lijatu eta barnizatu. Edozein kolore artzen du, gaiñera, pagoak.

Ementxe eta onelaxe lagako det gure aspaldiko pago motz aien istoria.

Pago motzak amaitu
zuten bai bizitza,
gure mendi malkartsu
umelen emaitza.
Gero indartua zan
jakintsuen itza.
Zergatik ez berriro
pago ta aritza?
Orain basurdeekin
borrokan dabilta.

Gero zer egin degu?
Zaudete, zaudete:
mendi garbi-garbiak
piñu beltzez bete.
Orain usoek ere
alde egin digute.
Ez genuen izango
ainbeste suerte,
leengoek jarri izan
ez baldin balute.

El Diario Vasco: 2003.05.23

Txikiteoak baiño leen, sagordetegiak Zarautzen

Errietako festak ere asi dira, ba. Gu bizi geran Zarautzen, berriz, San Pelaioak. Beraz, zergatik ez aztertu erri onetako leengo txurruta-oiturak?

Guk txikiteoa deitzen diogun tabernaz taberna baxoerdi ardoak edaten ibiltze ori ez omen da oso antziñakoa. Txakolindegian leengo batean eduki genuen afarian, ala kontatu zidaten zarautzar adiskide batzuek.


Zarautzen, beintzat, sagardotegi txiki pilla bat bazan, dirudienez. Edozein kaletan, sagardotegia.

Orduko kaleak ez ziran oraingoak bezain leunak. Leengo kaleak arri-galtzadaz egiñak ziran. (*Galtzada* edo *adokia* deitzen zioten.) Argazki zaarretara begira jartzen bagera, an ikusten da kaleak nolakoak ziran. Ni ez naiz aspertzen argazki aiei begira. Leengo kale zaar aietako ikuspegia oraingo baserrietakoa baiño baserritarragoa zan. Begiratu besterik ez zan garai artako Zarauzko astotegi zaarrera. Zenbat asto, beor, zaldi! Idi pareak ere, noiznai kaleetan zear, gurdiaekin. Txerria ere bai, txerrikiren batetik irtenda zebillenean. Goizetan, oilloen kakaraka-otsa ere bai, arrautza egiten zutenean. Ea gaur nungo baserrietan ikusten dan ori guztia.

Eta illeroko feria-eguna zanean, berriz, feria-plazara eramaten zan ganadu edo abere guztia ere. Kanean zear eramaten zan traillan artuta, tipi-tapa, tipi-tapa, mokordo ederrak egiñez. Gurdikada txertaldea ere, leen nioena: idi eta gurdi, kanean zear. Eta saltzen ez zana, berriro leengo bidetik etxera. Orrela ziran kaleko ikuspegiak garai batean.

Paso nibela, erriaren bukaera bezela aipatzen zala diote. Andik aurrera, Azken Portu fundatua izango zan. Orain erri bat eginda dago.

Goazen, ba, antziñako zenbait sagardotegiren izenak aipatzera: Antoñinekoa, Pantolingua, Miranda Enea, Itziar Enea, Manuel Mari, Luxia Enea, Errusta Enea. Norbait aaztu bazait, barkatu bezaidate.



Zarauzko Pio-enean: Bergara, Bixente Lazkano, Aierbe, Periko III, Manolo Santana, Isidoro Lonbide eta Imanol Arluziaga.

Argazkia: egile ezezaguna.

Geroko txikiteorako oituraren aurretik, sagardotegiz sagardotegi ibiltzen omen ziran. Tokan aritzeko ere aukera omen zegoen sagardotegi geienetan. Edaten zuten basokada sagardoa jokatu eta abar. Denbora-pasa.

Errusta Enea apustu-lekua zala diote. Aari-jokoak, oillar-jokoak, idi-demak, lasterka-apustuak eta abar, an egiten omen ziran itzez. Itza siñadura bait zan orduan.

Txurrutaren eragiñez, onako apustu au ere egin omen zuten norbaitzuk. Sarezko kaiola edo itxitura batean, amabi arratoi eta katu bat sartu, eta batzuk arratoiak nagusitu baietz, eta besteak katuaren alde. Katu gajoak naiko lan ba omen zuen bere burua salbatzen. Itxura danez, orduan ere denetik egiten zuten.

Luxiak xuurraren fama zuen, diotenez. Baiña iñor gonbidatzen ona omen zan. Nola ulertzen da au? Xuurra gonbidaketan? Bein, ala gonbidatu zuen adiskide Manuel Antonio:

–Goazemak barrika berria probatzera. Uste diat mama ederra daukala artxek.

Ala, baso bana edan dute, eta:

–Zer iruditu zaik?

Manuel Antoniok, bi ez tul txiki egiñez:

–Basokada bati ainbeste gustu ez zioat artu, motel.

Luxiaren erantzuna:

–Ba, bigarrenak kalte egingo dik, eta goazemak emendik.

Orra: gonbidatu, kunplitu, eta xuurra zala nabarmendu.

Barrika bat ustu eta berriaren irekieran, sagardotegi-atarian erramua jartzen zuten ezaugarri bezela. Alegia, barrika berria ireki zala. Zer oitura xume eta leialak, e! Txikiteo soillari baiño zentzu geiago artzen diot neronek izaera ari.

Fraileetara urteroko gurdikada eramatea ere aspaldiko oitura omen da. Ori neronek ere pentsatzen det. Gurdi egurra edo gurdi simaurra eraman oi zan. Nik ere ezagutu nuen ori. Iñurritza aldeko baserritarrak Aingeru Goardako egunez eramaten omen zuten. Urteta eta Izeta aldekoak, gure aldekoak alegia, andik urrengo feria-egunean. Eraman zutena eraman zutela, ustu eta idi pareta beste norbaitekin etxera bidali, eta baserri-nagusiak fraileetako afarira zintzo asko.

Gero, afaria aurrera zijoan aiñean, eta txarrokada ardoak ustutzen zijoazen aiñean, muturrak gorritzen, kontua ugal-tzen... Betikoa. Batzuk, bertsotan ere bai. Au ondo jakingo du gaur Arantzazun bizi dan nere tokaio dan Nikolas Segurola aundiak. Zarautzen bizitua bait da bera ere. Gure aitari entzun izan nion:

–Ño! Aurten ere Nikolas aundiak bertso ederrak bota ziz-kiguk. Baiña bazizkian erantzunak ere atzoko ortan. Biurri Txikiak eta Paskueltxok-eta ez zitxioten isilik utzi.

Au guztia entzun ondoren, nik derizkiot, nere baitan, frai-leetara eraman zuten jornada baiño aundiagoa eramaten zute-la fraileetatik etxera. Orra denak pozik.

Baiña edozein moduz ibiltzerik ere ez zegoen kalean. Ez pentsa gauean kalea zaintzen zuten *serenua* deitzen zitzaien gizon traje dotoredun aiek kamutsak ziranik. Ez orixe!

Diotenez, zerbaiten bearra ere izango zan. Makatzaneko etxea badakizue nun dagoen Zarautzen. Ez da oraingoxea izango. Orduan, ukuillua bistan, kaletik ikusten zala, ate zaar ura askotan zabalik, jendeak oitura lasai bat artuta zeukan; sagardotegietan zebillen jendeak, alegia: Makatzaneko ukui-lluko paretari pixa egitea.

Argentinan ogei urte pasa ondoren berriro etorri zan zarauztar ark ere, lagunekin sagardotegietan zebilela, pareta zaar ari pixa egin bear, ba. Orrela ari zala, serenua.

–Multa jarriko dizut, gizon, or pixa egiteagatik.

–Bai, bai. Jarri lasai multa. Pozik ordainduko dizut. Baze-neki, Argentinan ogei urtetan, zenbat aldiz deseatu dedan pareta oni pixa egitea!

Ark ere bete zuen, ba, bere ametsa.

Monika Motza ere izketan egokia omen zan, ba: kaleak-eta garbitzen aritzen zan gizon moztaka bat. Amerikano ori

Zarauzko erri-jirak ikusten Mendilauta aldean zebillela,
Monika Motzari:

–Egun on.

–Bai. Berdin.

–Etxe asko egin dizkitek emen, e?

–Bai.

–Zeiñenak dituk?

–Au, marqués de Cortinas; ori, conde de Adanero; ura,
duque de Lecera; bestea, duque del Infantado.

Geienak, aristokrazia-jendearenak.

–Orrelako etxeak Ameriketara iru illabetetan egiten
dizkitek.

–Koño!

–Eta beste arunzkaldeko arrizko ura zeinena dek?

Monika Motzaren erantzun azkarra:

–Ez zekiat. Atzo ez zitxion or-eta.

Monika Motza ez izan arren
luzea eta zabala,
kaleko garbitzaillea baiña
gizaki zintzo, apala,
esku-karroa, txillar-erratza,
bere aitzur eta pala.
Amerikano kapeladuna
galdezka ez zan makala,
baiña ordago entzuna zuen
berak enbido jo aala.
Ez pentsa Ameriketara denak
espabilatzen dirala.

El Diario Vasco: 2003.06.18

Ezkontza-bidaia laburra

Ezkontza-bidaiak ere milla eratakoak izango dira, nik entzun izan dedanez. Gure garaian, oso urrutira ez giñan joaten. Denbora luzerako, gutxiago. Nola, ba? Zerekin? Gure gurasoei-eta entzun izan genien, bai: “Alako lekutara joan, eta aste bat pasa genian, beintzat”. Ba, guk ere askoz geiago ez genuen egin. Gure aurrekoena ondu, eta kito. Beste bi edo iru egun pasako genituen, lanean asi nai ezik, baiña patrikak estutzen zijoazen, eta an amaitzen ziran egun kontatu aiek.

Badakizue Amezketako Pernandok ere zer erantzun zion jostunari. Galtza berriak egin omen zizkioten jostundegian, eta urrengo feriakooan ordaintzekotan, baiña izendatu gabe zein feria. Ala, pasa feria bat, pasa bestea, eta ez azaltzen Pernando jostunarengana. Jostuna, leiotik begira feria-egun gutietan. Alako batean, beintzat, ikusten du Pernando, tapa-tapa feria aldera. Ireki du leioa jostunak, eta deadar:

–Pernandooo!

–Zer daaa?

–Galtzak, galtzak!

–A, bai. Patriketan estu samar; bestela, ondooo.

Orixe gertatzen zitzaigun geiagori ere.

Orain, berriz, modan dago munduaren bestaldeko bazterreraiño joatea. Or goian ibiltzen diran txori ego-zabal oieta-koren batean sartu, eta an ziaztik maleta pilla bat artuta, geiagorri bear ez balute bezela. Zertarako, eta izan dirala esateko. Baiña ondo egiten dute.

Nere lagun ziran eta diran Jabier eta Mari Kontxik ere ezkontza-bidaia laburra egin zuten, ba, orain dala ogeita amai-

ru urte. Baiña luzea egiteko asmoz ziran. Eta, gaiñera, tximino koskor bat erosteko idearekin, iñun aurkitzen bazuten beintzat. Katalunian iru-lau egun pasa, eta gero andik Kanarietara beste amabost bat egun pasatzera. Esan ere egin nien:

–Alajaiña! Zuek dituzue, zuek, biribillak! Inbidia ederra ematen didazue.

–Orain aprobe txatu bear diagu, Nikolas. Gero gerokoak.

–Bai, bai. Zoazte eta ondo ibili.

–Etorritakoan kontatuko dizkiagu paraje aietako kontuak. Adio.

Andik bost edo seigarren egunean nun ikusten ditut adiskide ezkonberri aiek azoka batean.

–Baiña, zer kristo! Ez al ziñaten, ba, joan?

–Baita etorri ere.

–Zer? Okerren bat ala?

–Ez, ez. Ondo gabiltzak, Jainkoari eskerrak. Bizitza berria ondo asi diagu. Baiña gure planak aldatu egin genizkian eta argatik itzuli gaituk.

Asi zitzaizkidan, ba, beren pasadizoak esaten, eta parre pixka bat egin arazi zidaten. Izan ere, ez da gutxiagotarako.

Ba, iragarria zeukaten bezela, joan omen ziran Bartzelonara. Eta ez gustatu ainbeste: ango automobillaren emana, eta alako jende pillak, eta bultzaka ibili bearra eta...

–A! Zer uste zenuen, ba? Oiartzunen eta Hondarribian bezelako lekuak aurkituko zenituztela? Joan, joan berriz ere.

Ala, beintzat, jarraitu zuten gertaeren berri ematen. Eta ni entzuten.

Irugarren egunean, ango feria-leku batera joan omen ziran. Eta, an zebiltzala trapu-tartetik trapu-tartera eta alde batetik bestera, alako batean nun entzuten duten:

–*¡Vengan, vengan! ¡Hagan juego, señoras y señores!*

Eta bestaldean, berriz, beste batek:

–*¡Hay monos en venta! De todos los colores* –deadarka.

–Aiba dio, Kontxi. Emen, guk nai genuena.

–Bai. Goazen ikustera.

Joan omen ziran disimuluan, eta ango tximino-aukera: beltzak, grisak, txuri antzekoak..., denetik. Saltzailleak ere ba omen zuen antza.

Erosi dute, ba, tximino txurixka txiki bat, bere kaiola eta guzti. Ordaindu eta pozik. Lortu zutela nai zutena.

Gero ezin, ba, tximinoa hoteleko gelan eduki egun guztian, eta arratsaldean beren tximinoa kaiolan zutela paseatuz Ramblas aldera joan bear zutela. Eta Kontxik:

–Zer Ramblas, eta zer San Blas!

Badijoaz beintzat elkarri besotik elduta, emazteak kaiola eskuan zuela. Eta Rambletan kale xelebreren bat egon bear du kontuz ibili bearrekoa badaezpada ere, aldamenetara ondo begiratuz... Eta, alako batean, or datorkio Jabierri emakume gona-motz bat:

–*Ven conmigo, majote. Tu mujer tiene un mono, y me gustaría tener un mono como tú* –besotik tiraka.

Mari Kontxi gajoa, ikaratuta:

–Baiña zer mundutara etorri gera? Kanarietara ni? –dio senarrari–. Ez dago leku txarrean, gizonik gabe geratzeko.

Gauean, artu trena, eta beren tximino eta guzti Donostia-*ra. Coche-cama* edo orrelako batean, tximinoak lo artu zai, berak esna joateko. Ura ere komedia, noski.

Donostiako geltokian trenetik irten ziranean, elkarri esan omen zioten:

–Orain lasai, e! Kanarietan pasa bear genituen amabost egunak, familiartekoak bisitatuz ederki asko pasako ditugu. Eta, gaiñera, merkeago.

Zer egin? Osteguna.

–Goazen Hernanira. Izebari bazkaria kendu eta feria ikusiko degu.

–Oso ondo.

Pasadizoak kontatuz lasai bazkaldu izebaren kontura, eta “kaixo, motel!”.

Izebak ala esaten omen zuen buruari eragiñez:

–Izan ere, gogorra egin zenuten ain urrutira joatea, bein ere erritik atera ez-ta.

Arratsaldean, feria-plazara, beren tximinoarekin. Jende guztia, berei begira edo tximinoari. Orduan ere, jende erdal-duna asko Hernanin, eta batek:

–*Te compro el mono.*

Eta besteak:

–*Te compro la mona.*

Elkarri zioten:

–Zergatik ez degu saltzen tximino alu au eta or dagoen txerri beltz, potxolo ori erosi?

Esan eta egin. Tximinoa erosi zuten baño iru aldiz geia-goan saldu beste emakume alargun bati, eta diru arekin txerri beltza erosi. Urrengo egunean il, txerri-lanak egin, eta berriro familiarrak bisitatzera, txerri-erregaloak banatuz. Denak pozik.

Ura bai ezkontza-bidaia sana! Beajondaizuela!

El Diario Vasco: 2003.07.22

Gari-jotzeak

Gure leengo baserrietako gari-jotzea auzotarrekin egiten genuen. Amabost bat lagun bear izaten ziran orretarako. Eta makinistak beste bi. Auek motorra eta matxaka zaintzen egoten ziran. Alperrontziak zirala esaten genuen.

Iru edo lau bikote matxakarako, amar bat minutura txandatur. Matxaka deitzen genion garia jaulkitzeko makina edo tramankuluari. Zurezko armadura, barruko danborra ojalatazkoa koska batzuekin, bi aldeetara polea bana, motorretik zetorren korrea nolabaiteko ura zein aldetatik jartzea komeni zan. Artarako zeuzkan bi polea tramankulu arriskutsu ark.

Lan au baserrietako mandioetan egiten zan. Barruan, matxaka. Eta atez kanpoko aldetik, motorra bere gurdian, tipi-tapa, tipi-tapa. Ango kea! Ango txispa! Amar bat metroko korrea zaar bat, araokiz (adabakiz) betetakoa, noiznai etetzen zana. Eskerrak ari! Konpondu arte, deskantso. An ez zan beste atsedenaldirik izaten. Matxaka ere gurdiz eramaten zan.

Makinak etxe batetik bestera eramateko, bi idi pare bear izaten ziran. Pare bat, gariak jotako etzekoa; eta bestea, jo bear ziran etzekoa.

Nola jotzen zan garia?

Matxakari, sarrera aldetik, bi metro eta erdi inguruko maaia eransten zitzaion, atzez altuago zala. Eta an, emakume bat, garikoa txandaka aurrera botatzen matxakan ari zan bikoteari. Bikote ark, eskura zetorkion garikoari bi sartu-atera ematen zizkion, biak txandan: batek raun, eta besteak raun, errazkitik ondo elduta. An ikusten zan garikoa nola lotuta zegoen. Bi sartu-atera ematean, atzera botatzen zuten lastaikoa.

Bein matxakaz aleak jaulki ezkerro, ez zan garikoa, lastaikoa baizik; lastoa, alegia. Sapaiaik betetzen ziran, bai, lastaikoz. Ondo tolestatuta, jakiña. Gari-aoka matxaka azpira erortzen zan. Eta aoka pilla egiten zan mandioaren alderdi batean. Aoka deitzen genion gari-alearekin geratzen zan buru-azalari.

Orrela, asi eta bukatu arte, lau-bost bat ordu. Tarteka, binaka, salda artzera sukaldera jeisten giñan txandatuz. Lepo-zapiko autsak kendu, txapelak astindu, mokadu bana egin, trago batzuk jo, eta berriro gora. Sukaldean zeuden emakumeak esango zieten:

—Orain, esan beste bi aiei; oraindik ez dira etorri-ta.

Etxe bakoitzean, egun erdi bat pasa bear izaten zan gari-jotzea burutzeko. Bukaera izaten zuen ona gari-jotzeak: bazkaria edo afaria. Etxe geienetan, mandioan bertan jartzen zan maai aundi bat, bere mantel eta guzti.

Maaian eseri aurretik, elkarriz bizkarrak garbitzen genizkion gizonezkoak atarian. Sukaldean, emakumeek ur epelarekin beteta prest eduki oi zituzten pertzakada urak, eta etxean egindako jaboizatiak, jakiña. Ura gozatua! Aurrena, ondo jaboitu; eta gero, kazuelkada ura bizkarrera eta burura.

Arropak aldatzeko ere, bakoitzak bere pardeltxoan an izaten zuen. Txukun orraztu eta maaira. Autz tartean jardundakoak giñanik ere ez genuen ematen. Elkarriz adarra jotzen ere bai:

—I ere gari-jotzen jardun al aiz, ba? Ez aut ikusi.

Oillo-zopa ederra, bere izarrekin; ondo egindako gisatua, naiko saieskiarekin; etxeko sagardorik onena; ardoa, zegoena; *kafe de putxero*; bixkorrilloak, berriz, *Anís las Cadenas* eta *Terry* koñaka.

Uste det lanean aritutakoak baiño geiago izaten giñala maaian. Tartean, izerdi asko atera gabeak ere bai. Eta baka-

rrren bat, sapaian lo egindakoa ere bai. Dana dala, lanean baiño geiago jaten. Au betikoa da.

Jarduera gogor aren ondoren, jan eta edan egiteko a zer gorputza izaten genuen; geienok sasoikoak ere bai-eta! Bereala jartzen giñan umorean. Tragoak ere, sarri-sarri, muturrak gorrituta. Ipuiak eta bertsoak ere ez ziran urruti izaten. Mandioko banketea izaten zan ura.

Emakume zerbitzariantzat, sukaldetik urruti geratzen zan mandioko jangela. Kontu aundiz eramaten zuten pertza, kirten banatatik elduta, eskailleretan gora.

Gero bakarren batzuk musean asten baziran, amabost bat egunetara tabernan jateko oilloa jokatu oi zuten. Besteok, aiei begira. Alajainkoa eta bi, fin jokatzen zuten aiek, txapelak oker-okar jantzita. Noizko altxa maaitik?

Nik ezagutu nuen gari-jotzea orrelaxe zan, jaun-andreok.

El Diario Vasco: 2003.07.30

Mandioko eskolak

Gu mutikoak giñan garaietan, baserrietako mandioetan izan oi zan eskola. Inguruetako etxeetako mutil koskor eta neska koskorrak biltzen ziran bertara. Sei-zazpi etxeren artean maisu edo maistraren bat ekartzen zuten, denen artean zer-bait ordaindu eta mantenduz.

Aurrena, errezatzen ikasten zan. Baiña otoitzak eskolan asi baiño leen amak edo amonak erakutsiak izaten ziran. Ondo, gaiñera. Zenbait maisu eta maistrak baiño obeto errezatzen genuen umeak. Bai siñatu ere, “gurutze santuaren”. Eta aitaren ere bai, bi beatzekin, txukun asko: bekokitik edo illeen mugatik asi eta bi beatzak urrena tripa barreneraiño; andik sorbaldetara –baiña ez keiñua bakarrik–, bi sorbalden atzealdeariño beatzak paseaz; eta musuan bukatu; obeto esan, beatzak aoraiño sartuz. Ura zan gauzak pulamentuz egitea.

Zer ikasten zan, ba, mandioeko eskoletan? Ba, orduko liburuxkak ziotena. Zer liburu zeuden, ba? Leenengo, *Jesusa* zeritzana, a-e-i-o-u asita, letra aundiduna. Irakurterraza, ikasitakoan. Gero izaten zan “Katona” zeritzana, letra txikiagoekin, eta liburu aundixeagoa. An asten ziran gauzak zailtzen. Ura aurrenetik azkeneraiño ikasterako, pare bat katon puskatzen genituen bakoitzak. Aiek anai txikiagoentzat izaten ziran.

Ondoren, dotriña izaten zan printzipalena. Ura, are letra txikiagokoa. Ortik atera kontuak. Ura euskerazkoa bagenuen guk beintzat. “Dotriña xaarra” zuen izena. Txikia zan oso, bere azal oriarekin; baiña makiña bat kontu bazegoen an. Urteak bear ziran ura dena buruz ikasteko.

Beste liburu zail bat ere bazan, eskuz fin-fin idatzia. Izena zuen *Manuscrito*. Guk esaten genion ari “Manuskritua”. Ark

mundu guztiko berri ematen zuen, bere letra txiki, biurri, puñetero aiekin. Ura ikasteko, mandioko eskola baiño goragokoa bear zan: sapaikoa-edo. Gutxiren batzuk ikasten zuten ura. Eta ikasten zutenak, apaiz edo fraile seminariora joateko modukoak, seguru asko. Nork ulertu?

Gero, beste liburu potolo samar bat ere izaten zan, *Lecturas* jartzen zuena. Ari ere egunero saioxka batzuk egin bear, ba.

Eta idazteko, zer zegoen? Zera: Gabonetan erregeak eka-rritako koaderno axalen batzuk, bi lapitzekin; eta beste pintura-kajaren bat, astoa eta txakurra-eta margotzeko. Pizarra edo arbel txiki batzuk ere baziran, bai. Baiña aiek ere dirua balio-ko zuten, eta or zegok ba koxka! Amar-amabi ume baziran eskolan, eta iru-lau arbel, txandaka: batzuk *sumar*, *restar*, *multiplicar* eta *dividir* egiten; eta besteak idazten. Eta gero, alderantziz. Mandioko eskolan gauzak ondo aprobetxatzen ziran, zera, txo.

Tintero txiki batzuk ere baziran, beren tinta urdin politarekin. Orduan ez bait zan boligrafo-rik, plumak. Ala deitzen genien, egurrezko zotz edo kirtenarekin, puntan tinteroan bus-titzeko burnitxo bat zutela. Dexente ikasi arte, punta zabal samarra, idi pareak goldearekin baiño arrasto aundiagoa egi-ten zuena. Gerora, moldatzen gindoazen aiñean, punta fiña-gokoa. Or, kategoriak edo maillak egoten ziran. Orretan, denok mailla onean egon nai izaten genuen. Bai, ba: letra polita zeukaten idatziak umeen gurasoei erakusten bait ziz-kieten maisuak edo maistrak. Eta an ez zegoen txantxetan ibiltzerik. “Egon adi lo, eta jango dek mee”.

Garai aietan, eliza-kontuak oso serio artzen ziran. Orain, jaunartze txikia bakarrik egiten da. Orduan, bi egiten ziran: leenengoa, zazpi urterekin; eta bigarrena, amabirekin. “Komunio txikia” eta “komunio aundia” deitzen zitzaien.

Nioen orain jaunartze txikia bakarrik egiten dala. Eta ondo nioen, gaiñera! Ez det uste batzuk geiago joaten diranik. Jau-nartzeak egiteko, dotriña ondo ikasi bearra zegoen; batez ere, bigarrena egiterakoan.

Baiña mandioko eskolan umorealdiak ere maiz izaten ziran. Eta ori beti bearrezkoa izaten da. Prudentzio maisuak beintzat bazituen umorealdiak, naiz eta dotriña-erakusle ona izan. *Prontxio* deitzen zioten.



Jaungoikoari otoitz
egizute EGUIGUREN ta
OÑEDERRA'tar PRU-
DENCIO Jaunaren pakean
il zan Elgoibar'en 1967'ko
Abendua'ren 2'an 44 urte
zituala eleiz laguntzak eta
Aita Santuarén Onespena
artu ondoren

GOIAN BEGO

Prudentzio Egiguren "Artañola", Debako Irure baserriko mandio-eskolako maisua.

–Bai. Jesukristo ere mutilzarra uan; ni bezelaxe, jator askoa. Baiña Pontzio Pilatosek ez zitxion ezer barkatu. Eta etsaien eskuetan laga zian. Ez zegok eskubiderik orretarako!

Mutiko ausart batek:

–*Pontzio* ez zan izango, maisu. *Prontxio* izango zan.

–Bai, zera! *Txio* danak, aillegatzen ez diranak dituk; ni bezelaxe. Aundia izateko, *tzio* bear dik. Bestela, ez zuan piloto izango. Egazkiñak aspaldikoak dituk, mutillak. Aspaldikoak!

Ura bertsolaria bait zan.

Mandioko eskolak animaliekin ere bazuen zerikusia. Oilloak ere noiznai, antxe: oraintxe, maai azpian, oraintxe maai gaiñean. Noiz edo noiz, ziriña ere bai. Baiña belar pillan arrautza ere bai. Iru-lau txori txolarre ere betikoak, urrutitik zetozen umeak ekarritako ogitartekoa mokokatzeko. Atarian aske zebillen txerri txikiak ere bisita sarri egiten zuen mandio aldera. Eta egia da. Txerria paperzalea da berez. Ez ikasketarako, baiña paperari esku-usaia artzen dio nonbait, eta azkar aoratzen du. Orixegatik, gauzak jasota lagatzen ere ikasten zan mandioko eskolan.

Bein, antxumeengatik zigortuak izan ziran ume denak, mandioko eskola xeblebre aietako batean; nere emaztea dana ere tartean, berak kontatzen duenez. Giro txarra zan batean, antxumeak ere mandioan. Eta errekreio edo jolas-orduan, maisua amaietakoa egitera sukaldera jeitsi zanean, ume denak jolasean, eta antxumeak ere bai, maai gaiñetik maai gaiñera brinkoan, tinteroak ipurdiz gora bueltaka. Ango txukundadea, noski! *Prontxio* etorri zanean, kontuak!

–Denak belauniko, beso-zabalik, elkarri erremolatxa-ondo kozkor bana eskuetan jarrita.

Izan ere, iru-lau liburu bakarrik bazeuden, nola kargatu amar ume aien eskuak? Erremolatxa, berriz, aukeran zegoen, negurako etxeratutako pilla batean.

Ainbeste erremolatxa-gurutze ikusita, maisua bera ere parrez. Bereala agindu omen zien erremolatxak leenagoko lekuan lagatzeko.

–Bestela, neroni kastigatuko natxiok etxeko nagusiak-eta.

Aiek ziran eskola naturalak, aiek! Maisu eta maistrak ere, uste det beren karrera-garaian ainbeste ikasiko zutela mandio-etako eskoletan.

Eskola klase aiek
bazuten bizia.
Zer ikasi ez ezik,
zan zer ikusia.
Ez zala dotorea,
ezta're itsusia,
ez daukagu damurik,
ezta desgrazia,
mandioko eskolan
zerbait ikasia.

Ikasketa laburrak
garai artakoak:
luzeen jota ere,
iru urtekoak.
Baiña aazten zaillak;
beraz, betikoak.
Gerora kontatzeko,
dotore askoak.
Nunai balio du an
ikasitakoak.

El Diario Vasco: 2003.09.30

“Lapuche” xaar ura

Urriko ego-aizea eta eiztariak elkarren lagunak dira. Leen ere ala ziran, eta gero ere arrisku ederra izango dute.

Uso-paseagatik ari naiz. Baiña leengo uso-paseak eta oraingoak ez dira berdiñak, nere ustez. Ezta leengo eiztatzea eta oraingoa ere.

Eskopetak ere zenbat ziran, ba? Ingurumarira begiratuta, eskuko beatzekin kontatzeko moduan. Kartutxoak ere, aurreko urtean sobratutako dozena-erdiren bat, kajoi zaarren batean. Aiek bukatu arte ez zan ekartzen kaja berria. Orain, berriz, etxe bakoitzean iru edo lau eskopeta, eskopetazaleenak; eta nolakoak, gaiñera: iru tirokoak, laukoak, bostekoak... Zera: denak tira arte usoak gertu egongo diralakoan! Ez zegok leku txarrean!

Kartutxoak, berriz, altzaria bete, ondo ordenatuta. Leengo dendetan baiño kartutxo geiago dago oraingo eskopezaleen etxeetan. Leengo eskopeta bakarrak, berriz, badakigu nolakoak ziran. Normalenak, bi kaiñukoak, erdoi-kutsu pixka batekin. Kaiñu bakarrekoak ere baziran bakar batzuk; tiro batekoak, alegia. Bost tirokoarekin oitua dagoenari esaiozu tiro batekoarekin joateko eizera.

Gaiñera, kaiñu estuagoa zutenak ziran aiek; kartutxo txikiagoa, beraz. “Lapuche” zuten izena. Gure etxean ere bazan. Aitona zanarena-edo. Kaiñu luxearekin, ireki eta itxi egiten ez zana. Kaiñu-orpoan tapatxo bat, atzera tira eta zuloa bistan. Kargatutakoan, aurrera bultza eta itxia. Ez seguru eta ez otxo kuarto!

Gogoan det bein –amazazpi bat urte izango nituen–, illunabar batean –San Martin bezpera zan, gaiñera–, itsas aate zai

joan bear nuela, eta aita ferira joana... Artu mandioko kutxa zaarretik “Lapuche” luxe ura, autsak kendu, gurdi-ardatza igurtzitzeko olio zikiñarekin pixka bat lijeritu nion tira eta bultza egiteko tapatxo ura, eta banoa soro goren batera, zakua burutik nuela. An nengoen zai, otzak dardarka... Alako batean, “emen dek kristoren itsas aate pilla”. Erdi-erdira, danba! “Emen zetorrek bat goitik beera”. Ura alea! Dotorea, gaiñera. Poz aundia zer zan ere orduantxe jabetu nintzan.

Gau artan artu zuen garbitua dalako “Lapuche” xaar ark. Ura igurtzi bearra, sutako autsarekin, eta urarekin egindako masaz arraskatuz, brilloa ateratzeko ona izaten zala-eta! Uste det amari ere botilla-erdi bat olio xautu niola. Ark, berriz, meriendarik gabe laga ninduen. Baiña, ori bai: pozez gaiñezka.

Leenago nioena: eiztatze ura eta oraingoak ezberdiñak dira. Orduko eiztari bakarrak, mendira garotara eta bibelar ontzera zijoazenean, artzen zuten eskopeta, eta aizkora txiki bat ere bai txosnaren bat egiteko. Baiña ez zuten lanetik denbora asko galduko. Orain baiño gertuagotik pasatzen ziran uso-banda galantak. Tiro gutxi entzuten zutelako. Eskuan geneuzkan makillak tiratzen aritu oi giñan beintzat eta, garo biltzen ari giñanean. Eta gaiñeraiño usoak.

Aitak esango zigun:

–Makurtu zaitzte pixka bat, bazetoztik-eta.

An jarriko giñan lau ankan, ganaduen antzera; ganaduen ingurutik pasazalea bait da usoa. Gurdi garoaren ondotik edo aal zan tokitik tirako zizkien bi tiro. Noizbeinka bakarren bat erortzen bazan, urte guztian ura esaten. Orrelatsu ibili oi giñan.

Orain, berriz, Jesus, Maria eta Jose! Leenengo, automobilla preparatu, tubo eskape zaratatsurekin, irrati-kaseta eta musika eta guzti. Farolak, berriz, dozena-erdi bat; bee-laiñoa-

rentzat eta abar. Dendakada bat kartutxo eramateko kaja, auto barruan ondo ajustatuta, mugitu ez dedin. Barnizatuta, gaiñera. (Au ondo dakit; neuri ere egin arazi didate-eta.) Beste kaja bat, txakurrarentzat; ura *Tintalux*-ekin pintatuta, taladruarekin milla zulo eginda, arnasa ondo ar dezan. Txaleko eta biserak, berriz, ortik onerakoak, mendiaren kolorekoak; eta dena orrela. Guardia zibillarenak ere balioko dute orduan.

Bezperatik, uso-txosnen zozketara. Ogei txosnenezako, irureun eiztari, bakoitza bere txartelarekin. Suerterik ez dutenak, marmarrean etxera. Suertedunak, berriz, bakarren batzuk tabernan ere geratu oi dira, leengo urteko abenturak kontatzen. Eta, jakiña: trago bat, bi, iru... Berandu etxera. Goizean, lo; txosna, eiztaririk gabe.

Urrengo egunetan, ari adarra jotzen samurra da.

–I, denak ire txosnatik pasatzen ituan. Zergatik ez aiz joan?

Orixe aski izaten da, eiztari bat erreztatzen jartzeko.

Txosnetan ere, egoera xebreak izaten dira. Goizean, leengo, oztu ederra artu, eta ogitartekoari eta zaatoari kolpeka; eraman badute, beintzat. Gero, tira eta kale egin ezkerro, beste txosnakoei errua:

–Izan ere, ez zeundetean ondo gordeta.

Eta dena orrelakoa.

Usoak datozela abisua norbaitek, fi-fi-fi, txistua jo eta denak beren txosnetan gordeta daudela arnasarik ere artu gabe, baten batek birigarroren bati, tapa!, tiroa. Jakiña: usoak jiratu eta, esaten dan bezala, kasa kristora. Puuufa! Mekauben dida batean, denak. Ura armoni gozoa! Orretarako orrenbeste ixtori? Jainko soberanua!

Baimena lortu aurrenez,
bearrezkoa au denez.
Oeratzea ere komeni,
leenbaileen gau leenez.
Ofiziorik aulenez,
jeiki bostak ta laurdenez...
Zenbat gabiltzan orrela, uso
garaian gaudenez!

Zail da sasitik jasotzen.
Eiztari ona, gaiñontzen.
Berez punteri txarra duena
gero ez da ontzen.
Ez det asi nai arrotzen,
baizik aolkuak lotzen:
kartutxo ona alperrik dezu,
ez badezu jotzen.

El Diario Vasco: 2003.10.29

Elizako eskea

Noiz jarria ote da elizako diru-biltzea? Auskalo. Noiz arte jarraituko ote du? Auskalo. Gure gazte-denboran, igandero mezara joaten giñan garaiko elizako diru-biltzea nola egiten zan azaldu nai det, ba, gaurko onetan. Batez ere, gure Urda-netako eliza txiki artakoa, beintzat. Eta ar ezazue aintzat.

Nik txantxa-itxuran azaltzen baditut ere gertaera aiek, elizako eskea edo diru-biltzea oso serioa zan. Edozeiñek esango luke: “bai; eman bear danean, beti serioa izaten dek”. Ala da ori ere.

Goazen arira. Igandero bi meza izaten ziranez –goiz-meza eta meza nagusia–, goiz-mezan, zortzietakoan, iru gizon ibiltzen ziran diru-biltzea egiten. Geienera ere, berrogei lagun izaten giñan mezatan. Eta iru gizon, aien txanponak biltzeko!

Urtero aldatzen joaten zan artarako kargua zuen gizona: urte batean baserri batekoa, eta bestean bestekoa. Auzo guztiak parte artzen zuten zeregin artan. Norbaitek ezin bazuen egin, edo urrutikoari tokatu zaiola, ezetz esanda ez zegoen libratzerik, e? Ez, ez. Oitura zan alako diru-kopuru bat ordaintzea elizari, eta orduan artuko zuen urrena tokatzen zitzaionak. Zerbait ordaindu zuen ark, seguru asko, urte guztian ez zuen txanponik botako. Baiña ark bere betebearra orrela betetzen zuen, eta aurrera txalupa.

Gaiñera, ori guztia apaizaren agerian egin bearra zan garbi. Don Daniel luzeak ala esan oi omen zuen, orrelako aldaketa zanean:

–Batek ezin badu, besteak. Ez zioz ajola nork. Baiña kues-tioa dek dirua biltzea.

Leenago nioena: iru izaten zirala goizeko mezan. Meza erdian edo, an altxako zan bere aulkitik urteko karguan zegoena. Artuko zituen iru kajatxo borobil aiek, beren apaletik; edo ez nago ziur giltzapean egoten ziran. Dana dala, aundiena berak artu; eta urrengo aundiena, beste gizon elduren bati; eta irugarrena eta txikiena, gazteren bati.

Beren elduleku edo kirtendunak ziran kajatxo xapal aiek. Talo-oolaren antzekoak, beren txakonekin. Bakoitzak bazerman santuren baten izena. Uste det zirala San Martin, San Isidro eta San Joan.

Bai. An ez zegoen bromarik. Aiek bakoitzari aurrean jartzten zioten platera –zera, txo!–, erreberentzia galantak egiñez! Gizonezkoen sailla ondo bildutakoan, emakumeetara. An gutxiago biltzen zutela uste det. Bai, ba. Erreza da ulertzea. Orduan, emakumezkoak buruko manteliña eramaten zuten. Eta, jakiña: txanponik bota nai ez bazuten, manteliñarekin, burua ez ezik, aurpegia ere tapatu; eskuetan zuten liburu potolo ura begietaraiño sartu, irakurtzen baleude bezela...; eta kaixo, motel. Bitartean, liburua goikoz beera, igual, bere letra aundiekin: *Trece martes de San Antonio*.

Orduan ere, tranpa txiki denak ikasi bearra zegoen, bizi-modua aterako bazan. Zer uste dezue, ba?

Meza nagusian, amarretakoan, bakarra izaten zan diru biltzen: karguan zegoen etxe bereko besteren bat. Normalean, jende gutxiago izaten zan amarretako mezan. Jende elduagoa, edo etxeke nagusiak, eta orrela. Diru-biltzeko kutxa ezberdiña zan: kaja laukia, bere kirtenarekin. Baiña itxia, goian eltxetxoak bezelako txulo bat zuelarik. Nagusi jendeak txanpon potologoak botako zituzten-edo –orduko pezeta rubia-eta, paperezkoak ere bai-eta–, ezin ba agerian ibili.

Goizeko mezan, iñor ez zan deskuidatuko pezeta rubia botatzen. Ez orixe! Dena, bost xentimokoa eta amarrekkoa.

Orain ere badaude bost eta amar xentimokoak, baiña beste balio batekoak. Orduko amar xentimoak pezeta bat egiten zuten. Ortik atera kontuak.

Iñoiz gertatu oi zan, norbaitek kanbiorik ez bi amar xentimoko botatzeko-eta, pezeta rubia bota leenengo eta berak artu zortzi amar xentimoko, zintzo asko, aldameneko denak lepoak luzatuta berari begira zituela. An ez zegoen esku zikiña ibiltzerik; naiko lekuko izaten bait zan.

Norbaitek galdetuko du: “eta noiz betetzen ziran, ba, kaja aiek?”. Bete, ez dakit noiz. Baiña ustutzeko epea, urtean bitan izaten zan: San Pedrotan eta Eguberrian.

Tarteka izaten zan diru-biltze berezia ere: mixiolarien alde, eta elizaren bearretarako, eta abar. Nik ez dakit Aita Santuari praka berriak egiteko bazan ere.

Nola adierazten zigun apaizak diru-biltze bereziarena? Onela. Aldare alderako sarreran, gradaren alde banatan, baziran bi zapelatz-irudi, bi txori aundi, gaiñean liburua jartzeko lekua zutela. Ostiral Santu egunean-eta, andik egiten zigun iñork ulertzen ez genuen irakurraldia. Ba, txori aietako bati, lepotik zintzilik jartzen zion *kartulina* edo esaten dan paper aundi bat, sukaldeko egutegiaren antzekoa, beartsuen irudia-ekin. Edo goseak dagoen aurrea. (Ori ez da aldatu ordutik gaurra.) Eta bi izkuntzatan idatzia. Aurrea, erderaz: “Hoy es el día de la colecta”. Eta azpian, euskeraz: “Gaur, diru-biltze eguna”. Oraindik begien aurrean daukat.

Elizara sartu eta ura ikustean, izaten zan marmarra ere batzuetan.

–Gaur ere badiagu txikito bana gutxiago.

Eta erantzun bearra zegoen itxura batean. Bestela, gure apaiz aundiak an botako zuen sermotik.

–Aurten ere etorriko dituk Eguberriak, kaja attal oiek betetzerako.

Nola ote dagoen
elizatxo ura
ikustera joan oi naiz
bere ingurura.
Aitaren bat eginda,
sartu're barrura.
Lau ormak zaarkituak,
denean austura,
dauka igartutako
zuaitzen itxura.

Sermoietan diote:
“fedea bizi da”.
Ai, San Martin, San Martin,
eliza gaizki da.
Konpontzeko biderik
balego sikira!
Asko kostako dala,
ori aitzaki da.
Vatikanoko ondar-
-ale bat aski da.

El Diario Vasco: 2003.12.20

Leengo Gabonak

Leengo baserrietako sukalde zaar aietan nola ospatzen genituen Gabon eta Eguberriak? Ondo; oso ondo ere: ilusioz eta pozez beteta. Geronek nola pasatzen genuen azalduko det nik. Eta auzoetan ere antzerako izango zan.

Gabonak gozo ospatu nai baziran, etxeko amak edo amonak udatzenerako asi bear zuen prestaketan. Zertarako? Zera: iru edo lau oillasko irenduta prest eduki, Gabonetarako kapoi aundiak egin zitezen. San Martiñetarako sartuko zituzten kaja illun batean, aal zan geldien egon zitezen eta tentaziorik izan ez zezaten. Bein irendu ezkerero ez zuten tentazio aundirik izango; baiña, tira! Oillorik ikusi gabe, beintzat. Artoa, zukua eta uraren faltarik ez zuten izaten. Bai galantak azi ere, alajainkoa eta bi!, anka luze-luzeekin.

Egun pare bat aurretik asiko giñan etxe-jira txukuntzen. Baita etxe barrua ere. Menda-erratzak egin kirten luzeekin, usai ederra zeriela, eta agerian zeuden amauma-sareak eraisten goitik beera. Izaten zan zer eraitsia! Egur iarrak txikitu eta prest jarri, beren zotzekin sua pizteko, egun aietan emakumeek sermoia egiten lanik izan ez zezaten. Gabonetan, ukuilluko ganaduak ere garbi eduki oi genituen, azpietara naiko orbela botata, ondo eskobillatuta. Kanpokoren bat etorrira ere, zer esan bear zuen ganaduak ipurdi zikiñarekin ikusita?

Gabon bezperan, astoa ere ondo kargatuta jeisten zan kale-
ra, azokara. Eguneroko esne-marmitez gain, gaztain, intxaur, irin, porru, piper, errege-sagar, arrautz, eta abar. Zer uste dezue, ba! Bisiguak ekarriko baziran, zerbait eramán bearra zegoen.

Onako oitura au ere bazan; gure etxean, beintzat: Gabon egunean meriendarik ez, illuntzero sagardo ederrarekin sardinzarrak jaten oituak bageunden ere. Alegia, “gaur afari ona izaten dek, eta pixka bat gosetu zuek ere”. Ez zan illuntze motza izaten.

Donostian bizi ziran izeba Agustina eta Iñaxi ere etortzen ziran, eta ama eta irurak erasoko zioten illuntzean garaiz suaren jiran, mantala berriak jantzita, kolore gorri-gorriekin, kontu atsegiñak esanez. Gezurrak ere esango zituzten, baiña nork antzeman aiei?

Nioena. An asiko ziran su gaiña ondo garbitu, lumatuta zegoen kapoi zoragarri ura gertutu eta azken igurtziak eman labeen sartzerako. Besteak, errege-sagarrak zuritu eta txikitu, ardotako sagarrak egiteko, kanela-zotz eta azukrearekin eta ardoarekin egosita. Pertzakada esnea ere su gaiñera, aia egiteko, egurrezko kutxarekin milla buelta emanaz. Oillo-zopa ere an edukiko zuten atzean, su geldian, zeru-sapaian baiño izar geiagorekin. Bere garaian jarriko zituzten iru bat bisigu su gaiñean, begi gorri-gorriekin, oliotan-eta bustitako lumarekin leun-leun igurtziz. Aiek ituan mutillak, aiek!

Kea eta abarra bai, baiña bai usai gozoa! Ukuilluraino joaten zan usaia. Eta ganaduek ere muturrak gora jasotzen zituzten tarteka. Aientzat ere ondo zetozen Gabonak: azpigarri ona, bizkarrak eskobillatuta, ipurdiak garbi... eta, gaiñera, usai ona artuz. Baiña astoak arrantza berdin-berdin egiten zuen. Ura eskobillatzera ez zan iñor joango.

Alako batean, orman gora altzata zegoen sukaldeko maaia jeitsiko zuten beera, goiko maratilla askatuta. Sendo jarriko zuten bere anka ondo irekita. Mantelik ez zitzaion jartzen. Goizean leje-urarekin garbituta egongo zan txuri-txuri. Ortan ziur nago. Platera loredunik-edo etxean baldin bazan, aterako zituzten. Gero, kontu jakiñak izaten ziran:

–Zenbat urte ote dituzte platera gaixo auek? Gure amona zana ezkondu zanean ekarriak omen ziran-eta. Oraintxe gutxi geratzen zaizkigu.

Bat edo batek erantzungo zuen:

–Iraungo ez dute, ba! Urtean bein bakarrik ateratzen dituzue-eta. Ez, fiñak eta onak diralako.

–Tira, tira! Ez dirala onak?

–Ik zer dakik, ba! Begira ezak zer ots jotzen duten auek.

Amak kutxarekin jotzen du tin-tin, eta plast!, bi puska. Buruari elduta Jesuska. Gu, gaztetxoak, parrez:

–Bat gutxiago, ama. Ori urrengo urtean ez dezu atera bearrik.

Auek denak gertatzen ziran. Eta une umoretsuak, gaiñera.

Orrelaxe ekiten genion afariari, aitagure bana errezatuta. Leenengo, oillo-zopa izartsu ura. Eltzea maaira, denei platerak betetzeko burruntzaliz. Zurrupateko otsa ugari, baiña onartuak. Ondoren, begietatik jan zitezkeen bisigu zuri aiek. Ongi ireki eta ezurra kenduak, beren buruarekin maaira. Une berean botatzen zitzairen olio erre baratxuriarekin. Zera: Donostiako su-festak baiño zarrapateko aundiagoa ateratzen zuen olio erre ark, bisiguen botatzean. Bi ozpin-tanto, eta:

–Ea, mutillak. Zeiñek nai du burua?

Eta:

–Zeiñek nai du isatsa?

Zera: geratuko zalakoan! Ontzia lagatzen bazan, pozik emakumeak.

Guk, mutikook, atariko illunera eramaten genituen bisiguen ezur aundiak. An jartzen ziran orman zintzilik, argia egin zezaten. Illunpean, zuri-zuri ikusten da bisigu-ezurra.

Gero, kapoi dontsu aren ordua.

–Orrenbeste arto eta zapero jan dek, eta orain konponduko augu.

Bai. Arekin konpon zitezkeen makiña bat oker, aitonak bezperan kanilla jarri zion barrika artatik ateratako txanpaina-ren antzeko aparra zeukan sagardo gozo ura edanez.

Aren ondoren zetozen postre beroak: ardotako sagarrak eta aia. Aiek, batez ere ume koskorrentzako, gozoki bezela oi ziran. Bai txakur txikiak eta katuak ere aiaren usai gozoa senduta zeukaten: ea berentzat zerbait iristen zan. Bein iritsi zitzaien beintzat.

Gazteok aiaren zai, eta:

–Izeba, noizko da, ba, ai santu ori?

–Torizue, ba, mutillak, Eta jan ezazue, ito gabe.

Ori esanez bazetorren, pertza bi kirtenetatik artuta, maaira presaka samar, eta palasta aundi bat erori zitzaion. Gajoa estututa:

–Oraintxe garbituko det.

–Ez, ez, izeba. Laga pertza maaian eta eseri; garbitzailleak badauzkagu-ta.

Txakur txikia eta bi katuren artean bai garbitu ere azkar asko. Ura xipi-xapa beren mingaiñekin. Denentzako feria txarrik ez.

Kafe putxero, kikara brillodun aietan, elduentzako. Eta bixkorrilloak, jakiñekoak: *Anís las Cadenas* eta *Terry* koñaka.

Afalondoa ezin,
ba, laga utsean.
Bitartean txoriak
lo zeuden untzean.
Umeak puntuan ta
elduak musean
aritu izan giñan
denbora luzean.

Eguberri egunean ere ez zegoen berandu jeikitzerik. Mezako joan-etorria ere egin bearra zegoen derrigor. Gero, gizonezkoak ganadu-lanetara. Eta emakumeak garaiz asiko ziran bazkaria moldatzen. Batez ere, postre-kontuak. Jana-riak, aurreratuak eduki oi zituzten. Kroketa ederrak, ori bai. Aiek ituan, aiek!, krocketak: egin berriak eta azkar bukatzen ziranak. Arroz-esnea, berriz, ortik onerakoa, bere “garo” puska aiekin.

Eta natilla? Arekin lan aundia artzen zuten. Esnea arrautza-gorringo batzuekin eta azukrearekin egosten ez dakit zenbat denbora izaten zan, zurezko kutxararekin alde batera eragiñez eta suarekin tamaiña artuz. Esku batekin suari egurra sartu, eta bestearekin eragin. Beste izeba, berriz, arrautza-zuringoarekin eta azukrearekin apar lodia egiten, zopa-ontzi zuri dotore batean. Artu besapean ontzia, eta tenedore kirten-luze batekin, pla-pla-pla!, bi ordu bai. Baiña gero zer natilla? Ori-oria, mendi zuriekin.

Barka bezate, baiña sukaldaritza ura ez konparatu Argiñano eta Artzak eta oiekin, e?

Txantxa zan, lasai.

Artzak Juan Mariri, badiot bai itzala. Arrautza prejitu zalea omen da, eta arrautza prejitu baten oso zalea dan gizonarekin argi ibili; ura norbait izango da-eta. Agur ta erdi, Juan Mari.

Onelaxe ziran, ba, gure garai bateko Gabonak. Urtezaar eta Urteberriak ere antzeko zirelarik.

Eskerrak, garai aiek bizituak geran.

El Diario Vasco: 2003.12.24

Beeko su zaarra

Beeko su zaarra ezagutu nuen nik. Ez gure baserrian, baiña gertu samarreko auzo batean bai. Aranburu Zaar baserrian, gu mutiko elduak eginda geroxeago ere, bazan beeko su zaarra.

Kea beetik gora irentsi zezan, tximinia bee-zabala. Eta gora ere bai: ia gizona pasatzeko modukoa, teillaturaiño edo gorago. Sukaldearen alderdi batean zan, ondotik berrogei bat zentimetroko gorakoa zuela. Luzera, berriz, pare bat metro. Eta zabalean, metro bat eskas edo orrela zuen altzaune ark. Aren gaiñean egiten zuten sua. Egur-trokote galantak jarri-gatik, bapo irentsi oi zituen suak.

Koska artatik beera txingar puskarik erortzen bazan, azkar jasotzen zan gaiñera. Artarako, esku-pala txiki bat zeukaten.

Tximinia ere pare bat urtez bein garbitu bearra izaten zan. Bat teillatura igota, goitik beera soka luze bat botatzen zuen, erdian gorosti-adartxo egindako sorta, sokarekin ondo korapillatua. Orrela arraskatzen zuten tximinia, batek beetik eta besteak goitik sokari elduta, tiraka gora eta beera.

Tximinitik zintzilik, laratza. Pertzak eta eltzeak, an zintzilikatuta egosi zitezten, lurruna tximinian gora zutela. Orduko baba eta babarrun egostea orrelaxe egiten zuten. Orduan ez zegoen orain erderaz esaten dan *tragahumos*-ik.

Zartagi eta kazoekin ere aal zan bezela moldatu bearko zan. Sardinzarrak erretzeko ederra. Txingarretan jarri eta bezutuzen ziranean, erre ziran seiñale. Tenaza kirten-luze batzuk, jarri eta kendu egiteko.

Gaztaiñak erretzeko ere aproposa, danboliña larazetik zintzilikatuta. Lan artan berotu ederrak artutako aitonak izango ziran garai batean.

Negurako, oso ona zan etxerako berogarri bezela. Udarako baiño ohea. Bai oiñetako eta galtzerdi bustiak leortzeko ere. Sorotik edo menditik illuntzean etxeratutakoan, abarka, galtzerdi edo mantarrak blai egiñak izaten ziran; eta, goizean beraiek janzten ziranez, gauean nola edo ala leortu bearra zegoen. Gauean bustiak laga, eta goizean leorrak jantzi, edo erdi leorrak. Asteleenetik larunbatera, galtzerdi pare batekin geienean. Ez orain bezela: gaur ibili eta, izerdi-usaia daukate-la-eta, biar beste batzuk jantzi.

Gauean oeratzeko, egur koskor batzuekin laga oi zuten sua, goizean pizteko errezago izan zedin. Era artan, oso gutxitan itzaltzen zan beeko sua. Pospolo-kaja batek urte bat edo irau zezakeen.

Etxean pipako tabakoa erretzen zutenak ere baziran: aitona edo osabaren bat. Aiek ere pipa pizteko sistema onelaxe zuten. Sukaldeko aulkian lasai eseri, eta pipa ondo kargatu leenengo. Gero, beeko sura joanda, kontuz-kontuz artu illatia eta pipa sutu, aurpegira kea zeriela. Begiak gorritu eta eztulka asi arte saiatzen ziran beren pipak pizten.

Orrela aurreratzen ziran txanponak garai artan. Zer uste dezue, ba, lagunok? Dirua aurreratzeko, ez da naikoa asko irabaztea bakarrik. Gutxi gastatzea ere bai.

Emakumeek beren arropa-konponketak edo trapu-josketak beeko suaren bueltan eserita egiten zituzten, kontu kontari. Arratsalde, geienetan. Auzokoren bat ere askotan izaten zan. Eta antxe iru-lau emakume, masailak ondo gorrituta. Gezurra franko esango zieten elkarri. Baita esan bear ere. Bestela, zer aitzaki billatu arratsaldea pasatzeko?

Balekite izketan beeko su zaar aiek, zer kontatuko ote lituzkete?

Gutxi gorabeera, onelatsu zan nik ezagutu nuen beeko su zaarraren izaera.

Aren ondoren sortuak omen dira guk luzaroan ezagutu ditugun suak: ekonomika deitzen zitzaienak. Aiek azaldu zira-nean, sekulako aurrerapena omen zan. Lujua ere bai, noski. Baiña ari ere, egurrak sartu bear goizetik gauera. Oeratzeko, gauero eskutakada bat lasto laga oi zuten emakumeek su gainean, goizean pospoloz pizteko iarra egon zedin. Eta orrela, urtez urte.

Gerora, gasa ezagutu degu. Erreztasun aundia, zalantzarik gabe. Baiña zikina omen da. Au dek marka, au! Gurekin asmatuko duena ere...!

Orain, berriz, argi-indarretik sua. Botoi xelebrenen bati sakatuta, nai dan galgako sua. Plantxaren gainean eskua jarrita ere, erretzen ez duen oietakoa.

Infernua ere, onezkero, zerua bezain ongi egongo da.

Beeko su zaarrarekin bizi izan ziran amona aiek etorri eta ikusiko balute oraingo su-sistema, elkarri esango lieke:

–Eneee! Goazeman etorri geran lekura, emen sorginkeria besterik ez zego-eta.

Beeko suaz idazten asi,
amaitua det goikoan.
Nere buruai galdetzen diot:
“ez al naiz urruti joan?”.
Guztia bizi izan degula
izan dezagun gogoan.
Leengotatik oraingotara
zer diferentzi dagoan!

El Diario Vasco: 2004.01.31

1956ko elurtea

Milla bederatzireun eta berrogeita amaseiko otsailla zala uste det illabeteko elurtea eta jelatea izan genuela. Nik ama-bost urte bete berriak izango nituen. Orain irurogeita iru badi-tut, baiña leengo urtean balitz bezela gogoratzen naiz.

Gure etxean, idi berriak ekarri berriak zeuden. Idi gazteak. Aita Zarautza joana zan Kandelario bezperan, idi berriekin, egur batzuk zerratokira eramanez, etxerakoan pentsua ekar-tzeko eta abar. Illuntzean etorri zanean bere egur zerratuekin eta pentsuz ornitutako gurdikadarekin, auxe esan zigun gu mutil koskorroi:

–Oso eguraldi txarra eta otza zetorrek, eta itxi itzazue ipa-rraldetik dauden ate-eta leio-zirrikitu guztiak ondo, lastoz eta garoz. Baita teillatu azpiko sakape-zuloak ere.

Ondo itxi genituen, bai, alajainkoa eta bi! Eskerrak, gana-du-pentsua ekarri zuen! Alako ondorena etorri zan.

Orduan, bi baso-mutil ere bazeuden gure etxean, piñu sar-tzen ibiltzen ziranak: Batista eta Gillermo; amezketarrak. Denon artean, ustez ondo itxiak genituen aitak esandako zi-rrikituak.

Gure poza!

–I, aitak esan dik elurra egingo duela.

Gu mutikoon festa, noski. Denok txori-tranpa billa. Etxe-ko armairu guztiak miatu genituen, ama errietan genuela.

–Zer zabiltzate or?

–Oññetako billa, ama; biar giro txarra egingo du-ta.

–Orain ere izango dezue zerbait.

Gu, geurean:

–I, mandioko kutxa aundian bazuan, ba, bat...

–Bai. Ura, gaiñera, katagorriak eta basakatuak arrapatzeko zuan.

–Ganbarillako komoda zaar artan ere zeozer bagenian, ba, leengo urtean?

–A, bai. Zozo-tranpa an gorde genian.

Komoda zaar ari ere bisita egin genion, beintzat; aspaldian iñork ez zuen ikutuko-eta.

Orrelaxe, dexente armatu giñan mutikoak. Gau artan, ez dakit lorik ere egin genuen. Ez zegoan, ba, beste lanik.

Urrengo goizean ziran kontuak: sukaldeko arraskan, urik ez! Izan ere, etxe-atarian uraren tubo geienak lurrazalean age-rian egon oi ziran; eta, jakiña, jelatuak. Ura martxan jarri nai eta komeriak ziran an. Iru-lau gizon lastaikoak sutu eta zarta-zarta suarekin ur-tuboak berotzen, ganadu-mantak bizkarretik artuta.

Erdi oskarbi, erdi laiño, elur-malkoak erori eziñik, ipar-aizea aundia, aurpegia kentzekoa. Eguerdi aldera pixka bat autsi zuenean, laster egin zuen egitekoa. Aita ez zegoen oker.

Otsaillaren bia, bai: Kandelario eguna. Badira esaldiak: “Kandelario, arkaitzak ura dario”... Ez, urte artan. Arkaitzeko urak kandela biurtu bait ziran. Izan ere, ura egitazko Kandelario eguna zan.

Illabete osoan, zuri egon zan. Ez, elur aundia; baiña, egunez ere jela egiten zuenez eta gau geienetan elurra bota, atera kontu. Aizea ibiltzen zan aundia. Ark sartzen zuen elurra zirritu guztietan barrura, eta zuritu. Zuitzei ere aizeak elurra pegatuta jartzen zien. Gero jelatzen zan, eta “kaixo, motel”. Badakizue piñu gazte geienak iartu edo erre zituela. Orduan, piñudi gazte asko zegoen gure lurraldean.

Urarekin ari nintzan. Bai: ura sakratua zan. Ukuilluan ogei burutik gora, eta norbaitek burua ibili bearra zeukan an. Belar onduz eta lastoz ase bear ganaduak. Nolabait ekartzen genituen arbi-ale batzuk, eta pentsua tartean. Dena janari leorra, eta ura bear derrigor.

Gure aitak egun geienak bi balderekin sukaldeko arraskatik ukuillura ura eramaten pasa zituen. Iturria, gau eta egun zabalik. Eta ixten deskuidatzen zana, erruki. Ez zuen meriendetan arrautza eta txorixo-muturra jango. Muturrak jaso, bai. Bai, ba: iturria txirrioan ez bazegoen, berriz tuboak jelatuko ziralako.

Sukaldean izaten zan teatroa: ama beti aserre. Etxeko zaarren bat, silla-ipurdi berriak egiten zumitzez, bere trasteekin. Ango urritz-makilla uretan busti eta su gaiñean berotu bearra! Ango pipa erre bearra! Ango eztula!

Urritz-makillak busti eta berotzen ziran, zumitza errezago ateratzearren. Bigundu errezagoa gertatzen zan. Kutxillo zorrotz batekin, kask zatzada, eta lakaiña arrotu. Belaunaren kontra okertuz, eta beatzekin zumitzari bultzaz, raka-raka mutur batetik bestera zumitza ateratzen zioten urritz-makillari. Orrela egiten ziran silla-ipurdi zumitzezkoak, sukalde guztia zilipurdika zutela. Ama nola ez zan, ba, aserre egongo?

Mutikoak ere an giñan beti:

–Ama, galtzerdiak leortu.

–Ama, abarkak leortu.

–Baita ipurdia ere leortuko diat. Eseri adi su gaiñean.

Zenbat orrelako!

Mandioan ere norbait aritzen zan, eskuareak eta aitzur-kirtenak egiten eta gurdia konpontzen eta abarrean.

Esneak bi egunez bein eramaten genituen kalera, beorreakin kontuz-kontuz. Bezeroak zai egoten ziran. Familia azten ari ziranak bezero asko, eta an esnea bear zan. Kontzientzia

aundiz eraman ere, naiz eta elurtea izan. Gurelesa eta Kaikurekin orain adiñako aukerarik ez dakit bazan orduan. Kaikuekin, bearbada bai.

Goserik ez genuen pasa. San Martiñetan ildako potzoloaren urdaiazpikoak sukaldean zintzilik bait zeuden. Baiña dozena bat lagun jartzen giñan maaian, baso-mutil eta etxeako. Platerak garbitzen bakarrik ere lana zegoen.

Baso-mutilletako bat eiztari amorratua zan: Batista. Auzokoarekin-eta erbia bota zuela-eta, oillagorrak ere bai, eta gure sukaldean erbi-jana afaria. Auzoko eiztariak ere bai. Pare bat pertzakada patata maaira, kea zeruela.

–Ama, erbia eta oillagorrak nun dira, ba?

–Azpian. Sartu burrunzalia azpira.

Ura dek umorea, ura! Denak, parrez.

Bi edo iru txantxangorri ere bagenituen sukaldean, tranpaz eta galbaiaz arrapatuak. Aiek ere otorduko garaian agertzen ziran armairu gaiñetan, beren papar gorriekin, ea ogi-apurrik erortzen zan-edo. Aiek ziran aiek irudiak, argazkiz edo bideoz artzeko. Baiña orduan, ez argazki, ez bideo eta ez fideo.

Erbiarekin egindako gixatu izeneko ura jandakoan, musean, elkarri begiak atera bearrean. Ura armoni gozoa, armoni epela!

Katu-jana ere antolatu zuten, musean ari zirala. Nola arrapatu? Katua sukaldean zegoenean, atea zirrikituarekin jarri, bestaldean bat zakuarekin, eta:

–Xapi! Kanpora!

Eta irtetean, zazt, zakura.

Orrela, iru ekarri zituzten. Ondo garbituta, iru gautan leioz kanpotik salmueran edukita, gogor-gogorak. Aiek zituan, aiek, gauzak! Aiek bai patatak gozatu! Sukaldean azitako katua ez pentsa burla egitekoa danik.

Koneju-jana antolatu zan urrengo. Eiztariak, eiztari ez zirenei:

–I, Patxi; i, Joxe! Zuek ekarri konejuak, e? Orain arte eto-
rri eta joan besterik ez dezue egin-eta.

–Bai.

–Bai.

Joxe, mutilxaar xuur oietakoa.

–I, etxeko gizenena ekarri ezak, e?

Andik egun batzuetara, an dator umeak egiteko zegoen
konejua zakuan zuela.

–Auxe daukagu gizenena, Joxepa.

Gure amak:

–Aizak. Eraman ezak au etxera azkar, e?; ik baiño geiago
balio dik-eta.

–Orduan, katua ekarriko det –bere txapela kaskoan zuela.

–Ekarri ezak, ba; inor ez dek oartuko-eta.

Orrela pasa zan. Eiztariak adarra jo Joxeri? Ez zegok leku
txarrean. Ark bazekien zertan zebillen.

Aiek ez ziran antzerkiak. Aiek teatroak ziran. Jelatearen
alderdi epelak, esango nuke.

Otsailla motza dala? Bai. Nik nai baiño motzagoa izan zan ura.

Eskiatzera ez giñan joaten,
eizera bai frankotan.
Illunabarrez festa gozoa
gure sukalde-txokotan.
Garai aiekin gogoratuta
pentsa izan det askotan:
beste elurte bat jasan leike
orrela pasatzekotan.

El Diario Vasco: 2004.03.27

Bijilia

Aurten, San Jose eguna ostiralez genuen. Beraz, bijiliarik egin bearrik ez, naiz eta garizuma izan; leengo oituretan beintzat.

Ni beste bi lagunekin sagardotegi batean nintzan afaritan. Eta alboko maaian zegoen kuadrillari belarriak jarrita egon ere bai, tarteka. Garai bateko kontua franko gogora arazi zidaten. Eta idatzi nai duenarentzat ona da ori.

Bat-batean, bijilia kontua atera zuten. Amorruez, gaiñera. Nere adin modutsukoak ziran. Aiek ez zeuden ados Elizaren leengo kontuekin eta elizgizonekin. Eraso zieten, ba:

–Izan ere, zenbat txorakeria egin arazi ziguten Jainkoak bakarrik zekik. Eta ez zekiat ark ere jakingo duen zertaraiño iritsi arazi gintuzten Elizaren aginduek.

Beste batek:

–Inuxentekeria aiek egin arazi zizkiguten, ba. Gu inuxenteak, bijilia egiten genuelako. Derrigortu gabe ere, naiko bijilia egiten genian urtean zear, eta urteetan zear. Kaubela puñeta! Gogoratze utsarekin ere amorrua etortzen zaidak. Zera: garizuma iristeko beldurrak. Ostiraletan ezin zala jan txorizorik eta solomorik.

Nik, nere artean: “arrazoi pixka bat ere badezue”.

Gu ere familia aundia giñan. Leenago, badakizue: base-rietan, beintzat, zazpi bat ume edozein etxetan zirala. Gurean, geiago ere bai.

Ba al dakizue zer penitentzia zan dozena bat lagun sukaldeko maaian, egunean iru aldiz eserita, zintzilika zeuden urdaiazpiko, solomo luze, pare bat zardaika txorizo eta guzti aiei gora begira egon bearra, bijilia zala-eta?

Ori egin arazi zigutenak ez omen daukate barkaziorik. Ala zioten alboko parrokiario aiek.

Babatan ere kostilla zatirik ez zan azaltzen bijilia-egunetan, burruntzaliarekin miatu arren. Zopa ere, izarririk gabea. Zera: bi urtean zintzilik dagoen olagarroa baiño leorragoko bakaillao-izpiak, eta berak ezurdunak. Eta bien bitartean, katuak, freskerako sareari atzamarrak erantsi eta atea irekiaz, amak jasota zeukan xerra-muturrarekin banketea eskaillera-pean. Ez genuen besterik merezi. Orduan ez zegoen ozkaillurik, gurean beintzat.

Gure aitari dexente aldiz entzun izan genion onako bertso au. Batez ere, katuak zerbait arrapatzen zuenean:

Katu gaiztoa beti
kirrik eta kirrik,
armairuko atea
ezin irekirik.
Baldin eta billatzen
badu aragirik,
katu goseak ez dik
pasako flakirik.

Ostiral Santu egunekoa, berriz, bijilia santua zan. Egun artan ez zegoen begiratu ere egiterik leenago aitatu ditudan zintzilikario aiei; eta usaindu, gutxiago. Ez ori bakarrik. Ostegun Santu goizean eta Ostiral Santu goizean, barau egiten zan. Ni beintzat makiña bat aldiz egiña naiz. Alegia, goizean gosaririk gabe, eguerdi aldera arte.

Barau-egite ura ez omen zan ain derrigorrezkoa ere. Baiña indulgentzia geiago irabazten zala zioten. Eta zerurako bidean eskaillera-mailla batzuk aurreratzen zirala. Jakiña: bi barau-egun aietan, goizeroko pertzakada esnea egosi bearrean, ukuilluko txaal argalenari ematen zitzaion gure gosarita-

rako zegoen esne partea. Argalak bat baiño geiago egongo ziran baiña. Gaiñera, San Antoniori eskeiñi, aitagure bat erre-zatuz, txaaala azkar gizendu zedin. Demonio! San Antoniok bost duroko bat gustorago artuko zian, nik entzun izan dedanez, aitagure bat baiño.

Ez dakit txaaala gizenduko zan bijilia-esnearekin, baiña gu mear asko egoten giñan. Gure etxean, orrelako oiturak bizi bear izaten genituen, bijilia-barauak zirala eta ez zirala. Albo-koei ez nien galdetu zer egiten zuten.

Neri zera gogora arazten dit txaal argala aipatzean: milla aldiz kantatua degun bertso au.

Joxe Migelek badu,
eztaitarako txaaala,
zazpi urte badira
ura jaio zala.
Besterikan ez dauka:
ezurra ta azala.
Aita San Antoniok
gizendu dezala.

Barkatuko didazue, noski, bijilia-barauekin katuak, txaa-lak eta San Antonio sartu ditudalako.

Gerora, asko asmatu zitzaion bijilia-kontu oni. Etxekoan-dreak:

–Gaur bijilia da eta arrai fresko ederra ekarri det bazkari-tarako. Garesti ere ez zegoen-eta.

Eta gauerako, legatz-buru sendoa arrai-zopa egiteko. Bazan garaia.

Soziedade eta tabernetan ere, bijilia aitzakian afari bapoak egiteari eraso zion jendeak alako batean. Zegoen bakaillao ederrena ontzi borobillera, zapla. Eta, raka-raka eragiñez, sal-

tsa loditu arazi eta Errioxako ardo politarekin dale, muturrak gorritu arte.

Orain, berriz, ez dago arazorik bijiliarekin, sagardotegiak ere irekita daudelako. Elizako funtziora joan bearrean, asko sagardotegiko funtziora joaten gera. An bakaillaoa oso ondo preparatzen bait dute.

Eta arkumea jateko ere, arazorik ez San Jose egunean. Ez leen eta ez orain.

Beteak gerade bai
makiña bat arau:
ostiralez bijili,
ostegunez barau.
Urte askotan zear
ez iru eta lau.
Noizbait baztertu degu
kontu xelebren au.

Bijilia ez dezu
lagun atsegiña.
Aukera eduki ta
andik jan eziña.
Azaldu nai dezula
argal ta liraiña,
orretarako bada,
egin zazu baiña.

El Diario Vasco: 2004.03.27

Ardi-illezko koltxoiak

Aiek bai koltxoiak! Modeloa ere bakarra, patentatu bearririk ez zuena. Koltxoia eta kito. Ez, zera, oraingo auek bezela: milla izen eta koltxoirik ez. Zapata-azpia baiño gogorra-goak eta kandela baiño zuzenagoak. Ala ere, onak omen dira. Ez dakit zertarako.

Goazen leengo illezko koltxoiak nolakoak ziran eta nola zaintzen ziran azaltzera.

Oraintxe bezelaxe, orduan ere baziran artzaiak. Eta izan ditezela gero ere.

Koltxoiak ardi-illez beteta egiten ziranez, artzaiari aurrez abisatzen zitzaion:

–Aizu, urrengo urtean bi koltxoirentzat bear det illea.

Edo batentzat. Zuzen ekarriko zuen:

–Egun on, etxeoandre. Emen, zure illea.

Norbaitek erantzun zion, bai:

–Aizu, nere illea neronek darabilkit.

Aiek ate ondoko txantxak izaten ziran.

Illea ondo garbitu eta arropa leortzeko alanbrean jartzen dan bezela zintzilikatzen zan: luze eta zabal. Orrela egun bat edo bi pasa ondoren sartzen zuten emakumeek telazko koltxoi-azalean. Tela bereziak ziran artarako. Dotoreak, gaiñera; azpitik eta gaiñetik, parean txulo bikoitzak zituztelarik, lokarritz lotzeko, illea geldi egon zedin.

Ura dek gauza, ura, arro-arroa, bigun-biguna! Sinistu zaidazue. Probatu gabeak ez daki aren gaiñean lo egitea zer dan.

Gerora, poliki-poliki jeisten joaten zan; asentatzen, alegia, beste gauza asko bezela. Nik uste det illezko koltxoia eta bizitzak elkarren antza dutela. Edozein bizi motarena, gaiñera. Koltxoia, zenbat eta zapalduago, orduan eta asentatuago eta beerago. Bizitza ere ez al da orrela? Zenbat eta z anbateko aundiagoak artu, orduan eta asentatuago eta arrokeria gutxiago.

Urtean bein-edo berritzen zan koltxoia. Eguraldi ederrak ziranean: udara aldean, jakiña. Gure etxean eta auzoan, beintzat, onako oitura auxe zan. Etxe-atariko zelaira eramanez ziko ziguten koltxoia mutil koskor biurrienei, leenengo gure lo-gelakoak egingo zizkigutela-eta. Bai eramanez ere azkar, oraintxe bizkarrean, oraintxe arrastaka. Baiña eramanez. Kaula puñeta! Koltxoi bigunean lo egitearren eramango genukeen baita Pagoetako gurutzearen ondoraño ere.

Amak edo amonak irekiko zuen, eta ille korapillatuak kanpora: zapi zabal aundi baten gaiñera. Orduan asten zan benetako festa. Trailluz jotzen zan illea, arrotu zedin eta korapilloak askatzeko. Badakizue traillua zer dan: bi makilla erratzaren kirtena baiño lodixeagoak, mutur banatan lepoa atera kutxilloarekin borobil-borobil eta ual-zati batekin biak bateratu. Eskuekin bati eldu eta beste makilla ualean bira emanaz jaso gora eta eman ille pillolari beerakoan.

Au mutikoen lana izaten zan. Zenbat eta geiago jo, obe: orduan eta arroago illea. An ez zan agindu bearrik izaten. Elkarri buruko ederrak eman ere bai. Bakarren bat ille pillara jolasera saltatzen bazan, dale trailluarekin.

–Orain artu ezak ori; merezi uen-eta.

Besteak, erdi negarrean:

–Ik ere pixa egin uen ba oean, kaikua!

Zenbat orrelako!

Baziran gizonezkoak trailluan dotore egiten zutenak. Ez pentsa erreza danik. Mandioko baba-jotzea zanean ikusten

zan trailluan nork zekien. Iru metroko altura ez zeukan mandioan, erabili egin bear zan traillua goia jo gabe. Eta zer txabilla ematen zioten, ikusi egin bear zan. Zelaian edonork zekien. An ez zegoen goia jo beldurrik.

Ba, illea ondo arrotuta, ondo askatuta zegoenean, garbitu egingen zan jaboi-ur eta bear zanarekin. Eta leen nioena: lixiba balitz bezela alanbrean zintzilikatu. Ederki leortu eta aireatutakoan, garbitu eta prest zeukaten koltxoi-azalean sartzen zan berriro.

Sukaldeko lan-maai gaiñean jarri zabal-zabal eta an josiko zuten etxeko emakumeek.

–Zeiñek eramango du au oera?

An egoten giñan zai lau-bost mutiko, etxeko eta auzoko. Denon artean an eramaten genuen, txindurraskian txindurri txikiak arrautza aundia eraman oi duten moduan. Ura poza gaue-rako! Pentsa, bi gautan moilledun jergoiaren gaiñean lo eginda, zer gogo edukiko genuen koltxoi arro, bigunean lo egiteko.

Ark ez zeukan propaganda bearrik. Jartzen ziñan erara jartzen ziñala, ondo atsedenduko ziñan. Parranda galanta egingidakoan ere, alako koltxoi batean bost bat orduan lo egin ezkerro, berriz parrandara joateko moduan geratzen giñan.

Gaur ere illezko koltxoietan lo egingo bagenu, ez dakit jende gutxiago ez ote litzakeen bananduko.

Leengo erara lo egitea
gaur egun eziñezkoa,
eta sistema berrietara
biurtzea bidezkoa.
Otza zanean beroa zan ta
bero zanean freskoa.
Gutziz osasungarria zan bai
koltxoi ardi-illezkoa.

Moda berriak sortu ditugu,
mesedetan edo kaltez.
Loa bera ere zapuztu degu,
gozo zaintzearen partez.
Pikolin, Flexak, Lanzik ta abar
denak badaukate latex.
Gaur koltxoi mota ugari daude,
ardi-illezkorik batez.

El Diario Vasco: 2004.04.27

Berrogei kredo

Ba al dakizue berrogei kredo errezatu bearreko eguna zein izaten zan gu txikiak giñanean? Asentzio eguna. Jesukristo zerura igo zan eguna, alegia. Pentsa igogaillua noizkoa izango dan.

Maiatzean izaten zan egutegian. Orain ere bai. Aurten, joan dan ogeian. Baiña orduan jai aundia izaten zan, orain kasorik egiten ez bazaio ere.

Kristo gurutzean il eta berpiztu zanetik berrogeigarren egunera igo omen zan zeruetara. Eta fededun bezela egun artan berrogei kredo errezatu bear izaten genituen. Bearko errezatu. Bestela muskarrak ozka egiten zuela eta orrelakoak esaten zizkiguten etxeko zaarrak. Eta zazpi errietako kanpaiak jo arte ez zuela lagatzen muskarrak.

Badakizue orduan dena sinisten genuela. Bai errezatu ere zintzo asko berrogei kredo, alajainkoa eta bi! Badaezpada ere, bi edo iru geiago gaiñera, leengo urtean bakarren bat gutxiago bazan ere.

Au irakurrita, norbaitek parre egingo du: “zer txorakeria!”. Baiña ez naiz txantxetan ari. Ain serio artzen ziran orduan elizaren aginduak edo orduko oiturak. Eta muskarrarena serioago. “Berrogei errezatu ote nituen? Deskuidatu eta gutxiago ote ziran?”. Ez gero pentsa urte artako udaran masustak jatera sasi ondora inguratzen giñanik, e? Ez orixe! Masustak ederrak izango ituan; baiña, muskarrak ozka egitea gertatu ezkeru, ea zer alukeriak zetozen.

Asentzio egunean bata besteari zerbaitetarako deika jardun eta kasorik ez bazuen egiten, ez arritu, e? Gaiñera, amak edo aitak esango zigun:

–Ez ezak endredatu, kredoak erreztatzen ariko dek-eta.

Beraz, egun artan entzungor egitea libre izaten zan.

Mutiko-garaian, zailla izaten zan eserita berrogei kredo jarraian erreztatzea. Denbora asko zala iruditzen zitzaigun. Mutikoak jolas egin bear izaten du. Nik onela antolatu oi nuen batzuetan: goizean, amar; bazkalondoan, amar; meriendatuta-koan, amar; eta gauean oeratzean, beste amar. Baiña gaueko ori arriskutsua zan. Txomin oera sartu orduko etortzen bait zan; logurea, alegia.

Gogoan det: bein, oeratu eta nere kredo-marmarrean nengoela, loak artu. Eta urrengo goizean, esnatu nintzanean, komeriak eta estuasunak. Aitonarengana, lasterka:

–Aitona, ola eta ola. Orain erreztatzeak balio al du?

Eta aitonak, erdi-serio, erdi-parrez.

–Ez.

–Eta orain, zer?

–Ba, urrengo urtean Asentzio egunean osatuko dituala promesa egin ezak.

–Nola?

–Dotriñari leenengo orrian gurutze txiki bat egiok, gogon izateko. Musu bat eman eta siñatu adi. Eta orrela balio dik.

Nere poza!

Bai. Aitonaren aginduak laster bete nituen, arraiopola! Baiña penitentzia ederra jarri nion nere buruari. Zera: udara osoan masustak jatera ez nintzala joango, badaezpada ere. Eta masustetara joatea sakratua zan gu mutikoontzat, tximeleta pillla bat sasietatik uxatuz: urdiñak, arroxak, oriak, txuriak, moreak, marroiak, pintoak... Gaiñera, eguzkia artzen zegoen muskar berdeari ez genion ikararik, kredoak erreztatuak baldin bagenituen.

Ortik atera kontuak zer sinismen genuen.

Baiña sistema asmatu genion ari ere. Ezin ba beti zalan-tzan ibili, eta beti beldurrak. Auek gaztetxoek kontuak ziran, jakiña. Ba, oso sistema dibertigarria. Mandiotik artaburu bat artu, atariko koxkan eseri eta oilloei deitu, aletu artaburua, berrogei ale ez besteak oilloei bota, eta etxeko oillo guztiak aurrean nituela asi kredoak errezatzen. Kredo bakoitzeko, arto-alea oilloei. Zein zan suertoso, arentzat alea. Orrela, arta-leak amaitzen ziranean, berrogei kredo errezatuak. Orra ni seguru eta oilloak pozik.

Edukiko banu orain orrela nengoela ateratako argazkiren bat, etxeko lekurik ederrenean zintzilikatuta edukiko nuke. Erderaz esan oi da, ba, “primera línea”? Ba, orixe.

Bai. Gaztetxooi esango zizkiguten muskarraren kontu aiek eta abar, ikaratzearren edo errezatu arazteko batik bat. Baiña sinismena, txikiak eta aundiak berdintsua genuen orduan. Begira bestela onako ipui onek zer dioen. Leen ere jakingo dezue; baiña, Asentzio egunekoa dan ezkerro, kontatu egingo det; zuen baimenik baneuka, beintzat. Barka.

Baserritar xelebrenen bat joan da Asentzio egunez konfesatzera. Mutilzaar edo eldua, beintzat. Eta, beti bezela, abarka zikiñak laga zintzilik eliza-atariko Santo Kristoren oiñetako iltzean, eta zapata beltzak jantzi, eta elizara. Konfesatzeko txanda iritsi zitzaionean, an dijoa konfesionariora.

–Ai Maria purisima!

–Sin pecado concebida.

Orrela, esan bearrekoak esan ditu. Eta, jakiña, apaizaren txanda izketarako:

–Ondo da, ondo da. Konfesatu eta jaunartzeko egun aundia aukeratu dezu, Joxe.

–Atzokoak adiña ordu izango ditu, ba, gaurkoak ere!

–Bai. Baiña gaur egun berezia da: Jesukristo gaurko egunez igotzen da zerura.

–E!!!

Laga zegoena zegoenean eta an dijoa gure Joxe ori eliza-atariko Santo Kristorengana. Di-da kendu abarkak eta ala dio:

–Joan adi orain, nai badek.

Artu abarka lokaztuak eskuetan eta berriro apaizarengana, konfesionariora.

–Aizu, don Luis. Zerura joan bear badu, joan dedilla, e. Baiña neri ez dit adarrik joko.

El Diario Vasco: 2004.06.05

Txantxangorria

Euskal Errian oso txori ezaguna da txantxangorria. Txori koldar bat dala esango nuke. Baiña txoritxo maitatua eta onartua gure artean.

Zergatik ori? Batik bat, beti gizonaren ondoraiño etortzen dan txori bat dalako. Txintxo-itxurakoa ere bada. Txori isilla. Kantari kaxkarra, nere moduan: titirrit bat besterik; asko geiago ez beintzat. Urte osoan ere ez degu ikusten. Negu aldean bakarrik. Askotan, luma arrotuta, otzak edo gaixorik balego bezela. Atariko atea zabalik badago, antxe ate aurrean ikusiko dezu, barrura sartzeko baimenaren zai balego bezela.

Gure aurreko zaarrak esan oi ziguten txantxangorririk ez zala il bear. Txori santua zala bera. Ama Birjiñari arantza atera ziola mokoarekin illunpean, papar gorriarekin argi eginda, beste iñor oartu gabe.

Esaldi errespetagarri origatik ere, alakoxe begirune bat badiogu txantxangorriari.

Onako gertaera au ere ezaguna da gure artean. Geure begiz ikusia, alegia. Zera: txantxangorri koitaduaren kabian, kukuak arrautza jartzen du. Orretan oso ziur nago, neroni gertatua da-eta.

Txantxangorri-kabia aurkitu nuen zazpi-zortzi arrautza txikirekin. Baita kumeak jaio ere. Maiz joaten nintzan ikustera, naiz eta urrutitik kontu aundiz begiratu.

Alako batean, arrautza aundi bat zegoen kabian, eta txantxangorri-kumerik ez. Nere ustez, kume txiki aiek kukuak kendu edo zapuztu zizkion, bere arrautzari jaramon egitearren. An jaio zan kuku-kumea, garo-metan zegoen txantxan-

gorri-kabian. Bai ederra azi ere. Lumaz jantzi zanerako, kabia bapo lasaitu zuen arek.

Begiratzera joan nintzan batean, lurrera erorita aurkitu nuen. Etxera ekarri eta kaiola zaar batean sartu.

Oso zakarra eta zalapartatsua da kuku-kumea. Indartsua, gaiñera.

Amabost bat egunean eduki genuen, baiña lokarri xixtrin batekin lotuta zeukan ate koldar ura ireki eta alde egin zigun egun batean. Nun ote dabil?

Or ikusten da txantxangorri koitadua bere kumeen maitemíñean zegoela. Bereen faltan, besteena ere maitatzen jarraitu zuela. Txori agurgarria benetan.

Ondo gogorutzen naiz, gure mutiko-garaian, udazkenean soroan babarrun biltzen giñanean, urrian-edo, antxe azalduko zitzaigun txantxangorria atzetik, oraintxe arto gaiñean, oraintxe lurrean, guk arrotzen genituen xomorroak janaz. Oso gertutik jarraitu oi zigun bere papar gorriarekin.

Basoan orbel biltzen giñanean ere, berdin azalduko zan isil-isilik, oraintxe zuaitz-adarrean eta oraintxe lurrean, baiña beti urrean.

Elurtean, berriz, mutikoen lana txori-arrapatzea izaten zan. Etxe-atarian lurmen zati bat egin, an gari-ale batzuk bota, eta galbaea jarri, zotz batek erdi tenteka eusten ziola. Zotzari lokarri luze bat erantsi, ura atariko ate azpitik barrura zala. Txoria galbae azpiko gari-aleak jaten asten zanean, tira lokarriari etxe barrutik, eta batzuetan bale eta besteetan kale.

Baiña leenengo beti txantxangorria izaten zan. Kaskabeltza ere bai, polit ura. Baina ark ondo begiratzten zuen galbae ingurura.

Bein, kaskabeltzak berak arrapatu zigun txantxangorria. Ura zan polita. Txantxangorria sartu zan galbae azpiko gari-

-aleak jatera eta, lokarriari tiratzera goazela, kaskabeltz txatxu ura galbae gaiñera etorri eta jarri zanean, galbaea plasta! beera. Eta txantxangorria azpian.

Geroztik zenbat elurtetan aipatu ote genuen gertaera ura! Txantxangorria erreparo aundirik gabe sartzen zan galbaepe-
ra, bertako aleak jatera, bi ere bai batera, sokari tira eta gal-
baea gaiñera.

Elurtean, dozena-erdi bat txantxangorri eduki oi genituen
sukaldean. Aiek bai garai sanoak! Txantxangorri-festa sukal-
dean, alajaiña!

Katua azaltzen zanean, bazekiten nun gorde. Armairu gai-
ñeko zirrikituak azkar billatzen zituzten. Txakurrak ez zieten
kasorik egiten.

Udazkenetik martxo-apiril aldera arte, edozein bazterreta-
ra joaten bazera ere, an agertuko zaizu txantxangorria, nundik
ez dakizula. Zoaz automobillarekin edozein mendi-ertzetara
eta jarri zaitetz autoko irratia entzuten. Ziu agertuko zaizula.
Bazoaz bidezidor batean aurrera eta geratu zaitetz ogitarteko
bat jaten. Aldameneko sastrakan azalduko zaizu.

Orrela da txantxangorria. Nola ez da ba izango txori mai-
tatua, gizonaren ondoan badabil?

Une ontan ere, idazten ari naizena egiaztatzeko, ementxe
dabilkit txantxangorria inguruan, bere txitxirritxoia joaz.

Aiako Laurgaingo zuaitz batzuen ondoan ari naiz prosa au
idazten, autoaren atzean eserita. Badirudi badakiela zertan ari
naizen. Bera agertu da arratsalde-erdi aldera, oizko itxura ber-
beran, eta ia illunabarra da. Nik txantxangorriari buruzko pro-
sa amaieran det. Sinetsi zaidazue egi-egitan ari natzaizuela.

Pozgarria benetan gertatu zaidana. Arratsalde batez autoa-
rekin Aia aldera etorri eta txantxangorriari buruz idazten asi
eta bera ondora etortzea.

* * *

Alboan, berrogeita amar metrora, iru senar-emazte ari ziran mokadu bana jaten. Euskaldunak izan balira, lekukotza egiteko izenak eskatuko nizkien pozik. Aien ingurura ere joaten bait zan txori papar-gorri ura. An geratu zan, ni etxera alde eginda.

Leku askotan topatu gera
txantxangorria ta biok.
Negu aldean nunai azaltzen
zaizkigu papar-gorri ok.
Koitadu orri bertso sorta bat
jator-jatorra zor diot.
Asti pixka bat daukadanean
jarri bear ko dizkiot.

Ain aberatsa ez da gaixoa
bere kantuzko armoniz.
Txepetx familiakoa edo
izan bear du jatorriz.
Beti gizonon ondoren dabil,
bein joan ta bein etorriz.
Berdeguneak eta balkoiak
jantzi bitez txantxangorriz.

El Diario Vasco: 2004.07.05

Txori papar-gorri bat

Zenbat alditan bururatu izan zaidan txantxangorriari bertso batzuk jartzea! Ba, oraingoan, aurrera egingo det, merezi du-eta.

Aurtengo neguan ni mokorretik ebakuntza egin berria nengoen, eta Orioko kanping ondoko zelaian nere ibillaldi-ariketak egiten nenbillela makilla eta guzti, txolin ura an azaldu zitzaidan, ba, zelai ertzetik zerbait nai balu bezela. Gertutik jarraitzen zidan. Izan ere, jarraituko ez zidan, ba; ni mantso bait nenbillen.

Esan nion: “Naiago niken ara-ona ibiltzeko ire erreztasuna banu. Makilla bearrik ez niñan izango. Zer nai den? Bertsoak jartzea? Saiatuko naun, ba”.

Orrelaxe egin nion nere marmarraldia, aruntz-onuntz nenbillela. Gero, pixka bat atsedean artzen autoan eserita nengoela ere, an ibili zan autoaren biran, tarteka lurrera mokokada batzuk egingenez. Autoaren irratia zaratatsu jarri arren, ez zuen ikararen zirkinik egiten. Alajaiña, musika ere gogoko ote du, ba?

Gizonen edo emakumeen inguruan beti orrela agertzeko, guregan konfiantza duela agertu nai ote du? Gizon-emakumeen babesa ote nai du?

Dana dala, guk ere gure onginaia badiogula jakin arazi bear genioke nola edo ala.

Nik uste det txantxangorriak badakiela gizonok ekintza degula. Gizonok zerbait mugitu egiten degula. Arrastoak lagatzen ditugula. Eta arrasto oietan beretzako janaria sortzen dala: mamorro eta abar, edota ondakin. Ortaz jabetzen dala iruditzen zait ganora gabekoa dirudien txori papar-gorri ori.

Jan billa joateko alper samarra ote dan iruditua nago, eta argatik ote dabillen gizonaren inguruan. Eta orrela lortu ote duen gizonok berari diogun begirunea.

Baiña zergatik ez zaigu azaltzen urte osoan zear? Urritik martxora edo apirillera bakarrik ikusten degu. Guk ez degu uxatzen edo bialtzen iñora. Bera agertzen da eta bera desagertu.

Zer egingo diogu, ba! Bere agerpen bakoitzean arrera goxoa egiten saiatuko gera, eta kito.

Doiñua: Prantzisku zer dakarrek

1. Txori papar-gorri bat
da txantxangorria,
moko-txorrotx, anka-mee,
begi larria.
Luma arro samarra,
errukigarria,
gizonaren ondoan
sarritan jarria.
Txikia neurria,
kantari urria,
soillik titirria
da zure irria.
Artu ezazu nere
ongi etorria.

2. Zure agerpena da
udazken aldera.
Nundik ez dakigula
azaltzen zera.
Beti isil-isilik
dezu etorrera,
oraintxe adarrera,
oraintxe lurrera,
gizonon urrera,
batzutan aurrera,
bestetan atzera
ta aldamenera.
Txantxangorria, zure
zai egon gera.
3. Sei bat illabetetan
zu zeure mantxoan,
dirudi zabiltzala
erdi gaixoan.
Ikusi oi zaitugu
gaur emen, atzo an,
gizonen inguruan
baita ere basoan.
Ta aterpetxoan,
ormako gantxoan,
eltxo-arrantxoan,
itxura txintxoan.
Berriro ezkutatzen
zera martxoan.

4. Elurteak sarritan
oi ziran antziñan,
mutikoak txoritan
saiatzen giñan.
Gero bera aiekin
jolasteko griñan,
galbaia jarrita prest
atari izkiñan.
Eiztari-kuziñan
xoxo ta txintxiñan,
kaskabeltza fin an...
Txantxangorri, baiñan
beti leendabizi zu
erortzen ziñan.

5. Egunik otzenetan
negu biotzean
elurtea iristen
zan bakoitzean,
min eman gabe sartzen
zintugun etxean,
gure sukalde zaar
aren babesean.
Armairu atzean,
gorde arratsean.
Gero lurmentzean,
zu leio ertzean.
Bai azkar irten ere
irekitzean.

6. Daukazun izaerak
arriturik nauka:
urriko agerpena
martxoan buka.
Gero beste txori bat
asten da kukuka
ta zure kabirako
pardeltxoa dauka,
kuku-kume puska,
alperkeri truka
zuri erreguka,
nork azi baleuka...
Ta ez omen diozu
lekurik uka.
7. Alde ederra dago
txoritik txorira,
batez ere kukutik
txantxangorrira.
Txikitxoak zure zai
an egongo dira,
zoaz koitadu ori
euren armonira,
kabi-antzokira,
maitasun-ontzira.
Janariz gonbida,
ongi da, ongi da.
Noizbait pasako zera,
bai, istorira.

8. Entzun izan genion
amona zanari
erruki zeniola
beartsuari.
Papar gorri argia
dezula mirari,
arantza kentzearren
Ama Birjiñari.
Ara zer opari,
ekintzaren sari.
Txori zerbitzari,
jarraitu ta ari,
arantza kendu arte
gizarteari.

9. Konfiantza dezunez
giza pausoetan,
ez zaitugu jarriko
arazoetan.
Zure falta sumatzen
degu batzuetan.
Egon zaitez gurekin
urte osoetan,
euskal basoetan,
magal gozoetan,
etxe ta auzoetan,
gure besoetan...
Auxe eskatzen dizut
nik bertsoetan.

10. Ez ezazu alde egin.
Zer nai dezu? Tori.
Zuk ez diozu miñik
eman iñori.
Gordeleku ara or
ainbat zuaitz-orri.
Baiña joan nai badezu,
zoaz, zoaz, txori
txiki polit ori,
eta ez erori,
ezkutuan korri.
Agur, txantxangorri,
ta urrengo urtean
ere etorri.

Buruz ala astoz?

Burua. Burua bear omen da, mundu onetan luzitzeko eta gauzak ongi egiteko.

Bai. Gauzak ongi egiteko, bearko da, bai. Baiña luzitzeko, ez dakit, ba. Burua asko lantzen ez dutenak franko ikusten dituk nik bapo luzitzen.

Baiña ziur nago buruz jokatzea eta gauzak buruz erabil-tzea ez dala gauza bera.

Nere txiki-garaian, noiznai ikusten zan jendea gauzak buruan artuta eramaten. Emakumezkoak, batez ere. Asteko, lixiba deitzen zitzaion arropa-garbitzea zanean-eta, etxe-atari-ko edo auzoko uraskara –au da, lixiba jo-lekura– eraman bear izaten ziran, etxeko arraskan zikin aundienak beratu eta marruskatu bat eman ondoren, arropa, izara, manta eta abar-rak. Etxeko trapuak.

Etxeko arraskan beratzen eduki ondoren, naiz eta eskuz ondo biurtu, zama aundia geratzen zitzaion barreiñoia arropa-ri. Nekez artuko zuten barreiñoia bi kirtenetatik edo galtzar-pean. Bai zera! Buru gaiñean. Trapu bat borobilduta jarriko zuten buruan, orkillaz ornitutako moñoa zarpildu gabe. Ordu-ko emakumeak txukun orraztuta ibiltzen ziran gero etxean!

Arraska gaiñetik, norbaitek lagunduta, aupa!, buru gaiñe-ra, barreiñokada trapu galanta. Eskuekin eldu gabe eramaten zuten iturriraiño edo lixiba jo-lekuraiño, eun edo berreun metroan eta gaiñera bide koskatsuan. Dotore asko eraman ere, bi eskuak gerrian jarrita, tente eta zuzen, balantza aundirik egin gabe. Sistema ona da, ondo pentsatu ezker. Gorputza zuzenago dala ez dago zama eramaterik.

Jaboa latz urtzen zuten garbiketa-garaian. Bearko, aste guztiko krakak eta erdoiak bigunduko baziran.

Baiña ez pentsa jaboia barra-barra dendatik erosten zala, e? Ez, ez. Etxean egiña. Koipe urtuz, erretxiñez eta abarrez egindako azidoekin naasturik, alkaliren bat ere bai...; eta orrela egiten zuten ore antzeko bat. Kazuela zabal bat bete. Egun batzuetara gogortzen zanean, kazuela, plost!, auspez bota, eta an ateratzen zan moldean egindako jaboï aundia. Gero, labanaz zatiak egin –laukiak edo orrela–, eta kito. Naiko jaboï. Oraingoak bezain politak eta letradunak ez izan arren, bazuten aiek aparra eta abarra. Bazan aien bearra.

Otarrea ere berdin erabiltzen zan buruan. Esate baterako, udatzenean –babarrun-biltzea soroan ego-aize epeletan eta–, etxerakoan otarrakada galanta babarrun lekaz beteta, tapa-tapa, bide-estratan gora. Kantari, gaiñera, uzta jasotzen asi zirala-eta. Zakukada ere bai. Ura erraza zan, buru-sakona berak egiten zuelako.

Baita kaleetan arrantzaleen emazteak ere. Arrai-kaja edo otarrea buruan eramaten zuten kalez kale, beren mantalak jantzita, “antxue, antxue” oiukatuz, ate ondotik ate ondora. Baita inguruetakoko edo erriberakoko baserrietara ere.

Zarautzen, beintzat, eguneko lana bete ondoren, txalupa txikiekin gizon asko ateratzen zan itsasora, illunabarretan. Eta, jakiña, gauean otarretxo artan zekarzkiten arraiak, etxe-koandreak txukun asko prestatuko zituen, arraiopola!, goizean kalez kale deadarka joateko.

Kale inguruko baserrietako emakumeak ere eguneko baratza-tratua plazara buruz eramaten zuten. Asko beintzat, beren otarre zabaletan.

Buruz eraman ezin ziranak, bizia zeukatenak ziran. Untxi, egazti eta abar. Mugitzen ziralako, otarrea botatzeko arriskua zuten. Esate baterako, inguruko baserriren batean aur jaio berria

zutela-eta, bisitara oilloa eraman nai bazan, buruan ezin zenuen eraman. Eskuan edo besoan, zure otarrea. Erdi utsa bazan ere.

Oso aspaldiko aitona eta billobaren izketaldia ere polita da, ba, nik entzun izan dedanez. Aitona Tomas, oso zaarra. Eta illoba Felipe, etxeko maiorazkoa. Mutiko azkarra buruz, eta seminario edo ikastetxeren batera bidali omen zuten bere gurasoek. An, bi edo iru urte pasata, etorri da etxera, eta gauzak leenean. Alperkeriarako libururen batzuk irakurri zituen, nunbait, dalako seminario orretan. Eta:

–Aita. Astoa erosi bear da.

–Astoa zertarako dek? Karrantik ez diagu-ta.

–Karrantik ez da bear, aita. Zuk ekarri astoa.

Baita ekarri ere.

–Or dek ba, motel, astoa. Ea zer egiten dean orrekin.

Zera egin! Aurrena, paseatu, gaiñean eserita. Pixka bat ezi duenean, or asten da gauzak asto gaiñean erabiltzen, aruntza eta onuntza.

Aitona Tomasek, eztula zeriola:

–Ai, illoba, illoba. Oraintxe galdu gaituk. Leen dena buruz erabiltzen genian, eta orain, berriz, astoz.

–Ai, aitona, aitona. Leen zenbiltzaten astoz, leen. Orain asi gera buruz.

Burua da leenengo,
astoa bigarren.
Billobak, nunbait, beste
aire bat zekarren.
Aitonak berak ere
asko jakin arren,
liburu-ikasketak
ara zer dakarren.

El Diario Vasco: 2004.08.03

Uztargilleak

Orain ez dakit uztargintza nola dagoen: leku jakin bana daukaten edota dema-idiak dauden etxeetara joaten diran.

Izan ere, orain idi pareak demarako bakarrik daudela uste det. Gaiñontzeko lanetarako, traktoreak eta orrelako traman-kuluak dauzkate, eta bear ere bai. Baiña gu gazteak giñan garaian, eta geroxeago ere bai, baserrietako lanak badakizue idi parearekin egiten ziralta. Eta soro-lanak ziran garaian, bei pareta ere etxe askotan uztartzen zan.

Ori orrela zalarik, edozein garaitan izaten zan uztargillearen bearra gure baserrietan. Etxe guztietan idi pareta jakiñekoa zalako. Edozeiñek galdetu lezake: “Zergatik joan bear zuten noiznai uztargilleak?”. Ba, begira.

Idi berriak, idi gazteak ekartzen ziranean, jakiñekoa: uztargilleari abisatu bear ferriakoan edo. Leen, feria guztietan ganaduen saldu-erosiak izaten bait ziran. Orain, askok esaten dute *salmenta*. Ez dit batere graziarik egiten esaldi orrek.

Dana dala, idi berriak ere ferian erosten ziran. Uztargillearen bat ere ez zan urruti ibiliko. Ea nork ematen zion uztarria egiteko lana. Egia esan bear bada, uztargillearekin itz egitea ere bearrezkoa zuen idi berriak erosi bear zituen baserriarrak. Bai, ba: bi idi gazte gustatu arren baserriarrari, gerta zitekeen adarkera baldarrekoak izatea eta uztarria egiteko arazoa egotea bi idi artean. Orduan, uztargillearekin itz egitea komeni zan; uztarria egiterakoan idi parearen barrengo bi adarrak elkar ikutu gabe uztartzea komeni bait zan, naiz eta beti erreza ez izan. Ori, idi berriak ziranean.

Edo uztarria autsi egin zala, edo golde-lanetarako ere, uztarri berezia bear izaten zan: luzeagoa. Ura ere ez zitzaien denei ondo etortzen. Idi pare bakoitzari moldatu bear.

Zergatik uztarri luzea? Motzarekin, arriskua dago beti goiko idia golde-taskara erortzeko, leku aldapetan beintzat. Eta uztarri luzearekin, libreago, urrutiago, joaten zen goiko idia, naiz eta uztarri motzean indar geiago egiten duten idiek. Arte-maiña oiek denak erabili bear izaten ziranez, uztargille-ari abisatu bear, ba.

Asko zekiten uztargilleek. Askotan, geiegi. Azkar galde-tzen zuten uztarria egitera joandakoan:

–Zer? Illargiarekin botatako egurra al da?

Galdera ark esan nai zuen ea ilberrian botatako pagoa zan, ala ilbeeran. Ala esan oi zuten:

–Uztarri astuna ateratzen bada, ez egin nere aitzakia.

Bai, ba: arrazoi zeukaten; ilberrikoa edo ilbeerakoa izan, ariñagoa edo astunagoa ateratzen bait zan uztarria.

Pago-gerriarekin egiten zan uztarria. Pago motza bota, enborra metro eta erdi inguruan moztu, eta pitzatu burni ziriz eta borraz, eta pitzakiak erreka-zulo edo uraskaren batean sartzen ziran. Eta an egongo ziran, beraietara beartu arte. Igual, urte bat edo bi.

Uretan egote ark bi alde on egiten zizkion egurrari: bat, gerora uztarria arintzen joaten zala; eta bestea, uztarria egiteko, lantzeko garaian, samurragoa izaten zala.

Noiz edo noiz gertatzen bazan ezustean uztarria autsi eta uraskan egurrik ez eta mendira joanda ekarri egur bota berria, egur ari begiratu illuna egin oi zioten uztargilleek. Ez ziran umoretsu jardun oi. Prezio berdiñean egin bear eta askozaz egur zimelagoa.

Leenago esan det-eta, bazekiten bai Jainko txikiak ainbeste. Eguraldi onarekin etorri oi zan gure etxera, udaran beintzat. Orretan ere, bi alderdi on bere gustokoak lortzen zituen: bat, atariko intxaurren azpian itzalean jardutea; eta bestea, Urkitxikitako proba-arriarekin idiak ondo probatzea.

Uztarrria egindakoan, idiak probatu egin bear ziran: ea ondo tiratzen zuten. Batek zioena: ondo tiratzeko, indarra bear dik galanki.

“Urkitxikitako arria” nioen. Ori zan gure zelai ordeka bat jiran pago eta urki txiki batzuk zituena. Eta an proba-arri zapal bat zan bere kate-zulo eta guztikoa. Inguruetako idiak an probatzen zuten beren uztarrria. Eguraldi bustian, edozein idi pare kaxkarrek arrastatzen zuen arri ura. Baiña eguraldi leorrean, amigo, ez joan zakukada bat baba jan dutela idiek-eta. Ez orixe. Bestela izango zan “aida-aida” asko eta aurre-rako gutxi. Eta uztargilleari ori gustatzen zitzaion, naiz eta eraman pare bat itzai on.

Nik gure aldeko baserrietan leenengo ezagutu nuen uztargillea Presalde zan. Arruakoa. Berak nai zuenean, bazekien ark uztarrria ondo baiño obeto egiten. Gure atariko intxaurren itzalean amaiketako ederra franko egiña, bidean gora eta beera pasatzen ziran esnezaleekin kontu goxoak esanez. Bi egunetan erraz egin oi zuen uztarrria.

Gerora, Sola asi zan Presalderekin ikasten: Aiako Elkano baillarako Sola baserriko Manuel. Sola deitzen zitzaion. Eta deitzen zaio. Oraindik ere mutilzaar bapoa bait dago, naiz eta uztarririk ez duen egiten, urte batzuk ere badituelako.

Beretako uztarririk ez zuela bearco etsi zuenean, beste-entzat egiteari laga egin omen zion. Bertso ederrak kantatzeko ere ez zuen zirikatu bear aundirik Solak.

Presaldek uztarrria egiten bakarrik ez zion erakutsi Solari. Baita bere trikimaillu mordo bat ere. Aiek biak uztarriari kol-

peka asten ziranean, presak alde egiten zien. Batek bi egun bear bazituen, biak ere bai. Beraz, Presalde, izena bakarrik. Barkatuko aal dizkidate, noski, txantxa auek guztiak.

Musean ziran onak. Iñungo etsaikeria guztiak bazekizkiten. Aiek Presalderen dotriñoak ziran. Bi egunerako lana zutenez, gauean lotan geratzen ziran, jakiña. Afalondoan, patar pixka bat edanez, “musean beste bi baldin badira” oi ugin oi zuten, ordubetexo bat broman pasatzeko. Beste biko-teren bat osatzen zan, baiña ez zan aiei musean irabaziko zien amaren semerik. Urrengo goizean, maai azpian dozena erdi bat karta azaltzen ziran.

Amaika aldiz entzunak giñan
Presalde ta Solagandik:
“adar baldarrakiko idiak
ondo uztartzeak lan dik”.
Goraipamenak zuentzat datoz
bai emendik ta bai andik,
zuek egindako uztarriak
badaudelako oraindik.

El Diario Vasco: 2004.10.09

Auzoetako aitona aiek

Auzo urrunetako aitona aiek oso estimatuak genituen guk, mutikook. Auzoetako mutikoeak, alegia.

Aldeko aitona Joxe Mari.

Aranburu Berriko Iñazio. *Anbuberry Xarra* zan bere deitua. Ari ez deitu *Iñazio* eta orrelakorik. Laster esango zizun: “Ik ez al dakik *Anbuberry Xarra* esaten?”. Orrelako artu-emanen genuen berarekin guk, gaztetxoek.

Eta aaztu ezinekoa: Aranburu Zaarreko *Praixku Zarra*. Onen anaia zan Aranburu Berriko Iñazio; au gazteagoa.

Nijoan, txandakatuz, bakoitzarekin genuen tratuen berri ematera.

Aldeko aitona Joxe Mari artzaia zan. Gizon leiala, gizon isilla, beti lanean jardun bearreko aietakoa. Eun eta berrogeita amar bat ardiko artaldea eduki oi zuen, beren aari eta arku-meekin. Gizon fededuna. Errezatzen-eta ez dakit zenbateraiñokoa izango zan, baiña igandero goiz-mezara zuzen joaten zan ura. Beti garaiz iritsiko zan, gaiñera. Apaiza aldarera azaltzerako, aulkian eserita saio ederra egiten zuen ark, bi eskuak txapelean sartuta. Max-max-max, an ariko zan isillan.

Zenbat aldiz joan ote giñan berarekin goiz-mezara lau edo bost mutil koskor? Etxean ere ala agintzen ziguten:

–Aldeko aitonarekin joan zaitezte. Eta etorri ere bai.

Bazuen bere umore-puntua ere. Tarteka, ipuiren bat kontatu oi zigun, bidean zear goazela. Gu pozik. Gu gaztetxoei kontu asko esaten zigun aitona zan ura. Eta aolku ona franko ere eman oi zigun. Bere artzantza-bizitzako gertaerak ere seriocki kontatzen zizkigun. Aitona ari esker, elizako bidea zenbat aldiz motz egin zitzaigun!

Ardi-txakurrei norbaitek errieta egin ezkeru, ark artzen zuen pena! Gizonak baiño geiago dakitela txakurrek zioen ark. Ardi-txakurrik gabe ez litzatekeela artzairik izango. Izan ere, zer ziran guk ezagutu genizkion Xarbo eta Xarpa, bi txakur aiek! Berak arropa bizkarrean eta eskuan makilla artzerako, bordako ate aurrean eserita edo etzanda an egongo ziran bere zai.

Aldeko aitona artzai baserritarra zan. Ez da berdiña mendietako artzaia edota artzai baserritarra. Onekin esan nai det ardi-zai lan aundirik ez zeukanean, aitzurrari eltzen ziola.

Leenago esan det aolku onak ematen zizkigula gaztetxoei. Biraorik esateko oiturarik ez artzeko esaten zigun. Eta tabakoa erretzekoa ere ez. Berak ez zuen erretzen sekulan. Bi oitura oiek zirala lainñezaz asi eta gero bazterrean laga ezin ziranak. Oiek kontzientzizko aitonen itzak dira.

Bere biraoak onako auek ziran: “Krixto, koño!” eta “Kauben krixto”. “Kabuen di-da” esaten dan ori pekatu aundia omen da.

Adio, aldeko aitona.

Aldeko aitona artzai ura
ezin aaztu iñundik.
Orain ni ere aitona nago,
entzun bezait nundik-andik.
Gazte nintzala zenbat bide on
artu nuen beragandik.
Ark emandako bi aolkuei
jarraitzen diet oraindik.

Aranburu Berriko aitona Iñazio oso ezberdiña zan. Aitona bizia, beti presaka ibili bearreko aietakoa. Zerbait egiten ari ez bazan, ernegatzen zana. Zigarro baldarren bat ezpaiñetan

jarri, eta segi lanean. Ez zan oartuko dena erre zuen edo galdu egin zitzaion. Gero bestea, eta aurrera.

Birao potxolo batzuk botatzeko ere ikararik ez zuena; zerbait gaizki ateratzen zitzaionean, beintzat. Bai. Astoak ere zuzen joan bear izaten zuen bidean, ura treinta-koarentan jartzen zanean. Bearko! Bestela, errosarioren bat entzungo zuen atzetik.

Baiña aitona fiña eta biotz onekoa. Bai orixe! Ume-zalea, gaiñera. Aldeko aitonarekin genuen artu-eman antzekoa bage-nuen guk, gaztetxook, Aranburu Xarrarekin ere. Ura beti meza nagusira joaten zan Urdanetara, goizean ukuilluko lanak eginda. Gu ere, au edo uragatik geroko mezarako geratzen bagiñan, aitona Iñaziori bidera aterako gintzaizkion, berarekin joan-etorria egiteko. Ez zuen, ez, igandeko mezarik galduko. Ala esan oi zigun:

–Gazteak, elizara zintzo joan bear dik. Gutxi errezatuta ere, ez zioz ajola. Ori ez dek pekatu. Baiña elizara joan. Ura Jainkoaren etxea dek-eta.

–Aizu eta... Zu ez zera ba gaztea, eta igandero zoaz elizara. Zergatik?

–Ni zuek joatearren joaten nauk. Eta serorategian kopaka bat ardo goxo edateagatik.

Ez zuen denbora asko galduko artan ere. Edaterako ordaindu eta tragoan ustü. Eta:

–Adio. Urrengo jaira arte.

Eta gu, bi edo iru gaztetxo, berarekin batera etxera.

Etzerakoan, alaiago egoten zan. Ez mezagatik, noski. Ardo goxoak ere zerbaitetarako balioko zuen, ba.

Baiña urteroko aitortu eta jaunartzea egitera Zarautza jeisten ziran aitona aiek, e? Tontuak ituan, ba!

Leenago esatea aaztu egin zait. Anbuberri Xarrak ere bazuen txakur maitea: Potxolo beltza. Zenbat aldiz joaten zan

goizean, laia bizkarrean, ardia traillan, arkume txikia ondo-
ren, eta Potxolo beltza atzetik. Zegokion lekura eramane, eta
sartuko zuen laia lurrean ondo, eta lotu ardiaren soka luzea
laiari. Eta txakurrari ogi koskorra, patrikatik. Eta esango zion:

–Ik auek zaindu, ni etorri arte.

Bai zaindu ere, arkumearekin jolas egiñez Potxolok.

Geroko batean, andik urte batzuetara, ni ordurako Azpei-
tian lanean, ogeita bi urte-edo izango nituen... Larunbatetan,
etxera etortzen nintzan, neure Lambretta txikiarekin. Jakiña:
Zarautzen, Azken Portun geratu gabe ezin, ba, etxera etorri.
Orduan, illeko feria ere inguru orretan egin oi zan. Udara
aldea zala uste det. Illuntzea baiño leen nintzan beintzat
Azken Portuko atarian. Eta aspaldian ikusi gabe neukan
Anbuberri Xarra.

Etxera abiatzear:

–I, Mikolax. Eramango al nauk motorrean Abendañora?

(Araiño zegoen orduan errepidea.)

–Eramango ez zaitut, ba! Bai, pozik.

Pixka bat kosta zitzaigun motorrera igotzea. Baiña, tira:
ainbestean.

Abiatu eta bereala:

–I. Geratu adi, geratu adi. Bar Marin goardasola aaztu
zaidak.

–Lasai, gizona. Goazen berriro.

Jendartean barrena an goaz balantzaka. Ez neukan bozina
jo bearrik. Berak zioen atzetik:

–Alde, mutillak, paretik.

Ura zan zirkoa armatu genuena!

Ala, beintzat, artu goardasola eta, zazt, lepo gaiñean bru-
xaren barrura goardasol-kakoa. Eta beso batekin eldu zidan

gerritik estu-estu, beste eskuan makilla, txapela patrikan sartuta. Ura dek, ura, aitona artu nuena!

Gogoan det zer esan zidan abiatu giñanean:

–Mekaubela puñeta! Eman “suba”. Oraingoan joango gaituk. Baiña joan adi zuzen, e? Makillarekin emango diat, bestela.

Aurrenengo galdera:

–Andregaia ba al daukak? Neska jatorra billatu ezak, e? Bizimodurako modukoa. Polita dala-eta, ez fiatu.

Ara, aitona aren aolkua ere.

Alaxe tokatu zait, ba: bizimodurakoa eta jatorra. Naiko polita ere bai.

Motoa lagata, etxerako bide aldapa aietan gora zenbat kontu zaar esan genuen, Jainkoak bakarrik daki.

Abarkak, bruxa eta txapela,
ille txuria buruan,
garai aietan zaar geienak
ibiltzen ziran moduan,
gorputz zimelak eta zailduak,
lan askoren inguruan...
Aitona aien ekintzak jarri
bear dira liburuan.

Praixku Zarra, berriz, ezberdiña zan. Zaarragoa ere bai, beste bi aiek baiño. Aranburu Zaarrekoa. Oraindik ere, Praixku Zarraren familiakoak jarraitzen dute Aranburu Zaarrea. Zenbat urte ote dauzka etxe orrek? Jainkoak berak baiño geiago, ziur asko.

Praixku ez zan igandero mezatara joaten zan aitona aietakoa. Ark ez zeukan elizara sarri joan bearrik zerua irabazteko.

Biraoak ere politak zituen Praixku Zarrak: “Arraizua alajainkoa!” eta “kauen koño!”. Bi oiek besterik guk ez genion entzun iñoiz. Baiña aiek, askotan. Bertso-zalea zan; ez, apaiz-zalea.

Aitzurra, sega, eskuarea, sardea eta tresna aiek zituen bere gogokoak. Ganaduarekin-eta, etxeko beste norbait ibiliko zan. Eta astoarekin, berdin. Bera soro-zelaietako aitona zan: jorran eta abar.

Etxean eta auzoan ez zuen gerra aundirik jarriko bere bizitzan. Orduan, bizkarka ganadu-jaten asko eramaten zan etxera, eta Praixku Zarrak ere zenbat eraman ote zuen? Arto-jorrako garaietan-eta, zenbat aldiz egin zuen onako au: illundu arte jardun aitzurrean eta etxerantzean eramateko sorta belarra an inguruan edukiko zuen prest, gazteren batek eginda, leku aldapa aietan. Aitzurra soroan laga urrengo egunerako, eta arropa bizkarrean artu eta zapla etzan, sorta belarraren gaiñean, gora begira. Izarrak ordurako bistaratuak, eta aiei begira bertso pare bat bota, zigarroa erre... Eta orduan artuko zuen sorta belarra bizkarrean. Eta, poliki-poliki, etxeraiño aitona zaarra.

Guk, ori ikusita, entzun egiten genion; gure saillak ere alboan bait ziran gertu.

Urrengo egunean, igual esaten genion:

–Praixku, atzoko bertso aiek nola alakoak ziran, ba.

–Biar obeak kantatuko dizkiat.

Guk, gazteok, tarteka tentatu oi genuen. Txapela ere oso zaarra askotan, eta:

–Praixku, zu ala txapela: nor zerate zaarrena?

–Txapela. Au gure aitona zanarena uan.

Berak pipa jo.

Bere zaartzaroan ortzik ere ez, eta:

–Praixku, ortzik gabe nola txikitzen dezu jana?

–Errotak txikitzen zidak barruan. Emen, aotik barrura botatzeak balio dik. Baba dek ona. Ark dik indarra. Bota barrura; errotak txikituko dik-eta.

Zuzen erantzuten zekien aitona zan.

Berak naiko baba jaten zuen garaian, amaika arroba eta iru librako sorta belarra eraman omen zuen etxera, apustua egin da. Eta ark esan bazuen, ez zan gezurra izango.

Oso zaartua il zan.

Bere azken urteetan, aitonatxoa antxe, ba, sukaldean. Eta bere urtebetetzean-eta, auzoetako umeak-eta erregaliek in joaten zitzaizkionean, arrituta egoten omen zan ume aiei begira, malkoa zeriola. Batek purua, besteak tabako-paketea, besteak txapela, besteak esku-zapia, eta abar.

–Baiña nik bein ere ez diet ume auei ezer eman, eta zergatik maite naute orrenbeste?

Praixku Zarraren esaldi arek
biotza digunez bete,
urte mordo bat pasa da baiña
galdera or dago tente.
Erantzuna au izan daiteke,
guztiok entzun zazute:
munduak maite duen gizona
umeez maitatzen dute.

El Diario Vasco: 2004.10.26

Baziran eta badira

Baziran, bai, eta badira Zarautzen kirolari ospetsuak. Ni ez naiz iñor Zarautzen izan ziran eta diran kirolariei buruz itz egiteko. Liburuetan jasoak egongo dira euren ospeak, eta ez nuke or enbarazurik egin nai.

Baiña erritar bezela eta, aien irudiak buruan bueltaka dabilzkidan ezkeroz, nere aitamen xumeak egin nai nizkieke, baimenik banu. *Sujeto Xarra* aizkolaria, *Errotaxar* korrikalaria –au, Sujetoaren illoba–, *Xalegi Zarra* pilotaria... Gure garaikoa, berriz, Joxe Angel Iribar *Makatza*, futboleko atezain mundiala izana. Nork ez du ezagutzen bera? Orain ere badaukagu txapelduna Zarautzen: Jon Eizagirre pilotaria. Onek saskiz jokatzen du. Aupa, Jon.

Joxe Iñazio Esnal. *Sujeto Xarra* zan bere deitura Zarautz aldean. Zarautz eta ingurumariko aizkolaria zan. Nik ezagutu nuenerako, bazituen bere urteak. Aitona tente, mear bat.

Bere aizkorako entrenaketak enbor-leunketetan egiten zituela zioen berak. Zenbat egur zuzendu eta leundu ote zuen teillatu azpietarako: baserri, borda eta abarrerako? Nun baserri-konponketa edo berritzea, Sujeto Xarra etxe-atari artan ariko zan, tipi-tapa aizkoraz zuaitz luze askoak laukitzen.

Zortzi-amar metroko luzera zuten zuaitzak noiznai ekartzen zizkieten. Batzuetan, kurtzaldira jasota zuaitz-ondoa, muturra bakarrik arrastaka. Ura garbia etortzen zan, eta pozik jartzen zuen azpian, zearkako egur batzuen gaiñean josita, airean zuzenketan erasotzeko.

Baiña lorrean, txinga topean sartuta arrastaka lokaztuta ekartzen zitzaionean –idiekien, jakiña–, bekoki gaiñean txo-

rroa aterata ibili oi zuen txapela xaar bigun ura laster jarriko zuen atzera begira edo albora begira, eta esan:

–Norbaitek garbitu azkar egur ori. Orri ez dago aizkora sartzerik.

Bearko garbitu aitzurrez eta abar.

Aizkorak ere bereziak erabiltzen zituen lan artan. Gerrikoa zabal-zabal lotu gerrian, igo zearkatutako zuaitz-enborrera, punta batetik bestera zazta-zazta joan, eta atzeraka etorri leunduz. Ezker-eskubi dotore asko bi aldeak egin, eta plasta egindako alderen baten gaiñera jiratu, eta beste bi aldeak egin. Sagardo-trago ederrak egiñez. Orrela ezagutu nuen nik Suje-to Xarra aizkolaria.

Amaika egur baldar zenuen
zuzendu eta pillatu,
ta gero bear ziran garaian
bai azkar asko billatu.
Zure bitartez bazan egiña
makiñatxo bat teillatu.
Oraindik ere ederki daude.
Aiek ez dute faillatu.

Manuel Esnal *Errotaxar* korrikalaria ere ezagutu nuen. Ez nuen korrika bein ere ikusi. Poliki, askotan. Gizon txikia zan, baiña korrikalari aundia, diotenez.

Gizon serioa, begirada zorrotzekoa, anketan indar askokoa, batez ere beetik gora korri egiteko. Berari aurrea artzea goraka ez omen zan erraza. Zarauztik Aiarako marka ere Errotaxarrena egon zan urte askoan. Gerora, Iruntxiberrik eta Martin Fizek-eta ondu zuten. Pentsa zein izen aipatu bear izan ditudan, Errotaxarren aspaldiko marka obetzeko.

Plazetan, azkenengo bi korrika-apustu Arruizko Txikito-
ren aurka jokatuak izan bear zituen, oker ez banago. Napa-
rrak, emezortzi urte; Errotaxarrek, berrogeita bi. Bat galdu eta
bestea irabazi. Euskal Erri osoak daki Arruizko Txikito zer
korrikalari izan zan gerora.

Konturatuko zerate Errotaxarren lanak obetzeko zer figu-
ra bear izan diran. Eta artu kontuan garaiak.

Gizon txikia ta indartsua,
ezurra eta azala.
Gaiñera, zure preparakuntza
askotan aal zan bezala.
Jokoa egiten serioa,
jokatzen berriz apala.
Oraindik ez dira urte asko
zure marka ondu zala.

Xanti *Xalegi Zarra* pilotaria ere ezagutu nuen, ba. Nola ez,
ba? Zarautzen, Xalegi ostatua oso ezaguna zan. Nik Xalegi
Zarra ostatu-gizon bezela ezagutu nuen. Bere emazteak prepa-
ratutako mokadu gozoak jandakoa naiz ni, e? Ez pentsa ezetz.

Jokatzen ikusi zutenak zioten garai aietan trinketean oso
ondo jokatzen zuen pilotaria zala Xalegi. Eta ezker paretan,
zer esanik ez: pilotari aundiei iru eta bi zenbat ziran erakutsia.

Nik ezagutu nuenerako, gizon edadetua zan. Ez zan gizon
aundia. Txapelarekin ibiltzen zan askotan. Nere ustez, gizon
isilla, jazkeraz-eta oso euskaldun tankerakoa.

Pilotan, nik ez dakit zenbateraiñokoa izango zan. Baiña
nik amar-amaika urte nituela, apustu bat jokatzen ikusi nuen
Xalegi Zarra. Zertan? Arto-zuritzen. Nun? Gure auzoan: Izeta
Goikoan. Zeiñen aurka? Benigno aundia *Exkerra* igeltzeroa-
ren aurka.

Garai artan, urteko gonbidatuak San Martiñetan oi ziran Izetan. Eta, jakiña: artoak etxeratuak, mandioan arto pilla. Benigno aundia eta Xalegi ere, bazkaldar, beste batzuk bezela. Gu auzoko mutikoak ere an ibiliko giñan enbarazuan.

Dana dala, arratsalde illunabar aldera, Benigno aundiak:

–Arto-zuritzen jokatuko diat, Xalegi. Eun artaburu nork leenago zuritu.

Besteak, kasorik ez.

Txantxa-itxuran, baiña berriz ere, adar-jotzeko itxuran:

–Zer? Gizon aundion aurka ez al aiz ausartzen?

Xalegik:

–Nik jarritako kondiziotan, bai.

Jendea asi zan parrez. Dena umore onean zan, e? Ez pentsa an aserrerik zanik.

–Zer kondizio dituk, ba?

–Nik nere denboran arto gutxi zuritu diat, eta apustua asterako laga idak amar zuritzen, eta jokatu egingo diat.

–Bale.

Ala, jende dena mandiora. Aundi eta txiki, eskaillera betean. Kuki txakur txikia ere zaunkaz, iau eta iau, an zerbait bazala-eta.

Bakoitzarentzat banatu ziran eun artaburu. Eta Benigno aundia, eserita sillan; Xalegi Zarra, belauniko, anka orpo gaiñera kuxkurtuta.

Norbaitek txalo jo, eta ango risti-rasta!

Leenengotik, alde aundia kendu zion igeltseroak. Baiña gerora, gauzak estutzen. Ango “ea, Xalegi!” eta “ea, Benigno!”.

Larogeita amarrean, igeltseroa aurretik. Larogeita amabostean, berdin. Eungarrena, Xalegik aurretik.

Bazan txaloa mandio zaar artan!

Kirolari bezala besarkatu ziran bi aitona aiek, eta denak pozik. Aiek bai San Martiñak!

Xalegik menderatu
Benigno Exkerra.
Jokatu zuten beintzat
apustu ederra.
Eun arto zuritzea
bakoitzaren gerra.
Jendea gozatu zan,
parrez berriz leerra.
Biak ziran langille,
iñor ez alperra.
Lastima bietatik
batek galdu berra.

Joxe Angel Iribar, Makatzanekoa. Futbol-zelaietako munduko atezairik onenetakoa bere garaian.

Baiña ni ez noa Iribarren futboleko karrera astintzera. Ori liburuetan eta bideoetan ondo jaso da egongo da. Gaiñera, ni ez naiz futbolzalea. Ala ere, garai batekoak geranez eta eskola berean ibiliak ere bai, laga idazue bere mutiko-garaiko kontuak aipatzen.

Ba al dakizue pilotari ederra zala? Izan ere, atzaparrak al zituen, ba! Mutil luzea eta dena artzen zuen erraz. Botera ez bazan, airera. Zarauzko salletar hermanotako frontoi xaarrekoko eskubiko ate puñetero artan, zenbat tanto sartzen zizkigun! Ezkerrarekin jotako denak, Beldarrañek ez ezik.

Eta ba al dakizue segalari dotorea zala? Au Sujeto Xarrak esana da: Zarauzko erriberetan ez zala orduan alako segalari gazterik. Eta Sujeto Xarrak esan bazuen, kontu. Ura berezko kirolaria zan eta ark gazteari antzeman zion.

Zer uste duzue, ba? Makatza kale-baserria zan. Ukuilluan, ganaduak zeuden. Erriberan, soro, zelai eta baratzak zeuzkan. Bearko ikasi segan eta aitzurrean.


Abotsa, berriz, ortik onerakoa zuen. Orduko musikolari maisuak, Fernando Unanue organista eta solfeo-irakasleak, tiple edo bakarlari aukeratzen zuen mutikoa.

Erdi baserritarra eta pilotari ederra zalako uste det iritsi zala Iribar ainbeste partidu internazional jokatzera. Bejon-deiola.

Gaur nere koiñatua dan Joan Manuel Etxaberen laguna izanik Iribar, 1966ko San Ignazio bezperarako deitu zidaten arrebak eta koiñatuak, artean ezkonberri:

–I, Iribar diagu etortzekoa afaritara andregaiarekin. Nai al dek etorri gure etxera: Baserritxora?

–Bai, pozik. Aspaldian ez diñat ikusi-ta.



Atzean, Joxe Angel Iribar “Makatza” eta Mertxe, artean andregaia zuena; aurrean, Maitere (afari-prestatzailea, mantal eta guzti) eta Nikolas Zendoia anai-arrebak; erdian, iru litroko botilla txanpaina.

Argazkia: Joan Manuel Etxabe.

Baiña nola etorriko ote zan Iribar, eta iru litroko botilla txanpaina aundi bat bizkarrean zuela. Neretzat, une gogoangarria benetan!

Erdi baserritarra,
soro ta baratza,
pilotan egokia
ta atezain latza.
Esku aietan bazan
piperra ta gatza,
bizkor asko egiñez
erori ta altza.
Ta nola ezagutu
baloiaren dantza!
Joxe Angel Iribar,
guretzat Makatza.

Jon Eizagirre saski-pilotariari pakean lagako diot. Orrek oraindik txapela geiago ekarri bear ditu Zarautza, gaztea da-eta.

Agur, kirolari zaarrak.

El Diario Vasco: 2004.12.01

Arrautzak prejitu nai

Amaika jarduera xelebren egin izan da bizitza onetan. Batzuetan, egin bearra izaten dalako. Eta, bestetan, buruan kasketaren bat jartzen dalako. Ondo ateratzen danean, “kaixo, motel!”: bizi osoan uraxe kontatzen. Baiña gaizki ateratzen bada, zergatik ez da kontatu bear?

Iñork egin duen arrautza-prejitze xelebreena egindakoa naiz ni, seguru asko. Ez, derrigorra nuelako; buruan kasketa jarri zitzaidalako, amazazpi bat urte nituela, eta jai gau edo goizaldeko laurak aldean. Nola? Karburo-argiarekin paela berotuz. Esku batean paela olioarekin airean artu, eta beste eskuan karburo-potea. Bere argiarekin paela azpia berotu, eskuak txandatuz. Pasadizoa argituko det.

Garai aietan, ala moduzko argia eduki izan genuen, izan ere, baserrietan-eta. Ala moduzkoa zanean, gaitz erdi. Askotan, bat ere ez. Udara aldean, beintzat, argi gabe askotan. Eta nere arrautza-epelketa udaran zan.

Orduan, gure baserrietan ez genuen Iberduero, Iberdrola eta oien argirik. Beste era batzuetara moldatzen giñan. Bazirran erreka inguruetan argi-etxe txikiak, baserri modukoak, eta baserria zutenak ere. Presa deitzen zitzaion uraska aundi bat –ez dakit zenbat litrokoa, baiña aundia– izaten zuten errekan egiña. Ur soberak an jarraitzen zuten errekan beera. Alboan, etxola bat. An egoten zan argia sortzen zuen tramankulua, urarekin ibiltzen zana.

Baiña udarako leortean ura ezin ibili, eta baserrietan zintzilik geneuzkan bonbillak jai izaten zuten. Onak geunden gu izozkailluak, elektrika-labeak, mikroondak, garbigaillu, tele-

bista eta abar edukitzeko. Ziranik ere! Ura, gaurkoarekin alde-ratuta, beste mundu bateko bizitza zan.

Baiña errekaeren zerbitzua ez zan or amaitzen. Errekaren barrenaldeetan, errotak ziran. Eta jakiña: errotaren martxa ere errotako urak sortzen zuen. Geldirik zegoen edo lanean ari zan, urrutitik antzematen zitzaion. Errotaren otsa nabarmena oi zan oso: klan, klan, klan.

Argi-etxeakoak eta errotariak ez ziran beti ondo konpon-tzen ziran oietakoak izaten. Bien langintza errekaeko uretatik bait zegoen. Baiña, tira. Udarako ur-leorteak Jainkoaren aitzakia bota, eta neguan beintzat adiskide-itxuran azaltzen ziran.

Argatik esan oi ziguten errotariak baserritarroi:

–Alearekin, udazkenean, neguan eta udaberrian etorri. Ez udaran.

Askotan zioten:

–Egon zaitezte lo, eta jango dezue mee.

Pello Errota ere orrela ibiltzen ote zan?

Leengo gure baserrietan negua luzea izaten zala? Argirik gabeko udara ere ez zan, ba, motza izaten. Ez eguna ere, alazankoa! Argitik argira. Leengo apustulari zaarrak bezela:

–I. Jokatuko diagu segan, argirik argira.

Baiña arrautza pareta prejitzea oraindik ez det amaitu.

Ba, nioena. Udarako ur-leorte aietako batean, argirik gabeko aldia. Bi anaiok, jai gauean edo goizaldera erromeriatik etxeratu giñanean, gosea. Nola ez, ba? Auskalo nun zan jai illunabarreko txorizo-txistorraren bokadilloa, Patxiren tabernan jandakoa. Amak lagatako betiko kazokada kafesnea zopaz beteta an zegoen, baiña zerbait geiago nai, kontxo!

Sukalde zaarreko orman zintzilik zegoen karburo-potea pixtuta jarri genuen, ba, su bizi-biziarekin, eta esan nion anaiari:

–Felix, ik kafesnea jan ezak. Nik, bi arrautzok prejitu bear dizkiat karbuoarekin.

Ark asmatu. Kazokada geiena zurrupatu zuenean:

–I, ni oera niak. Ik arrautzak frejitzerako, oillarrak kukurruku joko dik.

Baita jo ere, amorragarri ark.

Saiatu nintzan, ba, jarri zutik sutondoan eta esku batean karbuo-potea eta bestean paela edo zartagia olioarekin nuela. Tarteka, beatza oliotan sartu eta: “Ño! Oraindik ez dek berotu”. Zupatu beatza, eta geroxeago gauza bera.

Alako batean, beintzat, bota nituen bi arrautza aiek zartagira, eta aiek isilik: zar-zarrarik ez. Ni bai marmarrean!

Andik ordubetera-edo, zuringoak pixka bat gorpuzten asi ziranean, nere poza. Baiña denbora gutxirako poza izan nuen, ordea. Karbuoaren sua indargabetzen, aultzen zijoan... Eta oillategiko oillarraren kukurrukua.

Orduantxe bai. Prejituta edo prejitu gabe, makalagatik irentsi nituen zartagiko arrautza epelak, armairutik ogi koskor bat artuta. Neri ere oillarrak jo zidan iru aldiz oera joaterako.

Jesukristoren denboran eta orain, oillarrak berdin jarraitzen dute. Oiek aldatuko dituen artistarik ez da sortuko.

Bota nion, bai, erronka:

–I ere orrela? Akabatuko aut, ba, datorren astean.

Baiña, bai zera! Urrengo egunetan oillategira janaria ematera joandakoan eta oillar eder gorri-gorria anka oriekin gandorra tente-tente zuela ain dotore ikustean:

–Nola akabatuko aut, ba? I ondo ari intzan. Ni nenbillean gaizki. Jarrai ezak, jarrai ezak kukurrukuka.

* * *

Idatzi au egin aîñean, zera gogora arazten dit: udara aldeko leengo baserri zaar aietako egunsentiak edo goizak nola-koak ziran.

Oillarra, txirriña jarri bearrik ez zuen esnagaillua. Geroni jeikitzerako, txita koskor taldea sukaldean, euliren batzuei mokoka. Ukuilluan, ganaduak tentetzen. Astoa ere deika: esnatu zala. Txakur txikia, zetozen eguzki-printzak salatzen, ate ondora irtenda. Etxe-atariko zelaian, kilkerak krik-krik-krik. Berealaxe, oillategiko kakaraka-otsa: asi dirala arrautzak egiten, alegia.

Zer mundu txiki, polita pizten zan goizero, gure leengo baserrien inguruan!

Kazoka kafesnea
ez zan erdibitu
ta oillarrak ez zeukan
ainbeste delitu.
Naiz ta arrautz pare
ez ondo prejitu,
oerako ez nintzan
ain gaizki gelditu,
lotarako sei ordu
eduki banitu.

El Diario Vasco: 2004.12.01

Sukaldeko leio zaarra

Gure jaiotetxeak, Izetak, bazuen leio zaarra ugari. Ogeita amabi bazituen beintzat-eta! Denak zaarrak. Baiña denak zeukaten beren zerbitzua. Ori bai: sukaldeko leio zaarrak zerbitzu bereziak zituen. Gaur egun, aurrerapen aundiak ditugu, baiña ez dakit, ba, uraxe berdintzeko ainbestekorik lortu genezakeen.

Ark denetik zeukan familiarako: ozkaillu, epelgaillu, leorgaillu, altzari eta al dakit ba zer geiago. Badakizue baserriaren ormak zer lodiera zuten: irurogeita amar zentimetrokoa. Barrengo aldetik, sukaldera irekitzen zan leioa, bi orrikoa. Eta ormaren kanpoaldetik, sarea: sare itxia oso, eulirik eta mamorrorik ez zedin sartu. Atera kontuak barrenean zer leku edukiko zuen leio dontsu ark. Altuera metro eta ogei zentimetro; zabalean, larogeita amar; eta lodieran, berrogeita amar. Gutxi gorabeera, orrela. Guk euskaldunok askotan esan oi degun bezela: kristoren leioa.

Baserriaren egoaldetik zan sukaldeko leio ura. Eguzkiak ez zuen geiegi jotzen. Pixka bat bai. Euriak eta aizeak, beste orrenbeste. Geienetan, giro ona egoten zan leio barru artan. Giro onean, uste det erlojutza ere egiten zuela. Eguerdian maratil ondoraiño eguzkia iristen zanean, amabiak izango ziran. Erloju zaar ark ez zeukan kuerda eman bearrrik. Eta pilak jarri bearrrik ere ez. Naturala eta merkea. A! Eta zuzen ibiltzen zana.

Bere barrengo bi alboak dozena-erdi bana iltzerekin zituen. Iltze aietan zintzilikatzen ziran gauza pilla. Iltze batean, aitaren txapela egon oi zan geienean. Pipermin sorta ere, betiko zintzilikarioa. Lukainka zatiak ere beren amaierak an izaten zituzten. Odolki sortaren bat zegoenean, seiñale ona: txerria il berria zegoen ezaugarria.

Oillategiko arrautzak jasotzen ziran otarra ere antxe laga oi genuen. Egaztiren bat iltzen zanean ere, lumatu ondoren an zintzilikatzen zan. Amak aurra izaten zuenean ere, ondorengo egunetan oillo-salda artuko bazuen, oilloa il bear izaten zan. Eta an egoten zan zintzilik, iltzeetakoren batean, eguneroko zatia kenduz amaitu arte. Ezin ba egon beti bisitariak ekarritako oilloaren zai. Bestela, oillo-salda izango zan auzoan.

Udaran pago azpietan biltzen genituen perretxiko eder aiek ere –gibelurdin, xixa ori, onddo, kuleto eta abar– antxe jarri oi genituen xabal-xabal, txortenez gora, egun pare batean, pixka bat leortu zitezen. Gero aiekin egiten zan tortilla, alboko otarretik arrautzak artuta, txapela kentzekoa izaten zan.

Urrengo aldian, oiñetako bustiak ere jartzen genituen guk mutikook, leortu zitezen. Jakiña: amak artuta bazterren batera tiratzen zizkigun arte.

Udazkenean, uso-pasa zan garaian, aitak edo norbaitek usoren bat botatzen bazuen, edo bi, leio artan jartzen ziran beti, iltzetik zintzilik.

Neguan, oillagor-garaian ere, etxekoren batek oillagorra bota ezkeru, egun pare bat an pasako zituen zintzilik, lumatuta kazuelan sartu aurretik. Zer uste dezue, ba: leen ez zala oillagorrik botatzen? Bai, bai: bi urtez bein bada ere, bakarren bat botatzen zan. Gutxi dala esango dute norbaitzuk. Baiña gaur ere, eiztariek dauzkaten erreztasun guztiekin, zenbat ote daude bi urtean oillagor bat baiño geiago botatzen ez dutenak? Botatzen dutenak baiño geiago.

Neronek ere, leenengo oillagorra bota nuenean, ez dakit zenbat egunetan zintzilik edukia izango nuen. Pentsa: kanpoko aldeko sareari zuloa ere egin nion behintzat-eta, bidean pasatzen ziranak ikusi zezaten.

–Zeiñek bota?

Eta zera:

–Nik, nik.

Gabonetan eta Urtezaarretan iltzen ziran kapoi eta oillas-ko anka-luze aiek ere leio zaar artan izaten zuten euren azkeneko luzatu-aldia; zintzilikatuta, alegia. Izan ere, an egoten ez zan gauzarik!

Gabonak eta Urtezaarrak esan det. Eta Errege eguna edo bezpera zer? Ea ondo kontatzen dedan.

Errege bezpera gauean oera joaterako, etxeko ume koskor denok leio zaar artan jartzen genituen geren zapata eta bota eskubiak, ondo garbitu eta lustrearekin brilloa aterata. Zazpi edo zortzi oiñetako. Zergatik eskubiak? Ezkerrekoak jarri ezkerre, ez omen zuten erregalorik ekartzen. Pentsa eskubitarren indarrak noiztik datozen.

Dana dala, gure familian gure aurtzaroko errege-erregaliak urtez urte, asko edo gutxi, leio zaar artan jarriak izaten ziran. Jakiña: bezpera gauean, kanpoko aldeko sareari beeko aldetik bi iltze ateratzeko baimena izaten genuen, erregeak eskua sartzeko zuloa izan zezan. Baiña urrengo egunean, berriro josi, erdoitutako maillu baldar arekin, danba-danba. Beatzari ere eman gabeak ez giñan.

Urteak pasa aala mutil koskortu giñanean, bagenekien ba amak jartzen zituela erregaliak. Baiña ori ziurtatu genuenean, gure pena! Ainbeste ilusio engaiñagarri pasa izana eta beatzari ainbeste maillukada emana.

Baiña amak jartzen zituela ziurtatzeko, iru anai zaarrenak tranpa bat bagenebilkien geure buruetan. Bederatzi-amar urte-tik gorakoei erregeek ikatza jartzen zietela-eta, gure azken erregaliak urte artan izango zirala-eta, zer egin?

Ba, beti bezela, bezperan oiñetakoak garbituta leiora. Goi-zean, seiretarako, iru anaiok sukaldera isil-isilik. Begiratu leioan, eta oiñetakoak utsik. Sutondoan, eseri sillan. Eta, an geundela, goian, amaren logelan anka-otsa.

–A! Oraintxe zetorrek ama.

Gu sukaldearen alboko logelatik jeikiak geunden. Baserri geienetan bai bait zan sukaldearen alboan logela.

Ala geundela, emen da gure ama ori eskailleretan beera, jertse aundi bat lepoan bilduta, bi besoak petxuan gurutzatuta. Zerbait bazekarkien, baiña nioena: jertsearekin ondo tapatuta. Gu, isilik eta serio. Artean, epela zegoen sutondoan eserita.

–Zer egiten dezue emen, dagoen otzarekin? Puf, au otza! –eta bizkarrari dardar eragiñez, leiora–. Zer eguraldi ote dago?

Baiña leioa ireki egin bear, eta antxe nabarmendu zan gajoa. Eskua luzatu zuenean leioari maratilla kentzeko, petxu gaiñean zekarzkien naranja-ale aundi aiek asten zaizkio ondora erortzen, bat alde batera eta bestea bestera. Ekin zion parez, eta azkenekoak berak bota zituen, jertsea astinduz.

–Zoazte, ba, denak lurrera. Eta oera natxiak berriro.

Denok parrez leertzen. Orra errege-erregalien amaiera go-goangarria, leio zaarra zala eta ez zala.

Ala ere, leio santu aren azken abentura Xamin izeneko txakur txikiarekin egin genuen.

Mutiko-garaiak pasa eta gerora, urte batzuetara, jakiña: leioa ere zaartzen zijoan. Beintzat, kristal baten faltan zegoen, eta kanpoko sarea ere kendua, erdoiak erreta zegoelako. Amabost bat egun bazeramatzan orrela. Eta anai gazteetako batek, Estebanek, oitua zeukan txakurra.

–Xamin, salta kanpora.

Eta txakur txikiak rau salto eta atarira, nola kanpoko sarerik ez zeukan. Txakurra arro geneukan bere salto arekin, eta gu gazteok ere bai.

Ala, larunbat batean, ama beor gorriarekin Zarautza kalera jeitsi zanean, ekarri zituen ba kanpoan josteko sarea eta berren-go kristala. Bai guk josi ere larunbat arratsaldean. Ama pozik:

–Ondo zegok. Gaur merienda irabazi dezue.

Gauean, denok afaritan geundela, Estebanek isilka keiñu egiñez esan zigun beste anaioi:

–Aizue, txakurrari “salta” esan bear zioat.

Izan ere, ura orrelakoa da-eta.

–Bai, esaiok.

Maai azpian etzanda zegoen txakurrari:

–Ea, Xamin, salta.

Eta txakurra, aginduarekin batera, rau leiora. Kristal eta guzti, an dijoa sareraiño.

Gure amaren amorrazioa:

–Kristala ainbeste pagatuta, leioa berria bezela jarrita, orain neri au? –artzen du erratza kirtenez aurrera.

Illunabarrean saguzarrak teillatu azpitik ateratzen diran bezela, makalagatik irten giñan bost edo sei anai, sukaldeko atetik kanpora. Uste det aita bakarrik geratu zala maaian, parrez leertzen. Gu ere bai atarian.

Baiña sarean arrapatuta zegoen Xamin gizajoak jaso zitu en guregana zetozen erratz-kirtenkadak. Beti errugabeak ordaindu bear.

Agur, leio zaarra ta
mesede taldea.
Zure zerbitzaritza,
beti sortaldea.
Naiz goiz partea eta
naiz arratsaldea,
zuk argitzen zenuen
gure sukaldea.

El Diario Vasco: 2005.01.05

Aiek bai gaztak!

Aspaldiko artzaien gazta egiteko era eta negu aldeko borda barruko eginkizunak pixka bat aipatu nai ditut aal dedan modurik txukunenean.

Ni ez naiz artzaia, baiña ikusi izan nituen nere mutiko-garaian artzaiek zer lan izaten zituzten neguan, borda barru eta inguruan.

Udazkenean mendietatik jeisten ziranean beren artalde, txakur eta asto, nunbait kokatu bear izaten zuten. Batzuek bazuten euren jakiñeko borda negualdia pasatzeko: euren edo baserriarren batek uzten zieten. Beste batzuk, berriz, jakiñeko baserrietan kokatzen ziran. Izan ere, baserrietako barrutietan edo zelaietan asetzen edo larretzen ziran mendietatik zetozen artaldeak.

Ongi etorri aundia egiten genien beeko larreen bearrean zetozen artzai eta artaldee. Nola ez, ba! Ea zenbat ardi zetozen mendietatik arkume txiki bana tripan zutela. Batzuk bi ere bai. Geienean, astoan ere etorri oi zan goiz jaiotako arkumetxoren bat. Edota bidean jaiotakoa, txalma tartean burua agerian zuela.

Une bikaiña izaten zan gero begira egoteko, artaldea menditik zetorreanean edota mendira zijoanean. Gu etxe-atarira irtenda egoten giñan, aundi eta txiki, tulun-tulun dunba joaz zetorren artaldeari begira.

Aurrean, artzai mutilla etorri oi zan, eskuan makilla eta ondoren txakurra zuela; eta atzean, artzai nagusia, asto eta guzti, etxe-atarietan eta bide-bazterretan artaldeari begira zegoen jendearekin kontu bakar batzuk esanez.

Etxe ondoko bideak ezagun izaten zuen artaldea noiz pasatzen zan. Bide biguna bazegoen, ea zenbat anka-marka txiki lagatzen zuten. Eta bide leorra edo gogorra zegoenean, zenbat kaka-ale konpitta nabaritzen ziran.

Pentsa sekulako pena izaten genuela artzai-artaldearen etorrera edo joanera ikusi gabe geratzen bagiñan.

Baiña ez galdetu: “zenbat ardirekin zatoz, ba, aurtent?”. Irriparretxoren bat egiñez erantzungo zizun, komeni zitzaion eran. Ori ez da okerra.

Urrutitik ikusteko ere polita da artaldearen joan-etorria.

–Ara an nun datorren Etxebeste artzaia, artaldearekin.

Bestaldeko mendi-bidean, berriz:

–Ara an. Balentziko artzai zaarra ere, badator goitik beera.

–Martin aundia biar pasako omen da bere artaldearekin.

Iru artzai aiek gure ingurukoak ziran, izan ere.

Leenago nioena: borda barruko lanak orduan zetozkion artzaiari.

Artalde osoa iñoiz ez zuten batera bordan jartzen. Antzu, aari eta aiek, alde batean. Eta ume egiteko zeudenak, bestaldean. Banantzeko, jarriko zuten sarea edo urritz-makillaz egindako esiren bat tartean; eta bein bakoitza bere tokian sartutakoan, bazekiten beti nora sartu.

Artzaiaren lo-lekua ere gertu egongo zan artaldearengandik, zer gerta ere. Asiko ziran arkumeak jaio eta jaio, egunez egun eta gauez gau. Eguna baiño iru bat ordu leenago asten zan artzaia bordako lanetan. Arkume txikiak beren amen erra-peatan jarri, eta koxkortutakoak tragoa egindakoan ixtegiara sartu, eta orduan asiko zan ardiak jezten; esnea biltzen, alegia. Ea kanpazoa noraiño betetzen zuen, gero gazta egiteko.

Ixtegia nioen. Ixtegia zan urritz-makillaz egindako esi borobilla, metro eta ogei gorakoa-edo zuena, gaiñetik arku-meek salta ez zezaten.

Gero, egunaren barruan ere, ixtegian arkume mordoak egon izan zan: jendeak eskatutakoak eta abar. Esneko arkumea eskatu oi zitzaion artzaiari, larrean ibili gabekoa, labean erreta jateko. Beste grazi bat izaten bait du. Eta San Josetarako, berriz, bere kabuz saiatzen zan artzaia, esneko arkumeak saltzera eramaten. Orretarakoxe eduki oi zituen arkumeak ixtegian egunez, mee eta mee, musika ederra joaz.

Illunabarrean, ardiak bordaratzean, orduan ixtegia albo bate-tik altxa, eta an irteten ziran okerrik egin gabeko kartzelero txi-kiak, bakoitza bere amaren billa, gaua berarekin gozatzeko.

Gero, arkume aiek naiko esnea edanda jolasean asten zira-nean, ikuskizuna franko jartzen zuten borda barruan. Bai orixe. Amar dozena bat arkume filan jarrita, iru ankaren gai-ñean saltoka aruntz-onuntz, aurreko beso bana airean zutela. Uraxe baiño ikuskizun politagorik! Tarteka, alako jiba biu-rrizko birak emanaz, baziruditen norbaitek erakutsiak zeude-la. Bai zera! Aiek berezko jakintza zuten ura.

Gu mutikoak illunabarretan egon oi giñan bordako ate-zirrikitutik barrura begira dalako arkume-desfile ari. Ardiek lekua egiten zieten ba arkumeei, euren tartean orrela ibiltze-ko! Bakarren bat etzanda bazegoen, denak aren gaiñetik pasa-ko ziran. Ez zuten, ez, estropezu aundirik egingo.

Artzaiarentzat ere une pozgarria izan bear zuen ark. Ni orretan nago.

Era artan izaten ziran artzaiaren bordako lanak eta gertae-rak neguan, gure alderdietara jeisten ziranean.

Tarteka, gazta egitea zegokion. Goiz-illuntzetan bildutako kanpazokada esnea beste ontzi aundiren batera txukun asko pasako zuen irazkiz –edo zapian ere bai–, esne garbi-garbia gera zedin, gazta egiterako. Artzaiak orretan garbitasun aundia erabiltzen zuen. Ildako arkumeen gatzagiak an edukiko zituen zintzilik, leortzen. Irazkiz edo zapian pasatako esnetan sartuko

zituen gatzagi bat edo bi: bear ziranak. Eta gatzagi ark esnea mindu eta turbitu egiten zuenean, mamituta geratzen zan.

Gero, eskuz-eta puskatuko zuen, eta orduan asiko zan gazta egiten. Maai gaiñean jarriko zituen gazta-ontziak, eta kanpazo aunditik eskuekin artuz, gazta-ontzira turbitutako esnekiak. Ontzi aiek moldeak ziran gaztari forma emateko. Zenbat eta molde politagoa, orduan eta gazta dotoreagoa.

Zapi bat artu eta pazientzia aundiz, eskuz sakatzen zuten, ontziari birak emanaz mantso-mantso, saka eta saka, ateratzen zitzaion gazura beste ontzi batera botaz. Ura txerriei eman izan zitzaien.

Orrelaxe, moldez molde arituko zan gaztagintzan, gazurak ondo atera eta gazta gorpuzten zan arte. Bazan ura naiko arte.

Orain prentsez sakatuko dituzte, baiña orduko prentsak eskuak ziran, orain ere eskuak or egongo dira baiña.

Orrelaxe ariko zan kanpazoko esnekia amaitu arte. Zenbat gazta? Sei, zortzi, amar... Ateratzen ziranak.

Jarriko zituen ool gaiñetan edo apaletan leortzen, egunero buelta eman eta toki aldatuz, gazta bakoitzari alde denak berdin leortu eta azal gogortu zezaizkion.

Gero ketu ere egin oi zituen. Baziran orretarako ere leku bakar batzuk, ez asko: zenbait orma zaar ondo. Lurrean sua egin, eta goian kosketan gaztak jarri, eta keak goian irtenbiderik ez zuenez an ketu egiten ziran. Kolorea artu, alegia. Oso kolore berezia artzen zuten, eta ura garestiago saltzen zan. Kolore ederreko gazta dotorea izaten da gero! Oraingoak ainbeste izen eta etiketa ez zuten izango, baiña an zegoen, an, kalitatea.

Mordoxka bat prest zeukala iruditzen zitzaionean, artzaia bera joango zan gertueneko errira, astoan gaztak artuta. Esan oi dan bezela, “saltzen baziran, *bien*; eta ez baziran, *también*”.

Ordiziara ere zenbat artzai joaten ote ziran? Ordizia aipatu dedanean gogoratu zait iazko gazta-sariketan leenen saritua izan zan gazta; amabi milla euro pasa ordaindu omen da: leengo bi milloi pezetatik gora. Gure leengo artzai zaarrek egiten zuten aoan urtzen zan gazta ark zenbat balioko ote zukeen? Oraingoak ere onak izango dira, baiña...

Bejondaizuela, leengo artzaiak, oraingoak eta Pastor Izuela.

Izan ere, askok izango dezue Pastor Izuelaren entzutera. Aiako Altzola auzoko Izuela baserriko artzaia. Bertsolaria. Izketan azkarra, diotenez.

Bere eta gazte batzuen arteko pasadizo au kontatu zidan norbaitek, amalau bat urte nituela.

Tolosara ferira joan oi omen zan noizbeinka, gazta batzuk salduz. Ez zan izango ondo jantzita ibiltzen zan oietakoa. Orduan ere, beintzat, txapela zulatutakoarekin edo puska bat faltan, eta an gazte batzuk:

–I. Ara an Pastor Izuela.

–Goazen. Zirikatu bear diagu.

Eta:

–Kaixo, Pastor Izuela.

–Jaungoikoak egun on daizuela.

–Txapela daukazu modakoa.

–Sobra zitxaukaan eta kendu egin zioat ortik gorakoa.

–Gaitako al zaude, gaitako?

–Au baiño ohea bazeukaat jaitako.

El Diario Vasco: 2005.03.15

Aspaldiko Erramu Eguna

Orain ez diogu ainbeste jaramon egiten Erramu Egunari, baiña gure gazte-denboran Erramu Eguna egun aunditzat eduki oi genuen, batez ere gazteak. Gure erramu-festa ura egi-teko, alegia.

Oraintxe bezelaxe, atzera-aurrera aundia ibiltzen zuen Erramu Egun eta Aste Santua dalako orrek.

Zergatik nioen *erramu-festa*? Orduan, erramu adar-aundiak eramaten genituen elizara, meza nagusian. Aundiak bakarrik ez. Zeiñek ederragoak eramán ibiltzen giñan. Zeiñek loretsuagoa, alegia. Orrexegatik nioen.

Erramu Eguna goiz baldin bazan, lorerik ez zuen izaten. Edertasunik gabeko erramuarekin joan bear elizara urte artan. Eta norbaitek eramaten bazuen loreduna, ura zan urte artako irabaztuna. Kanpeioa! “Nun kristotan billatu ote dik orrek ori?”. Amorrua ere artzen genion dalakoari.

Oso urrutira ere joan oi giñan erramu loredunaren billa. Baserri geienek bazuten beren erramua, etxetik urruti gabe; zainduta, gaiñera. Sakratua zan ura: elizarako erramua. Ezin, ba, besteren etxeko erramua arrapatu, eta inguruetakoko baso-etan begiratu bear; egutera aldetik, gaiñera. Leenengo, egutera aldekoa loratzen bait zan. Norbaitek galdetu ezkeru “zertan zabilzate or?”, erantzuna prest geneukan: “txori-kabi billa”.

Erramu Eguna apirillean baldin bazan, ez zegoen lore-ara-zorik. Zegoen lekuan zegoela, erramua loretan izaten zan.

Bezperan, Erramu Zapatuz, apaindu oi zan erramu-adarra. Alperrikako zotz eta orri iarrak kendu, eta aal zan politena

jarri. Baiña esku-erramu txikia ere eraman bear izaten zan elizara. Ura, elizara zijoan bakoitzak bear izaten zuen. Ura bai dotorea preparatzen genuela: adar aundiari kendutako sortarik politena edo politenak.

Erramu-adarra nork eraman ere, bezperatik izendatuta laga oi zan erabakita. Etxe guztietan baziran gazteak, eta txandaka eraman bear, ba.

–Leengo urtean ik eraman uen, eta aurten nik.

Eta orrela.

Baiña ez pentsa beti erreza izaten zala erramu-adarra elizara eramatea. Ez orixe. Esate baterako, egin ezazu kontu euri-eguna gertatzen zala. Adarra zeramanak berak moldatu bear izaten zuen bere arropa eta adarrarekin. Ura eramatea baldin bazan lujoa, geratu oi zan lur joa.

Ala ere, zailena izaten zan, aize aundia baldin bazan. Aize aundia, adar aundia eta mutil txikia bazan, atera kontu nola joango zan.

Ez zait aaztuko sekula. Aize ikaragarria zan, Erramu Egun batean. Bazan Urdanetako Zailkoa baserrian morroi zegoen xelege bat: Anastaxio. Mutil pizkorra, langillea, umoretsua. Baiña adar-jotzaillea. Baita apaizari ere.

Aize aundia zan Erramu Egun artan, beintzat. Beti bezela, berandu elizara gure Anastaxio. An zettorrek sekula iñork elizan ikusi zuen erramu adar aundiena artuta.

Ordurako, gure apaiz don Daniel luzea aldarera irtenda zegoen. Eta Anastaxio, bere erramu-adarra elizako ate erditik barrura sartu eziñik, aurrena bultzaka eta gero tiraka.

Eliza jendez betea, berari begira denak, parreari eutsi ezinda. Orduan ez bait zegoen parrerik egiterik elizan. Apaiza, berriz, betaurreko gaiñetik begirada zorrotzak egiñez, katuak xaguari bezela.

Alako batean, beintzat, pasa zuen adarra estropezuka eta abar eliza barrura. Eta an jarri zuen beste adar denen gainean: rau! Eta eseri zan gure Anastaxio bere betiko lekuan: poste atzean, alegia.

Don Daniel apaizak ala esan zion aldaretik:

–I ere ez au, ba, aizeak eraman, eure erramu eta guzti.

Anastaxio pozik, apaiza trakestu arazi ezkeru. Gero sermoi motza entzuteko sistema ederrak zituan aiek, Anastaxio! Ordu erdikoa, gutxienez.

Alako batean, iristen zan, ba, gure erramuak bedeinkatzeko ordua. Eta denak zutitu, eta grada erdira, jaunartzera bagindoaz bezela filan jarrita. Apaiza aldaretik jeisten zan eskaillera barrenera, bere monagilloak eskuan kandelatxo bat piztuta zuela, lurrera tantoak eroriz.

Eta an agertzen genizkion gure esku-erramu txiki polit aiek apaizari. Eskuan zeraman ur bedeinkatu-ontzi kirtedun arekin (hisopoarekin) tantoren bat botako zion bakoitzaren esku-erramuari, mutur batetik berak eskuarekin elduta. Gainera, erramuari muin egiten zion. Seguru asko, erramu-usai goxoa artzearren. Anastaxio, ez det uste joaten zanik.

Eta denak pasatakoan –jakiña, aurrena gizonezkoak eta gero emakumezkoak–, ondoren eliza bazterrean zeuden bi erramu-adar pilla aiek bedeinkatzera joaten zan apaiza. Pilla bat, eskubi aldekoa, Ama Birjiña Errosariokoaren bazterrean egoten zan. Eta ezkerraldekoa, San Isidroren bazterrean.

An joaten zan don Daniel aundia, bere gona luze aiekin, aldamenetara aizea boteaz. Bristi-brasta busti eta braustiatuko zituen erramu-adarrak, bere monagilloa ondoren zuela. Eta berriro mezak jarraitzen zuen.

Erramu-adarra, jaso egiten zan mandiora, bedeinkatua zanez. Trumoi-tximista aundiak ziranerako, soroak edo soro-

ko gauzak ondatu ez zitzan, soroan sartzen bait zan, elorrrantzak bezela. Eta bearrik ez bazan, San Joan sutan erre.

Esku-erramu txikiak, berriz, logela bakoitzetan zeuden ur bedeinkatu-ontzietan jartzen genituen. Orman zintzilik, santu-irudiak izaten ziran, beren ur bedeinkatu-ontzi txikiarekin. Eta an egoten ziran erramu txikiak, urte guztian.

Norbait iltzen zanean ere, illotzaren alboan jartzen zan, maai gaiñean, ur bedeinkatu-ontzian egoten zan erramu ura, illotza agurtzera zetorren bakoitzak ur-tanto batzuk bota ziezazkion.

Laga genion erramu-adar
aiek eramateari,
oraintxe dala bi milla urte
asmatu zuten festari.
Jerusalemgo ibillaldia
entzun izandu det adi,
baiña gu ere egiñak gera
Jesukristonak eta bi.

El Diario Vasco: 2005.03.23

Oe batean jaioak

Bi milla eta bosteko urtarrillaren bederatzian, beti gure auzo izan dan Aiako Urdanetan, jende asko bildu zan eliza berritu ostean, leenengo meza zala-eta. Inauguraketa, alegia.

Ni ere antxe, ba, besteen tartean-eta. Orrelakoetan, aspaldi ikusi gabeko lagun zaarrak elkartu oi dira. Eta ni eta Agiñeta Zarreko Joxe Mari Urrestilla ere antxe elkartu giñan; nioen bezela, aspaldiko partez.

–Kaixo, Joxe Mari? Nun arraio abil?

–Ementxe, motel. Ikusten nauk. Eta pozten nauk i ikustearekin ere. Ogei urtetik gora izango dituk elkar ikusi ez degula. Gezurra zirudik oe batean jaioak gerala ere.

–Bai, motel. Ni i baiño iru illabete leenago baiña...

Luzatu genizkion ba elkarri irurogeita launa urte dituzten esku zaar auek, eta elkar ondo agurtu arte ez genituen askatu.

Gazte-denborako kontuak aipatzea eta berritzea izaten da derrigorrezkoa orrelakoetan. Eta eman genien, ba, alako auts-arrotu bat. “Zer famili dezue, ba?” eta elkarri oizko galdera oiek egin ondoren, asi giñan aspaldiko kontuetan.

–I, Joxe Mari. Gogoratzen al aiz, amasei urte genituela, egiten genituen erromeria xelebrea aiekin?

–Gogoratu? Gogoratuko ez nauk, ba! Soiñu-joleari ordaindu eta duro bat eskupekoa emateko oitura zala-eta, zera, naiko diru bildu ez txapela pasa ondoren, eta nola bion artean erdi bana geure patrikatik osatu genuen duro santu ura.

Eta zenbat orrelako.

–Orain kontatzen errezago dituk kontu aiek, orduan duro bat osatzen baiño.

Bai, ba. Goizeko meza ondoren, igandeetan, biltzen giñan zortzi-amar mutil. Eta:

–Beno. Soiñu-joleren bati deituko al diogu arratsaldean erromeria egiteko?

Eta taldetik bi mutil enkargatzen ziran orretarako, edozein bikote txandatur: “gaur, i eta ni; eta urrengoan, ura eta bestea”.

Batean, beintzat, Joxe Mari eta ni izendatu gintuzten.

Jakiña: beti bezela, apaizarengana joan bear telefonotik deitzera. Apaiz-etxera, alegia, soiñu-joleari deitzeko. Orduan, apaizak bakarrik bait zeukan telefonoa auzo guztian. Etxe-sarrerako ate erdikoa zabalik egon oi zan igandeetan eta, giñanak giñala, an joaten giñan sukalderaiño.

–Ai, Maria.

Eta:

–Aurrera biria –erantzungo zuten apaizak eta bere arreba Isabelek.

Ongi artuak izaten giñan. Igandeetan, umore onean egoten ziran, beste geiagoren antzera.

Sarritan, eurak aurreratu oi ziran esatera:

–Zer? Gaur ere erromeria egiteko asmoak dituzue?

–Bai, jauna.

Eta:

–Zein soiñu-joleri deitu nai diozue: Arroako Marduri, Itziarko Txankartari, Aizarnako Sorozabali, Sakabiri, Maal-tzetari...?

Oizko izen aiekin zerrenda egiña eduki oi zuen. Ez bait zuen soiñu-jole berririk nai izaten.

–Ba, edozeiñi, jauna. Eta oiek ezin badute, *Kuatropiezasi*.

Besterik ezean, ura ere ekarrarazten bait genuen. Ez dakit nungoa zan, baiña beti pieza berak jotzen aspertzen ez zan oietakoa.

Marka zan gero ura ere, e?: goiz-meza entzun ordubete ingurukoa, eta apaiz berarengana arratsaldez erromeria egiteko soiñu-jole billa.

–Bai. Eta gogoan al dek, Nikolas, biok giñan artan, zera: Sorozabali zer esan zion telefonotik? “Urdanetan, oraindik ez zegok libre *agarraua* jotzea, e! Sueltoa bakarrik jo bear dik”.

–Ba, ori don Daniel luzeak esateko ez zuan asko.

Ala ere, pozik soiñu-jolea lortu genuenean. Sei erreal-edo ordaindu telefonoa, eta lagunei albistea ematera: “Aufiii! Gaur badiagu erromeria!”.

–Bai, motel. Egun artan, gaiñera, Sorozabalek bost duro geiago kobratu zian, prezioa igo egin zuela-eta. Leenetan, ogei duro. Eta egun artan, ogeita bost duro, leenagoko diruan.

–Orrexegatik ibili ginduan ogeita seigarrena osatu eziñik.

–Eta ori ez dek okerrena. Neskari ikutu gabe dantzan egin bear.

–Mekauela puñeta! Gu seko tontoak izango ginduan.

–Esaiek gaurko belarritako eta anilloz jantzita dabilzan oiei, eta mobilla eskuan daramaten oiei, zera, goiz-meza entzun eta arratsaldean zein orkesta izango duten galdetzeko apaizari. Laster esango ditek: “Oooo! Oraindik denak ez daude txokoan”.

–Baiña dena esan bear diagu, Joxe Mari. I, garai artan, dantzan baiño egokiagoa intzan, ba, bertsotan eta musean...

–Bai. Orrela jarduten ginduan denbora luzean.

Izan ere, Patxi Aundiaren taberna txiki artan, saioak egiten al genituen ba musean eta bertsotan? Nesketan baiño geiago. Bost baldin bagiñan, erregeak bota; eta ateratzen ziran laurak,

musean; eta bosgarrena, ardoa partitzen, geiena berak edango bazuen ere. Eta norbaitek tranpa egiten badegu ere, “i, isilik”. Enkargu ura izaten zuen.

–Ez diat osorik gogoratzen, baiña ire bertso baten erdia buruan diat oraindik, Joxe Mari. Orduan ere dantza gutxi egiña izango intzan, seguru asko-eta. Musean jardun ondoren, beintzat:

I ni ainbeste baldin ba aiz’*e*,
ni ere banauk i aiña.
Oe batean jaiok gaituk,
anaiak ez gaituk baiña.

–Dena ona izan balitz, osorik gogoratuko uen.

Azalduko det, azkenik, oe batean jaiotze ori nola zan.

Badakizue, orain dala irurogeita lau urte, astoak eta beorak egunero jeisten zirala errira edo kalerik gertuenera, esnearekin eta abar...

Larunbata omen zan: martxoaren ogeita zortzia. Eta larunbatez, etxeko amak, etxekoandreak, jeisten ziran asteburuko errekuksuak egitera.

Orrela, beintzat, Joakina ere bere tripa aundiarekin jeitsi da ba kaleraíño. Baita, bere lanak garaiz eginda, beetik gora abiatu ere, gure ama eta biak kontu kontari. Eta zera: Joxe Mari ate-joka.

–Joxepa Antoni, abisuak ditudala uste det.

–Jesus, ba... Bueno, ni aurrera joanda, badaezpada ere oea jantziko det. Eta zu etorri lasai beorren gainean, Joakina.

Gure ama orrek perrak astindu arazi beor gorriari, eta etxera iristean amonari:

–Ama, Joakina ola eta ola dator.

Ni, iru illabetekoa, lo nengoen oetik aterata, jantzi dute oea. Auskalo nun laga ninduten.

Orrelaxe, Izetan, ni jaiotako oe berean jaioa da Joxe Mari, bere buru ori-oriarekin.

Atzetik zetozen atsoak, gure etxe parera iritsi ziranean:

–Zer da emen?

Gure beorra eta Agiñeta Zarrekkoa, beren zama eta guzti, atariko zelaian larrean.

–A! Badakigu zer dan.

Lotu dituzte euren beor eta astoak aal zuten lekuan, batek intxaurrari, besteak lizarrari, eta atariko gurdiari eta abar, etxeko eta auzoko txakurrak zaunkaz zituztela. Santa Luziako feria ematen omen zuen ark. Ez omen zuten etxera joateko batere presarik. Lastima: artean, oillo-saldarik ez.

Bai. Oe batean jaioak gera Joxe Mari eta biok, anaiak ez gera baiña.

El Diario Vasco: 2005.04.26

Komunio txikia

Nik ere egin nuen komunio txikia. Orduan ala deitzen zitzaion. Bi komunio egiten bait ziran: txikia, zazpi urterekin; eta aundia, amabirekin. Eta bien bitartean, illaren leenengo ostiraletan aitorketa egin eta jaunartzera utsik egin gabe, eskolatik bi kilometroko bidean. *Primer viernes* deitzen zitzaion.

Bidean goazela, inguruko baserritarren batek galdetzen bazigun:

–Nora zoazte?

–Primerviernes a –mukiei gora tiraz fin asko.

Gu baiño pekatu geiago zeukaten gu ala ibili arazi gintuztenak.

Nijoan komunio txikiarekin. Egundoko pena daukat argazki ura orain ez edukia. Gerotxoan ere bazan gure jaiote-txean, bazter batean eta bestean bueltaka. Baiña orain alperrik da. Ura ez dago berriz eskuratzerik. Izan ere, orduan gaur ainbeste garrantzi ez zitzairen ematen argazkiei. Baiña buruan gordea daukat, ordea, nolako argazkia zan gure irudi-ordea.

Bi anai giñan batera: anai zaarrena, Felix, eta ni. Argazkiera begira jarrita, ni ezkerretik eta anaia eskubitik. Zer jantzi? Erdi zapata, erdi sandalia beltz brillodunak; galtzerdi txuri sarezkoak, txorkatilla baiño goraxeago doblatuta; galtza grisak, belaunak baiño goragokoak; erdi alkandora, erdi niki txuria –ez dakit zer modelo izango zan ura–; erdi jertse, erdi txaketa urdin polita, luzexka, ipurdia tapatzeraiñokoa; eskuetan liburutxo txuri bana –gogoan det nola zuen azalean gurutzea, kaliza eta sugea kalizara sartzen–; besoan zintzilik, errosario-

ak; illea, raiarekin orraztua –ala ere, tente xamar geratzen zitzaidan neri; ordurako, ezagun nuen biurri xamarra nintzala–; erbiñude-begiak; eta matxinsaltoa baiño anka meeagoak, belarri txabal-txabalekin. Begira zer argazki polita! Anaiak nere aldean otzana zirudien; izan ere bai-eta.

Argazkia kontatu dizuet. Ea, ba, nola zan komunioko jira ura.

Ordurako, erreztatzen ondo ikasiak geunden. Bagenekizkien orazioak apaizak bezain ondo. Ordurako bai bait genuen gure leenengo maistra, Laurita, Izetan. Oraintxe il berria da, irurogeita amalau urterekin: 2005eko martxoaren 4an, Elgoibarren. Adio, Laurita.

Jarrai dezadan. Komunioko egunaren bezperan, au da, larunbat arratsaldean, amak bidali gintuen konfesatzera, Izetatik bikario xaarrarengana: Meliton Pagolarengana. Ura ez zan edozein. Aldeko Manuelek in joan giñan, Zarauzko parrokiako sakristiara. Ura, amar urteko mutikoa, guri laguntzera amaren aginduz, urrengo egunean bazkaritara etortzeko esanda. Ark ere izaten zuen konfesatzeko premia.

Eldu giñan parrokiako zimiteriora, eta an zebillen aruntz eta onuntz bikario xaarra, eskuetan liburu beltz bat zuela eta buruan kapelaren bat. Betaurrekoak kendu zituen esku batekin, eta begiratu ondoren:

–Zuek al zerate Izetakoak?

–Baaai.

–Ondo dek. Amak esan zidak goizean etorriko zeratela, eta zai nengoen. Etorri nerekin sakristiara.

Eta Manuelek:

–Ni auei laguntzera etorri naiz, e.

Bikario xaarra eseri zan silla aundi eder batean, eta artu zuen lepotik zintzilik alako trapu bat, aitaren egin zuen, eta gu bi anaiok bere aurrean zutik, eta Manuel alboraxeago...

Asi zan, ba, gure leenengo aitorketa ura. Bazirudien epai-tegi batean geundela.

–“Gurutze santuaren” egiten ba al dakizue?

–Baaai– eta di-da.

–Ondo. Eta aitagurea?

–Baaai– eta rri-rra ura ere–. “Jesukristo nere Jauna” eta kredoa eta salbea eta “Ni pekatari” eta denak badakizkigu.

–Ondo zegok, ondo zegok.

Pixka batean isilik egon ondoren:

–Eta? Oker txikiren batzuk egingo zenituzten, ba?

–Baaai. Oillo lokari anka moztu; eta oillarra ito, aldekoa-rekin burrukan galdu zuelako...

Eta anaiak:

–Ni ez nintzan an, e? Ni itulan (itaurrean) nintzan egun artan...

–Bai, baiña onek Urdanetako apaizari “i” esan zion leengoan –nik ere nere burua salbatu bear, ba–. Etxeari su ematen ere probatu giñan, baiña ez genuen erre...

–Eeee! Ori pekatu mortala dek gero! –aiek begiak jarri zituen.

Manuel ere ezin isilik egon, eta:

–Aranburu Zarretik melokotoiak ere arrapatu zituzten.

Eta nik:

–Bai, baiña berau ere an zan.

Eta anaiak:

–Bai. Denok giñan.

Bikario xaarra larri eduki arazi genuen guk, parreari eutsi ezinda, ezpainañak itxi-itxi eginda. Ari parrea ateratzea miraria bait zan.

Ondoren esan zizkigun bere esan bearrekoak, serio-serio: urrengo egunean Jesus leenengo aldiz artuko genuela, eta apaizari mingaiña dena ateratzeko, Jauna ondo jarri zezaigun, eta ortzekin ikutu gabe irensteko, eta baraurik etortzeko, eta orrelakoak. Jaiero mezara joateko, eta illero konfesatu eta Jauna artzeko, eta *primerviernesak* eta ori dena.

–Eta orain zoazte etxera, okerrik egin gabe.

Orrela izan zan gure leenengo aitortza xeble ura. Ez dakit barkatuko zizkigun edo ez baiña.

Urrengo egunean bai baraurik joan ere elizara! Baita Jauna irentsi ere, ortzekin miñik eman gabe, zintzo demonio!

Badakizue orduko oitura zer zan, gaiñera: komunioa egin-dako egunean, naiz txikia naiz aundia, eskuan muin egitea jendeari: ezagunei, osaba-izebei, auzokoei eta, azkenerako, parean jartzen zan guztiari. Bai, ba. Pezeta rubia-edo ematen bait zuten muin egindakoan. Batzuek, paperezkoa ere bai. Eta guk ura nai; paperezkoak geiago balio ote zuen, ba!

Gogoan det komunio egunerako, Trinitade egun aundirako, gure etxean nola sukaldea zuritu-eta egin ziran. Alpontxo Eztiburu izango zan, bai, orduan ere igeltseroa. Beti ura izaten zan-eta. Baita gure amak gatz-ontzi berria nola ekarri zuen ere, gogoan det, egun artarako. Martxiel zaarrak an jarri zuen iltze batekin, su aurreko orman zintzilik. Urdin illuna zan, gaiñean zokoa taparekin, eta beean bi kajoi txiki. Ez zan, ez, sukalde itsusia geratu.

Orduan, etxean ospatzen zan bazkaria. Oillategian, pare bat egazti gutxiago: zopa egiteko oillo zaarren bat eta laberako oillaskoren bat. Eta kito.

Atzo balitz bezela gogoratzen naiz nola, bazkaria bukatu ordurako, anaia eta biok joan giñan auzoetara, jendeari eskuan muin egitera, gatz-ontzi berriaren kajoitxo bana eskuetan genuela.

Etxe denetan kontu berdiña genuen, kopla berdiña:

–Komunio txikia egin degu.

Bai dirua bildu ere latz. Ogeina pezeta-edo, bai, beintzat.

Egunetan eduki genituen txanpon aiek kajoitxo aietan, gauean oeratzera eta goizean jeikitakoan kontatuz. Gure leenengo aurrezki-kutxak bi kajoitxo aiek ziran.

Pasadizo aiek gertatu zirala, badira berrogeita amazapi urte. Jesus, Maria eta Jose! Atzo goizeko kontuak dituk, ba!

Bikario xaarra Altzan egona,
iraganak esaten du.

Ta kulpitutik mutilzaarez
gogor samar nabarmendu.

Gero Txirritak kantatu zion
ezin zalako ezkondu:

“gazte polit bat artuko nuke
zuk billatuko bazendu”.

Gero Zarautzen eraman zuen
agintea ta morrontza,
batzuentzako ezaguna ta
askorentzako arrotza.

Itxura danez, Txirritarentzat
ere naikoa zorrotza.

Baiña guk lasai egin genion
leendabiziko aitortza.

El Diario Vasco: 2005.05.10

“I, galeper-jana diagu”

Badira urte batzuk. Anai Estebanek esan zidan:

–Aizak, i. Biar gauean galeper-jana diagu Tolosan, soziedade txiki batean. Etorri nai badek, an izango gaituk.

–Motel, motel! Ori baiño abisu txarragoak badituk, alajainkoa eta bi! Joango nauk, ba; elurra ez badu egiten, beintzat.

Txantxetan esan eta ala gertatu: elurra mara-mara. Baiña eldu nintzan afari-leku artara.

An ari ziran batzuk sukaldean. Ango tirripi-tarrapa otsa, ango kea, pare bat botilla txakolin ere ustuta...

–Etorri al aiz?

–Bai. Zer jende gaituk, ba, gaur emen? –galdetu nion anaiari.

–Zazpi lagun izango gaituk. Soziedadea dena geuretzako. Ori abokatua dek: Jabier.

Eta:

–Este es mi hermano Nikolas.

–Hombre, me alegro –eta, da!, eskua.

–Bestea, medikua: tolosar peto-pettoa.

–Kaixo, Danel.

Bestea, inmobiliaria edo etxe-saltzaille orietakoa. Bestea, Arruako baserritar bat, Txarli deitzen ziotena. Berak zioenez, eiztari ona. Anaia bera ere eizarekin pentsatuz egunero lo artzen duen aietakoa da. Eta seigarrena, segobianoa: Mariano.

–Yo soy el bodeguero de aquí.

–Ederki.

Nere artean nioen: “Nik zer kristo pintatzen diat emen, jentuza onekin: abokatua, medikua, etxe-sailtzaillea, segobia-noa, eiztari eta abar? Eta atarian, elurra”.

Ala beintzat, norbaitek, pla-pla!, txalo jo zuen eta:

–Benga, denak maaira.

Nik gustora entzun nuen txalo-otsa; gose-begiratuua neukala tripak adierazten bait ziran, kukurruku joaz.

An jarri ninduten abokatua eta medikuaren erdian. “Kaixo, motel! Auxe bakarrik falta nian”. Erderaz itz egin genuen geienbat afari-denboran. Bai, ba: abokatua eta bodegeroa erdaldunak izanik, errespetuagatik ere...

Nik betidanik esan izan det lagunarteko afarietan asko ikasten dala. Eskola garrantzitsua benetan gizarterako. Jakiña: belarriak eta begiak argi eduki bear, ez aoa bakarrik.

Berealaxe erabaki nuen nori entzun. Ño! An bazegoen alde ederra. Medikiak eta abokatuak –au da, Danelek eta Jabierrek– fundamentuzko kontua franko esan zuten, builla aundirik atera gabe. Jan ere bai, edozeiñen tamaiñan.

Maaiaren bestaldean, berriz, bazirudien gramola zaarren bat martxan zegoela etenik gabe. Aiek menderatzen ez zuten artikulurik ez zirudien zegoenik, geienbat eizari buruz aritu baziran ere anaia, Joxean eta Txarli. Iru aien jardunari aguantatzea ez zuen gutxi egin Mariano bodegeroak. Amar minutuoro botilla irekitzen zien, eta diskoa beti martxan. Ez det esan nai denok ere bijilia eta barauarekin asko gogoratu giñanik, naiz eta Garizuma izan.

Medikuek ere sake ederra dute, lepoko botoia askatu eta maaietan esertzen diranean, kontxo! Danelek ere ez zirudien bere langelan iñori errejimeneko errezetak egiten aritzen dan Danel berbera zanik. Alako batean aitortu zigun, bai:

–Ño! Geiegi jan diat.

Eta beste aiek:

–Jan, bakarrik?

Lo egiteko ez dala ona gauean asko jatea zioen Danelek. Laster entzun zuen bi edo irurengandik:

–Gutxi jatea ez da askoz obea!

Jarraitu zuen esanez Danelek:

–Aspaldi onetan ez det ondo lo egiten, gaiñera. Zergatik ote?

Nik nere iritzia eman nion, aolku bezela:

–Danel, bein oean etzan ezkerero, kontzientziaren azterketa-rik ez omen da egin bear. Bestela, lo gaizki egiteko arriskua omen dago.

Leenago nioen Danelek eta Jabierrek kontu garrantzitsu asko esan zutela; kontu serio asko, alegia: epaitegietako gora-beerak eta abar. Jabierrek zioen antzerkia ziruditela bertako zenbait gertaerak. Iñorentzat ez dala erreza ainbeste kasu, ainbeste lege, ainbeste arrazoibide, edo alderantziz. Pasarte batean ala zioen, eskua bekokian jarrita:

–Mañana tengo dos juicios. Tengo un potaje mañana... de mucho cuidado.

Txarlik ala erantzun zion:

–Yo, también. Tengo potaje mañana. Pero de puchero. Además, sin juicio y sin cuidado.

Eta abokatuak:

–Sí, sí. Ya se ve.

Polita erantzuna. Ulertu egin bear. Gutxien itz egin genuenak ni eta Mariano bodegeroa izan giñan. Eta geiena entzun genuenak.

Afaria aurrera zijoan aiñean, eiztari aiei entzuten jarri bear, ba; anaia, Joxean eta Txarliri ez bait zitzaien konturik amaitzen.

Tortolak eta galeperrak itsasoa nola gurutzatzen duten ere esan ziguten. Arrantzaleei entzundakoa, noski; beraiek sekula itsasoan ez ziran izango-eta. Egaldi luzearen ondoren, nekaturta datozen garaian, edozein itsasontzitan atsedendu oi omen dira bi txori mota auek. Tortola, beintzat, askotan.

Baiña galeperrarena arrigarriagoa kontatu ziguten: uretan geratzen omen da, geiago ezin duenean. Eta, ego bat gora luzatuta, erderaz esaten dan *bela* egiten omen du txori potxolo orrek. Nik ez dakit ori orrela dan ala ez; aien kontuak ez bait ziran fidagarriak. Baiña orrela balitz, ikustekoa izango litzateke.

Marka da gero afari batean orrenbeste ikasi bearra ere...! Nik uste nuen txoriak egan etortzen zirala, eta zera: barkuan eta *bela* egiñez, alajaina!

Afari ura akabo.
Lau mokadu ta bost trago.
Arek jarraipen bat bear luke;
derrigorra dago.
Talde ari aurrerago
eska bearrean nago:
eiz-kontua gutxiago ta
galeper geiago.

Ustu zan, bai, kazuela.
Tira, bejondaizuela.
Esan genien eizean gogor
jarrai zezatela.
“Berriro noiz gaur bezela?”.
Erantzun zuten onela:
berriz elurra egiterako
deituko zutela.

Kezkatuta nago oso
eman ote duten paso.
Bestela onezkero norbaitek
egingo zun kaso.
Leengo urtean akaso
izango zuten fracaso.
Elurra franko egin du baiña
deirik ez det jaso.

El Diario Vasco: 2005.06.08

Pagoetako eguna

Ekainaren leenengo igandean, Pagoeta mendirako eguna ospatzen da Zarautz eta gure ingurumari onetan. Au aspalditik datorren eguna da. Edo, obeto esan, igande onetan Pagoetako eguna izaten da, giro txarra bada edo ona bada.

Makiña bat lekutatik etorri da jendea gure mendi entzute-tsu onetara, aurtan ere, leen ere etorri oi ziran-eta. Orain, gaiñera, errepidez inguratzeko aukera dagoenez, samurrago. Baiña inork ez dezala pentsa kotxean joaterik gurutzeraiño; orain ere leengo lekuan bait dauzka lepoa eta burua Pagoeta mendiak.

Gure gazte-denboran, geuk ez genuen oitura aundirik egun orretan mendira igotzeko. Bestela ere, naiko aspertuak egoten giñan mendian ibiltzez, baserrian bizitzen giñanez.

Baserriko atari ondolik pasatzen zan jendea, bidea ala zanez. Zarautzik Pagoetara joateko, bi irteera, bi bide ziran: bat Izetatik eta bestea Gorritxo aldetik. Askok egiten zuten alde batetik igo eta bestetik jeitsi.

Orduan ikusten zan urrutietatik zenbatxo jende zijoan mendira egun orretan. Orain, autoz Urdanetara edo Saberriraiño asko. Taka-taka ere bai, jakiña. Ez det esan nai gaur oiñezkorik ez dagoenik, baiña orduan derrigorrezkoa zan.

Bazekien egun orretan goizetik bero galanta eta arratsaldez trumoiko ekaitz-zaparrada aserrea botatzen. Bai, arraioa!

Gogoan det bein, alako ekaitz-jasa eta, gure etxe atariko *labepea* deitzen genion estalpean, zer gazte taldea egon zan ekaitza pasa zai. Amak ezagutzen zituen, eta sukaldeko leio-tik deitu zien:

–Zatozte sukaldera.

Geienak neskak ziran. Izetako gure sukalde zaarrear, ura zan umorea, batzuk eserita, besteak tente. Dexente kostatakook ere baziran batzuk.

Neska bat bertsotan asi zan, alajaiña. Ni, mutikoa, arrituta, nola zitekeen neska bertsotan. Muniosoko neska bertsolaria zala esaten zuten. Orra, ba, Pagoeta eguneko oroitzapen bitxi bat: leenengo aldiz neska bat bertsotan ikusi eta entzun nuena. Nun eta etxeko sukaldean, alajaiña!

Andik urrengo urtea zala uste det. Eldu zan Pagoetako eguna, eta kristoren eguraldia: bero goizean eta bero aundia-goa arratsaldean. Zenbat jende pasa ote zan Izetako atarian gora eta beera? Goizean, goraka zijoazenean, indartsu, serio, tapa-tapa, ausardi aundiz bakoitza bere trasteekin. Aldapa aundienari aurre egiteko prest, goizeko freskuran. Arratsaldean, beerakoan, ez zan orrelako konturik. Ez zirudien goizekoak ziranik ere. Goizean tapa-tapa, eta arratsaldean txiliki-txalaka. Ez da arritzeko. Pagoetako gurutzetik joan-etorria egitea ez pentsa txantxa danik. Ura lengo lekuan dago, itsaso berdiñetik zazpireun metro edo geiagoko gorakoarekin.

Ba, dalako bero aundia zan egun artan. Arratsalde erdirako asi zan jendea goitik beera, batzuk kantuan eta besteak nioena: txiliki-txalaka.

Gu, mutikoak, etxe atarian kaniketan jolasten genbiltzan iru anai: Felix, ni eta Joxe. Kanikak edo aurreko urtean bildutako aritz-koskoilluak. Aiek izaten ziran gure kanikak.

Elduak siestan izango ziran ziurrenik. Zenbaitzuk ura eskatzen ziguten, eta aurrenekoei kasorik ez. Geroago, berriz ere:

–I, txikito. Baso bat ur emango mesedez?

Anai zaarrenak, Felixek:

–Ño! Onek errespetu pixka bat badik; *mesedez* eskatu dik-eta. Orrela, erdi ezagunei eta abar ematen genien, ba, ura basoa betean.

Ura zan komeria, ura! Ikusten gintuzten denak nai zutela ura.

Alako batean, ezagutzen genituen seikotea. Mutillak, jakina. Egunero esnea eramaten genien etxeetakoak: bezeroak, zarauztarrak.

–Kontxo! Zer egiten dezue emen, koskoilluekin?

–Kaniketan. Jokatuko dizuegu zuei ere, nai badezue.

–Ez. Ez. Sagardoa edango genikek, egarriak itotzen gatzek-eta.

–Ez. Sagardoa ez zioagu inori ematen. Ura bai, nai badezue...

–E! Ura, ez. Egun guztian ura edaten ari gaituk. Ordainduko dizuegu. Zeren kezka daukazue? Ezagutzen gaituk, ba, sikiera.

Ordainduko zutela entzun genuenean, ura begirada alaia, iru mutikoak elkarri! Mingaiñarekin ezpaiñak brastiatuz, uste det irurok burutapen berbera izan genuela: diruak geuretzako isillan.

Orrela geundela, beraien beste ezagun batzuk zetozen.

–I, sagardoa edan bear diagu.

Aiek ere geratu.

Taldea aunditzen, eta an joan gihan iru anaiok enbotillatutako sagardoaren billa, ukuilluan barrena lasterka.

–I, benga azkar. Aita eta ama siestatik jeiki baiño leen. Bestela, dirurik gabe geratuko gaituk.

Botillarik ederrenak aukeratu ere. *Anís las Cadenas*-en botilla zuri aiek artu genituen. Gari-jotzean eta Gabonetan eta igitari eta laiariak-eta ziranean ustutako patar-botillak izaten

ziran orduan sagardo-enbotillaketarako ondo garbituta jasoak. Zer uste dezue, ba, txanpainaekin ekarritakoak zirala?

Makalagatik eraman genizkien irurok botilla bana uretan garbitu eta pare bat basorekin. Erderaz esan oi dan bezela: *presentables*.

Guk azkar eraman genituela, baiña aiek azkarrago edan zituzten.

–Zer zor dizuegu?

–Botillako iru pezeta.

–Guztira, bederatzi, orduan?

–Bai.

Kosta zitzaien bederatzi pezeta osatzen, alajainkoa eta bi. Pezeta rubiak, geienak. Bi edo iru paperezko ere bai, zimur-zimurak, izerditan bustitakoak.

Ez dakigu beraiek pozik joan ziran, baiña gu gustora geratu giñan. Bakoitzak iruna pezeta! Paperezko zimurak plan-txatu eta jarri genituen dotore asko. Botilla utsak ezkutatu, eta kaixo, motel. Eta ixo!

Gero ziran kontuak! Urrengo larunbatean, oitura bezela, ama kalera, esneak eramanez eta enkarguak egiñez eta asteko esneak kobratuz eta... Or asten zaizkio bezero aiek esanez:

–Aizu, Joxepantoni. Egia al da leengo igandean gure mutillei sagardoa kobratu egin zietela zuen mutil koskorak? Oso disgustatuta etorriak ziran gure mutillak.

–Nik ez dakit ezer, etxeoandre. Galdetuko det etxean.

Orrela, bazkaltzen ari giñala:

–Zuek zer ibili ziñaten leengo jaietan jendeari sagardoa kobratzen-eta?

An gelditu giñan K.O. iru mutikoak, ondo eldutako San Pedro sagarra baiña gorriago.

Denak parrez asi zitzaizkigun, eta “kaixo, motel”, berriz ere.

Antton Txiki morroiak ala esan zigun:

–Kabuela puñeta! Urrengo urtean, doblea kobratu.

Obra on asko izaten ziran
egiten genituenak:
egarri zetorrena asetu,
eman daudenik onenak...
Dotriña xaarrak orretan zeuzkan
agindurik aundienak.
Alde batera arrazoi zuen
Anttonek esan zuenak,
baiña doblea nola ordaindu
erdia ezin duenak?

El Diario Vasco: 2005.06.28

Txapela

Guk, euskaldunok, txapela beltza ezagutu degu betidanik gure txapela bezela. Bere erabillera eta jantzi-erantziak aipatu nai nituzke ba oraingoan, zuen baimena izango dedan itxaropenarekin.

Ume koxkorrengandik asiko nintzake. Zein ume izango zan, gure aspaldiko baserrietan, aitaren edo aitonaren txapelarekin jolas egin ez zuenik? Iñor ez, seguru asko. Umeak berak artzen ez bazuen ere, norbaitek luzatuko zion eskua eta txapela buruan jarri. Garai aietan nola geienok txapelarekin ibiltzen giñan, umeei gustatzen zitzaien aundiak erabiltzen zuten zerbaite eskuetan erabiltzea. Eta gaur ere bai.

Orixegatik esango nuke euskal txapela beltzari garrantzia eta maitasuna ere oso umetatik artu geniola. Geiago esango nuke. Euskal Errian zenbat umeri jarri ote zaie neguan, arratsean oeratzean, beren ankatxoetan txapela beltza eta esan: “sartu anak txapelean, eta eduki epelean”! Bai sartu ere, bi aldiz esan gabe. Gustokoa dute, gaiñera.

Txapelak bere janzki lagunak ere baditu, dakizuen bezela: bruxa, txaleko, bastoi, makilla, eta abar. Gizonezko batek bruxa soiñean jantzia eta buruan txapelik ez badarama, erdi jantzian dijoala esango nuke.

Garai batean, Santa Ageda eskean ere, taldeak eta taldeak ibili oi ziran. Ni ere makiña bat aldiz ibilia naiz. Esan nai nuena: denak txapela buruan zutela ibiltzen zirala, oizko jantzi bezela. Eta tartean bakarren bat txapelik gabe baldin bazi-joan, bidean galdu edo dena dalakoagatik, etxe barruan zegoen norbaitek esango zuen, e: “Orrek, gixajo orrek, txapela

erosteko ez ote du dirurik?”. Txapelaren garrantziak jarraitzen du or ere.

Gure soroetan garia ereiten zan garaietan, soro bakoitzean mamu itxurako zerbait txorien izugarri bezela ere jarri izan genuen. Gu mutikoon lana oi zan mamuak egitea. Orain ñaurretietan eramaten dituzte ba jantzi xeblebre batzuk, ba orrelako zerbait izaten zan. Noizbait txapelik gabe egiten bagenuen, ordea, laster esango zigun aitaren osaba zan Martxiel zaarrak: “Aaa! Txapelik gabe ez dik balio”. Orra, ba.

Gaurko gazteei ez dago esaterik, guk erabiltzen genuela-eta, txapela erabiltzeko. Ezta orrenbesteraño ere. Laster esango dizute: “Zuek leengoak zerate. Zuek burua txukun orraztuta ez eramatearren erabiltzen zenuten txapela”. Illerik ez daukan nere lagun Patxik ederki erantzun zien, ba, bein: “Ni beti ondo orraztuta ibiltzen nauk, baiña ala ere txapela erabiltzen diat”. Erantzun polita.

Baiña esango nuke gazte oiek zerbait arrazoi ere bazeukatela. Gogoratu besterik ez dago, bestela, garai batean elizan meza-garaiko egoerari. Gizonezko bakoitza bere txapela eskuetan zuela eta illen erdiak Erniora begira eta beste erdiak Izarraitza begira zituztela edo genituela egoten giñan. Sekula alako baserritar burujerik! Ura txapelak konpontzen zuen, bai!

Emakumezkoak, berriz, beren alderdian, zera!, *beintizinko* baiño dotorreago orraztuta, manteliña kontu aundiz jarriaz buru gaiñean. Ori da aldea zegoena ordurako ere!

Baiña jarrai dezadan txapelarekin.

Errespetu mailla bat ere baduela iruditzen zait txapelak. Goazen, bada, pixka bat begiratzeraz animalien aldetik.

Esaterako, txakurra. Katean dagoen txakurrak, zaunka-eraso ariñagoa egingo dio txapelarekin gerturatzen zaionari, illaje narrasarekin edota ondo orraztuta gerturatzen zaionari

baño. Ni gogoratzen naiz gure mutiko-garaian ate ondora etortzen ziran gizaseme eskale aiekin. Txapeladuna bazan, txakurrak baimena errazago emango zion ate ondora pasatzeko, nolabaiteko buru narrasa zekarkienari baño. Eta txakurrak ez dira tontoak.

Bestalde, *txapelketa* izenarekin zenbat norgeiagoka, zenbat leiaketa antolatzen da Euskal Errian: pilotan, aizkoran, txirindularitzan, musean, bertsolari-txapelketa, lasterketa eta al dakit zenbat kirol mota. Txapelketa izena daramaten leiaketa guztiak aparteko garrantzia dute Euskal Errian. Garaikur aundiena, alegia. Zalantzarik gabe, errespetua zor zaio txapelari.

Au beste liburu batean idatzia det, baño emen aipatzea ere ondo datorkit, txapelari buruz ari naizen ezkeror: nik ere bade-dala bost duroko txapela etxean, 1967ko bertsolari-txapelketako kanporaketa batean irabazia.

Antzokiko takillan, bost duro sarrera. Erdalduna zan takilleroa. Eta nik esan nion:

–Soy bertsolari.

–¡Sí, sí! Hoy todos son bertsolaris. Tú paga cinco duros, y si quieres cantas y si quieres bailas.

Amabi-edo bagin eta nunbait denak “yo soy bertsolari” esaten zioten.

Orrela, beintzat, sarrera bost duro ordainduta irabazitako txapela polit ura, leengo egun batean arropa billa nenbillela armairuan, an aurkitu nuen dena ximurtuta. Esan nion: “Gai-xoa! Ik ez dek, ba, merezi orrela egotea”. Eta plantxatu, lixatu, egin nuen. Nere bizitzan, bein eta prenda bakarra plantxatu det, eta bera txapela. Gertatu bezela kontatu dizuet.

Baño txapelak armairuan eta bitrinetan edukita baño mesede geiago egiten du buruan erabilita.

Badira esaldiak, txapela aotan artuz. “Burua duenak ez dik txapela bearrik”. “Burua ez dek txapela erabiltzeko bakarrik”. “Txapela buruan, ibili munduan”...

Txapela janzte utsez
ez daukagu otzik.
Oraindik gutxiago
itxura arrotzik.
Orrek ez du bereizten
luze eta motzik...
Jantzi zazu, gizona,
jantzi zazu pozik,
eta ez dadukazu
iñorako lotsik.

El Diario Vasco: 2005.07.30

Pasionistak omen ziran

Ez dakit pasionistak ziran edo ez. Baiña bapo paseatzen zutela, orretan ziur nago.

Gu gaztetxoak giñan garaian, urte askotan zear ezagutu genituen, baserriko ate ondoan, dalako pasionistak zirala esaten zuten fraile motz aiek. Eskean, noski. Edota ematen zitzaiena artzen.

Zakua edo jasogaillua, oso berezia erabili oi zuten. Telazkoa eta urdin illuna: nik lanerako janzten ditudan galtza urdiñen kolorekoa. Eta beti berdiña: bi zulokoa. Artu sorbaldan, zulo bat aurrera eta bestea atzera zuela, au da, erdia bizkarrean eta beste erdia petxu aldean zintzilik zutela, eta baserri baserri, danba-danba. Kanean ez dakit ibiltzen ziran. Naiko lan.

Orduan, baserrietara ez zan automobil-biderik. Nioen bezela, danba-danba oiñez ibili bear. Ala ere pozik. Aurpegi alaiarekin iritsi oi ziran, beintzat, ate ondora. Orixe bakarrik bear genuen, berriz: zerbait artzera eta aurpegi txarrarekin etortzea!

Gizaseme sendoak ziran, gaiñera, urtero zetozen pasionista aiek. Jakiña: ainbeste aundiko zakuarekin, argalak nola bidaliko zituzten, ba, komentuetatik? Ez zukeen zentzurik izango.

Zapata beltzak jantzita euren oiñetan, galtzerdi beltzekin baita ere. Euren berezko oiñera sandalia zala, baiña mendian eskean ibiltzeko zapatak janzteko baimena bazutela. Ez naiz arritzen. Aiek ekintza orretara bidaltzen zituenak bazekien ori eta geiago.

Ez zuten oiturarik ate ondora eldutakoan errezatzeko, oizko eskale beartsu aiek bezela.

–Kaixo, etxekoandre. Emen gaituzu, ba, urteko bisitan, komenturako zerbait bildu naian. Obra onen bat egin nai bazenu Jainkoaren izenean, aukera orixe eskeintzera natorkizu, ba, eta...

Orrelaxe zan, gutxi gorabeera, euren azalpena ate ondoetan.

Gogoan det bein gure aitak galdetu ziona aietako bati:

–Zer? Zakua nun ustutzen dezue? Beti uts samarra dabilkizue...

–Ai, nagusi, nagusi. Zer uste dezu: denak zuk bezela ematen digutela?

Eskatzeko era errespetagarria, e?

Bat oso ezaguna ere egin zitzaigun. Iru edo lau urtetan segidan bera bidali zutela eta... Gabiriakoa omen zan bera. Fraile moztaka bat. Sasoikoa artean, lepondo ederrarekin. Ura ez zan izango meza emateko ainbeste ikasia. Baiña jatorra zan oso. Komentuan sutarako egur-txikitzea ere berak egiten zuela-eta esan zizkigun, eguarte batean.

Eta gure amak:

–Esku leunegiak dauzkazu zuk aizkoran asko egindakoa izateko.

–Laster ikusiko dezu, etxekoandre.

Artu zuen atarian trankaera gaiñean sartuta zegoen aizkora, bere zaku izeneko ura lurrean laga eta... bai egur mordoxka txikitu ere azkar. Aren zalaparta!

Arnasestuka:

–Bazkaria preparatzeko ainbeste egur txikitu dizut, etxekoandre.

–Bai. Gutxiago eginda zenbat frailek bazkaltzen ote du?

Dana dala, egun artan beintzat, gu denokin batera bazkaldu zuen. Eta bai kontu atsegingarri franko esan ere. Ia eraman ninduen berarekin komentura.

Urrengoko urtean, illunabar aldera agertu zan bere eskeko ibillaldian. Giro traketsarekin, gaiñera. Eta, nola ez?, gau artan ostatu eman zitzaion.

Denok sukaldean geundela, ala esan zidan: ea pardela egiña al nuen; nere billa etorri zala.

Afari-garaian, gure amak:

–Frailegai asko al dezue komentuan?

–Ez pentsa. Geroz eta gutxiago. Lixtoak, eurek aldegiten digute. Eta tontoak, geronek bidaltzen ditugu.

Naiko parra ere egin arazi zigun.

Arantzazuko eliza aundi ori egin zaneko garaiak ziran, eta bazan gure ingurumarietako baserrietatik bertarako diru-laguntza lortu zuen beste fraile motz jator bat ere. Gure etxera, beintzat, illeroko ordain-agiria bi edo iru urtetan etorri zan. Aitaren edo amaren izenarekin, onela zioen: “Il onetan, bi pezeta eta erdi eman ditu”.

Beraz, Arantzazuko arri-mutur zorrotz aietakoren bat izango da gurea ere. Iraun dezala ba, denen tartean luzaro, pakea aurkitzen degun arkaitz gain artan.

Beste bat ere etorri oi zan urtero edo urtean bi aldiz. Gizon elduagoa, serioa. Estanpa saltzen edo banatzen ibiltzen zana. Estanpa edo santu-irudiak banatu eta borondatea bildu.

Ura sandaliekkin ibiltzen zan. Ark ez zuen egurrik txikitzen. Ezta zakurik erabili ere. Gaiñera, beti giro onarekin ibiltzen zan. Errosario-kate dotoreren bat besotik zintzilik eta petxuan txapazko bere gustoko santuren baten irudia, jendea erruki arazteko: Balentin Berriotxoia edo Santa Maria Goretti edo Jesusen Biotza... Amen.

El Diario Vasco: 2005.09.09

Ika, zuka eta berorri

Aspaldiko deiera errespetagarri aiek aipatuko al ditugu pixka bat? Bai, arraioa. Zergatik ez?

Familietan, anai-arrebek, gure gazte-garaian, ika itz egiten genion elkarri. Iñungo zalantzatik gabe. Jolasean, okerrean, lanean, beti elkarrekin genbiltzanak ika itz egitea bidezkoa zala esango nuke. Orduan, gure modukoren batek “zu” esan izan baligu, begirada xebrereren bat egiñez esango genuen: “au seko txotxotuta zegok”. Uts egin baligu bezela, alegia. Gaur egun, berriz, anai-arreben artean, zuka asko entzuten da. Ez nago orren aurka. Errespetagarria da.

Leenago, baserrietan gurasoek seme-alabei beti ika itz egiten ziguten. Izan ere, etxe bakoitzean zortzi-amar seme-alaba bagiñan, eta aiei denei zuka deitzea ere aspergarria izan zitekeen. “I” eta “to”, eta kito. Gaur, berriz, gurasoak seme-alabei erabat zuka entzuten ditugu. Ez dakit bearrezkoa dan edo ez. Baiña ondo iruditzen zait, baita ere.

Seme-alabek gurasoei beti zuka itz egiten genien. Iñoren burutan ez zan pasatzen gurasoei “i” esaterik. Ori gaur ere orrelaxe dago, zorionez. Baiña, baiña norbaiti entzun diot bes-telakorik. Ausartu nintzaion, ba, esaten:

–Aizak, ire aita dek, e? Eta merezi dik “zu” esatea. Zer krixto, gero!

Gure aiton-amonei, guk gaztetxook zuka itz egiten genien. Beraiek guri ika, jakiña. Baiña bazan oitura au ere: esate baterako, kanpotik etorritakoek etxeko zaarrei berorri-ka itz egiten zieten. Nik geure etxean ezagutu nuena esaten ari natzaizue.

Gure aitak bere gurasoei zuka egiten zien. Baiña amak berorrika. Kanpotik etorria zalako. Baita morroiren bat bazan ere: ark ere berorrika egingo zien aiton-amonei. Kanpotik etorri etxe batera eta zaarrenganako errespetua barrendik agertzeko era bat zala esango nuke.

Animalia eta abereei ere denok ika itz egiten genien. Zaar, gazte, aundi eta txiki, denok ika. Baiña katuari beti “aizan”. Au da askotan neure buruari egin oi diodan galdera: Txakurrari, beti “i”. “I, txikito. I, txuri. I, beltxa. I, joko aut ostikoz”. Eta katuari, “aizan, muxiña; aizan, bigotes; aizan, zer abillena emen?; aizan, jotzen baaunat ostikoz, paretak emango dik bestea”. Oitura xebreak, e? Eta bakoitzak berena ulertzen zuten. Zera: ez esan astoari, “aizu” eta idiari “aizan”; ez zizuten kasurik egingo-eta.

Eta xomorroi ere denok ika esaten genien. Ori ez da arritzekoa. Xomorro mota guztiei nola gorroto genien, “i” bakarririk ez; zanba anka, gaiñera, azkar. Oraingo umetxoei, berriz, ez zaiezuela akabatu xomorrerik ankaz edo eskuz. Bestela, negarrez asiko zaizkizu:

–Ondo polita zan-eta, zergatik egin diozu ori?

Nunbait, telebistatik-edo ezagutu dituzte xomorroak. Guk, berriz, egitakoak ezagutu genituen. Au dek asmatu eziña, au!

Oraindik ez det amaitu “berorri” zeñi eta nori deitzen zitzaien. Edo deitzen genien.

Esateko baterako, medikuei denok “berorri” deitzen genien, itsusia bazan edo bapoa bazan. “Berorri” baiño geiagoko itxura bat ere azaltzen zieten elduek. Polikiago itz egiñez edo era agurgarriagoaz. Ez det esango erreberentzia egiñez, baiña “mediku jauna” esanez, noski. Zaarren bat edo gaixoren bat ikustatzera medikua etorri eta gelan zegoenean, inguruan egon bear bazan, txapela eskuetan artuta egon oi ziran.

Ara! Oraintxe gogoratu naiz oraindik dala gutxi, Donostiako anbulatorioan, neuri gertatua medikuarenean.

Barrenera sartzean, txapela erantzi nuen. Eguraldi otza zanez, txapelarekin nintzan, nunbait. Irurogeita bederatziz zituen mediku ori asten zait errietan. Ea zergatik erantzi nuen txapela bere aurrean. Berak iñoiz ez duela pentsatu iñor baiño geiago danik. Denok berdiñak jaio giñala eta berdin ilko geraila. Ille biurri arekin baiño obeto nengoela txapelarekin, eta mesedez janzteko. Tarteka, itz batzuk euskeraz oso ondo esaten zituen.

An berarekin zegoen erizaiña, nexka tolosar bat, ura ere parrez asi zan Fernandez jaunak egin zidan arrera ikusita.

Ni ere saiatu nintzan, ba, medikuari zerbait atera arazi naian euskeraz. Ea nola egiten zituen ain itz egokiak euskeraz. Arrituta neukala.

Mantso-mantso kontatu zigun:

–Maria Dolores Agirre zanaren leenengo ikasleetakoa bat nintzan ni.

Euskara garbian esan zuen. Nik berriro txapela erantzi nuen.

Gero, jarraitu zuen esanez gazteleraz ikasketak egitera Madrillera bidali zutela gurasoek eta bere euskera-ikastea an bukatu zala. Baiña beste urte bat pasatakoan, irurogeita amar urterekin, medikuntza lagako zuela. Eta bere ilusio aundiena dala euskeraz pixka bat ikastea Donostian.

Gizon aren izketaldia nola eskertu ez nekiela geratu nintzan. Zorionak, Fernandez jauna.

Oraindik ere ez det, ba, amaitu berorrikako kontu ori.

Eta apaizak, zer? Apaizei “berorri” esatea derrigorrezkoa zan. Elduek, beintzat. Umeez esan ezin genuelako, “zu” esaten genien. Zaarrek ere apaizari “berorri” esaten zieten, naiz

eta apaiza gazteagoa izan. Eta berak zaarrei, “zu”. Ori zergatik? Kaubela puñeta! Ori ez dago ondo. Beraiei uts egin bear...

Kontxo! Ni gogoratzen naiz, ume giñan artean, nola esan genion apaizari:

–Aizak i, apaiza.

Jesus, Maria eta Jose! Zer auts arrotu ziran inguruetan! Ez geneukala barkaziorik, eta infernura joango giñala, eta zer beldur pasa genituen. Kaka irten bearrean!

Urrengo egun batean, aldeko aitonari galdetzera. Ura gure babeslea bait zan.

–Aldeko aitona. Eta orain apaizari konfesatu egin bear al diogu?

Eta ark, eskua aurpegira eramanez eta irriparretxo bat egiñez:

–Ez, noski. Leenago berari esan bazenioten, berriz ez daukazue konfesatu bearrik.

El Diario Vasco: 2005.10.01

Elizakoak eta gorputz-bideak

Oraingoan, kontu serioekin nator, ba, lagunok. Bizitzan denetik daukagulako.

Gure txiki-denboran, elizakoak zer ziran ikasi genuen; ikusiz, gaiñera. Gure etxean ere baziran zaarrak, eta auzoetan ere bai. Orduan ez zegoen errepiderik, orain bezela, baserrietara. Eta aitona-amonaren bat gaizkitzen zanean, Jauna etxera ekartzen zitzaion, edo eramaten zitzaion. Gertukoa bazan eta urrutikoa bazan. Ari deitzen zitzaion *elizakoak*.

Nola eramaten ziran, ba, elizakoak? Edo nola eramaten zan Jauna?

Apaizak, betiko sotanaz gain, beste jantzi zuri bat sartzen zuen burutik beera, gerria baiño beeraxeagokoa. Ez dakit zer izen zeukan. Eskuetan esku-kutxa txiki bat artu, barruan Jauna zuela, eta zapitxo batekin estalita eraman oi zuen elizatik gaizki zegoenaren etxeraiño.

Baiña apaiza bakarrik ez zan joaten. Sakristaua izaten zuen laguntzaille, edo serora-etxekoren bat, arropa txukunak jantzita, eskuan zintzarria zuela. Elizako zintzarria, jakiña: *Santuseko* txiliña jotzeko erabiltzen zuena. Edozeiñek galde-tu lezake: sakristauak zer eginkizun zeukan, ba, eskuan zintzarria zeramala? Ark adierazten zuen Jauna zeramatela gaizki zegoenarengana. Eta bidean zijoazela norbait ikusi ezkerro, txilin-txilin-txilin jotzen zuen.

Bidez bide joaten ziran elizakoak eramatera. Ez zegoen joaterik lasterbideetatik. Errespetu falta izango zitekeen edo apaizaren utsegiteetako bat. Gurdibideak izaten ziran errespetagarriak ekintza aietarako.

Bide berean norbait gurutzatzen bazuten, norbait ura zegoen zegoenean belaunikatu egingo zan. Urrun samar ikus-

ten zanari ere txiliña jotzen zitzaion. Soroan aitzurrean edo zelaian belar-lanetan ari ziranak txapela erantzi oi zuten txilin-otsa entzuteaz bat, arik eta urrutiratu arte. Eta *Paternostere*n bat errezatu.

Gaixoaren etxeok ere zai egon oi ziran elizakoak noiz elduko. Arropa txukunak jantzita baita ere, errespetu aundiz Jauna etxera zetorrela-eta. Gero, bakoitza bere lanetara. Eta apaizari eta sakristauari zerbait eskaiñi oi zitzaien platera txuri batean: gailleta batzuk eta ardo pixka bat, edo orrela.

Orain artekoa ari naiz kontatzen egunez eta eguraldi ona buruan dedala. Kontu atera gauz ere gertatzen zala elizakoak eramán bearra. Orduan, sakristauak esku batean zintzarria eta bestean farola edo esku-argiren bat izaten zuen. Okerrena, berriz, eguraldi txarra zanean. Orduan, aterkia edo mantaren bat burutik artuta, aal zan bezela. Baiña errespeturik galdu gabe.

Tristura aundia sortzen zuen, etxeren batera elizakoak zijoa-zela ikustean. Eta are aundiagoa, norberaren etxera zetozenean.

Leenago nioen gurdibidea edo bide zabala errespetagarri zala zenbait ekintzatarako. Bai orixe. Bide zabala gorputz-bidea bait zan. Baserrian norbait iltzen zanean, illotz-kutxa sorbaldatan lau lagunen artean eramaten zan oiñez elizaraiño, naiz eta kilometroak izan bidean.

Sei gizonezko, sei mutil, autatzen ziran artarako. Laurek eramán, baiña bi txandatzeko. Orain aurrekoak txandatu eta gero atzekoak. Ez bait zan neke berdiña izaten beti, aurrean eta atzean. Bidearen arabera. Goraka zanean, atzekoentzat zan nekea. Eta beeraka zanean, aurrekoentzat. Baiña nioena: beti bidez bide.

Baziran bideak erreka ondotik pasatzen ziran uneak zituztenak ere. Eta ur aundiak ziranean, bidea pixka bat urak artuta egon arren, andik pasa bearra zegoen illotza, ondoren zijoan jendea naiz eta pixka bat alderatu.

Eta elizkizuna amaitzean, berriro leenago nioen bezela eramaten zan illotza kanposanturaino: sorbaldatan.

Badakizue errietako kanposantuak beti erritik gora izaten dirala; eta toki batzuetan naiko urruti, gainera. Uraxe izaten zan nekagarria. Leenago bi edo iru kilometroan joan baziñan illotzarekin, gero, berriz, eliza nagusitik kilometro erdi edo kilometro bat kanposantura. Eta goraka.

Ni ere izan nintzan bein gorputz-jasotzaille, eta aipatu ditudan bide-luzeera aiek egin genituen. Sasoikoa nengoen, baiña jolaserako gogoak aldegin da geratu nintzan. Begira egoteko ere ez zan atsegiña ura. Eta azpian joateko, txarragoa.

Jasotzaille nioen, bai. Jasotzailleak deitzen zitzairen illotza zeramatenei. Gero, amaiketakoren bat ematen zitzairen, orduko illetak beti goizez izaten ziranez.

Geienean, auzoetako mutillak izaten ziran lan artarako autatuak. Eta leenago ez det esan, baiña ilkutxa etxera eramatea ere oiñez eta bidez egiten zan. Artarako ere auzoko edo auzoetako bi izaten ziran. Alde banatan jarrita, bat aurrean sorbalda batez eta bestea atzean beste sorbaldez.

Orra, ba, garai bateko oiturak eta eginbearrak.

Illotza sorbaldatan
nunai mendiz mendi,
atera izandu zan
amaika izerdi.
Oiturak berdin ziran
alderdiz alderdi.
Gaur erosoago da,
eta ala bedi.
Tristurari nekea
kenduta, gaitz erdi.

El Diario Vasco: 2005.11.16

Eklipse ura!

Eklipsea omen zan. Bai. Izan degu eklipsea edo dalako ori. Joan dan urriaren 3an asiko zala eguzkia argia egin eziñik, eta pixka bat illundu egingo zuela eta... Dena iragarrita zegoen alde zurretik. Izan ere, orain ainbat jakintsu...!

Telebista-kate guztiak, edo geienak bai beintzat, une artako irudiak ematen. “Ya se va tapando poco a poco”. Eta “miren ustedes cómo va comiendo la luna al sol”. Eta jende guztia gora begira, betaurreko bereziak jantzita. Iñungo argazki-kamera onenak ere goiz artan azalduko ziran eskuetara. Ez dakit zenbat milloi betaurreko saldu omen zan, eguzkiari begira egoteko. Diotenez, landutako guztiak. Egindako guztiak, alegia.

Arrigarria, benetan! Gure Lorentzo gizajo ori noiz estaliko zerbaitek eta orduantxe ikusi nai denak. Ondo begira jarri ezkerro, gizakia baiño izaki xelebregorik...

Alajainkoa eta bi! Betaurrekoak egiten dituzten lantoki oiek lanez ornitzeko sistema ederra da, beraz, eklipsea. Maizago izatea eskatuko dute. Emen, bakoitzak bere santuari erregutu bearra dago gero...

Bai, arraioa! Zer eguraldi zan, gaiñera! Iñun laiño izpirik ez zan ageri. Orri deitzen diot nik gauzak parean etortzea. Ez eguzkia eta illargia bakarrik.

Zer demontre gertatzen ote zitzaion, ba, gure gaueko farol aundi orri, eguzkiaren parean jartzeko? Eguzkiari aurre egiteko, alegia? Ez zuten, ba, noiz edo noiz lixkarren bat izango? Aserrealdiren bat edo? Auskalo zer gertatzen dan goialde ortan.

Auxe bakarrik bear degu orain: emen beean daukagun konpondu eziña-eta, goiko tresnak ere elkarri aurpegi ematen astea. Emendik joandako pikaoren bat ez da ba ariko or goian gauzak bere erara jartzen? Edota gizonak or gora bidaltzen dituen satellite edo bitxo azkar oiei norabidea aldatu naian nor-bait, bidegurutzetan fletxak bestaldera begira jarrita, “joan zaitezte” ortik esanez?

Tira. Ez da orrenbesteraño izango. Berriro ere beroaldi ederrak egiten ari da beintzat-eta. Ezingo degu itxaropenik galdu; udazken bikaiña dijoa-eta.

Illargia ere, berriz, leengo era berean dabillega iruditzen zait neri: txikitik aundira, eta aunditik txikira.

Oraingo eklipse au aipamen onetik joana dala esango nuke: ezustekorik gabe, eta iragarrita zegoen bezela, eta albiste-gietatik zioten moduan. “Ala izango da, eta ala izan bear du, eta ala gertatu bearra dauka, eta urrengoa alako urtetan izango da, eta ogeita zazpi urtetara eta...”. Jainko maitea! Au da jakin bearra au! Ekin dezaiotela, ba, betaurreko berezi oiek egiteari. Ea urrengo eklipserako denentzako lain egiten dituzten. Beean ondo ikusteko, gora begira denbora geiegi darabagu. Baiña beste ark zioena: “iñoren akatsak ikusteko, betaurreko bearrik ez”.

Adiskide: gauden, gauden pixka bat. Aipatu dezagun ni mutiko nintzala zaarrek kontatzen ziguten eklipse ura. Aren berri ere pixka bat badaikit gero nik!

Eguerdiarte batean, eguzkiari dirdira joaten asi omen zitzaion. Eta soroan lanean ari ziranak-eta oartu omen ziran: “Aldamenera itzalik ez diagu egiten”. Geroz eta illunago, eguraldi ona izan arren. Eta jendea asi da estutzen: ez dala gauza onik, eguzkia illuntzen asteko eta...

Morroi xaar batek ala omen zion:

–Kauben sos! Eguzkiak indarra galtzen asi duela eta keja-tu? Naiago nitek geiago galduko balu. Ez genikek ainbeste egarri pasako.

Eta segi lanean ark.

Baiña bai zera! Aaztu omen ziran bromak bereala. Jarri da, ba, gure Lorentzo more-more, eta baserrietako jende guztia atarietara bildu, eta auzokoei deitu, eta elkarrengana bildu, eta belauniko jarri, eta amabost misterio-errosarioak errezatzen... Eta bat bukatutakoan, bestea. Eta armai-ru zaarretan aurkitu zituzten errosario-kateak eskuetan zituztela, ango abemaria eta orapronobisa. Ama Birjiñari auskalo zenbat salbe, eta azken juizioa zala, eta ango elkarri eldu bearra, eta umeak artu besoetan, eta iñoiz mezatarra joaten ez ziranak ere belauniko errezatzen, eta... Alako istillurik!

Jakiña: txakurrak ere, zaunka batean. Zaunka egingo ez zuten, ba, alako teatroa ikusita?

Zelai-malkarretan larrean zebiltzan abereak ere, zerbait ezoizkoa nabaritu zutenean, lasterka beren etxeetara. Eta jendea, orduan eta beldurrago. Gauza onik ez zanean, leenengo abereak antzematen ziotela bait zan esaera.

Alabearrez, egazkin zaarren bat ere pasa omen zan, kea zeriola... Orduan, berriz, gerra ere bazetorrela, eta akabo! Munduaren azkena uraxe zala, eta berrogeigarren misterioa, eta aurrera.

Eta zera: eguzkia berriro indartzen.

Morroí xaarrak:

–Banitxioan, ba! Orri indarra galdu...

Berriz ere, egarriak pasa bear.

Aizan i, illargia,
egingo diñat eup,
beste iñork ezean
kargu artzeko neuk.
Gaueko katua aiz,
bazekiñagu geuk.
Orain eguna ere
artu nai al den euk?

Denok nai degunean
eguzki gozoa,
orain jo bear unan
eure erasoia.
Eguzki premiz zegon
lurbira osoa,
eta ez adi izan
inbidiosoia.

El Diario Vasco: 2005.12.07

Ritxar artzaiari bisita

Artzai buru-txuri bi,
Antton eta Peru...

Nere emazteari sarritan entzun izan diot, batez ere nunbaitetik gaztaren bat erosten degunean:

–Kontxo! Gu txikiak giñanean, gure etxean egoten zan artzaiak, ark bai. Ark egiten zuen gazta. Guztiz apartekoa. Orain, iñun ez det aurkitzen alako gaztarik.

–Jesus, emakumea. Kontu ori onezkero milla aldiz aipatu didazu. Eta geroztik ez al dezu bere berririk? Nunbait bizi bada, mereziko luke, ba, bisita bat egitea...

–Bai. Biziko da. Oraindik ez luke oso zaarra bear. Ez litzateke zaila izango bere aztarnak ateratzea ere.

–Itz egin ezazu zure aizpekin. Eta arrastorik aurkitzen badezue, udara onetan edozein asteburutan inguratuko giñateke beregana.

Bai saiatu ere dozena-erdi bat aizpa Ritxar artzaiaren nundik norakoa aurkitzen. Baita arrastoak aurkitu ere. Neguan, Naparroako Betelun egoten dala. Eta udaran, berriz, Naparroako Lizarragako gaiñean diran bordetako batean, bere artaldearekin eta iru bat ardi-txakurrekin.

Dana dala, nolabait mezu orren bidez asteburu bateko joan-etorria antolatua zuten ezkerko artzai arengana, joan giñan, ba, lau bat senar-emazte, ditxosozko Ritxarren borda aldera, Lizarragako gaiñera edo Andi mendira.

Bidera irtenda zegoen, iritsi giñanerako. Azkar ezagutu zuten elkar. Aizpa denak musukatu zuten, ba, artzai zaarra, eta

agurtze zoragarria izan zan. Aspaldian musurik artu gabe omen zegoen-eta.

Esan zuten makiña bat kontu zaar eta berri, denbora gutxian, elkarri txanda eman eziñik. Denak batera ere itz egiten zuten. Gu, senarrok, entzule egon giñan ordubete inguruan, sukalde moduko artan.

Ondo artuak izan giñan, arraiopola! Biotza eskuetan zuen artzaia aurkitu genuen Ritxar.

Oso mendi dotorean dauka, an goian, bera uda-partean egoten dan borda.

Aspertu ezinda egon giñan borda ondotik ingurumari aietara begira. Begi bistaren neurriak ematen zuen guztia, eta artean ere jarraitu egiten zuten ango tontorrak, ango sakonak, ango lautada-uneak. Mendi garbia. Larre motxa. Belarraren muga arria. Oraintxe bistan, oraintxe ezkutuan. Mendi pintoa zirudien. Anka-geldian jarri eta lau bat borda ageri ziran.

Ni ez naiz mendi goietan asko ibilia, eta arridurak eraginda geratu nintzan. Ain mendi dotoreak zeudenik ere alderdi oietan! Ikusten nago zaartzaro aldera mendi izeneko paradisu oietara maizago joateko gogoia piztu bear zaidala... Ez litzateke txarra izango, eta anakak lagun dezaidatela.

Izketaldiko pasarte batean galdetu nion, ba:

–Uso-paserik ba al da inguru auetan?

–Ez, ez.

Eta jarraitu zuen:

–Gu onuntza etortzen asi giñan garaian, pasa oi ziran an arunzkaldeko sakon aietan barrena –onela, eskuarekin markatuz.

Jarraitu zuen, bere umore-punttua azalduz:

–Gaiñera, emendik alperrik pasatzea dute. Emen ez dago eiztaririk ibiltzerik. Eta oiek eiztariak dauden tokian pasa bear dute. Bestela, berriz ere egongo gaituk usoak jan gabe.

Alajaina! Bere irurogeita hamabost urterekin, badauka bai umorea Ritxarrek.


Emakumeek bazkaria jartzen zuten bitartean, orrelako kontu-jan bat egin genuen borda-atarian.

–Eta or, poste puntan, dagoen tresna ori zer dezu?

–Ori? Telefonoarena. Eta beste ura, telebistarena.

–Oño! Ondo ornituta zaude, alajaiña. Eta borda atzeko ontzi aundi ori?

–Or, teillatuko urak artzen dizkiat. Garbitasunerako eta abar. Eta edateko ura, iturri batetik ekartzen diat.



Ritxar artzaia eta Nikolas Zendoia, mendiko borda aurrean.

Argazkia: Maite Eizagirre.

–Ondo, ondo. Ez daukazu kejatzerik, Ritxar.

–Osasuna degun bitartean saiatuko gaituk eta...

Emakumeek deitu zutenean –“Ez al dezue sartu bear barrura? Bazkaria prest da”–, ez geneukan bi aldiz deitu bearrik. Borda-atarian kontu kontari lasai egotea ederra da, baiña barruan bazkaltzea ere...

–Ee. Ez al da ala, Ritxar?

–Bai, alajainkoa. Ik ere ez uan borda askotan bazkalduko, eta segi ezak barrura.

Ez zegoen ari aurea artzerik.

Arraska txiki bat, eta eskuak garbitzeko asmoz ni, eta... iturria giltza gabekoa.

–Ura nundik irekitzen da?

–Emaioek erdiko botoi orri. Ezagun dek hoteletan-eta gutxi ibilia agoela. Gaur egun, botoiei saka bear zaiek, botoiei.

“Onek eman zizkidak azak”. Izan ere, argi-kordoi baten bukaeran bazegoen alako lauki bat iru botoirekin... Egunen batean, txispak an aterako zaizkio.

Txispa, guri jarri zitzaigun an: irugarren ardo-botilla ipurdiz gora jarri eta tantarik botatzen ez zuenean.

Gazta-tratuan asi aurretik zirikatu genuen pixka bat:

–Noizbait ekarriko zenuen, ba, gaueko animadora oieta-koren bat?

Emakumeei ere ika erantzun zien:

–Ori, nik bakarrik jakin bearrekoa den.

Ondo esana.

–Nun dituzu, ba, gazta famoso oriek? –nik.

–Zenbat bear dituzue?

–Zortzi bat, guztitara.

Ate zaar bat ireki eta txoko illun batetik aiek aleak atera zizkigun; kauben sos. Artu zuen ormatik Jainkoa bera baiño leenagoko esku-pisua, alde batera bola eta bestera burni barra zenbakiduna... Autsez betetako betaurrekoak ere aurkitu zituen nunbait. Jarri gazta zintzilik, eta ango teatroa: bat gora eta bestea beera! Tranpa egin nai eta ezin. Gu denok begira, nunbait. Baiña, azkenean, bat erregalo, berriro urrengo urtean joatearren. Bai, Jainkoak nai badu. Eutsi goiari, Ritxar.

Doiñua: Anaiak gara lapurditarrak

Dauzkadan joan-etorrietan
ez nabil oso bitxi-ta,
leengo batean egun berean
jarriak neuzkan bi zita.
Baiña bitara iñola ere
ezin nintzan iritsi-ta,
artzai Ritxarri egin naiean
geure aldiko bisita.
Berrogei urte auetan elkar
ez genuen ikusi-ta.
Joan giñan bixi-bixi ta
leioak zeuzkan itxita.
Oillo loka bat lizar azpian,
beste dozena bat txita.
Bejondaizula, siesta egiñez
ez zera gaizki bizi-ta.

Borda-etxea dezu aterpe,
zure bizitoki izar,
erdi ageri, erdi gordean,
bere aritz eta lizar,
ingurugune txukun askoa,
jira guztia artxintzar:
sukalde txiki, tximinidun bat,
zartagi, zaato ta pitxar;
izan ere, zu jan-edanean
iñoiz ez bait zera litxar.
Iru txakur, on bat, bi txar:
Xarpa, Potxolo ta Bixar.
Nik galdera bat egingo dizut,
erantzun zaidazu, Ritxar:
emakumea maite izanik,
zergatik zaude mutilzaar?

Artzai on batek merezi ditu
nunaitan leku duiñak:
goi oietako arrats izartsu
ta egun zeru-urdiñak,
arkaitzetako bele txikien
txii-txoo atsegiñak,
ardi elduen dulun-dulunak,
bildotsen txilin-txiliñak,
eguzki-printzek urtzen dituzten
larretako iintz labaiñak,
kirkirren kir-kir-kir fiñak,
udaroko etorkiñak,
elorrantzaren lore txuritan
basatxorien mitiñak...
Luzaro goza zaitzala, Ritxar,
Andi mendiaren gaiñak.

El Diario Vasco: 2006.01.11

Pako belea

Oraingo onetan, kontatu dizkidatenak kontatzera natorkizue, lagunok. Bai orixe. Afaritxo bat egin berria naiz, aspaldi-ko adiskidea dedan Fermin Muñoa bertsolariarekin. Berrobi-tarra bera.

Fermin bertsolari bezela askok ezagutzen dezue. Bertsoak idazten ere txispa ederrekoa da eta egokia. Idazle alper samarra, ori bai. Bestela, onezkero, liburu bat baiño geiago idatziak bear zituen.

Ba, nioena. Afari artan kontu politak kontatu zizkidan. Bai nik arreta aundiz entzun ere. Bearbada, orain dala berrogeita amar urteko kontuak edo pasadizoak kontatu zizkidan. Izan ere, argazkiak eta pasadizoak, zenbat eta zaarrago, orduan eta ederrago.

Fermin bera umea zala, bere jaiotetxe baserrian, Aitzen, etxekoren batek belakumea ekarri omen zuen kabiatic, lumaz jantzi berria. Baita azi ere pikaro ederra. Pako izena jarrita, deitura aren jabe bereala egin zala, alajaiña. Arrapa ezak ankatik!

Belea oso txori mota argia dala zioen Ferminnek, begirada batera tonto itxurakoa dala badirudi ere.

Ez omen zan etxean egon zale orietakoa. Egaldi luzeak noiznai egiten zituelarik, eta nun zan arrastorik gabe ia egun osoan sarritan egoten baziran ere, etxeok ez omen ziran kejatzen. Bazekiten illuna baiño askoz leenagotik etxeratu-ko zala.

Aldizka, deitu omen zioten falta zan garaian etxe ataritik “Pako!” oiu aundia. Eta, dakizuenez, mendian egiten diran

oiuei beste mendiak erantzuten die. Bi edo iru minutu pasatzerako azaltzen omen zan nundik edo andik. Eta norbaiten sorbaldan jarri. Ederra da ori, e? Zenbati gustatuko ote litzai-guke deitu eta gure sorbaldan txori bat jartzea!

Onako oker txiki au egiten ere bein baiño geiagotan arrapatu omen zuten: ederki zaintzen zuela, alegia, eguartearen sukaldean emakumerik ez zegoen unea, eltzetik babak jateko. Anka bat eltzearen kirtenean jarrita, bestearekin tapa kendu eta lurrera bota, edo su gaiñera. Ori, Fermin ume koskorra zala bein baiño geiagotan ikusia.

Noiz edo noiz, sukaldera lasterka joanak izango ziran, eltze tapa-otsa entzunda.

–Ara! Orain ere amaiketako a egitera etorri dek Pako.

Eta an aurkitzen omen zuten eltze-kirtenean tente-tente. On egin zezaiola.

Berari gustatzen zitzaizkion pitxiak gordetzen ere artista zala zioen Fermiñek. Badakizue leengo baserrietako oiturak nola ziran. Nik kontatu izan dizkizuet beintzat, nere lantxoetan, auzo-lanean elkarri laguntza asko egiten zitzaiola.

Berrobi aldean ere, bertako oiturak, noski. Gertueneko etxeetako emakumeak elkarren etxe-atarietan euren arropa-josteak eta konponketak egiten zituzten itxuraz, txandaka; eta beren etxe-atarian ere bai, giro ona zanean.

Kontu kontari jardungo ziran, noski, emakumeen legean. Noizbeinka oartzten omen ziran gauzak faltatzen zitzaizkiela ere:

–Zer egin zionat, ba, nik botoi urdiñari? Oraintxe eskuetan niñan eta!

–Bai, pulamentu ederra daukan gaur.

Eta orrela.

Besteak:

–Oilloek jateko ere ez zunan ba artalea, sikiera! (Badakizue: atariko oilloengatik, alegia.)

–Leengoan ere orrelaxe intzan eure jostarratzarekin. An unan gonapean. Zizta egin ez baziñan, ez unan billatuko.

Badakizue: emakumeen umorezko berriketak. Emakumeak elkarrengana bilduta isili samarrik baldin badaude, malo.

Baiña arratsalde batean sukaldean josten ari zirala, Pako belearen bisita izan omen zuten dalako jostun aiek. Gaiñera, tentatzen aritu omen ziran.

–Zer abil, Pako?

–Zer nai dek?

Eta orrela.

Baiña, konturatu ziranerako, artu titarea mokoan, eta mar-txa. Bai emakumeak ere atzetik, armoni batean, Pakoren ondoren etxe-atarira.

Fermin mutikoari:

–Ikusi al dek Pako nora joan dan? Tiratea eraman ziguk-eta.

–Ji, ji, ji. Bai. Betiko lekura joan da: teillatuko tximiniaren ondora. Ura du bere gustoko lekua.

Emakume aien erretolika, noski:

–Ik ere parre egin bear al diguk? –mutikoari.

Orduan, konturatuak izango ziran nor zan gauzen erama-lea eta nor zan pekataria.

Gero, gizonezkoren bat igo zanean teillatura, tximiniaren ondoan begiratzera edo titare billa, altxor ederra aurkitua izango zuan tximinia ondoan: titare, botoi, eraztun, belarritako, pezeta gorri, karakol txiki... auskalo nundik ekarriak. Nor-baitzuk faltako zituzten.

Orra, ba, Pako belearen pitxi-denda agertu. Leenago bele maitatua bazan ere, guztiz famatua egin omen zan Berrobi aldean, pitxi-kontu ura jakin zutenean.

Onako au ere kontatu zidan Fermiñek. Baiña ez zuen ziurtatu nai izan; entzuna bakarrik zalako. An inguruko aitona bati ezpaiñetatik zigarroa kendu ziola, saskikada arbiarekin sorotik etxera zijoala. Estualdi ederra pasa arazia izango zion aitona gizarajoari. Auskalo nun botako zuen zigarroa Pakok. Saipairen batera joaten bazan, etxeren bat erre zitekeela, eta aitona aren larria eta beldurra!

Baiña ez: Pakok orrelako arriskurik ez zuen sortzen. Beti, zerbait artu eta eraman. Ori omen zan bere griña.

Apaiza aserretu arazia izango zuen bolada batean Pakok. Orduko Berrobiko apaiza: don Rikardo.

Leiotik aragi-xerrak faltatzen zitzaizkiola, eta aserre don Rikardo jauna. Etxeko katuari egundoko purrustadak botreak izango zizkion. Urrengoan, berriz, txorizo-muturra falta.

–Katu madarikatua!

Gertuko bat jarri du jakiñaren gaiñean apaizak:

–Urrengo, zure baratzean eguzki epeletan lotan ikusten dezunean, jo ezazu aitzurrarekin buruan; oitura txarrak artzen ari da-ta.

–Nere kontu, jauna.

Andik egun batzuetara, dalako orrek apaizari:

–Oitura txarrak bukatu zaizkio katuari.

Orduantxe lasaitu don Rikardo.

Baiña berriz ere leioko plateratik aragi-xerra falta. Apaiza bere onetik irtenda, bere baitan: “Zein ote da emengo lapurra? Dabillena eroriko dek, ba, dabillan bidean”.

Urrengo goiz batean, aurreko etxeko amona, leiotik deika:
–Don Rikardo, don Rikardo! Pako beleak eraman dizu aragia leiotik. Neronek ikusi det.

Apaizak, eskua kokotsean jarrita:

–Eee! Katu gaixoa!

Urtebete inguruan izan omen ziran Pakoren abenturak. Gero, esaten den bezela: ez *si* eta ez *no*; akabatu egin zala. Berri ura zabaldu zanean, makiña batek pena artua izango zuten.

Urrengo egunetan, autobus-geltokian eta, ala omen zioen jendeak:

–Pako il dala, e?

–Zein Pako?

–Pako belea: Aitzekoa.

Don Rikardok ez zion enterrurik egingo.

Ziur nago Berrobi aldean oraindik ere asko gogoratuko dirala Pako belearekin.

Beleki denak dira
luma beltzekoak,
atze, aurre, goi ta bee
eta ertzekoak.
Baiña dena gustoko
bele etxekoak:
apaizaren xerra ta
baba eltzekoak.

El Diario Vasco: 2006.02.15

Zazpi duro eta txaketa

Bai. Zazpi duro eta txaketa panazkoa arrapatu zizkidaten, jai gau batean, atariko estalpetik.

Bada urte mordo bat alukeria ura gertatu zala. Emeretzi urte nituen orduan eta, pentsa, orain irurogeita bost. Berrogeita sei urte pasa dirala jakiteko, ez da kalkuladora bearrik. Ezta listoa izan bearrik ere.

Baiña amorru eta pena aundia eman arazten dituzten gauzak, edo gertaerak, iñoiz ez dira aazten. Nola aaztuko zitzaidan, ba? Badakizue zer zan, orain dala berrogeita sei urte, emeretzi urtetxo nituela, zazpi duro arrapatzea? Ura larri zan.

Txaketa panazkoa ederra zan, neurrira egindakoa. Atzean trabilla eta guztikoa. *Trabilla* izen ura, jostunari entzundakoa zan. Atzean zearretara jositako pana zati bat. Tela gozoa, gaiñera. Gustora janzen dan arropa oietakoa.

Alan da ere, txaketagatik bost ajola. Baiña zazpi duro... Zera: amak igande arratsaldea pasatzeko emandako edo kostata kendutako bost duroko paperezko morea eta bi duro paperezko berdeak, aiek geiago ezin ikusi izana... Ura bai zala mingarria.

Eizerako kartutxoak ekartzeko pezeta bat ere gastatu gabe igande arratsaldea pasa, eta gero ori? Urdanetako Patxiren taberna xaar artan txorixo-txistorraren bokadilloa ere ez nuen jan jai artan, kartutxotarako txanponak aurreratzearen. Ara fin jokatzeak ere zenbat balio izaten duen batzuetan. Xuurra-
ren poltsak, bi zulo.

Kontatuko dizuet, ba, pasadizoa nola zan.

Neguko igande arratsalde otz artan, beti bezela anaia zaaragoa Felix eta biok Urdanetara, jakina: jai arratsaldeko *bezperak* deitzen zitzairen eliz funtziora. Errezatu eta eliz kanta denak abestu ondoren, nolabait arratsaldea pasatzera. Edo aal zan bezela.

Illunabarrean, gugandik ies egin nai zuten nesken atzetik korrika-saioren bat eginda, gero musean elkarri begiak atera bearrean. Zera: iru pezeta balio zituen botilla erdi ardoa jokatzen. Gero, bertso modukoren batzuk kantatu eta etxera. Guk elizan kantatzen genuen, baiña bai tabernan ere.

Gauean etxera abiatu giñanerako, elurrak zuritu zituen Urdaneta inguruak. Baiña guk ez geneukan otzik. Dozena-erdi bat mutil kaskar an abiatu giñan etxe aldera, geren txaketak buruan genituela. Elurra ari bait zuen.

Lagunen etxe-atarietan elkar agurtu:

–Urrengo jaira arte, i. Aio.

Orrela iritsi giñan etxera. Eta etxe-atariko estalpean edo aterpean zintzilikatu genituen geren txaketa bustiak.

Urrengo goizean an ez zegoen ez txaketa eta ez otxo koarto. Bi anaion txaketa panak, ijitoek eramanak. Kateko txakurrak Txato zaarrak ere lo egingo zuen gau artan, labepeko txokoan.

Neri txaketa ez zitzaidan gogoratzen. Zazpi duroak bai.

Anaiari galdetu nion:

–Ik ba al uan dirurik txaketaren patrikan?

–Ez. Nik denak gastatu nizkian.

Nik, orduan eta pena geiago.

Ama jarri zan, berriz, ortik onakoa:

–Zazpi durogatik al abil berriketan? Txaketek balio zutenarekin alderatuta, zer dituk ba zazpi duro...?

–Jolin. Ez zizkidazun, ba, berealakoan eman.

–Au dek marka, au! Ustez, iru bat negutarako arropa egin nizuen ainbeste diru gastatuta, eta begira orain. Zakurraren putza! Tira! Mugi zaitezte! Galde ezazue auzoetan ea atzo ijitorik ikusi al zuten pasatzen-edo.

Eta baietz esan ziguten: Neberako bordan bazeudela ijitoak.

Nebera zan Pagoeta mendiaren beeko aldean zegoen base-
rri bat. Baiña, suak erreta zanez, gero borda bat zan. Itxura
danez, an ijitoak sarritan egoten ziran.

Ijitoen juzgua egin genuen. Auzoetan beintzat ez ziran
azaldu txaketak.

Arratsaldean an joan nintzan Neberako bordara, soldadu-
-jantzian eta eskopetarekin.

Anaia zegoen soldadu, eta permisoarekin etxean zegoen
egun aietan. Esan zidan:

–I, kontuz ibili adi, e! Guardia zibillak ikusten baaute ola,
txokora eramango aute. Eta, gaiñera, nik biar joan bear diat
kuartelera, eta trajea txukuna bear diat.

Ez dakit zer egin bear nuen nik jantzi arekin eta eskopeta-
rekin. Banuen entzutera guardia zibillarekin eta eskopetarekin
beldurtu egin oi zirala ijitoak, Baraingo ijitoak bezela. Eta
orrela eskuratuko nituela txaketak eta dirua.

Nik ijitoak beldurtu? Txakurraren bioliña! Neu bai beldu-
rez xiriña eginda.

An ez zegoen ijitorik. Eta ura poza nerea. Orduantxe alde
egin zidaten beldurrak.

Gero, ala esaten nien denei:

–Ño! Deskuido santuan an egon balira...

Orra, ba. Txaketak ostu zizkigutelako, arratsalde batean
izan nintzan beintzat soldadu armatua.

Egokiera onetaz baliatuz esan nai dizuet denei soldadu ez nintzala izan. Nere ezkerreko ankan ordurako zerbait aje banelako.

Zarautzera larunbatetan etortzen zan orduan mediku militar bat. Kontsulta edo ori zeukan. Gogoan det bein amarekin joan nintzala beregana kontsultara. Ni, erren pixka bat egiñez; eta ama, oillasko pare ederrarekin.

Ai, mutillak! Oillasko pare ederrak gauza asko konpon-tzen ditu.

Gerora oillasko geiago ere eramaten zitzaion. Baiña nere-ztat bazan naiko itzai on.

Eta badakizue zeñen semea zan mediku ura? Maria Dolores Agirre agurgarria zanaren semea.

Ijitoek emanik
ainbeste apuro,
euren aitzaki egin
nuen nik agudo.
Ta ni soldadu jantzi!
“Au dek, au, Arturo!”.
Txaketa bost ajola,
baiña zazpi duro...

El Diario Vasco: 2006.03.01

Oillategiko kontuak

Bai, arraioa! Esan bear ditugu oillategietako kontuak ere.

Gure leengo baserri-atarietan edo, baserri bakoitzak bazuen bere oillategia etxe atarian. Batzuek aundiagoa, besteek txikiagoa. Asko, ala moduzkoak: nolabait egiñak edo gutxi zaindutakoak, beintzat. Atea, kate zatiren batekin amarratua; ormatik arriren bat edo bi eroriak bazeuden, aiek leio-zulo; teillatua ere, euririk ez zanean urik sartzen ez zan oietakoa.

Barruan, bazterren batean, izaten zan *kota* edo deitzen genion tranpaillu antzeko bat, egur zati batzuekin egiña: ormatik ormara jarritako egur zaar batzuk, anka banaren gaiñean lo egin zezaten. Badakizue oilloak anka baten gaiñean lo egiten duela?

Txukuna egon oi zan bai kota eta bai kota azpia. Noiz-beinka, garo-zakar pixka bat bota, eta aurrera. Berealaxe zantpatzen zan, bai. Jakiña: gauero kotatik erortzen ziran pasteltxo pillaaiekin...

Oilloaren izatea ere xelebrea da, ba. Temoso utsa da oilloa berez. Lurretik kotara igotzeko eskaillera moduko bat beti egon oi zan. Baiña, bai, to: beti pla-pla egoei bi eragin eman eta gora banan-banan. Jeitsi, bai. Jeitsi, eskaillera antzeko artatik egingo ziran, isil-isilik eta poliki-poliki, eguna argitzearekin batera.

Bezperan askan sobratutako jakirik bazegoen, kaskakaska mokokada batzuk jo; eta ez bazegoen, berriz, kanpoko saredira, orma azpiko zulotik ea txitxarerik edo mamorrerik biltzen zuten.

Geroxeago, beren lana ere izaten zuten: arrautza egitea, alegia. Denak ez; edo etxeakoandreak nai baiño gutxiago, beintzat. Orma batean aldenik alde egon oi ziran kabiak, egur-oolez egiñak. Illara bat edo bi, alderdirik txukunenean. Kabi bakoitzak lasto motx pixka bat eduki oi zuen bigungarri bezela, arrautza egiten zutenean autsi ez zedin.



Aiako amona Pantxika, eguneroko taldearekin.

Argazkia: Matilde.

Eta kabiondokoa. Kabiondokoa deitzen zitzaion beti kabi bakoitzean egoten zan arrautza bakar ari. Ez zion ajola aundia, txikia, zikiña, garbia; baiña kabian beti arrautza bat egon bear zuen, oilloek arrautzak jarri zitzaten. Esate baterako, oillategi batean amar kabi bazeuden eta amar aietatik iru kabiondokorik gabe, iru aietan ez zizuten bereala arrautza egingo. Ez orixe. Beti, arrautza zegoen kabian arrautza.

Badauka bere zentzua. Oillo batek, lokatzerakoan edo lokatutakoan, egunez egun egindako amar dozena bat arrautzaren gaiñean jarriko zan xabal-xabal, klok-klok egiñez. Bein ere ez, bi edo iru arrautzarekin bakarrik. Oillo txontxonon bat izan ezean, beintzat. Bai bait ziran txontxonak ere.

Oilloei janaria goiz partean ematen genien. Euren gosaria egiten zutenean, bereala asiko ziran kabietara begira lepoa luzatuta, zein kabitara saltatu, beren eguneko aletxoak jartzeko.

Minutu batzuetan egongo zan etzanda geldi-geldi; eta unetxo batean pixka bat jeiki eta, ploxt, an jarriko zuen kontu aundiz. Ez zuen, ez, puskatuko; ez bererik eta ez besterenik.

Kabitik lurrera saltatu baiño leenago erasoko zion kantari: alegia, eguneko lanak egin zituela. Eta batek bezela bestek ere. Soroan lanean ari bagiñan ere, begenekien oilloek arrautzak noiz egiten zituzten. Kakarak eta kakarak, amar dozena bat oillo asten ziranean, lekutako orkesta armatzen zuten, ba.

Kakaraka-soiñu aundia bazan goizean, arratsaldean saskia artuta joan zitekeen arrautzak jasotzera. Eta goizean kakaraka fun-damentuzkorik ez bazan, esku banatan artuta ekarriko zenituen.

Leenago esan det oillo txontxonak ere bazirala, eta berez temoso utsa dala ere bai. Ba, baita fiakaitza ere. Baziran gero isilka sasiren batean arrautza egiten zutenak ere... Iñor konturatzeko, igual dozenatik gora.

Amak jarri oi ginduen zenbait oillo zaintzen:

–Ea nora joaten dan oillo beltz txolin ori arrautza egitera...

Baina iñor bistan zanean, ez zan bereala joango. Txontxatik asko, baiña tontatik gutxi.

Tarteka lokatzen zanean oillo bakarren bat, arrautzen gaiñean jartzeko oillategitik kendu egiten zan leku ezkuturen batera. Mandiora edo bakarrik, eta pakean egon zedin. Batez ere, arrautzen gaiñean zintzo egoteko ogeita bat egunean. Zenbait oillo txoliñi kopa-otar txikia jarri bearra izaten zan

gaiñean; bestela, edozein unetan arrautzetatik jeiki eta txon-txonarena egiten ibiliko zan, eta gero arrautzak oztu. Eta zera: txitak izango ziran auzoan.

Ikuskizun polita zan ba, benetan, gero oillo loka, dozena txitatik gora zituela, atarian ikustea. Egunean baiño egunean ederragoak.

Oillanda eta oillasko koskorak ez genituen oillategian edukitzen. Beste lekuren batean: gauaz, atariko labepera edo beste txokoren batera. Puxka bat azitakoan, oillandak oillo-itxura artzen asten ziranean, orduan bai oillategira oillandak. Oillaskoak, berriz, saltzera eramaten ziran, etxean guk nai baiño gutxiago janda. Zera: oillasko gazte ederrak saltzera, eta sardinzarrak ekarri etxera. Lepo lodia edukitzeko, sistema ederra dek ori.

Pare bat urtez bein-edo, oillasko gazteren bat laga bearra zegoen oillategirako. Ura izaten zan zortedun. Taldeko lagunei lepoa, eta bera eme-jolasetara. Azkar ekiten zion kukurruku dotore jotzeari. Baiña puxka batean ez zuen lanik izaten oillo gaiñera igotzen; an egoten bait zan jefea gandor gorriarekin burua goian zuela; eta ark baimena eman arte, tentu aundiz ibili bearra izaten zuen.

Eta noiz ematen zion baimena? Biek borroka-saioren bat egin eta zaarrak galtzen zuenean. Orra, ba, oillategian ere bertako legeak.

Biurritu izan da
amaika arreman.
Berdintsu izango da,
gaiñera, emen-an.
Baimena ta aala
zertan jarri teman?
Borrokan egin gabe
ezin al da eman?

El Diario Vasco: 2006.03.31

Erloju zaar aiek

Erlojuen otsera edo erlojuen deira bizi gera gizakiok. Eta erlojuari begira. Orretara oituak gaude aundi eta txiki, zaar eta gazte. Nik uste det lurbira guztietan au orrelatsu izango dala. Agintaririk gogorrena eta iñork protestarik egiten ez diona. Au ere asmatu zian, ba, baten batek!

Nik askotan esan izan det: zuzena, borobilla eta erlojua asmatu zituenak dena asmatu zuela. Baiña goazen pixka bat leengo erloju zaar aundi aietara.

Errespetua sortzen zuten gero aiek! Aiei edozeiñek ez zegoen ukitzerik. Oso sakratuak ziran.

Egituraz bi era ezberdin zutenak ezagutu nituen nik. Bata kaja luzekoa; eta bestea, berriz, orman eskegitzekoa, motza eta obalatu erakoa. Biak ere guztiz dotoreak eta landutakoak. Otsa ere oso desberdiña zuten biak. Batek, tentekakoak, guztiz dindateko bizia zuen: din, din, din. Etxeko edo bera zegoen gelako leioa zabalik bazan, inguruko sorotik ederki entzuten zan bere ordu-adierazpena. Entzutekoa izaten zan ura.

Iñoiz esan izan zuten soroan ari ziranak, aldeko erlojuaren amabiak entzutean (auzoan bai bait zan luzea):

–Ara! Elkanoko Angelusa eta aldeko erlojuko amabiak batera-batera asi dituk jotzen. Ño! Zuzen zeukatek, arraiok ez badu.

Angelusarena eta kanpaiena aurreraxeago aipatuko dugu.

Nik ez dakit zer material edukiko zuten, baiña erloju aien otsa fin arrigarria zan.

Erloju aiek egon oi ziran, gaiñera, etxeko nagusien edo gurasoen logelatik gertu. Beren zainketa ere aitak edo amak

eramaten bait zuen: noizbeinka, nibelean ondo zegoen begiratu eta pisuak beean zituenean aiek jaso eta kuerda eman alegia, giltza aundi batekin, raka-raka; eta zainketa oriek. Ura bait zan etxeko ardatza. Eta norbaitek zuzen ibiltzekotan, ardatzak dauka zuzen ibili bearra.

Etxeko aitak edo nagusiak feriara joan bear zuenean-eta, askotan begiratuko zuen ea patrikako erloju borobilla bat zegoen aundiarekin. Jakina: orduan trenez ibiltzen ziran ferigizon geienak, eta badakizue trena ez dala iñoren zai egoten. Atera kontuak feriara abiatu eta, trena ez arrapatzearren, berriro etxera etorri bearra zein tristea izango zan. Urrengo feriara arteko umore on gutxi, seguru.

Zerbaitegatik nioen, asieran, erloju aiek oso sakratuak zirala eta edozeiñek ez zituela erabiltzen. Ez det esango berrri guztietan ere ziranik erloju aundi aiek; baina baziran, baziran, ale batzuk.

Gure etxean, ormakoa zan. Eta ormakoek ots motelagoa zuten: gozoagoa. Esan oi degun bezala, suabeagoa. Gaiñera, aita eta amaren koartoa egoten zan. Nik ala ezagutu nuen eta, ogei urterekin zerbait ikastera atera nintzanean –ez leen gutxi nekielako baiña–, antxe geratu zan.

Ni gogoratzen naiz noiz edo noiz, pisuak jeitsi eta erlojua geratzen bazan, zer istillu ibiltzen zituen gure amak:

–Orain, ordu ona zein dan nork daki? Nola jarriko degu ondo?

Gaiñera, aita eta amaren koartoko erlojuak ordurik jotzen ez bazuen, denok arrituta. Zerbait falta gertatzen balitz bezela. Zerbait baiño geiago falta, ba: alegia, asko.

Pentsaketan jarrita ere... Zortzi seme-alaba jaio eta aziko giñan koarto artan, eta iñori ez diot entzun erloju aundiaren otsak iñor endredatu ginduenik. Zaindari bat balitz bezela genuen erloju aundia.

Orduan, zarata eta isiltasun-ezagatik ume txikiek ere lo berdin-berdin egiten zuten. Orain, berriz, zera:

–Umea lo dago, eta isilik ibili. Koartora ez iñor urbildu!

Eta ez umeengatik bakarrik; aundiengatik ere berdin diot. Jarri besterik ez dago orain gure logeletan erloju aundi bat, tan eta tan. Goizeko esnagaillu txiki oien gaueko tiki-taka ere ez omen da ona osasunerako. Ala diote oraingo jakintsuek. Ai, Jainko potoloa! Utzi baligute, egingo genukeen lo erloju-otsagatik.

Jarrai dezadan erloju oien irudiekin. Nik txiki-denboran ezagutu nituen erloju aundi aiek denak zenbaki erromanoeki-koak ziran. Erderaz esaten dan bezala, *números romanos*. Ez dakit euskeraz ondo jarriko nuen.

Eta zenbaki mota aiekin oso irudi polita artzen zuten. Orratza aundia eta txikia ere, dotore landutakoak; eta gaiñontzeko gauzak ere, ala.

Baziran gizon banaka batzuk adituak, erloju aundi aiek aberiaren bat zutenean konpontzen aritzen ziranak. Dena askatu, beren ustez ondo konpondu, berriro lotu, eta piezak sobratzen zitzaizkienak ere bai.

Leenago, laga det Angelus kontua aitatura, gero jarraituko dedala esanez. Ba, bai. Izan ere, leenago kanpaiei, gaurko aldean, lan asko egin arazten zitzaien. Beti, dinbili-danbala ziran. Batzuk, dorreko erlojuaren tinki-tankak; aiek betikoak ziran baiña. Kanpai aundiak ere, oraingo aldean, asko erabiltzen ziran. Eliza inguruan bizi ziranak ez zuten izango leenago aipatu dedan esnagailluaren bearrrik.

Gaiñera, kanpai-jotze ezberdiñak oi ziran; gure alderdientan, beintzat. Illeta edo norbait iltzen zanean ere, gizonezkoa edo emakumezkoa zan kanpai-ots ezberdiñez adierazten zitzaion jendeari. Bearbada, oraindik ere zenbait lekutan oitura oiek jarraituko dute.

Gu mezetara joaten giñan Urdanetan ere baziran guri amaika lasterka-saio eragin arazitako kanpaiak. Meza baiño ordu erdi leenagotik, kanpai bueltakoak, blin-blan, blin-blan. Etxetik abiatu eta laster entzuten bagenuen: “ba, gaur aisa iristen gaituk”. Ordu erdiko bidea bait geneukan. Apaiza alderera atera baiño iru minutu leenagotik, berriz, tan, tan, tan, irukoa. Artean bosteun metro falta bagenituen, astintzen ziran lokatzak.

Baiña gu Elkanoko kanpaiarekin ibiltzen giñan. Ura geneukan bistan edo zuzenean. Elkanon ainbat urtetan serora eta maistra egon zan Karmenek zenbat aldiz jo ote zituen goizeko matutia, eguerdiko Angelusa eta illunabarreko *amaikua*.

Oraindik ere amona polita dago Karmen Peñagarikano, larogeita lau urterekin. Bere kontuak entzutea gaur ere atse-gingarri da. Eutsi goiari, Karmentxo.

El Diario Vasco: 2006.05.02

Marianoren kontuak

Mariano ustez ezagutzen det, eta ez det uste gaizki artuko didanik bere xeblekeriaren bat edo beste idaztea.

Nik bezelaxe, askok eta askok ezagutzen dute gure erritarran dan aitona Mariano. Larogeitaka urteak ere baditu, oker ez banago. Baiña ez pentsa okertutako aitona zaarra dagoenik, e?; ez, ez: tentea, burua goian eta bere lekuan duela, arraiok ez badu. Txapela, betaurrekoak eta bastoia, eskuan. Ura zirikatzera ez joan.

Bere denboran txoferra izana. Amaika kamioi zaar eta GMC gidatutako gizona. Gidatu bakarrik ez; baita konpondu ere aberia zutenean. Buzoa jantzi, eta kamioi azpira zuzenean.

Olio zikiñagatik ikaratzen ez zana. Eta arratsean jardutea ere ez.

–Mariano, zer ari zera or? Mekanikoak egongo dira, ba, orretarako?

–Bai! Zertarako mekanikoak: leen baiño okerrago lagatze-ko? Traste onen berri, neronek zekiat ondoen. Gaiñera, biar goizeko zortzietan, lau baso-mutillekin mendira natxiak; eta, gau osoan jardungo banaiz ere, goizerako konponduta egon bear dik. Gaueko amarrak dituk, eta zerako mekanikoari deituko zioat.

GMC azpian etzanda an jarraituko zuen gure Marianok. Ala esango zuen:

–Emen, nor bere kontura gabiltzanok dena egin bear izaten diagu: meza eman ez beste dena.

Bizitzaren eskarmentuak erakutsitako txoferra zan, lan-egokia eta ardura aundikoa.

–Mekaniko-titulurik ba al dezu, Mariano?

–Tituluak, orman zintzilik egoteko bakarrik balio dik. Kontu txoro oiekin baator nigana...

Marianoren adiñeko txoferrak, geiago ere izango dira antzeko bizimodua eramaneak. Baiña ardura berdiñekoak izatea, ori beste upeleko sagardoa dala derizkiot.

Mendietan ibillera arriskutsua franko ere egiña, bere GMC zaar aiekin. Nik bein baiño geiagotan ikusia, gaztea nintzala: mendi-bidean gora, kamioiaren atea zabaldu eta bera saietsean erdi tente jarrita, dalako GMCa gidatzen; iraultzea gertatuta ere, goiko aldera salta zezan.

Ori esatea errezagoa izango da, egitea baiño.

Gerora, bere erretiratutako urteetan ere, makiña bati konponketa-laguntzak egiña da.

Baserriren batean, ala moduzko txokoren bat izan bear zuen, bere gisara jarduteko. Uste det txoko artara bidea makiñatxo batek bazekiela.

Leengo batean, ala esan zidan nere arreba Mari Karmenek, nunbait kale berean bizi dira-eta:

–Ba al dakik zer esan zidan atzo Marianok?

–Auskalo!

–Gaur goizean, seiatarako kotxea arrankatu dezu, e, Mari Karmen?

–Eta zuk nola demontre dakizu ori, oean egongo ziñan-eta?

–Oean, bai; baiña lo, ez. Kale ontako kotxe denak beren otsera ezagutzen ditut nik zein diran. Eta zurea ere bai. Ai, Karmen, Karmen. Mariano zaarra konturatu gabe ez daukazue erreza kale onetatik ateratzen.

Pentsa Marianoren burua nola dagoen oraintxe ere, kaleko kotxeak motorraren otsera ezagutzeko. Esaera dan bezela, izan duenak baduela.

Gaztetan, korrika-apusturen bat ere jokatua izan bear du. Ez dakit noren aurka eta nun. Au berari galdetu bearrean nago, umorealdian dagoenen batean. Ea kontatzen didan. Baiña kontatu nai ez badit ere, ez dio ajola.

Lan-kontuak alde batera lagata, Marianoren beste bitxikeria au ere idatzi nai nuke, ba. Batik bat, auxe kontatzearren asi det idazlan au.

Baserrietako jendearekin, betidanik izan du artu-emanan Marianok. Esaten degun bezela, amaika txapuza egiña izango da baserritarrei ere. Nola ez, ba! Diotenez, baita Urdanetako bi gizon gazte aiei ere.

Afari baten aldera-edo, lantxoren bat egin zien itxuraz bi gizon gazte aiei. Eta au ez da aspaldiko kontua, gaiñera; berri samarra. Eta afari-kontu ura, beti gerokotan; ez gizon txarrak diralako, baiña. Pixka bat zabarrak.

–I, Marianoren afari ori ere egin bearko diagu Urdanetan, larunbat batean.

Nioena: mutil onak. Eraman eta ekarri ere, berek egingo zutela, eta konforme Mariano.

Larunbat arratsaldez, jo dute tinbrea. Eta Marianoren emazteak, amonak:

–Zein da?

–Jeup! Gu generala, Marianoren billa.

–A, bai. Oraintxe dijoa. Baiña jator ekarri gero neri aitona etxera, e?

–Bai, bai. Zu lasai egon, amona.

Afaldu dute lasai, denbora-pasa, eta tragoxkak ere oizkoak baiño geiago izango ziran, eta Marianori kontu egitea aaztu

zaie bi gizonei, ango eiz-kontua eta abarra. Mariano ere eiztari amorratua izana, nunbait. Dana dala, amonaren enkargua pikotara.

Alako batean, ala dio Marianok:

–Eraman nazazue etxera, mesedez. Ez negok ondo. Eta amonari ez esan mozkortu egin naizenik; ondoeza egin zaidala.

Udara, eta gaueko amabietan, berriro turrin, Marianoren etxean.

Amonak, barrendik:

–Ba al zatozte?

–Bai.

Ala, jaso dute bizkarrean eskailleratan gora, eta oeraíño.

Amonak zer erreazio izango zuen ikaraz bi gazteak... Bai, zera!

–Ez da leenengo aldia. Laster pasako zaio, bai, oni. Zuek joan zaitezte orain zuzen etxera. Eskerrik asko.

Zuzen, bai! Ondartza inguruan baditu, ba, Zarautzak taberna erdi illun orietakoak, eta araxe. Berriz ere, amonaren enkargua pikotara.

Gaua pasa dute *por ahí* biak, zenbat kuba erdi zijoazen kontatu gabe, eta zera: jai goizeko zortziak aldean, elkarri lepotik eldu eta badatoz kotxe aldera edo kotxe billa, bertso-tan egiñez.

Orrela, pirin-paran zabiltzala, ara nun ateratzen dan Mariano bere etxetik, zabor-poltsa zakarrontzira botatzera, bezperakoa ondo pasata.

–I, i. Ikusten al dek ori? Emen ederra!

Eta Marianok:

–Baiña zer kristo egiten dezue zuek emen, jai goizean Zarautzen? Au dek baserriko gizon gazteen pulamentua!

Kotxea ere or daukazue, atzo gaizki lagata: *doble filan*. Ez zekiak multa nola ez dizueten jarri agoazillak. Ara! Aldegin ezazue emendik azkar, e? Lotsarik ez daukazue, iñork ikusita ere...

Mariano, beti Mariano.

El Diario Vasco: 2006.05.26

Karmen serora

Aurreko batean kaleratu nuen nere idazlan auetako bat “Erloju zaar aiek” izenburuarekin. Baiña, baita ere, aipatzen nituen zenbait auzotako kanpaiak. Eta bertan esaten nuen, lanaren amaieran, Aiako Elkanon serora izandako Karmen Peñagarikanok zenbat aldiz jo ote zituen Elkanoko kanpaiak. Eta “aupa, Karmen! Eutsi goiari”, esanez amaitzen nuen.

Ba, errezena egin nuen: bere aipamena egitea.

Orain dala egun batzuk, kalean topo egin nuen berarekin, esku banatan makilla banarekin, bere ibillalditxo egiten. Eta berarekin geratu ezker, kontu asko entzun bearra dago. Kontu asko eta ondo esanak.

Eraso zion, ba, eraso bazion:

–Bejondeizula, Nikolas. Aurrena esango dizut zuk idatzitako artikulu polit oiek irakurri izan ditudala. Eta geiago ere irakurri nai nituzkeela. Ba al dakizu, Nikolas, zer lan egiten ari zeran?

–Beno, ba... Ni saiatzen naiz ezagutu nituen gauzak aal dedan egokien azaltzen. Eta, bitartean, nere afizioaren egarria asetzen det.

–Ase, gu asetzen gaituzu. Eta, aldi berean, berrizko ega-riak lagatzen gaituzu. Adiñean aurrera goazeno, une bizigariak eskeintzen ari zera. Nola pentsatuko genuen garai aietako bizimodu neketsu ura zaartzaroan pozik irakurriko genuela? Nork esan bear zigun? Biarko egunerako, edo biarko jendearentzako, altxor bat burutzen ari zera, Nikolas. Eta ikusten nago, zuk ez badezu egiten, beste iñork ez duela egingo. Beraz, jarraitzeko agindua ematen dizut.

–Amona Karmen, ez nazazu goraegi jaso. Baiña saiatuko naiz zure agindua betetzen.

Eta jarraitu zuen:

–Kanpai-kontuak aipatu zenizkidan. Ai, Jaungoikoa! Kontatuko nizkizuke nik nere seroratzako garaiak nola izan ziran...

–Eta baimena ematen al didazu, zuk kontatzen dizkidazun kontuekin prosa bat idazteko?

–Bai, gizona, bai. Neri zer ajola dit, ba; larogeita bost urte betetzera noa-ta. Ogeita bost urte egin nituen Elkanon serora eta maistra. Orduan, erriak beartu egiten zuen auzo txikietako serora eliza inguruko zazpi-zortzi etxeetako umeei zerbait eskola ematera, apaiza edo beste maisutzarik ez bazegoen. Nere bizitzako urterik zorionsuenak ogeita bost urte aiek izan ziran, Nikolas.

Nik, neure baitan: “Kontxo! Amona onek ikaragarriak kontatu bear zizkidak”.

–Zortzi seme-alaba izan eta azi genituen nik eta nere senar Bixente zanak. Baiña begira, Nikolas, orduan Elkanon nola geunden. Ogeita bost urte aietan, etxean ez genuen urik. Egun santu guztietan, iturritik ekartzen genuen ura etxera. Pentsa amar laguneko familian zenbat ur bearko zan. Argia ere, ogeita bost urtean, bataz beste egunean bi ordura ez zitzaigun iritsiko. Inguruko argi-etxe txiki batek ematen zuen argindarra auzo guztira: Lertxundik.

–Bai. Kontu orren berri ondo dakit, bai, Karmen, gure etxeetara ere berak ematen zigun argia... Baina jarrai ezazu, Karmen.

–Presa urez betetzen zanean, denentzako argia juxtu-juxtu. Urak jeisten ziranean, ordu kontatuak, naiz eta argia argi egiteko bakarrik bear izaten zan. Elektrogailurik ez genuen.

–Eta ganadurik, Karmen?

–Bai. Beia eta txaaala eduki oi genituen, etxerako esnea izatearren. Ori bearrezkoa zan gure familian. Oillo batzuk ere bai. Arrautzak, batzuk etxerako, baiña geienak saltzeko, olioia eta zenbait gauza ekarriko baziran. Baiña ori bai: ogeita bost urte zoriontsuak!

–Eta eskola nun emana ba al zenuen?

–Bai; polita, gaiñera, eskola: gure etxetxo aren egaleko gela txiki bat, ataritik eskaillerak zituela. Oraindik ere an dago, joan eta ikusi nai badezu.



Karmen serora, maistra eta erizaiña.

Argazkia: Joan Peñagarikano “Artzain”.

–Eta ume asko etortzen al zitzaizun eskolara?

–Zenbat ez dakit. Beti ezberdin. Baiña dakitena da umez beteta izaten nintzala. Ez zidaten zorion gutxi ematen beraiek. Ni ume-maitea izan naiz beti.

–Karmen, pentsatzen det geienbat zer erakutsiko zenien, baiña zeuk esaidazu.

Irriparretxo bat egiñez:

–Bai, ondo dakizu. Bearrezkoena, errezatzen erakustea zan, komunio txikia eta aundia egiteko; eta dotriña kristianoa. Oiek biak printzipalak ziran. Idazten ere asko saiatzen giñan, neuk nekien maillan. Kontuak ateratzen ere bai: *suma*, *resta*, *multiplicar* eta *dividir*. Gaur beste deitura dute oiek baiña.

–Utsaren truk ematen al zenien erakusketa?

–Alatsu. Illaren akaberan pezeta batzuk biltzen nituen, bai. Esango dizut au ere. Nioen bezela pezeta batzuk kobratzen nituela-ta, errian udaletxean enteratu ziran nunbait, ez dakit bide txarrez edo nola. Ez dit ajola. Nik ez diot iñori gorrotorik. Senarrak zerrategi batean lan egiten zuenez, puntuak geneuzkan: senarrarenak eta umeenak. Ba, kendu egin zizkiguten. Ederki etortzen zitzaikidan, ba, duro bakar aiek, illaren azkenean. Ala ere, zoriontsu.

–Soro-lanik egiten al zenuten?

–Bai, orixe. Baratzeaz gain, artoa eta garia ereiten genituen. Ori bearrezkoa zitzaigun. Orduan, alea errotara eramaten zan, iriña egiteko. Eta, jakiña: ogia, arto errea eta taloa, etxean egiten genituen. Iru jaki mota oiek gure familian asko erabiltzen ziran. Baiña gerraondoko urte zail aietan, gaizki pasa genuen. Guk eta beste askok.

–Errotara bidean...

–Bai. Errotara bidean kontuz-kontuz ibili bearra zegoen. Arrapatzen bazinduten arto, gari edota iriñarekin, kendu egiten zizuten. Astoarekin ere zenbait giro umeletan ezin zan eraman. Anka-marketatik antzematen zuten errotara nundik joan ziran. Gure Bixente zanak zenbat aldiz egin zuen gauaz alea eraman eta iriña ekarri, bizkarrean zakua artuta mendiz, Aizarnazabal-

go Erreuzta errotatik. Afalduta irten eta egunsentirako etorri irin pixka batekin. Gosaldu eta lanera. Eskerrak gizaseme indartsua zan. Eta ni pozik, Nikolas, etxean iriña nuenean.

–Eta igandeetako meza ondoko jira ura ere...

–Oso polita zan neretzat. Eltze aundika bat salda ederra egiten nuen beti. Gure sukaldetxo artatik bazan leio bat zimiteriora, eta bada orain ere. Leio artatik zerbitzen nuen jendea. Meza ondoren, salda bero ederra franko ematen nion jendea-ri. Lukainka-mutur ederrik ere bai, baso ardoarekin. Berriketaldiak egin, eta urrengo igandea arte. Orrela ere pezeta batzuk biltzen nituen patrikara. Ez ziran gaizki etortzen astea pasatzeko. Orrelaxe pasa nituen Elkanon neure ogeita bost urte zoriontsuak, Nikolas.

–Bejondeizula!

–Gero, Zarautza bizitzera jeitsi giñanean, auzoko neskato batek artu zuen bertako seroratzat. Ura ere Karmen. Mari Karmen txo esaten genion. Bere izen-deiturak: Maria Karmen Larrañaga. Oraindik gaztea da.

–Bai. Ezagutzen det; nere koiñata baten aizpa dalako.

–Zoriontzen det, nik zaindu nuen San Pedro elizako seroratzat zintzo betetzen ari dalako.

Jakin ezazu, ba, Karmen, oso pozik sentitzen naizela, zuk ogeita bost urtean zaindu zenuen eliza artan, 1989an, eliza berritzearen elizkizunean, meza-garaian, orduko gotzaia zan Setien jaunaren ondoan bertsoan aritzeko zoria izan nuelako.

Eta, berriro ere, aupa, Karmen. Eutsi goiari!

El Diario Vasco: 2006.07.05

Nere baitan

Ementxe geratuko nauk: Lizarraga gaiñeko bordetan. Auroa baztertu dezadan.

Txaketa eta makilla artuta, ea ba norabidea artzen dedan. Ba, oraindik goizeko bederatziak dituk, eta Andimendi pausokatu dezadan. Eta eguerdi alderako Ritxar artzai zaarraren bordara iristen banaiz, ardo freskoa zaatotik eta gazta ona ziurtatuak zeuzkaat.

Bejondaiala! Oni deitzen zaiok ibilladia antolatzea.

Goizeko iintz legea bapo xurgatu dik indarrean datorren Lorentxok. Berotu bear dik gaur, arraiopola!

Kirkirrek ere garaiz eraso ziotek dakiten orretan. Umore-punttua sortzen didazue, xomorro kantari arraneok. Ez gaituk gaizki abiatu. Kontxo! Elorranantzak orandik loretan... Ez al da berandu? Ekainak lau badizkik, ba, gaur.

Or arunzkaldeko zuaitz bakar oien itzalak estimazioa izango dik gaur. Dagoeneko ganaduak asi dituk itzal billa. Oiek tontotik gutxi ditek, mutillak! Gaueko freskuran larretu eta egunez itzalean lo, isatsekin euliak kenduz. Txaal koskorrek ere dagoeneko ikasi dezue aundien dotrina: noiz joan eguzkitara eta noiz itzalera.

Toux, toux! Txiau, txiau! Ño! Begiak argi dauzkazue zuek. Badaezpada ere, ez nadin geiegi gerturatu. Bestela, korrikasaioren bat egin araziko zidatek auek.

Jarraitu dezadan aurrera, neuri ere itzalean geratzeko gogo sartu baiño leen. Bero dek, mutillak!

Zenbat beor dagoen tripa aundituta, umea egiteko, alajaiña! Moxal ederrik ere bai. Oiek abere politak! Zenbat denbo-

ra pasa leikeen zuei begira! Beltxak, gorrixtak, gaztain-kolo-rekoak, pintoak, gris arreak, kopetako izar txuriekin... Batzuk anka-muturrak ere bai. Nola aspertuko nauk, ba, zuei begira?

Ara berriz! Au ere ikusi bear genian! Begira dezadan ondo, urruti samar zegok baiña... Izan ere, betaurrekoak autoan laga dizkiat, ba, nik. Baiña bai: moxala etzanda, tente dagoen bere amari esnea edaten, alajaiña! Iri bi gauza on ematen dizkik batera ire amak: esne-tragoa eta itzala. Mendiak gorde ditzala.

Argazki-kamera ekarri banu, bizitzan aterako nukeen argazkirik politena ateratzeko aukera banian. Urrengoan bear ko dik.

Bazterrei begira denbora geiegi pasatzen ari nauk. Martxa ontan ez natxiok iritsirik Ritxarren bordara.

Bi zaldi aiei ere begiratu bear ko zieat, ba. Ño! Aiek argazki zatarragoa ditek. Burrukan, alajaiña! Ori dek tentetu bearra. Ori dek elkarri ozka egin bearra.

–Eee! Zer dezue? Fuit, fuit!

Nere txistu-otsari kaso egingo ziotek oiek. Ez ditek aurre-ragoko lanik. Gertuan dezuen beor gazte ori iel ez balego, ez zenuten burrukan zertan eginik. Baiña orra abereen eta animalien arteko legea. Borrokan irabazle irteten denarentzat paotxa. Au ez da abereetan bakarrik gertatzen.

Burruka eta jolasa elkarren gertu izaten dirala abere artean, eta ez da gezurra. Biak ikusteko zoria izan dek gaur, i, aspaldiko partez.

Beno, ba. Elorrantza aundi onen itzalean eserita, jan dezadan ogiartekoa. Auek dituk ikusmenak, auek!

Kontxo! An arunzkaldean ikusten dan sakoneko urdinune ura ur-putzua ote da? Gaur eguerdiko beroarekin, zenbat balio ote du ur sail orrek, mendi ontako abere, ganadu eta ardientzat?

Ara! Dagoeneko abiatuak dituk bakar batzuk ura edatera, zuaizpetik irtenda. Ara, geiago ere bestaldetik! Denak batera egarritu ote dira? Ala ordua ote dute tabernara joateko? Andik eta emendik dozenaka, alajaiña! Oiek denak non ezkutatuta ote zeuden?

Ori dek, ori, edertasuna ur-putzu aundi eta borobil ortan, jira guztitik ura edaten ainbeste abere! Auxe ere a zer argazkia dan!

Ara, ara, presaka joan dan beor txontxon ura, berriz, nola sartu dan muturrez aurrera uretan! Aurreraka sartu aizena-eta, irten ezan atzeraka.

Ez ditek denbora asko pasa tabernan, alajainkoa eta bi! Edan, eta martxa talde bakoitza bere bidetik zuaizpera berriro. Ez zerate gaizki geratu, alajaiña, itzalean siesta botatzeko.

Orain agertu diran txori beltz auek, berriz, zer ote dira? Mendi-bele txikiak, txii eta txoo. Ganaduek eta abereek goiz-larrean egin dituzten pastelak eta krocketak aztertzeraz etorriko ziñaten. Zuek ere emengo parrokiarioak izan, nunbait.

Noalarik, noalarik, begi bistan diat, ba, artzai-borda. Goiari eldu bear oraindik ere. Baiña Ritxar etxean zegok; tximiniatik kea irteten dik beintzat. Txakurra ere ageri dek. Bi zaunka eginda badatorkidala.

–Xarpa, arraio-arraioa! Ezagutu nauk, e? Bestela, ez in-tzan bidera aterako. Ori dek mingaiña, ori! Iretzat ere leor eta bero. Freskatuko gaituk gero. Goazemak ire nagusi orrengana. Ea zer dioen.

Orain ere leengo lekuan zegok zuen borda santu ori: urru-ti. Zaartzen ari nauk, Xarpa, zaartzen. Leen, errezago igotzen ninduan emen gora. Baiña eldu gaituk alako batean, pufaaa!

–Ago isilik, Xarpa.

Ez ezak zaunkarik egin. Neronek egingo zioat-eta.

- Ieup! Ba al da emen iñor-edo?
- Joñooo! I al intzen? Zer demonio ote zan, ala ere; zakur-
rrak zaunka xelebreak egin zetik-eta.
- Orduan, lagunak edo gizonak bereizten badaki?
- Asi adi adarra jotzen eldu orduko. Pasa adi barrura eta
eseri.
- Zer giza larru zaude, ba, Ritxar?
- Ikusten dek: arkume-iztarra erretzen ari nauk. Zer? Usaia
artuta etorri al aiz?
- Ez. Kea ikusita. Gaiñera, txakurra bidera atera zait eta
gonbidatu bezala egin nau.
- Bai! Erdi bertsolariok orrela itzegiten dezue, eta askotan
suerteko izaten zerate, gaur bezelaxe.
- Ondo diozu: erdi bertsolaria.
- Eseri adi or, eta torik zaatoa.
- Bejondaizula!
- Bi otordu banizkian arkume-iztar onekin, i etorri ez bain-
tzan. Eta orain bakarra. Portatu aiz.
- Zure umore orrek ez du gutxi balio.
- Zeozer esan bearko diagu, ba. Emen zakurrak besterik ez
zauzkaat itz egiteko.
- Ba, gaur beste bat geiago badezu, ba.
- Ogia ebaki benik egin ezak, gizona; jaten asteko moduan
gaituk-eta.
- Orrela bada, eseri zu ere. Eta on daigula.
- ...
- Mendi leor samarra daukazue.
- Bai. Ia bi illabetean ez dik euririk egin. Goizean, gauean
eta illunabarrean, saiatzen dek ganadua larrean.

–Bertso ona. Bai eguerdian ura edaten ere. Abere taldeak ikusi ditut ango ur-putzu artara joaten.

–Baditek aren bearra, guk orain zaatoarena bezelaxe.

–Ez gaude kejatzeke moduan, gizona. Ez al da agortzen ur-putzu ura?

–Ez. Nik ez diat iñoiz agortuta ezagutu.

–Ori da, ori, mendiaren aberastasuna! Eta jakin al liteke zenbat ardi dauzkazun?

–Gutxitzen nijoak. Leengo urtean ere mordoxka bat kendu nian-eta, zaartzen ere ari nauk-eta.

–Banekien galdetzerako ere leen aiñean lagako ninduzula. Leengo lepotik daukazu burua... Orain lan askorik ez dezue edukiko artzaiek?

–Oraindik gazta bakar batzuk egiten dizkiagu, baiña bai. Emendik aurrera, bost bat illabetean, kosta bear zaik ni baiño obeto bizitzen.

–Pozten naiz, gizona, neu baiño obeto norbait bizi dala jakitean. Bejondaizula! Eutsi erronka orri. Emen zurekin ego-tea gustoa da, baiña beeraka abiatzeko ordua ere badet. Bostak jo dute-eta.

–Nai dean bezela. Nik ez aut bialduko.

–Kontu mordo bat esan degu, eta urrengorako beste batzuk laga ditzagun.

–Tximiniatik kea ikusten deanean, berriz ere etorri, eta ez zaik damutuko. Eskerrik asko bisitagatik, eta etorri aiñean baoa.

–Luzaro lagun daizula umore orrek. Aio. Eutsi goiari, Ritxar.

...

–Lagunduko al didak, Xarpa? Banijoak.

Beno. Orain bertsoan egiñez jeitsi nadin beealdera. Gora-koan baiño giro ohea zeukat-eta.

Ñoo! Asi dirala, asi dirala ganaduak eta abereak larreetara ateratzen berriro. A zer illunabarra bota bear dezuen gaur.

Denak goraka zoazte. Goiko tontorretara, arkaitz gaiñeretara, askatasun osoz. Eta lasterka-karrerak egiten dabiltzan moxal oiek, begiz ikusi litezkeen gauzarik politenak. Au naturala dek, mutillak!

A zer musika-otsa daukazuen! Tulun, tulun, tilin, tulun, tulun. Zuei begira aspertu ezin, eta etxera joan bear al det? Zeru izena zerbaitek merezi badu, onetxek merezi dik.

Zazpi edo zortzi artalde ere ageri dituk an-emenka. Zeiñen airoso eta pozik ikusten diran, gaiñera, illea moztu berriak-eta. Gaurko illunabar gozo eta dotore onek ille ondoko azku-reak sendatuko dizkiete.

Agur, Andimendi.

Zer olerki egiten dituzte olerkariak?

Zer margotzen dute margolariak?

Zer idazten dute idazleak? Zer ipuin? Zer nobela?

Zer filmatzen dute pelikula-egilleak?

Atozte onuntza.

El Diario Vasco: 2006.09.27

Perretxikuak

Badakizue zer itz esan degun? Perretxikua. Gaur egun esaten dan bezela, janari *preziatua*. Landatu gabe gure lurrak ematen digun janarietako bat. Eta nolakoa! Bere garaiak ditu.

Udaberriko zizak. Leku batzuetan *zuzak* deitzen diete. Nere ustez, perretxikurik finenak. Perretxiku zuria, usai ederrekoa. Ez da nunai izaten dana. Leku jakiñekoak oi ditu geieanean. Eta leku oien berri dakienak isilik gordetzen ditu. Lagun aundia izango dezu, baiña ez dizu esango. Izugarrizko salneurriak eragiten dituen da udaberriko ziza. Naiko denboraldi motza da berea, eta orduan saiatu bear.

Gogoan det, mutikoak giñala, anai gazteagoa, Joxe, eta biok Urdanetatik etxera lasterka gentozela, meza nagusian izanda. Luzatu zitzaigun, nunbait, uste baiño geiago pelotan, askotan bezela, eta gero belar-zelaietan barrena presaka etxera, anakak burutik gora jasoaz.

Ura ezusteko ona! An egin genuen topo ziza sail zuri-zuriarekin. Eiza-zakurra oillagorrari bezela geratu giñan biok. Nunbait, iñork ez zekien ziza-leku aren berri. Zizalekuak aldatu egiten bait dira batzuetan. Eta beste leku batzuk, jakiñekoak, nioen bezela.

Bada, etxera etortzeko presak alde egin ziguten, ziza-zuri sail artara eldu giñanean. Dena zuri, metro eta erdi inguruko sailla. Izketa aldatzea da, baiña zera gogora arazten dit: Valentziatik ia Benidorrera iristean, an eskubi aldean ikusten dira, ba, mendiak etxe txuriz jantziak... Bada, uraxe gogora arazten dit.

Soiñean generamatzan arropa guztiak bete genituen zizaz. Arraiok ez badu, ez giñan otzanak iritsi etxera. Ez genuen beranduagatik errieta jaso beldur aundirik. Ez orixe!

–Nun billatu dituzue?

Eta irriparre isila.

–Leendik ba al zenekiten lekuaren berri?

–Leen, ez. Orain, bai.

Mutikoak ortik onerakoak giñan, ba, sekretuak gordetzen.

Baina arrigarria, leku artan ez genuela geiago zizarik jaso. Lekualdatu egingo ziran akaso.

Geure etxeko sailletan ere bagenituen ziza-lekuak jakiñekoak. Intxaur-soro deitzen genion sagastiko zelaian ere, betiko ziza-leku borobilla bazan. Ziza dagoen lekuan, belar illuna izaten da. Batzuetan, barrada luzean; baiña geiengan, borobillean. Gure ziza-leku zaar aren berri, ingurumari guztiak zekiten. Uste det denak gu baiño azkarragoak zirala.

Goazemazue orain uda eta udazkeneko perretxiku koloredunetara.

Gogoratuta ere! Urkitxikitako pagadiko gibelurdiñak, Txailurretako ariztiko ziza oriak, Sagarmanetako borda aldeko onddoak, eta guzti oietako kuletoak!

Guk ezagutzen genituen perretxiku motak, aipatu ditudan oiek ziran. Bearbada, gure alderdian geien jaiotzen ziranak. Perretxiku fin eta seguruak. Baita ere garbiak.

Eta dakizuen: zuaizpe denak segatzen ziran ezkerre, baso garbiak. Perretxikuak urrutira ikusten ziran. Izketa au aterata, nere lagun batek leengoan ala esan zidan:

–Bai. Orain ere, naiko urruti ikusten dizkiagu.

Arrapa ezak.

Aipatu ditudan inguru aietara belar-lanetara joaten giñanean, atzaparkada bat edo bi perretxiku gabe ez giñan etxeratzten. Bidean goazela eta gentozela ikusten genituenak artu eta etxera.

Gu ume koskorrak giñan garaian, bazan Plaentxi deitzen genion aitona iar bat. Udako perretxiku-egunetan, amaika besaotarkada perretxiku eder eramana, nioen baso oietatik. Aitona iartxo bat, betaurrekoak, txapela txiki bat kaskoan, eskuan makilla, eta besaotarra besoan artuta. Oso ezaguna zan gure baserrietan. Iñork ez zion egiten errietan.

Plaentxiarra omen zan bera, eta Plaentxi deitzen ziotela. Orain, Soraluze da erri orren izena. Bearbada, Zarautzen biziko zan. Goizean, gu jeikitzearekin bat, gora pasatzen zan taka-taka. Eta amarrak aldean, beera tapa-tapa, bere besoan otarkada perretxiku zuela.

Beste oñatiar bat ere tarteka etortzen zan. Ondo zainduko zuten perretxiku-giroa. Esan oi dan bezela, beraiek ere a zer nolako perretxikuak!

Garai batean ez zan gaur ainbat
marisko edo marisku,
baiña zuaizpe garbi aietan
nai ainbeste perretxiku.
Arranek ezik saiatua zan
Plaentxiako Patxiku.
Ura bakarrik balitz gaitz erdi,
ta Oñatiko Txantxiku?
Aitortzen zuten: “besteenetik
biltzen onenak gatzik gu”.

Ondo egiten zuten. Zer arraio egingo zuten, ba? Zegoen lekutik artu. Jakiña, ba.

Gaur egun, perretxiku onddoari ematen zaio fama edo onenaren izena. Baiña gibelurdiñ, ziza ori eta aietxek berdin-tzekorik ere... Ni ez naiz oso jakintsua baiña.

Orain, berriz, perretxikuak aziarekin ereiten omen dituzte. Orretarako leku bereziak prestatu eta nai dan bezelakoak, gaiñera. Eta nai adiña. Baiña udazken aldera euri-jasa epelaren ondoren goroldio artean pagopean irteten dira aien gustorik dutenik ez degu lortuko aziarekin ereindako perretxikuetan. Lurrak ematen duen ari laga pakean, mutillak.

Arriskua ere badu perretxikuak. Ezagutzen ez bada, ez da jan bear. Badira perretxiku txarrak janda gaizki ibiliak. Ildakoak ere bai, zoritxarrez. Beraz, kontu aundiz ibili bear da or.

Orain kontatu nai dizuedan au ere gertatua omen da.

Ba omen zan koadrilla bat oso perretxiku zalea, eta bildu dute egundoko pillak.

–Beno. Biar larunbata. Biar bertan jango dizkiagu alako ostatutan.

–Konforme.

Ostatu artako amona, oso perretxiku-prestatzaille ona.

Ala, jarritako orduan inguratu dira maaira eta:

–Amona, ondo al dijoa ori?

–Bai, baiña itxaron pixka bat.

–Bitartean, letxuga batzuk eta tomatea jarri.

–Segituan.

–Eta, amona, badaezpada ere, perretxikuak probatzeko eman katuari, ea kalterik egiten dioten. Txarrik baldin bada-go, katuari azkar eragiten omen dio-ta.

–Ori ere egingo dizuet, ba –amonak—. Auexek fiakaitzak!

Pare bat kutxarakada eman dizkio amonak katuari, eta bai jan ere. Utsa aiñean geratu uan sukaldeko katua.

Ala, ari dira afaritan lasai eta umoretsu; edan ere bai bear bezelako bi.

–Zer, amona. Katua ondo al dago?

–Katua ondo zegok. Zuek ez zerate ondo egongo laster, orrenbeste botilla ustutzen badituzue.

Zer pasako eta, gauerdi aldera, asten da katu ori “maau” eta “maau”, aruntz eta onuntz. Orduan komeriak! Asi dira estutzen. Biotzetik justu samar zebillena ere ba omen zan, eta gizajoa ankaz gora sustoarekin. Besteak komunera, beatza eztarrian sartzera, botatzeko...

Eta amona ere beldurtu da. Esnea ona dala bota arazteko eta jarri du su gaiñean epeltzen pertzakada esnea. Edan arazi diete denei. Ango esne-edatea, noski! Amonak urrengo egunean mostradorerako kafesneak egiteko zeukan esnea zurrupatu dute, eta ango teatroa!

Bitartean, nagusiak erritik medikua eraman du eta zera: iru katakume jaio zirala eskaillerapean. Katua umeak egiteko zegoen, nunbait.

El Diario Vasco: 2006.10.20

Atera ditut, ba, baimenak

Bada esaera: zaartzara, txoratu edo umetu egiten dala gizona. Eta zerbait izango da.

Ainbeste urte or pasa ditut eizara joateko baimena atera gabe eta eiztatzeari lagata eta orain, lanetik erretiroa artu dedanean, ego-aize pittiniñen bat kaskora igo, nunbait.

Etxekoek ere burua berotu didate, bai:

–Leen esaten zenuen lana lagata ezin zala eizara joan. Argatik laga zenuen. Eta orain, zer? Tontotzen ari zera ala?

Eskopeta ere erosi egin bear, eta zertarako? Xalbador bertsolariak zioen bezela, etorriko ez diran usoei begira egoteko?

Emazteak ere kontu berdiña:

–Orain, astia badaukazu, eta joan zaitez, gizona, lasai eizara. Artara, etxean enbarazu gutxiago egingo dezu.

Emakumearen kontuak. Gero, etxeko atea ireki orduko:

–Nora zoaz?

Guardia zibilletara ere joan bearra. Zalea nauk, ba, ni oiengana joaten! Medikuaeren agiria ere bear dala; eta, ark, berriz, betaurrekorik gabe ez dedala eizarik botako. *Permiso de arma* atera gabe ezin dala eskopeta erabili, zera, gizon berde oiek.

Besterik ba ote da? Bai: eizarako lizentzia eta segurua. Besterik? Uso-txosnen zozketarako txartela.

Jakin banu ainbeste gauza bear zala ezer ez botatzeko, bereala asiko ninduan txorakeria auetan!

Uztapide zaarrak Eibarren kantatu zuen eskopeta ura bear-ko nuke orain. Puntua jarri ziotenean:

Eibarren egiten da
eskopeta fiña...

Onelatsu zan:

Neronek ere badet
ementxe egiña.
Zarra dago, badauka
erdoi ta zikiña.
Oker tirata ere
botatzen dakiña.

Arrapa ezak!

Azkenetako, nolabait jarria naiz beintzat reglan, gizonak bezela. Txaleko, kartutxo eta guzi. Ez da gutxi.

Pilarika, Amabirjiña garotakoa, inguru orretan asi giñan, bezperatik illunabarretan, uso-txosnen zozketara joaten. Eta leengo egunetik, oztopoak. Emazteak:

–Aizu, ez gero pentsatu eizara joaterik, e? Aaztu al zaizu biarko egunaz ezkondu giñala: Pilarikaz? Eta ori aaztu bazai-zu ere, ni Pilar naizela?

–Baaai.

Neri zozketan txosna tokatzerako, uso geienak pasako zirala uste nuen. Baiña, alako batean, badedala urrengo goi-zerako bost zenbaki duen txosna.

Eiztari batentzako
betiko limosna
uso-pasa eder bat
litzake, gizona.
Biarko badegu bost
zenbakidun txosna.
Ea botatzen degun
launa edo bosna.

Lagunek zioten:

–Ño! Puesto ona dek. Denak ortik pasatzen dituk.

–Orduan, ez dek ona. Denak pasatzen badira...

Baiña arrazoi zuten. Nigmatik geienak pasa bait ziran. Aiek jakin nere berri!

Badakit ni eiztari txarra naizela, baiña ezustekoak ez ditut orregatik eraman. Bai zera! Goizean eguna ondo argitu arte, ezin dala tiro egin. Egunsentian oillagorra pasata, tiratzerik ez. Ontza makal-makal etorri, uraxe botatzeko moduan, eta beste txosnan zegoenak:

–Ee, ee! Ez gero tiro egin orri. Ez zegok botatzerik.

–Ez zekiat botako nukeen, baiña ederki apuntatuta nitxaukan, ba.

Zozo beltza ere neure burua jo bearrean pasa, eta ezin zaiola tira: babestua dagoela. Gabirai txikia ere txosna parean, goian, ego-txabal eta geldi, neuri parrez. Jainkoagatik ez tiratzeko; bestela, kartzelara joan bearke dedala.

Au dek marka, au! Miru aundi oiek ere bi metroko egoekin bazetozen mantso-mantso. Aietzek errez apuntatzen, eta gustora tirako, baiña oiek denak babestutako egaztiak zirala-eta, kuido! Orrela aolkatu ninduten ingurukoek.

–Zer arraiori tira bear zaio, ba?

–Usoei, birigarroei eta kaztarroei bakarrik.

–Eta oiek noiz etorriko dira?

–Pazientzia, gizona, pazientzia.

An-emenka tiro batzuk entzuten ziran, baiña neuk ere zerbaiti, danba!, tira nai, ba.

Ala gaudela, auto jeep letradun bat agertu zan. Eta beste txosnetakoak asi ziran, ee, fuit-fuit, txistuka.

–Guarda! Guarda datorrela!

An abiatu zan txosnaz txosna agiriak eskatzen eiztariei. Neregana ere bai. Badaezpada ere, alboan pasa eta ez zan joan urrengo txosnakoarengana...

–Egun on. Paperak, mesedez.

–Zer paper?

–Arma-baimena eta eizarako lizentzia.

Nolabait eman nizkion, eskuak dardarka nituela. Eiztari berriaren tankera neukala, alajaiña. Ain nabarmena ote nengoen? Oztu, aspertu, gosetu... Eseri eta ogitartekoa joango diat, ba. Eta gero gerokoak.

Beste txosnetakoek, fiu-fiu,fiu, uso-txistua.

–Ee! Usoak datozela! Gorde ondo!

Denak makurtuta, isilik.

Baita neu ere: zalapartaka gorde nintzan, ogitartekoa nora bota nuen ez nekiela. Ez nuen usorik ikusten; baiña itxurak egin, egin bear.

Batzuei etorri zitzaizkien, bai. Baita bota ere bakarren bat edo beste. Baiña uste det mendi artako eiztari denak tira zituztela tiroak uso bakar aietara. Nik ez beste denak. Ura tirripitarrapa! Ori ez zan okerrena. Eskuetatik galdu zitzaidan ogitartekoa txakur txiki batek eraman zidala. “Alu arraioa! Ik ere antzeman al didak eiztari berri samarra naizela?”.

Orrela zijoazen eizako nere egunak.

Etxera etorritakoan ere, galdera jakiñak:

–Gaur ere altu pasako ziran? Ala sasira erori?

Baiña leengo egunean, uso dezente zan artan, tiro batzuk egin nituen. Baiña ez dakit merezi ote duen ere orrela txosnetan egotea. Batzuk, uso-txistua errespetatzen, ondo gordeta; eta beste batzuk, birigarro ziztrin oiei tiroka.

Usoak nola sartuko ziran, ba, tirora? Tontoak dituk, ba, oiek. Gero, denak elkarri errietan. Baiña tira! Oraintxe errietan eta oraintxe berriketan.

Badakizue zer dan goizean goiz joan eta otzak akabatzen egon eta azkeneko orduan, tirora datozenean, beste batek birigarroari tiratzeagatik, usoak alde egitea? Eta zenbat aldiz orrela.

Ala ere, ez nago keitzeko moduan. Bat botatzeko suertea izan det.

Leengo asteko goiz eder aietako batean, bi ogitarteko artuta joan nintzan, badaezpada, txakurra etorrira ere. Egun osoa pasatzeko asmoz, prosa au idazteko koadernoia eta arkatza ere eramán nituen.

Eguerdi aldean, beste txosnetakoak alde egin zutenean, nere artean: “ba, orain mendi osoa nerea dek”.

Orain irakurtzen ari zeran prosa au idazten ari nintzala lurrean etzanda, oartu nintzenerako, uso mordoa buru gaiñean pasatzen. Isilean esan nion nere buruari: “mugitu, motel”.

Iru tiro tira nituen, makalagatik. Aurrekoari apuntatu eta atzekoa erori. Eskerrak bat baiño geiago ziran. Bakarra izan balitz, neregatik an joango zan.

Gero, bere billa beste ordubete pasa nuen sasiartean. Ala ere pozik, etxera usoarekin joan nintzalako.

Etxekoak ere, arrituta:

–Ooo! Zu usoarekin. Besteren batek eman dizu.

Edota:

–Biar euria egingo du.

Akilino Zepai bertsolaria ere eiztari amorratua omen zan. Batez ere, uso-garaian. Beingo batean, uso bat gerrian zuela etorri omen zan etxera: ostatura. Idiazabalén ostatura zuen, ba, Zepaik. Eta ostatuan zeuden lagunek:

–Zer? Asko pasa al da?

Eta:

–Au ez beste denak.

Nik ere orrelako zerbait esan bearko det.

Baiña ez al det ohea baimen-paperak gizon berde oiei erregalatu; txaleko eta kartutxoak, lagun bati; eskopeta erosita-ko erdi prezioan saldu; eta eiza-garaian, Ordiziako azokara joan-etorri batzuk egin? An baditut ezagunak. Ostaturen batean ondo gosalduta; eta saltzen dagoenetik erosi eta kito: uso, birigarro, oillagor edo perretxiku.

Orixe egin bearko det.

Eiztari txarra nintzan,
noizbait ontzekotan:
zuzen apuntatzea
beti gerokotan.
Lotsa ere ematen dit
jarraitzea ontan:
leenengoari tira
eraitsi asmotan
eta azkenekoa
eroritzekotan.

El Diario Vasco: 2006.10.31

Aiek bai eztaiak!

Aiei esaten zitzaaien eztaiak, aiei!

Ea, ba, ondo kontatzen ditudan aspaldi aietan gure base-
rrietan nola egiten ziren ezkontza-etzaiak. Ea txukun samar
moldatzen naizen.

Edozeiñek esango du: “Nikolas, orain ere, leengo base-
rrietako kontuekin zetorrek”. Bai, orixe! Ni angoa naiz, eta
damurik ez, gaiñera; ogei urte nituenetik kalean bizi banaiz
ere.

Gu jaio eta azi giñan lekua baserria zan. Jaio, medikua
garaiz iristen bazan, beraren laguntzarekin. Eta bestela, auzo-
rik gertueneko ama edo amonaren laguntzaz. Baserri bakoi-
tzean, sei, zortzi edo amar ume. Ez, orain bezela, zera: ume
bat edo bi geienez izateko, errezydentziara egun bat leenago-
tik, dozena-erdi bat maleta artuta, auto ederrean.

Au guztia ezagutu eta bizi izan genuenok, nola ez aipatu
garai artako bizitzeko erak eta oiturak?

Garrantzitsua izaten zan maiorazkoa etxera ezkontzea.
Semerik zaarrena, alegia. Baserrirako etorkizuna ala zalako-
an, noski. Gurasoak zaartzaroan jasoko zituena bera izaten
bait zan. Abizenak ere ala jarraitzen zuen belaunaldiz belau-
naldi. Eta, jakiña, berriro ere umeak zetozen sukaldera. Leen-
goak artean izango ziran oso aundiak ez ziranak. Tarteka ger-
tatu oi zan osaba edo izeba baiño illoba zaarragoa. Ura dek,
ura, pulamentua!

Ala, baserria maiorazkoa eta bere emaztearentzat izaten
zan, gurasoak galtzen ziran garaian. Orrexegatik, inguruetako
neskatxek maiorazkoei begirada politagoak egiten zizkieten.

Eta ondorengo senideak, baso-lanetara, morrontzara, neskame edo, fabrikatxoren bat inguruan baldin bazan, ara. Besteak, itsasora arrantzara.

Orrela banatu oi zan senide taldea. Jakiña: esku-utsik ez giñan ateratzen garaira eldutakoan. Txanpon batzuk izaten ziran. *Dotea* deitzen zitzaion. Ni ere ez bait nintzan maiorazkoa.

Bereala andre gaztea izango zan neska ark, ezkondu baiño egun batzuk leenagotik, bere gauzak senargaiaren etxera eramaten zituen, idiekin eta gurdiairekin: *arreo*a deitzen zitzaiona. Idi pare ederra eta itzai ona.

Gurdikada aundia zuena, arreo ona zuena alegia, egunez joango zan denbora-pasa, bazter guztiei erakutsiz eta bidean aurkitzen zituen guztiekin geratu eta kontuak esanez:

–Gure alaba etxe onera ezkontzen zaigu-ta, ezin ba arreo parregarria eraman.

Baiña baserri denak ez ziran etxe onak. Eta denak ez zuten arreo ona eramaterik izaten. Alakoetan, pixka bat ezkutuan eramatea ohea zala iruditu oi zan: gauaz edo bideetan jende gutxien zebillen garaian, naiz eta ezeren lotsarik ez zuen eta iñungo jenderik onena izan.

Au ere gertatua da, diotenez. Badakizue leengo baserri geienetan aitona arotzak bazirala: mandioan etxerako arotz-lanak egiten zituztenak, orain ainbeste erreminta aukerarik gabe. Zerrotea, aizkora, ginbeleta, taratulua eta... aitonak berak ainbeste urte zituen metroa tolestatuta patrikan. Orrela jardun oi ziran praktikan.

Etxe artan ere aitona arotza, eta ala dio ezkontzera zijoan billobari:

–Maitxo, ez adi estutu. Nik egingo diñat oea gaztain-egurrekin, eta amonak egingo omen din ardi-illezko koltxoi biguna. Ez den, ez, lotsa aundirik eramango oan lekura.

Gaurko Pikolin eta latexak adiñakoa izango zan ura. Baiña aitonari gauzak gaizki atera.

Gauaz zijoaztela, gurdia irauli zaie ipurdiz gora, eta ango istilluak! Orduantxe bidean gora eta beera, jakiterik nai ez zan aietako bat edo beste ere. Denak orain pasa bearko ziñetenan. A zer deabrukeria!

Ezkontza gerturatzen zijoan aiñean, inguruetan marmarrak ere sortzen ziran. Batez ere, emakumeen artean:

–Azkenean ezkontzen dirala, e?, zerako Manolita eta Goi-koetxeko Moxolo...

–Bai. Sekula katillurik puskatu gabeak dirala dirudi, eta ezkondu bearrean omen ditun.

–Baziñenan garaia. Elkarrekin zortzi bat urte bazeramaz-
kiten-eta.

–Zer koloretako trajea ote din Moxolok? Neskak, gona fli-
satua eta txaketa omen dizkin, zapata takoi altuekin.

–Baita zera ere! Asmatuko al din, ba, Manolitak takoi
altuekin ibiltzen? Zera: gu bezelaxe abarkekin oitua zegon-eta!

–Beste aien arreo bezela, erortzea zeukan ipurdiz gora
eliz atariko armailletan.

–Gonbidatuko ote gaituzte eztaietara?

–Eta zer arroparekin joango gaitun?

–Zerbait erosi egin bear; izan ere, oraingo ezkontza-eztai
auek ingurukoei gastua egin arazten zioten.

Badakizue: emakumeen kontuak.

Zenbaitek galdetu lezake: “andregai ez al zan, ba, zuriz
janzten?”. Bai, zera! Soiñeko edo gona eta orrela, gerora ere
janzteko modukoa. Aurra izateko jartzen zanerako, gerrian
lasaitu zezakeena, eta orrela. Zer uste dezue, ba; dirua nola
egiten zala.

Ezkontza, goizean garaiz egin oi zan, bi familietako aita-amak eta etxeko beste norbaitzuk, apaiza eta sakristauarekin. Gaiñera, ezkontza aiek betirako izaten ziran. Iraupen aundikoak.

Bein, joan omen zan, bai, bikote bat, ezkondu eta amar urtera, ezkondu zituen apaizarengana, elkarrekin aspertu egin zirala eta ea bananduko zituen eskatzera.

–Bai, bai. Goazen elizara.

Jarri ditu leen ezkondu zituen aulkian eserita eta eraso dio ur bedeinkatua botatzeko burni kirtendun aundi batekin, buruan jotzen txandaka, kank eta kank, gero eta indar andiagoz.

–Ai, ai! Baiña, jauna, akabatu egingo gaituzu.

–Ez al zerate, ba, etorri banantzera?

Ai, Jainko potoloa! Orduan ez zegoen gaurko konturik zera, txo!

Dana dala, goizeko ezkontza ura amaitzean, tabernaren batera joan eta ondo gosalduek edo bazkalduek zuten; eta etxe-koak, berriro baserrira lanak egitera, egun guztia galdu gabe; eta ezkonberriak, iru-lau egunerako dia kanpora, trena-edo artuta.

Esan besterik ez zegoen, an, egazkiñean illabeterako Kubara joan nai zutela.

Ezkonberriak kanpoan ziran bitartean, asten ziran etxean eztaiak prestatzen, astebururako: etxe-jirako sasiak moztu eta mandioa garbitu eta txaal koskor bat il eta...

Sapaiko belar pillan idi-mantak ere zabaltzen omen ziran badaezpada ere; etxera eramateko gurdikada aundiegia artzen zutenak ere izaten bait ziran. Bai, ba. Mandioa bete jende gonbidatua, eta ainbestetatik norbaitzuk txispatzea ez zan arritzekoa izango.

Eta oorezko maaia, dena bat: mandioan aldenik aldekoa.

Larunbatean ezkonberriak zetozeneko, dena prest.

An etortzen ziran taldean, larunbat eguerdi aldera, bidean gora: ezkonberriak, aurrean, elkarri eskutik edo besotik elduta; eta besteak, ondoren.

Soiñulari xebreren bat ere izaten zan tartean, tibiri-tibiri. Etxafuego edo suziriak botaz bide-estratetan gora, ango kea eta zalaparta! Udaberria bazan, bide-bazterretan kabian zeuden zozoak eta txepetxak ikaratu. Udazkena bazan, berriz, pasadan zijoazten usoak desbideratuz, eiztariak mekauenka zituztela.

–Oiek ere oraintxe ezkondu bear ziten, ba; negu osoa aurretik edukita!

Denentzat feria onik ez.

Orrela iritsiko ziran baserrira ezkonberriak eta taldea. Zuzenean, mandioko maai aundira denak. Orduan ez zegoen koktelik. Ezta ere jende motelik. Nun, alako hotelik?

Ala, erasotzen zitzaion eztaibazkariari. Eta ez egun baterako. Txaala jan arte ezin, ba, etxera aldegin. Larunbata, igandea, asteleena...

Baiña orduan ez zuten oiukatzen “¡viva los novios!”, “¡viva!”. Baizik eta “gora gu ta gutarrak!”. Txapela biurrika jantzi, eta irrintziak ortik onerakoak. Teillatuak dardar egiteko modukoak.

Iruugarren egunerako, ala moduzko franko izango zan. Eskerrak sapaiko idi-manta eta belar pillari.

Txaala jan, dantzatu, musean egin, mandioko leiotik suziriak boteaz..., aiek bai eztaiak!

Aspaldiei ez diet
lagako aazten,
ez baldin banaiz beintzat
goitik beera naasten.
Oitura on aieri
zail da irabazten.
Leengo izaera gaur
ari naiz idazten,
atzo nola zan biar
jakin aal dezaten.

El Diario Vasco: 2006.11.09

Sua bear derrigor

Bai orixe: sua bear. Beti izan da suaren bearra, eta beti izango da. Naiz eta arriskutsua dan. Eta naiz beldur-ikara diogun, eta izango diogun.

Gauzarik onenak eta bearrezkoenak ere, neurritik pasa ezkeru, geiegitu ezkeru, edo gaizki erabili ezkeru, txarrak dira. Kaltegarriak dira. Eta pentsa suak egin lezazkeenak zenbateraiñoko okerra izango litezkeen, neurritik atera ezkeru.

Lagunik aundiena aizea du. Oiek biak elkarganutzen diranean, kontuz, mutillak, kontuz!

Sua bearrezkoa dala esanez asi naiz, eta orain arte berak egin lezazkeen okerrak aipatzea besterik ez det egin. Eta oraindik ere orretan jarraitu bearra daukat. Geroxeago asiko naiz onurak aipatzen.

Gure garai bateko baserri zaar aiek, ea zenbat diran suak eramanak. Zenbat familia geratu ziran etxerik gabe! Esaiezu aiei sua bearrezkoa dala. Begira nola diran gauzak.

Orain, leen baiño baserri gutxiago dago, baiña zoritxarrez orain ere tarteka entzuten da baserriren bat suak eraman duela. Tristeia benetan.

Mendi sail galantak ere badira suak erreak. Bai leen, eta bai orain. Tamalgarria bada ere, entzun izan degu norbaitek naita sutea eragin duela. Ori aundi samarra izango da. Baiña denetik omen gaude munduan. Jainkoak aparta.

Zenbat fabrika edo lantoki ere diran suak kiskaliak! Zenbat familiatako langilleak une batetik bestera geratuak diran lanposturik gabe!

Ez naiz asiko esaten zera: leerketak eta misillak millaka kilometrotan tira eta botoi bati kalka eta agindu “jo ezak ura eta erre ezak”. Alajaiña, nik eizean baiño apunteria ohea izango ditek! Ez, ez. Oiek beste munduko kontuak dira, eta jakintsuak kontu ditzatela.

Nortzuk dira, ba, suaren bearrezko alderdiak? Egon lasai, egon. Artu patxada. Badago astia, eta badago zer kontatua.

Manuel Lasarte bertsolari aundiak zioenez, errerotzan ere ikatzez egindako suarekin berotu eta urtutako burni salda bezelakorik ez omen da burni eranskiñak egiteko. Orra, ba. Lasartek esan bazuen, ez zan gezurra izango. Zenbat asto-perra eta ganadu-perra egin ote zuen, suarekin burniak bigunduta?

Bazterrak garbitzeko ere, sua bezelako elementurik bai ote da? Mendia iñoiz garbitu izan da suarekin. Orretarako, eguraldia aukeratu, bear diran neurriak egokitu. Gaur egun badauzkate orretarako aurrerapenak.

Baiña suarekin mendi-garbiketa egiteko girorik edo garairik onena, izoztearen ondorena. Jelak eta izotzak lurra arrotu egiten du; eta zakarra edo dana dalakoa, samurtu, kizkurtu, erre. Ez pentsa beroak bakarrik erretzen duela; baita otzak ere. Beraz, jelateak suaren lanari aurre-laguntza aundia egiten dio. Eta, orrela, lur garbia agerian duela geratzen da mendia.

Begira zer ezberdiña dan sute batek mendia erre edo suarekin mendi-garbiketa egin.

Ari gera, ari gera suaren alderdi onak azaltzen.

Geroni ere amaika lan on egiñak gera suarekin, arraiok ez badu. Pentsa garai batean gure soroak arto eta gari eta abar izaten zirala.

Gariak kendutakoan, galtzu-ondoa ganaduaarekin areatuta biltzen ziran soro-zakarrak. An-emenka pillak egin eta su

eman, ke zuri-zuria inguruetara zabalduz. Gero, arbia erein eta erne orduko nabarmenduko zan erreturak zein lekutan izan ziran. Lurrarentzat ez da erretura-ondoa bezelako ongarririk.

Eta berdin udatzenean, artoak etxeratu ondoren. Arto-zuz-tarrak pillatu eta erre. Gariak ereiteko, soroak garbi.

Eta leengo sukalde zaarretan zer zan printzipala? Sua. Oraingoetan ere bai. Etxebizitza bakoitzak du sukaldea. Ea noiztik datorren izen au: sukaldea, suaren lantokia. Labea bete egur eze egon izan zan iartzen, gero su biziagoa izan zedin. Obe, oillasko ederra baiño.

Aspaldiko amona zaar aiei galdetu ezkeru “sukaldean zer dituzu bi maiteenak?”, ziur erantzungo zutela: “leenengo, ume txikiak; eta gero, su ona”. Aiek, zerbait baiño geiago zekiten.

Baita ere tabakoari ematen zaion garrantzia. Ea, antziñako aitongandik eta orduko pipetatik asita, zenbat tabako erreko zan. Eta zenbat motatakoak. Porroa izenekoa ere ba omen da. Izan ere, gaur ainbeste izen berri! Tabakoa negozioa omen da, diru asko mugi arazten omen du. Nik baiño geiago erre ez balu iñork...

Au da nere galdera: tabakoa zertarako da, su eman ezean?

Leen ere lagun batek ala eskatu omen zion besteari:

–I, Xanti, emaidak papera, ire tabakoarekin zigarroa egiteko, pospolorik ez zeukat-eta.

Edozein erritako festetan ere, antziñatik datorren oitura da, uda-garaian beintzat: su-festak deitzen diegun suziri oiek txinparta dariela gora botatzea gauaz. Gaiñera, norgeiagokak daude gaur egun orretan ere: zeñek su politagoak atera. Arte-lan ederrik egiten dute, bai, suarekin! Baina aiei ere su eman bear.

Eta urteroko San Joan sua zer? Mutikoetako garaian, egun ura edo illunabar ura iristeko irrikaz egoten giñan, San Joan bezperako su erraldoia egiteko. Zeñek aundiagoa. Arrapatzen

genituen zakar guztiak an erretzen ziran. Illunabarreko amarrak aldean piztuko genuen dalako su ura, eta alako festarik!

Ingurumarietako baserri guztietan ageriko zan San Joan sua. Gero, suaren garra jeisten zijoan aiñean, asiko giñan suaren biran geure jolasetan, batzuk kantuan, besteak saltoka. Inguruetako suge, musker eta sugandillak uxa arazten genituen, alazankoa!

Zer egingo genukeen surik gabe?

Baiña infernuko sua omen da surik aulena: beti erretzen eta bein ere erretzen ez duena. Ala erakutsi ziguten guri gaztetxoak giñanean:

–Bai. Izan adi gaiztoa eta igarriko diok. Infernura joango aiz. Beti erretzen, beti sufritzen egon bearko dek.

Garai artako Elizak ori azaltzen zigun, beintzat.

Misioetara eta sermoietara joateko beldurrak. Apaiz eta fraile aundi aiek asten ziranean, pulpitura igota ukabilekin joaz eta pipi-autsak astinduz, zerua gora eta infernua beera, giro izaten uan, ba! Eliza bete jende, eskuekin petxuak joaz, “damu det, Jauna” eta “damu det, Jauna”.

Bai. Orain parre egingo dezue, baiña orduan sinistu arazi egiten ziguten onarentzat zerua eta gaiztoarentzat infernua zirala. Eta ainbeste su-konturekin eta ukabilkada pulpituari, atzetik ziriña irtetea ere ez zan arritzekoa izaten.

Baiña pixka bat dibertigarria ere izan bear du infernuak, gerora jakin degunez. Onako ipuin onek onela dio, beintzat. Uste det bertsolariren batek kontatua dala.

Senar-emazte bikote bat ba omen zan oso zintzoa eta elizkoia. Leenengo, emaztea il. Mari-alanbre bere izena. Andik pixka batera, disgustuz, senarra ere il. Ain elkar maiteak eta zintzoak izan, nunbait. Ala, senarra zerura joanda, galdetu du Mari-alanbre emazteagatik. Eta San Pedrok:

–Ez. Ez da gurean.

–Jesus, baiña nola ez, ura zan onarekin. Ez da posible, ez da posible.

San Pedrok, berriro:

–Bada or beeraxeago beste leku bat infernua deritzana. An galde ezazu.

“Ez da posible, ez da posilbe” esanez, an dijoa. Jo du infernuko atea, atera da Satanas.

–Aizu, emaztearen billa nabil, ez da emen egongo baiña.

–Pasa barrura. Begiratuko det listan.

Orrela zegoela, emakume batzuk an-emenka saltoka edo kanpan-bueltak egiten. Galdetzen dio Satanasi:

–Zergatik ematen dute salto-bira ori emakume oiek?

–Ori emengo legea da, emengo dibertsioa. Orrek esan nai du, munduan bizi ziranean, senarrak ez dakiela beste gizonekin zenbat aldiz jolastu zuten ainbeste salto egin bear dirala.

–Jesus, Maria! Nere emazte Mari-alanbre ez da beintzat emen egongo.

–Nola? Nola esan dezu izena?

–Mari-alanbre.

Liburuan begiratu du eta:

–A, bai. Sukaldean daukagu bentiladoretzat.

El Diario Vasco: 2006.11.29

Txiskua

Ikusiko dek
aita parrezka,
ama ere poz
atsegiñez.

Deitu det ba telefonotik, Martuteneko Angelu etxera. Baita aitona Joanito eta amona Maritxurengatik galdetu ere. Orretan gelditu bait nintzan beren seme Joanjorekin, Soriako mendietako eiztarien borda batean, orain dala gutxi.

Gure aldeko eiztari talde bat ango borda batean egoten da, uso-pasa garaian. Eta nik ere egun pare bat pasa nituen, gonbidatu gisa. Gauean, afaldu eta musean ari giñala suaren epelean, kontua atera zan garai bateko sagardo-ereitea eta oraingoa. Eta kupela edo ontzietan dagoen aldea eta abar.

Pasarte batean, onela zioen Joanjo Irizarrek, Martutenekoa eta garraiolaria bera (Gipuzkoa alde ontan ezagunak dira Irizar garraioak):

–Gure etxean, oraindik mantentzen da txiskua.

–Zer da ori, Joanjo? Ez det sekula entzun izen ori.

–Ori da kupela bat barrua erdian itxita bi zati dituen.

–Kontxo, kontxo! Jakin naiko nuke zerbait geiago berari buruz.

–Ori, gure aitak eta amak kontatuko dizue ondoena. Zoaz nai dezunean eta ondo artua izango zera.

Orretan geratu giñan.

Asieran nioena: ondorengo larunbat goiz batean ausartu nintzan, ba, telefonotik eupateko bat egitera.

- Bai, esan.
–Aitona Joanito al da?
–Baaai –bere aots gozoarekin.
–Nikolas naiz. Ola eta ola. Zurekin egon bearrean nago.
–Nai dezunean.
–Eta oraintxe joaten banaiz?
–Etxean gaude. Etorri lasai, gizona.
Ongi artua izango nintzala? Bai, orixe.

Badute soziedade moduko txoko polita, familiako billetek-eta egiteko, leen tolaarea zuten lekuan. An daukate dalako txiskua, bi urkatxoren gaiñean. Urka deitzen zitzaion sagar-patsaren zapalgarriak estutzen zituen azkeneko egur sendoari.



Joanito Irizar.

Argazkia: Mertxe.

–Jainko potoloa! Zenbat urte ote ditu onek?

–Auskalo –amona Maritxuk–. Gu txikiak giñanean orrela-
koa zan, eta gu zaartuta gaude.

–Argazkirako moduan daukazue.

Izan ere, bere gaiñean dauzka euskuarea, uztarria, akui-
llua, sega-potoa, artaburu batzuk, baratxuri sorta eta basaun-
tza baten buru-adarra. Bere kanilla zaarra ere bai, albo batean
beeko aldean. Oso beean, aurrean eta atzean, bere bi zuloak,
garbiketarako.

Barrua ikusteko, argi-bonbilla bat inguratu zidaten. Begi-
ratu nuen zulutik, eta ondo itxia erdian.

–Joanito, kupela banaka auek zergatik zuten barruko itxie-
ra ori?

–Begira. Alde bakoitzean, 1.765 litro kabitzen zituen. Or
dauzka goian bere zenbakiak.

–A, bai.

–Garai aietan, baso txikiarekin zerbitzen zan sagardoa.
Eta kupel osoa gastatzerako, mindu edo bizitu eta alperrik
galtzen zan. Erdian itxita, leenengo alde bat ustua eta gero
beste bat. Ori zan arrazoia erdian ixteko. Normalean, barri-
kak izaten ziran, eta ez zan arazorik izaten. Or ikusi dezun
itxitura ortan, kardia jartzen izaten zan zailla, itxiturako
azken egurra. Zu ere arotza izango zera, baiña ondo jarriko
ote zenuke?

–Kontrabandorik izan ezkeru, gordetzeko leku ederra or
barruan, Joanito.

–Zuk txantxetan esango zenuen, baiña gerra-garaian bage-
nuen onen bearra, e! Gauzak nunbait gorde bearra izaten geni-
tuen, ikusitakoa eramaten zuten garai aietan. Zer uste dezu
zuk? Gu ere pasatzekoak pasatakoak gera gero!

–Eta gizonik gordetzen al zan?

–Gorde bearrean edonor gerta zitekeen. Eta norbait orretara beartu ezker, gorde egiten zan. Ori ez zan pekatu. Orretxegatik bakarrik ere, uste degu merezi duela txisku au zaintzea.

–Bejondaizuela! Eta, Joanito, kanilla zergatik dauka alboan eta orren been?

–Ara. Esango dizut, ba. Or, kanillaren ondoan, nexka bat eseritzen zan silla batean, jendeari sagardoa zerbitzeko. Basokada sagardoak ematen eta kobratzen. Argatik dauka ain eroso jarria or been. Goiz partean, bost xentimoko basoa erabiltzen zan. Eta arratsaldean, amar xentimokoa.

Orduko xentimoak, noski.

–Sagardotegietako joan-etorria eta ibillera polita zan. Pentsa ezazu. Tranbian etortzen zan jende asko sagardotegietara, Martutenera. Donostia, Pasaia, Herrera, Egia, Loiola eta abarretik. Nola goiz, ala arratsalde. Sagardotegi-garaietan. Jendea ikusten zan noiznai bideetan zear, sagardotegi batetik bestera, taldean. Askotan kantari, gaiñera. Orduan ere baziran jakiñeko kantak. “Nor degu gerraren zale? / Leengo berari dale”, eta abar.

Nik, nereko: “Sagardotegi inguruetan, beti bertsolariak”.

–Gerora, baso bakarra zan goiz eta arratsalde: amar xentimokoa. Karrotea deitzen zitzaion barrika ere bagenuen tolarea geneukanak: barrika mear lezexka bat, karruan jarrita, sagardo-banaketarako. Sagardotegi denak ez bait zuten tolarea. Batzuk sagardoa saltzen zutenak ziran. Eta aietara banatzen zan karrotearekin.

–Eta nola eramaten zenuten gurdi-barrika ori: idiz ala zaldiz?

–Idi parearekin.

–Gure alderdian ere, antzeko oitura bazan.

–Martuteneko orduko sagardotegi batzuen izenak ere esango nizkizuke.

–Bota, bota.

–Antxarmone, Lazunene, Majondegi, Barkaiztegi, Aldakoenea-Egia, Metroa eta abar. Au ez dakit dakizun, Nikolas. Kontrolak egoten ziran sagardotegi inguruetan.

–Orduan ere bai?

–Bai. *Gaurdavino* deitzen zitzaien kontrolgune aiei. Kontrolak era batekoak edo bestekoak izaten ziran, bai. Ez, noski, orain Ertzaintzak-eta jartzen dituzten bezelakoak. Sagardoa zeramanari orrenbesteko bat kobratzen zioten. Xentimoak. Segun eta zenbat zeraman, ainbeste xentimo. Jakiña, ez ziran gaurko xentimoak.

–Alegia, zer: ardoa gorde eta sagardoa kobratu?

–Orduan ere alde guztietatik kentzen ziguten, gizona. Baiña jendea saiatzen zan Guardavinoetan aal zan xentimorik gutxien lagatzen. Gure tolaletik gertu ere, bazan oietako bat. Ortxe bertan, eun metrora.

Eta ondorengo kontakizun au gogoratzen zaio Joanitori.

“Emengo auzotar bat bazan: Joxemari. Gure laguna zan. Ba omen zijoan bein pitxarreko botilla sagardoz beteta eskue-tan zuela, eta Guardavinokoak:

–Zer? Nora zoaz aurrera, ordaindu gabe?

–Pitxarreko botilla ordainduko ote degu, ba; familiarako daramakit-eta.

–Emen, gutxi edo asko, ordaindu egin bear dala badakizu, Joxemari.

“Bai eta ez” aritu ondoren, berotu da gure Joxemari ori. Eta:

–Edanda tripan eramango banu ere, ordaindu bearko al nuke?

–Ez. Orduan ez.

–Bada, laster ezkutatuko degu, ba.

Jarri da petrillean eserita, eta bi edo iru tragotan ustu du pitxarreko botilla sagardoa.

Eta Guardavinokoak:

–Eta familiarako zer?

–Familiarako, ni.

Aaa! Orrelakoak ere bagiñan-eta.”

Itzaltzera dijoazen argibide auker guztiak eman zizkidan aitona Joanitok. Nola eskertu?

El Diario Vasco: 2006.12.22

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Gaztaiñak biltzen	19
Artzaintzat negu ona	22
Fedezko ibillerak	26
Neska-laguntzea eta txakil-ardoa	32
Jo degu sagarra	36
Garai bateko arto-ereite eta arto-zuriketak	41
Laiariak	45
Atsoen bisitak	50
Garai bateko Santa Ageda eskea	54
Labe-sua	58
Garai bateko ijitoak	63
Gari-lanak	68
Katxarrerokoak	73
Azeri-eskea	77
Lakaiurre	80
Oiartzun aldean	85
Aurtengo talo-jana	90
Errogtatik eta gaiñontzekoak	94
Agur pago motz aiei	99
Txikiteoak baiño leen, sagordotegiak Zarautzen	104
Ezkontza-bidaia laburra	109
Gari-jotzeak	113
Mandioko eskolak	116
“Lapuche” xaar ura	121
Elizako eskea	125

Leengo Gabonak	129
Beeko su zaarra	134
1956ko elurtea	137
Bijilia	142
Ardi-illezko koltxoiak	146
Berrogei kredo	150
Txantxangorria	154
Txori papar-gorri bat	158
Buruz ala astoz	165
Uztargilleak	168
Auzoetako aitona aiek	172
Baziran eta badira	179
Arrautzak prejitu nai	186
Sukaldeko leio zaarra	190
Aiek bai gaztak!	195
Aspaldiko Erramu Eguna	200
Oe batean jaioak	204
Komunio txikia	209
“I, galeper-jana diagu”	214
Pagoetako eguna	219
Txapela	224
Pasionistak omen ziran	228
Ika, zuka eta berorri	231
Elizakoak eta gorputz-bideak	235
Eklipse ura!	238
Ritxar artzaiari bisita	242
Pako belea	248
Zazpi duro eta txaketa	253
Oillategiko kontuak	257
Erloju zaar aiek	261
Marianoren kontuak	265
Karmen serora	270
Nere baitan	275

Perretxikuak	281
Atera ditut, ba, baimenak	286
Aiek bai eztaiak!	292
Sua bear derrigor	298
Txiskua	303

